Jakintza-arloa: Literatura

EUSKARARA ITZULITAKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA

FUNTZIOAK, ERAGINAK ETA ITZULPEN-ESTRATEGIAK

Egilea: **JOSE MANUEL LOPEZ GASENI**

Urtea: 2000

Zuzendaria: XABIER ETXANIZ ERLE

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-216-4

Hitzaurrea

Sarrera labur honetan 2000. urteko urtarrilean defendatu nuen doktore tesiaren azalpena eskaini nahi nuke, hasierako intuizioetatik azken emaitzetara.

Hasteko, argitu behar dut tesiaren gaia interes edo gogo pertsonalak bultzaturik hautatu nuela, azken urteotan euskal Haur eta Gazte Literaturaren esparruan zenbait lan, jatorrizko zein itzulitakoak, egina naizelako, alegia.

Demagun XX. mendeko azken hogei urteotan euskaratutako Haur eta Gazte Literaturan (HGL) bi kontu sumatu uste nituen: alde batetik, arlo horretako itzulpenetan ezohiko "askatasunez" jokatzen zela gehienetan; eta, bestetik, itzulitako HGLk euskaraz sortutakoan existitzen ez ziren saio literario bikain batzuk eskaintzen zituela.

Horrek guztiak eraman ninduen euskaratutako HGL aztertzeko eredu bat bilatzera. Aurrekariak, ordea, ez ziren oso ugariak: nazioartean 70eko hamarkadan hasi ziren horrelako gaiak ikertzen (Zohar Shavit, Denise Escarpit, Göte Klingberg), urte haietan Itamar Even-Zohar-ek garatutako ikuspegi polisistemikotik abiatuta; estatu espainiarreko ikerketak, berriz, bi hamarkada geroago hasiko ziren, eta horien artean azpimarratzekoa da Rosa Rabadán ikertzaile espainiarraren lanetan oinarrituta Marisa Fernández López-ek Leongo Unibertsitatean egindako doktore tesi bikaina, *Traducción y literatura juvenil* (1996), itzulpengintza eta HGL uztartzen baitzituen.

Ikerketaren helburuak zehazteko orduan, kontuan izan nuen euskaratutako literaturaren gaineko azterketa sistematikorik ez dagoela, zenbait itzultzailek bere itzulgaiei buruz egindako gogoetatik eta Xabier Mendigurenek egindako *Euskal itzulpengintzaren historia laburra* (1995) bezalako lan orokor edo "Orixeren itzulpengintza" (1991) bezalako lan monografikoetatik kanpo behintzat.

Arrazoi horregatik, eta HGL bezalako eremu murritz eta bazterrekoa aztertu nahi banuen ere, ikuspegi orokor edo historiko bat eskaintzeko beharra ikusten nuen, gerora etorriko diratekeen lan monografikoen aldez aurreko testuinguru gisa.

Ikuspegi hori gogoan, beraz, azterketaren helburuak termino hauetan formula daitezke: euskal HGLren arloko itzulpenak historikoki nola egin diren, nolako funtzioak bete dituzten eta jatorrizko produkzioarekin zer nolako harremanak izan dituzten argitzea.

Eta, helburu horien ondoan, honako lan-hipotesiak erabili nituen: 1) alde batetik, euskaratutako literaturaren funtzioak jatorrizko HGLk garai bakoitzean izan dituen behar espezifikoei erantzutea eta jatorrizko HGL hori eguneratzea izan direla; 2) itzulitako literaturak gai eta ikuspegi literarioen aldetik nolabaiteko ekarpenik egin diola euskal HGL bezalako sistema ahul eta gazte bati, bereziki 75etik aurrerako corpusean; eta 3) euskaratutako HGLn jokoan jartzen diren itzulpen arau eta estrategiak munduko beste HGL ahuletan erabiltzen direnen

antzekoak direla, hau da, itzulpenak moldaketa ugari onartzen dituen literatura mota batean txertatu direla.

Hala ere, hipotesi horiek egiaztatzeari ekin baino lehen, beharrezko ikusi nuen HGLren alderdi askoren azalpena egitea, hala nola, HGL zein baldintza historikoren pean sortu zen, sorrera horretan nolako garrantzia izan duen aho tradizioko literaturak, haur literaturak bere buruaz duen irudi kontraesankorraren azalpena, HGLn parte hartzen duten bitartekarien eta hartzaile bikoitzaren arazoa, HGL modernoa definitzen duten ezaugarriak, eta teorizazio mundu horretan dantzan dabiltzan HGLren definizio nagusiak eskaintzea.

Hurrengo lana, literatur itzulpengintzaz jardun duten korronte nagusien berri ematea izan zen, hau da, literatur teorien eta itzulpengintza orokorreko teorien bidegurutzean kokatu diren azterbideak: besteak beste, Pragako Eskolaren lanak eta harreraren estetikaren ekarpenak, literatura konparatua eta bere garapena izan den testuartekotasunaren ikuspegia eta, azkenik, literatur itzulpengintzaz propio aritu diren korronteak: *Translation Studies* direlakoen adar desberdinak eta aipatutako Even-Zohar-en Polisistemaren teoria.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Psikodidaktika programa

EUSKARARA ITZULITAKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA: FUNTZIOAK, ERAGINAK ETA ITZULPEN-ESTRATEGIAK

Jose Manuel LOPEZ GASENIk

Xabier ETXANIZ ERLE

Doktorearen

Zuzendaritzapean egindako Doktore Tesia

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau burutzen lagundu didaten pertsona guztiei, bereziki Xabier Etxaniz zuzendari, lankide eta adiskideari, emandako norabide eta gomendio guztiengatik, tesi hau egiten hasi baino lehendik ere. Baita Psikodidaktika Programari ere, era honetako lanei ateak zabaltzeagatik.

Dokumentazioaren alorrean, esker anitz Euskal Herriko Unibertsitateko Biblioteka Zerbitzuari, eta bereziki Esther Alvarori, era guztietako dukumentazioa toki urrunetatik ere eskuratzen laguntzeagatik; eskerrak, orobat, Sancho El Sabio Fundazioko langileei uda beroenetan ere eskainitako erraztasunengatik; mila esker Arabako Foru Aldundiko Kultur Etxeko Teresa Castrori, etengabeko liburu bilaketan egindako ahaleginagatik; eskerrak, *last but not least*, Joan Mari Torrealdairi, euskaratutako haur literaturaren datu-basea uzteagatik.

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Sailari ere eskerrik asko, ikerketa hau egiteko emandako laguntzagatik; eta, Sailaren barruan, Iñaki Aldekoari bere aholkuengatik eta Gerardo Mendazona administrariari, lan hau itxuraz aurkezten laguntzeagatik.

Gerardo Markuletari ere eskerrak, lanari egindako zuzenketengatik.

Mila esker, azkenik, Mariani, bere laguntza ordainezinik gabe lan hau ez baitzen posible izango, eta baita Martin eta Andoniri ere, tarteka-marteka eragindako etenengatik.

Eta ahaztu zaizkidan laguntzaile guztiei ere, eskerrik asko.

“Children’s books were always the scene of a battle between instruction and amusement, between restraint and freedom, between hesitant morality and spontaneous happinees”.

F.J. Harvey Darton

“A major problem in terms of quality is that relatively few children’s books receive critical attention, and even fewer translations”.

Ronald Jobe

AURKIBIDEA

SARRERA **11**

I HAUR ETA GAZTE LITERATURA KONTZEPTUAREN INGURUAN **13**

I.1. LITERATURA ZER DEN. **13**

I.2. HAURTZARO ETA GAZTAROAREN KONTZEPTUA. **16**

I.3. HAUR ETA GAZTE LITERATURA. **19**

I.3.1. HASTAPENAK. 19

I.3.2. JOHN NEWBERY: LEHEN EDITORE MODERNOA. 22

I.3.3. AHOZKO TRADIZIOKO LITERATURAREN BERRESKURATZEA. 23

I.3.4. HAUR ETA GAZTE LITERATURA AUTONOMOA. 24

I.3.5. HAUR LITERATURAK BERE BURUAZ DUEN IRUDIA. 26

I.3.6. HGLREN MERKATUA: HARTZAILE BIKOITZAREN ARAZOA. 28

I.3.7. DEFINIZIO SAIOAK. 32

I.4. BIBLIOGRAFIA AIPATUA **34**

II ITZULITAKO LITERATURAREN AZTERBIDEAK **37**

II.1. ITZULPENGINTZAREN TEORIA. **37**

II.2. LITERATUR ITZULPENGINTZAREN AZTERBIDEAK. **39**

II.2.1. OROKORTASUNAK 39

II.2.2. PRAGAKO ESKOLAREN LANAK ETA HARRERAREN ESTETIKAREN EKARPENA 40

II.2.3. LITERATURA KONPARATUA, INTERTESTUALITATEA ETA ITZULPENGINTZA 41

II.2.4. *TRANSLATION STUDIES* DIRELAKOAK 45

II.2.4.1. James S. Holmes-en gidaritza. 45

II.2.4.2. Talde lanaren garrantzia. 46

II.2.4.3. Gideon Toury-ren lan programatikoa. 47

II.2.5. POLISISTEMAREN TEORIA 48

II.2.5.1. Funtzionalismo dinamikoa. 49

II.2.5.2. Polisistemaren ezaugarriak. 49

II.2.5.3. Estratu kanonizatuak/kanonizatu gabeak. 50
II.2.5.4. Errepertorioa/testuak. 51
II.2.5.5.Kanonikotasun estatikoa/dinamikoa. 51
II.2.5.6. Lehen mailako/bigarren mailako errepertorioak. 52
II.2.5.7. Polisistema barneko eta polisistemen arteko erlazioak. 52
II.2.5.8. Literatur sistemaren kontzeptua. 53
II.2.5.9. Literatur (poli)sistemaren osagaiak. 54
II.2.5.10. Itzulitako literaturak literatur polisisteman betetzen duen posizioaz. 56
II.2.5.11. Literatur interferentziaren legeak. 58
II.2.5.12. Interferentzia menpeko literatur polisistemetan. 59

II.3. EUSKAL ITZULPENGINTZAREN HISTORIA. PERIODIZAZIOA. 60

II.3.1. JOANNES LEIZARRAGA. 60

II.3.2. LITERATURA ASZETIKO EUSKARATUA. 61

II.3.3. LARRAMENDI ETA BONAPARTEREN ERAGINPEKO ITZULTZAILEAK. 61

II.3.4. FORUEN GALERAREN ONDOKOAK. 62

II.3.5. 1970ETIK AURRERA: PROFESIONALIZAZIOA. 62

II.4. BIBLIOGRAFIA AIPATUA. 63

III EUSKARATUTAKO HGL-REN AZTERKETA: METODOLOGI ESKEMA BAT 67

III.1. ITZULITAKO LITERATURAREN ERAGINAK ETA FUNTZIOAK AZTERTZEKO METODOLOGIA. 67

III.2. ITZULPEN ESTRATEGIAK AZTERTZEKO METODOLOGIA. 69

III.3. AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA. 74

IV EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LIBURUEN AZTERKETA KUANTITATIBOA 75

IV.1. EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATUR POLISISTEMAREN DESKRIBAPENA. 75

IV.1.1. HASIERATIK 1900 ARTE. 76

IV.1.2. 1900-1940 URTEALDIA. 78

IV.1.3. 1940TIK 1960 ARTE. 80

IV.1.4. 1960-1980 URTEALDIA. 81

IV.1.5. 1980TIK GAUR EGUN ARTE. 85

IV.2. EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LIBURUEN AZTERKETA KUANTITATIBOA. 88

IV.2.1. EUSKAL HGL ITZULIA. DATU OROKORRAK. 89

IV.2.2. ITZULTZAILEAK. 91
IV.2.3. SORBURU HIZKUNTZAK. 93
IV.2.4. GEHIEN ITZULI DIREN EGILEAK. 97
IV.2.5. ARGITALETXEAK. 98
IV.3. SORBURU POLISISTEMA NAGUSIEN DESKRIBAPENA. 99
IV.3.1. GAZTELANIAZKO HGL SISTEMA. 100
IV.3.1.1. Hasieratik XX. mendea arte. 100
IV.3.1.2. Mende hasieratik Gerra Zibila bitartean. 102
IV.3.1.3. Gerraosteko panorama. 103
IV.3.1.4. Hirurogeiko hamarkadatik gaur egun arte. 104
IV.3.2. KATALANEZKO LITERATURA SISTEMA. 106
IV.3.2.1. Hasieretatik XX. mendea arte. 106
IV.3.2.2. Espainiako Gerra Zibila bitarteko aldia. 107
IV.3.2.3. Hirurogeiko hamarkadatik gaur egun arte. 110
IV.3.3. INGELESEZKO HGL SISTEMA. 116
IV.3.3.1. Hastapenetatik XX. mendearen hasiera arte. 117
IV.3.3.2. 1915-1945 aldia. 123
IV.3.3.3. 1945etik gaur egun arte. 125
IV.4. BIBLIOGRAFIA AIPATUA 131

V EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LIBURUEN AZTERKETA KUALITATIBOA 135

V.1. 1876-1935 URTEALDIA. 135
V.1.1. ITZULITAKO LIBURUEN EZAUGARRIAK. 135
V.1.2. URTEALDI HONETAKO ITZULPENEN FUNTZIO ETA ERAGINAK. 146
V.1.3. ITZULPEN ESTRATEGIAK. 149
V.1.4. BIBLIOGRAFIA AIPATUA. 163
V.2. 1936-1975 URTEALDIA. 166
V. 2.1. ITZULITAKO LIBURUEN EZAUGARRIAK. 166
V.2.2. URTEALDI HONETAKO ITZULPENEN FUNTZIO ETA ERAGINAK. 182
V.2.3. ITZULPEN ESTRATEGIEN DESKRIBAPENA. 189
V.2.4. BIBLIOGRAFIA AIPATUA. 205
V.3. 1976-1995 URTEALDIA. 208
V.3.1. ITZULITAKO LIBURUEN EZAUGARRIAK. 209
V.3.2. URTEALDI HONETAKO ITZULPENEN FUNTZIO ETA ERAGINAK. 244
V.3.3. ITZULPEN ESTRATEGIEN DESKRIBAPENA. 260
V.3.4. BIBLIOGRAFIA AIPATUA. 289

VI ONDORIOAK: EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LITERATURAK EUSKAL POLISISTEMAN IZAN DITUEN ERAGIN ETA FUNTZIOAK, ETA ERABILI DITUEN ITZULPEN ESTRATEGIAK 295

VII BIBLIOGRAFIA OROKORRA 299

VIII ERANSKINAK 317

VIII.1 LITERATUR BILDUMARIK GARRANTZITSUENAK 317

VIII.2 ZENBAIT ITZULTZAILEREN DATU BIO-BIBLIOGRAFIKOAK 345

VIII.2.1. LEHEN URTEALDIKO ZENBAIT ITZULTZAILERI BURUZKO OHAR BIO-BIBLIOGRAFIKOAK. 345

VIII.2.2. BIGARREN URTEALDIKO ZENBAIT ITZULTZAILERI BURUZKO OHAR BIO-BIBLIOGRAFIKOAK. 348

VIII.2.3. HIRUGARREN URTEALDIKO ZENBAIT ITZULTZAILERI BURUZKO OHAR BIO-BIBLIOGRAFIKOAK. 350

VIII.2.4. BIBLIOGRAFIA 352

LABURDURAK

HGL: haur eta gazte literatura.

SH: sorburu hizkuntza.

SL: sorburu literatura.

ST: sorburu testua.

XH: xede hizkuntza.

XL: xede literatura.

XT: xede testua.

ZE: zubi egokitzapena.

ZH: zubi hizkuntza.

ZL: zubi literatura.

ZP: zubi polisistema.

ZT: zubi testua.

SARRERA

Lan honen helburua, euskarara itzulitako HGLren *corpus*-a aztertu eta zenbait ondorio ateratzea da. Geure helburuetarako, liburu gisa argitaratutako obrak bakarrik hartuko ditugu aintzat, aldizkari eta egunkarietan plazaratutakoek azterketa berezitua merezi dutelakoan. Lan horri ekiteko, alde batetik, itzulpen horien kuantifikazioa eta sailkapena egin da: HGLren historia laburreko urtealdi bakoitzean zer, zenbat, zer hizkuntzatatik eta noren eskutik euskaratu den. Beste alde batetik, euskarara itzulitako literatura hori nolakoa den aztertzea da hurrengo helburua: hautaketarako irizpideak, itzulpen estrategiak eta literatura horren funtzioak. Eta, hirugarrenez, inportaturiko literatura horrek jatorriz euskaraz idatzitako HGLn izan duen eragina erakustea: jatorrizko literaturetako elementurik (gaiak, tratamendu literarioak, etabar) bereganatu ote den aztertzea.

Ikerketa hau justifikatzen duten arrazoietariko bat, euskal HGLren barruan itzulitakoa kuantitatiboki nagusia izatea da, eta, horregatik, azterketa berezituaren beharra ikusi dugu, tresna espezifikoak erabiliz. Hori burutu ahal izateko, beraz, hainbat oinarri eta tresna erabili da. Lehenbizi, ezin eraiki genezake itzulitako HGLri buruzko ikuspegi historikoa, aldez aurretik jatorrizko HGLren gaineko lan sendorik ez bagenu. Beraz, lan honen lehen oinarria Xabier Etxanizen *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia* (1997a) izeneko doktore tesia dugu, eta harekiko erreferentziaz osatuko dugu geure lan hau. Itzulpengintzaren oinarriak ere erabiliko ditugu, horien artean Euskal Herrian egundoko lana egin duen Xabier Mendiguren Bereziarturen obrak; nazioartean, berriz, konparatisten lanak eta bereziki interesgarria iruditzen zaigun “Manipulation School” delakoaren ekarpenak; eta, azkenik, literatur sistema desberdinen arteko elkarreraginak ulertzen eta sailkatzen lagunduko digun

literatur teoria bat: Itamar Even-Zohar irakasle israeldarrak laurogeiko hamarkadan zehar formulatutako “Polisistemen teoria”, hain zuzen ere.

Corpus-aren azterketari dagokionez, obren jatorriari, euskaratzaileei eta argitaletxeei buruzko kuantifikazio estatistikoak egin ondoren, itzulpenen jatorrizko hizkuntza nagusietako literatur sistemen egoerak aztertuko ditugu, ikuspegi historiko labur baten bitartez. Hori egin eta gero, itzulitako liburuen eta itzulpenen beren ezaugarrien berri emango dugu, eta ondoren euskaraz idatzitako HGLn nola txertatu diren aztertu.

Abiapuntutzat darabilgun hipotesia hauxe da: HGL oro har hartuta nahikoa fenomeno berria izanik, jatorriz euskaraz idatzitakoa are berriagoa da eta, beraz, unean-unean sortu diren beharrei erantzuteko testuak bere baitan aurkitu ez dituenean, testu horiek inportatu eta euskaratu egin dira. Eta kanpoko literatura hori, ustez zekarren prestijiozko estatusa dela eta, imitatzeko eredu eta kanon bihurtu ahal izan da euskal HGLrentzat. Beraz, argitu behar dugun kontua da, itzulitako literaturak noraino laguntzen duen eredu berriak finkatzen gurea bezalako gizarte elebidun batean.

Bigarren hipotesi gisa, euskaratutako HGLn erabiltzen diren itzulpen estrategiak munduko beste HGLetan erabilitakoen parekoak izatea espero dugu, hau da, egoera bakoitzak eragindako testu aldaketa ugari onartzen dituen literatura mota bat, bere *status* apala dela eta.

Jakin badakigu hautatu dugun ikerkuntza arloa oso marjinala izan dela jarduera akademikoaren eremuan. HGL oraintsu arte gutxietsita egon bada, arlo hori itzulpenen ikuspuntutik aztertzea are harrigarriagoa irudi dakioke norbaiti. Hala ere, erakutsiko dugun bezala, gai horien inguruko azterketak gero eta ugariagoak dira. Baita beharrezkoak ere, Psikodidaktika dotorego-programa berri samar honen barruan eta, zehazkiago, Literaturaren Didaktikaren alorrean.

I
HAUR ETA GAZTE LITERATURA KONTZEPTUAREN INGURUAN

Honelako lanetan egin ohi denez, lehenengo zeregina aztergai dugun zer hori definitzen saiatzea da. Aldez aurretik iragarri behar da, ordea, zeregin hori aski nekeza izango dela. Izan ere, "literatura" bezalako tradizio luzeko terminoak oraindik eztabaidak eragiten baditu, literatura horren edozein mugaketak arazoa areagotu egingo du ezinbestean. Ondoren, "haur eta gazte" diogunean ere, zertaz ari garen argitu beharko genuke: kategoria horiek unibertsalak diren, betidanik existitu diren, nork ezarri dituen, eta abar. Eta, azkenik, "haur eta gazte literatura" deituratzat zer ulertzen dugun ondorioztatuko dugu. Izan ere, HGLren izaerari buruzko eztabaidetan bi ikuspegi azaldu izan dira: ikuspegi "literarioa", hau da, HGL helduen literatura neurtu eta baloratzeko erabiltzen diren estandarren arabera aintzat hartu duena (eta, ondorioz, irizpide horien araberako "liburu onen" zerrenda kanonikoak osatu dituena); eta "haur eta gaztearen ikuspegia" hobetsi duena, hots, irakurleria berezi horrek gogokoen dituen liburuez osatutako corpusa.

I.1. Literatura zer den.

Sarrera moduko honetan, ez da gure helburua literaturaren definizio bat eskaintzea, literatura deitzen dugun horren ezaugarri batzuk eskaintzea baizik. Hasteko, "literatura" terminoa ikuspegi desberdinetatik definitu ohi da: lehenbizi, kultura arauetan oinarriturik. Horren arabera, une historiko bakoitzean esanahi jakin bat hartu du, Aguiar e Silva-k (1972:13-14) dioskun bezala: garai bateko literatur produkzioaren multzoa ("gerra osteko literatura");

jatorria, gaia edo hartzaileagatik bereizten diren obrak ("literatura beltza", "haur literatura"); gai jakin bati buruzko bibliografia ("poesia erromantikoari buruzko literatura"); erretorika edo faltsukeria ("esaten ari zareten guztia literatura da"); elipsia eginez, literaturaren historiaren ordez; metonimia eginez, literaturaren historiari buruzko liburua; literatur fenomenoaren ezagutza organiko oro ("literatura konparatua", "literatura orokorra").

Bigarren ikuspegia, literatura izeneko materialak dituen berezko ezaugarrien araberakoa da. Ezaugarri horien artean, autonomia semantikoa izango genuke, hau da, hizkuntzaren beraren baitan eraikitako diskurtsoa osatzeko duen gaitasuna, kanpoko errealitatearen sostengurik gabe; edota konnotaziorako joera, hots, irakurketa maila bat baino gehiago eskaintzeko duen ahalmena, bere zeinu linguistikoen eduki logiko eta unibokotik harantzago. Mukarovsky-k dioenez:

> El lenguaje poético no es, pues, una variedad del lenguaje standard. No obstante, esta circunstancia no niega la estrecha relación existente entre ellos, relación que consiste ante todo en el hecho de que el lenguaje standard sirve de fondo al lenguaje poético, fondo sobre el que se refleja la deformación estéticamente intencional de las formas lingüísticas del idioma, es decir, la violación intencional de la norma (Mukarovsky, 1977:315).

Ezagunak dira, bestalde, Formalista errusiarrek proposaturiko ezaugarriak: literaturtasuna, arrozketa, funtzio estetikoa, eta beste.

Eta, hirugarrenik, hartzailearen arabera aztertu ohi da literatura. Horren berri ematen digun teoria, 1967tik aurrera Konstantzako Unibertsitatearen inguruan sortutako Harreraren Estetika (Rezeptionsästhetik) izenekoa da. Korronte honen aitzindariak Hans Robert Jauss eta Wolfgang Iser dira. Lehenengoaren helburuetariko bat "harreraren historia" eraikitzea da; bigarrenak, berriz, "efektuaren estetika" garatzea du helburu.

Horretarako, "igurikipen horizontea" eta "kodeak" bezalako tresnez baliatuz, Jauss-ek ertiak historian zehar izan duen funtzioa aztertu du (1989:217-250). Kodeen bidez, garai jakin batean gerta

daitekeen harrerarako igurikipenen sistema ezartzen da; horrela, literaturaren izaera historikoa azpimarratzen da. "Igurikipen horizontea", berriz, hauxe litzateke: literatur testu baten aurrean irakurleak izan ditzakeen igurikipenak, irakurlearen garaiko baldintza soziokulturalek batetik, eta irakurle horren aurreko irakurketek (tradizioaren ezagutza) bestetik mugatutakoak.

Testuek, orobat, irakurketa erregimen desberdinak izan ditzakete, irakurlearen asmoen arabera eta garai bakoitzean indarrean dauden arau estetikoen arabera. Ellis-en aipua erabiliz, Hunt-ek gogoeta hau egiten du:

> "Literary texts are not defined as those of a certain shape or structure, but as those pieces of language used in a certain way by the community". This use is that *the text is not taken as specifically relevant to the immediate context of its origin*. That is, the text is used aesthetically, not practically. Therefore, text may *become* literature, may be used in different ways. Diaries and letters, for example, become literature by virtue of being read by an audience for whom they were not intended and for a different purpose (Hunt, 1991:53).

Literaturaren definizio ugari egon arren, Jeremy Tambling-ek amaierarik ez duen zirkulutzat deskribatzen du:

> The category of "literature" cannot be held to have any essential meaning: there is no body of writing that "ought" to bo studied as such, as the repository of "cultural values" of important traditions...
>
> To say, "we know what literature is", and then to mention some famous names —Shakespeare, Milton, Wordsworth— means that we work in a circle: we know what literature is because we have these writers, and the writers set up an imaginary standard where literature is defined in relationship to them. (Fernández Lópezek aipatua 1996:27).

I.2. Haurtzaro eta gaztaroaren kontzeptua.

Ezin da HGLz hitz egin "haurtzaroa" eta "gaztaroa" terminoak izaera soziologikoki berezituarekin existitu baino lehen. Haurtzaroa eta gaztaroa ez baitira betidanik existitu diren kontzeptuak. Berez, XVII. mendea arte, haurra pertsona heldugabetzat hartua izan da, hau da, helburua zen pertsona izate horretan, artean gabezia nabarmenak zituen izakitzat. Aurreko mendeetako kontzepzio teologikoen arabera, gizakiaren bizitza naturako beste edozein izakirenarekin parekatzen zen, hau da, soil-soilik jaio, bizi eta hil egiten zen. Ikuspegi horren barruan ez zegoen tokirik haurtzaroarentzat.

Beraz, hilkortasun tasa handiak eta bizi baldintza gogorrak gainditzen zituzten umeek helduen bizimoduan parte hartzen zuten, helduak bezalakoak ziren jantzi, lan eta aisialdi aldetik, eta inork ez zuen uste behar bereziak izan zitzaketenik. Hauxe dio Robert Darnton-ek Erregimen Zaharreko nekazarien bizimoduari buruz:

> Toda la familia se amontonaba en una o dos camas y se rodeaba de ganado para mantenerse caliente. Por eso los hijos se volvían observadores participativos de las actividades sexuales paternas. Nadie los consideraba criaturas inocentes, ni la infancia se consideraba una etapa distinta de la vida, claramente distinguible de la adolescencia, la juventud y la edad adulta por el estilo especial de vestir y la conducta. Los hijos trabajaban junto con sus padres tan pronto como podían caminar, y se unían a la fuerza de trabajo adulta como peones, sirvientes y aprendices tan pronto como llegaban a la pubertad (Darnton, 1987:36).

Esandakoa argi agertzen da aipatutako mendea arteko haurraren irudikatze artistikoan: Erdi Aroko ertian haurra ez zen existitzen, eta, XIII. mendetik aurrera irudikatuta agertzen hasten denean, errealitatearekin zerikusirik ez zuten era batzuetan gertatu zen: hasiera batean, gizon gaztearen itxurako aingeru moduan; ondoren, geroagoko ertiarentzat eredu izango ziren Jesus ume gisa, edota Amabirjina gaztearen eran; erti Gotikoaren garaian, berriz, hirugarren ume mota ageri da: ume biluzia, heriotza eta arimaren alegoria bezala. XV eta XVI. mendeetako ikonografia erlijiosoak

aipatutako bideari jarraituko zion. Eta ordutik aurrera pintura zibiletan agertzen hasten denean, gizon-emakume txikien itxuran agertuko da: proportzioak, jantziak, jarrerak,... gizon-emakume helduei zegozkienak berak (Ariés, 1987).

XVII. mendetik aurrera, ordea, Errenazimendutik eratorritako gizakiaren kontzeptuak, denboraren antzemate desberdinak eta jaiotze tasaren jaitsierak haurraren kontzeptua aldatzen lagundu zuten. Orduan hasi zen haurtzaroa giza garapenaren berezko alditzat ulertzen eta, ondorioz, haurrei beren behar bereziak onartzen (jostailuak, arropak). Umeei aingeruen ezaugarriak suposatzen hasi zitzaien: xalotasuna, zintzotasuna; eta garaiko pedagogoen artean Jainkoarengandik hurbil zeudelako ustea zabaldu zen. Uste hori garaiko ikonografiak indartu zuen: ordua arte, umeak Jesus jaioberria eta aingeruak irudikatzeko erabiltzen ziren soilik. XVII. mendetik aurrera, hala ere, umeak ikonografia ez-erlijiosoan agertzen hasi ziren, "putto" edo ume biluziaren erara. Ikonografia hori zabaldu eta nagusitu zen neurrian, haurtzaroaren izaera berezia ere zabalduz joan zen gizartean. Horrela, piskanaka, umeak helduen atsegin eta erlajazio iturri bilakatuz joan ziren. Ikuspegi berri hori familiartean zabaldu zen lehen-lehenik: gurasoei atsegingarriak zitzaizkien umeak; neurri batean, etxeko animaliak balira bezala jokatzen zuten.

Aurreko uste hori gizarte osora zabaldu zenerako, helduen jokabidea onbideratu nahi zuen ikuspegi berri bat garatzen hasi zen, elizaren inguruko moralista eta pedagogoen artean: haurtzaroa aldi berezia zen, bai, baina haurrak, xaloak eta garbiak izanik, eta Jainkoarengandik hurbil zeuden izakiak izanik, helduen grinetatik urrun gorde behar ziren. Horrela, haurrek hezkuntza eta diziplina behar zuten beren ongizate izpiritualerako, eta, ondorioz, haurrentzako bereziak ziren liburuen beharra sortu zen. Shavit-ek (1986:7) dioenez:

> In the same way that people assumed a child needed different dress, toys, and games, it was also assumed that a child reader differed from the adult, both in his capacity to comprehend, as well as in his educational needs.

> Accordingly, it was essential that the texts produced for him should respond to his needs and capacities.

Horrela iristen gara XIX. mendera: helduek haurrekiko zuten helburua goian aipaturiko ongizate izpirituala izan zen. Hezkuntza sistema indartu egin zen, eta horrekin batera haur liburuak gero eta garrantzitsuagoak bihurtu ziren.

Nerabezaroaren kontzientzia noiz sortu ote zen, berriz, ez dago hain garbi. Nahiz eta eskolaratzearen iraupenak haurtzaroaren luzea adierazi dezakeen, horri dagokionean ez zegoen homogeneotasun handirik. XVII. mendean eskolara joatea ez zen klase baten monopolioa; sexu batena, ordea, bai. Mutilak ziren eskolara joaten ziren bakarrak, eta neskak etxeko zereginetan trebatu bezain laster ezkontzeko moduan zeuden, kasu batzuetan, hamabi urterekin ezkontzen zirelarik. Mutilak, berriz, eskola utzi eta berehala armadara joaten ziren, hamabi urtetik aurrera orobat. Adin horren inguruan koka daiteke, beraz, haurtzaroaren bukaera. Eta, ikusten denez, haurtzarotik heldutasunera iragaten ziren zuzenean.

Nerabezaroa bizitzaldi berezi gisa, beraz, beranduagoko kontua da, XX. mendeari dagokio. Ariès-en arabera:

> El primer tipo de adolescente moderno es el Sigfrido de Wagner. La música de Sigfrido expresa por primera vez la mezcla de pureza (provisional), fuerza física, naturismo, espontáneidad, alegría de vivir que hará del adolescente el héroe de nuestro siglo XX, el siglo de la adolescencia (Ariès, 1987:53).

Gaur egungo hezkuntza sisteman oinarriturik, aldi horren luzera ondoriozta daiteke: hamabi eta hamazortzi urte bitartekoa. Juan Cervera irakaslearen iritziz, aldi horrek honelako ezaugarriak ditu:

> Al llegar a la adolescencia, la familia ya no se ofrece como un reducto donde el muchacho es acogido con cariño, ni es el puerto seguro que se teme perder cuando se es niño. Los miedos y las angustias que el niño padece ante la posibilidad de verse apartado de la familia o privado de ella, o ante la sospecha de no ser bastante querido, ahora cambian de signo. Ahora se levanta la crítica ante la propia familia e incluso ante los propios

> padres que ya no son plena garantía, sino que se transforman para él en motivo de inquietud. El adolescente se siente incomprendido, experimenta conatos de rebeldía y no sabe en ningún caso ni cómo le sucede esto ni por qué. Puede llegar incluso a avergonzarse de sus propios padres (Cervera, 1991:144).

I.3. Haur eta gazte literatura.

I.3.1. Hastapenak.

HGLren hasieretan era askotako liburu didaktiko eta moralak daude. Otoitz egiteko liburuak, alfabetoa ikastekoak, alegia zaharrak, santuen bizitzak... Han-hemenka argitaratutako obrak ziren, haien arteko batasun bakarra erlijio ortodoxiaren barruan umeei oinarrizko ezagutzak eskaintzea baitzuten.

XVII. mendean aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen haurren formakuntza ereduetan: egokitutako lanbideko arduradunaren laguntzaile-ikasketetatik eskola-sistemara iragan zen. Sistema berriak, ordea, ezinbestekotzat jotzen zituen liburuak ikasketa prozesurako, haurrentzako liburu egokien beharra eraginez. Lehenengo haur liburuak, beraz, hezkuntz sistemari lotu-lotuak jaio ziren. Esaterako, lehenengo liburu ilustratua, J. A. Comenius-en *Orbis Sensualium Pictus* (1658) izenekoa (Hürlimann, 1968:57), marrazkien bidez ama hizkuntzatik abiatuta latina ikasteko tresna izan zen. Liburuak arrakasta handia lortu zuen, eta XIX. mendea arte berrargitaratu zen.

XVIII. mendean haurtzaroari zuzendutako hiru literatur eredu sortu ziren: eredu moralista, Rousseau-ren eraginez (pertsonaia jakin batzuk zituena —dena dakien aita edo irakaslea, ia ezer ez dakien umea, etabar—, eta elkarrizketa moduan antolatua); bigarren eredu bat, Rousseau eta Lockeren ikuspegietan oinarrituta, informatiboa edo instruktiboa (fikzioz mozorroturiko geografia, historia eta beste hainbat gairi buruzko testuliburu antzeko zerbait; izugarrizko arrakasta izan zuen, eta gaur egun ere sarritan erabiltzen da); eta hirugarrena eta garrantzitsuena, animalien

ipuinak (alegien eta maitagarrien ipuinen artekoa, animalien jarreren bidez haurrak bere nortasuna eraikitzeko pentsatuak), Lockeren ikuspegiari jarraikiz. Azken batean, badirudi HGL ororen sorreran eredu historiko bera errepikatzen dela, nazio zein denbora mugez harantzago. Zohar Shavit-ek dioenez (1986:134):

> From the instances of the Puritans in England and America, or the followers of the Jewish Enlightenment in Germany 150 years later, it may be concluded that their ideology formed the basis of canonized children's literature. They all shared the view that in the process of their education, children needed books, and that those books must differ from adult books principally through their fundamental attachment to the educational system itself.
>
> Thus, it was through the framework of the educational system that a canonized children's system began to develop; at the same time, it was the need to combat popular literature from which the stratification of the whole literary system emerged.

Aurreko mendearen bukaera aldera gertatutako "Iraultza Loriatsuak", 1688an, gaur egun arte iraun duen parlamentu-sistema ezarri zuen Ingalaterran. Horren ondorioz, XVIII. mendean zehar klase ertaina nagusituz joan zen; jende multzo horrek liburuak irakurri ahal izateko dirua, denbora eta hezkuntza izatearekin batera, etxean egoteko eta haurrei tratamendu egokiagoa emateko aukera ere izan zuen. Literaturaren garapena nobelaren agerpenean gauzatu zen, eta lehenago ipuinak irakurtzen zituzten helduak nobelekiko interesa azaltzen hasi ziren. Libre geratu zen hutsune hori haur eta gazte liburugintzak beteko zuen aurrerantzean.

Beste alde batetik, nobelagintza sortu berriak izan zuen arrakastaren ondorioz, irakurlego zabalago batek irakurri ahal izateko kalitate apaleko bertsio merkeak, *chapbook* izenekoak, egiten hasi ziren, testuak laburtuz eta zenbait egitura erraztuz: moldaketak edo egokitzapenak dira. Hasiera batean, egokitzapen horiek kultura maila apaleko irakurle helduentzat egin baziren ere, haurrak ere horietaz baliatzen hasi ziren. Horixe da HGL bereganatuaren fenomenoa, hau da, irakurlego gazteak bere egin zuen jatorriz beretzat idatzi ez zen literatura mota bat.

Chapbook direlakoen fenomenoak XVIII. mendean lortu zuen arrakastarik handiena, batik bat, esan dugun bezala, jende apalaren eta haurren artean. Salneurri txikia eta bestelako irakurketa gehiegi ez izatea izan ziren arrakasta horren arrazoietariko batzuk. Liburuska horien iturriak kordel-pleguak, abenturazko kontakizunak, istorio harrigarriak, goiko atalean aipatutako liburuak eta beste ziren. *Chapbook* idazleek, beren aldetik, luzera jakin batera moldatu behar zituzten kontakizun horiek, testuak moztuz edo luzatuz, edota ilustrazioak gaineratuz (hauxe da haur liburuetan ilustrazioak agertzen diren lehen aldia). XVIII. mendearen erdialdean liburuxka horiek debekatu nahi izan ziren, eta alde guztietatik aurre egin zitzaien: bai horien aurkako propagandaren bidez, bai horiek alternatiba izan zitezkeen bestelako irakurketak eskainiz (horrela haur literaturaren garapena bultzatuz). Irakurketa alternatibo horiek *chapbook*-en ezaugarri batzuk erabiltzen ahalegindu ziren, hala nola formatoa, serializazioa edo antzeko izenburuak; guztiz kaltegarritzat jotako ipuin tradizionaletatik ere edan zuten, haragi-hezurrezko pertsonaien ordez pertsonaia abstraktuak (alkoholzaletasuna, bidegabekeria) erabiliz. Modu horretan, HGLren estratifikazioa gertatzen hasi zen (Shavit, 1986:165).

Haurrek bereganatutako literatura horretan, bestalde, gaur egun klasikotzat ditugun obra asko zeuden: XVIII. mendean, D. Defoe-ren *Robinson Crusoe* (1719), berehala abenturazko liburu paradigmatiko bilakatuko zena, "Robinsonadak" izeneko ondorengoekin: hauen oinarrian, liburua naufragiora eta uharteko egonaldira mugatzen duten egokitzapenak daude (Genette, 1989:293); eta J. Swift-en *Gulliver's Travels* (1726), haur eta gazteentzako kontakizun tradizionaletako elementu ezagun batzuk erabiltzeagatik famatu zena ("mundua alderantziz", erraldoia epotxen lurraldean, etabar); egia esanda, horixe da, Liliputerako bidaia, haur literaturatzat hartu den zati bakarra (Colomer, 1998:34). Hurrengo mendean, berriz, H. Melville-ren *Moby Dick* (1851), bere bertsio laburtuan, jakina, liburuaren luzera eta deskribapen ezin zehatzagoak edozein haur izutzeko modukoa baita; R.L. Stevenson-en *Treasure Island* (1882), itsas-giroko eta piratei

buruzko nobelen eredua; eta J. Verne-ren zenbait nobela, besteak beste, *Cinq semaines en ballon, voyage de découvertes* (1863), *Voyage au centre de la Terre* (1864), *De la Terre a la Lune* (1865), zientzia-fikziozko kontakizunen aitzindaritzat jotakoak; eta E. Salgari-ren *La tigre della Malesia* (1896) eta *Il corsaro nero* (1899). Badirudi garaiko editoreek "bereganatze" horretan zerikusi handia izan zutela; izan ere, aipatutako obra horiek, adierazi den bezala, haurrei eskuragarria gertatzen zitzaien moduan argitaratu ziren.

I.3.2. John Newbery: lehen editore modernoa.

Chapbook haietako zenbait elementuz baliatuz, John Newbery editorea izan zen HGL argitaratuz arrakasta lortu zuen lehen editorea. Londresen ireki zuen liburudenda-argitaletxe txikian gutxienez hogeita hamar liburu idatzi, argitaratu eta saldu zituen Newberyk hogeita bi urtetan zehar. Argitaratu zuen lehen liburua *A Little Pretty Pocket-Book* (1744) izan zen, XIX. mendearen erdialdea arte edizio ugari ezagututakoa.

Newberyren liburuak burgesiari zuzendutakoak ziren; eta baliteke burgesiarik gabe, lehen editore modernoak egin zuen dirutza hutsaren hurrengo bihurtu izana. Horixe baitzen produktu berriak bilatzen zuen eroslea: irakurtzen jakiteko moduko kultur mailakoa, irakurri ahal izateko moduko ekonomi mailakoa, eta *chapbook* direlakoak gaindituz produktu prestijiatuagoa eskatzen zuen burgesia. Edonola ere, liburu berri horiek, *chapbook*-etako erakargarritasuna galdu gabe, gizartearen hezkuntz norabideekin bat etorri behar zuten. Iragartzen zuen helburu nagusia, Lockeren teoriekin bat etorriz, dibertimendua zen. *Chapbook*-etatik hartutako beste elementua ilustrazioa izan zen, Newberyz geroztik haur liburuetan ezinbesteko bihurtu den elementua.

I.3.3. Ahozko tradizioko literaturaren berreskuratzea.

Tradiziozko literatura ere irabazitako literatura izan zela esan daiteke: Afanasiev-ek fideltasun handiz bildutako ipuin errusiarrak, Perrault-ek eta Grimm anaiek jaso eta era batera edo bestera itxuraldatutako ipuin tradizionalak, eta Andersen-ek tradizioan oinarrituz sortutako ipuinak ere, helduen artean elkarri kontatzekoak ziren:

> Du Fail hizo la primera descripción de una importante institución francesa, *la veillée*, reunión nocturna junto a la chimenea, donde los hombres reparaban sus herramientas y las mujeres hilaban mientras escuchaban los cuentos que registrarían los folcloristas 300 años después, los mismos que tenían ya siglos de antigüedad (Darnton, 1987:24).

Hala ere, idatziz jaso zirenetik badirudi haurrei zuzentzeko nolabaiteko nahia egon dela. Areago, entzule-irakurle berriak jasotzeari esker iraun dute bizirik gizarte modernoan (Colomer, op. cit.:50). Horiek ere, beraz, HGL irabazia izatera pasatu ziren.

Literatura hori, ordea, gutxietsita eta baztertuta egon zen bolada luze batean. Maitagarrien ipuinak eta fantasiarekin zerikusia zuen guztia baztertu egiten zen, haurren nortasunaren garapenerako kaltegarriak zirelakoan. Erromantizismoaren etorrerarekin, ordea, XIX. mendearen hasieran, nazionalismoen indartzearekin batera tokian tokiko herri literaturak berreskuratzeko grina piztu zen. Ordukoak dira Brentano eta Von Arnim-en, Grimm anaien eta Andersenen ipuin bildumak. HGLren ikerlaria den Román L. Tamés-ek dioenez:

> En la pregunta por el origen del cuento, el siglo XIX alemán, en su primera mitad, creyó en las fuentes populares de toda instutución social. En el alma colectiva, Volkgeist, hipóstasis romántica sobre la que se fundamenta la comunidad (...) El cuento sería para Herder "instituciones, creencia y sabiduría intactas", la epopeya, la suma de cantos breves del pueblo. Porque éste, el alma colectiva, es siempre la última referencia. El poeta es apenas boca de la comunidad creadora. Como veremos más adelante, para Jakob Grimm la religión, el lenguaje y por tanto la epopeya y el cuento popular tienen un mismo

> origen sobrenatural, de una fuente primera divina (Tamés, 1990:22-23).

XIX. mendearen erdialdean, nobelagintzaren prestigiatze eta indartzearekin batera, herri kontakizunak "emakume eta umeentzako" irakurgai mota zela erabaki zen, "benetako" literatura irakurtzeko gai ez zirelakoan (Colomer, ibidem). Orduan hasi ziren ipuin tradizionalak HGL egokitzat onartzen.

I.3.4. Haur eta gazte literatura autonomoa.

XIX. mendearen hirugarren herenetik aurrera, eta XX. mendean sartuta, haur eta gazteentzat bereziki idatzitako literatura garrantzitsua agertzen hasten da, literatura kanonikoa dei genezakeena. Kanonikotasunaren kontzeptua aztertzeko orduan, Harold Bloom honela mintzatzen da aztertutako idazle klasiko batzuei buruz (Bloom, 1996:3):

> With most of these twenty-six writers, I have tried to confront greatness directly: to ask what makes the author and the works canonical. The answer, more often than not, has turned to be strangeness, a mode of originality that either cannot be assimilated, or that so assimilates us that we cease to see it as strange (...) When you read a canonical work for a first time you encounter a stranger, an uncanny startlement rather than a fulfillment of expectations.

Horixe gertatzen da, esaterako, ingelesez, Lewis Carroll-en *Alice's Adventures in Wonderland* (1865) eta *Through the Looking-Glass* (1871), HGLren garapenean jomugatzat hartutako obretan; eta baita Mark Twain-en *The Adventures of Tom Sawyer* (1876); R. Kipling-en *The jungle book* (1894), Frank L. Baum-en *The Wonderful Wizard of Oz* (1901), J. M. Barrie-ren *Peter Pan and Wendy* (1906) izenekoetan ere; alemanieraz, berriz, Wilhelm Busch-en *Max und Moritz* (1865), Erich Kästner-en *Emil und die Detektive* (1928); italieraz, C. Collodi-ren *Le avventure di Pinocchio* (1883).

Euskararen inguruko hizkuntzei dagokienez, ia mende bat gehiago itxaron behar izan zen aurrekoen mailako lanen bat

ezagutzeko. Espainian, José María Sanchez Silva-ren *Marcelino Pan y Vino* (1953), eta Frantzian, Saint-Exupéry-ren *Le Petit Prince* (1943), Jean de Brunhoff-en *L'histoire de Babar* (1931), edo Hergé-ren *Tintin* (1929) eta André Uderzo eta Goscinnyren *Asterix* (1961) komikiak.

Edonola ere, errealismo eta fantasiaren arteko tirabirak bizi izan dira autonomo deitura eman diogun aldi honen barruan. Esan dugun bezala, XIX. mendeko azken herena arte fantasia ez zen onartua izango: ordukoak dira Carroll, Collodi eta Barrie-ren aipaturiko obrak, besteak beste, harik eta, gerrarteko aldian nagusitasuna bereganatu zuen arte: *Mary Poppins* (1934), *The Hobbit* (1937) eta, beranduagokoa bada ere, *Pippi Langs Trump* (1945). Bigarren Mundu Gerraren ondorio larriek HGL errealistaren berpiztea ekarri zuten, sortutako arazo sozialak salatu eta ikusarazteko. Korronte horrek, "errealismo kritiko" izenez ere ezaguna, 60ko urteetan lortuko zuen nagusitasuna, Ursula Wölfel-en *Der rote Rächer* (1959) edo Reiner Zimnik-en *Die Trommler für eine bessere Zeit* (196-?) obrak kasurako. Hurrengo hamarkadan, 70ekoan, Bettelheim-en teorietatik abiatuta folklorea haurrentzat berreskuratzeko sukarra sortu zen, oraingoan "errealismo fantastikoa" izenburupean, Gianni Rodari buruzagi zutela.

Gaur egunera iritsita, genero eta joerak anitz dira. HGLra modernotasuna ekarri duten ezaugarriak aztertzen ari diren lanen arteko aipagarriena Teresa Colomer irakasleak 1998an burututakoa da, gure ustez, aurreko atalean jadanik aipatutakoa. Katalanez 1977 eta 1990 bitarteko jatorrizko eta itzulitako haur eta gazte liburuen hautaketa bati aplikatutako ikerketaren ondorio nabarmenenak hauexek dira (Colomer, 1998:286-288):

-Munduaren irudikatze literarioa burutzeko eredu berriak sortu dira, genero, gai eta baloreen aldetik; berritasunen artean aipa daitezkeenak, fantasiaren nagusitasuna (didaktismoak tradizionalki bere egin duen errealismoaren aurka), umorearen erabilera, jolas literarioak, psikologizazioa eta tabuen apurketa dira (horiek denak, neurri handi batean, transgresio modu bezala erabiliak).

-Zatikatze narratiborako joera gertatu da, unitate narratiboen autonomiaren aldetik (umeak irakurketa luzeagoak egin ahal izatea bideragarri egiteko), zein narrazioan askotariko testu motak tartekatzearen bidez (gaur eguneko haur alfabetatua horiek ulertzeko gai baita). Gainera, generoen arteko nahasketa eta elementu ez literarioen erabilera ere nabarmenak dira. Hori guztia kultura audiobisualaren eta kultura posmodernoen eragin gisa ikusten da.

-Konplexutasun narratiboa aregotu egin da: egitura narratibo korapilatsuak, ikuspuntu fokalizatuak, aldibereko ahots narratibo intradiegetikoak eta anakroniak. Joera horren muga, edonola ere, irakurleen ulermen mailan dago.

-Irakurlearen parte hartze maila areagotu egin da: narratzailearekiko konplizitatea, anbiguotasunak, umorearen bidezko urrunketak eta beste.

-HGL idatzizkoa izateari eutsi dio, helduen literaturaren baliabide asko bereganatuz, literatur azpisistemen arteko komunikazio arinagoa eraginez.

I.3.5. Haur literaturak bere buruaz duen irudia.

Zohar Shavit-en ustez (1986:33-43), HGLk oso status berezia dauka, hezkuntza eta literatura sistemen artean mugitzen dena. Horrek guztiak eragindako ezaugarri bereziak aztertzeko baliabide gisa, "self-image" edo HGLk bere buruaz duen irudia aztertzea oso interesgarria da. Horretatako, bi ikuspuntu hautatu ditu: kanpokoa, hau da, nola ikusten den HGL beste sistema batzuetatik; eta barrukoa, bere buruaz duen irudia.

Kanpoko ikuspegiari dagokionez, HGL bigarren mailakotzat jotzen da: askotan, "benetako" literatura eta HGLren arteko bereizketa egiten da. Gainera, eskola kurrikuloetan sartu denetik literatura horrek jaso duen bultzadak kontrako eragina izan du, "because children's literature is not regarded as a part of literature,

but more as part of the educational apparatus —a vehicle for education, a major means of teaching and indoctrinating the child" (Shavit, 1986:35). Joera hori gure artean ere aurki daiteke, eta norainokoa den ikusteko balio beza adibide soil batek: euskal literatura nazioartean bultzatzeko, hamasei idazlez osatutako katalogo eleaniztuna plazaratu da orain dela gutxi (Zubimendi, 1997); idazle horietako batzuk haur literaturan ere lan bikaina egindakoak diren arren, haurrentzako obra bat bera ere ez dute nazioartean aitortu nahi izan (Zubimendi, 1997:28).

Beste aldetik, HGLren arloan ezarri diren sari berezituek ere haren status maila apala azpimarratzen dute; izan ere, sariketa horiek desberdinak diren aldetik, ezin dira ohiko literatur irizpideen arabera epaitu.

Azkenik, HGLk, hezkuntzarekin zuzenean lotzen ez denean, ez du nahikoa haurraren gustukoa izatea: gainera, edo beharbada lehenbizi, helduen oniritzia jaso behar du. Honela adierazten du Shavit-ek (1986:37):

> The children's writer is perhaps the only one who is asked to address one particular audience and at the same time to appeal to another. Society expects the children's writer to be appreciated by both adults (and especially by "the people in culture") and children.

Barruko ikuspegiari buruz, berriz, HGLko idazleen statusa bigarren mailakoa izan da beti. Literatura horren hastapenetan, gizonezko idazleek ez zituzten beren lanak sinatzen, edota goitizen baten bidez aurkezten zituzten. Emakumezko idazleek bai, sinatu egiten zituzten, maila soziala apalagoa izanik, zer galdurik ez baitzuten.

Gaur egun, sinatu egiten dira haur eta gazteentzako obrak, baina gehienek beren maila apalagoa dela sentitzen dute. Mariasun Landa euskal idazleak hauxe zioen elkarrizketa batean:

> Helduentzat idazten dutenei egiten ez zaien baina haur literaturaren egileek beti erantzun behar duten galdera hau da, "zergatik idazten duzu haurrentzat?". Horren atzean honako ideia hauek daude, zergatik

> mugatzen zara haurren mundura, zergatik ez duzu ezer serioa idazten, eta horretara dedikatzen diren idazleak azpi-idazleak direla esaten duen teoriak ere funtzionatzen du gaur egun, baina horren aurrean nik neure buruari esaten diot "hara, ni nahi dudana egiten ari naiz, eta errealista izanda, ahal dudana". Zeren haur literatura ez da uste bezain erraza (Landa, 1995:73).

Gainera, idazle horiek haurrentzat edo helduentzat idaztearen artean desberdintasunik ez dagoela pentsatu nahi dute: hartzaile berezi batentzat idaztera mugatuta egotea zama handia gertatzen zaie, areago kontutan hartuta helduei ere keinu egin behar dietela.

Egoera korapilatsu horri irtenbide batzuk aurkitu ohi dizkiote idazleek: haurra aitzakia huts gisa hartzea (testu anbibalenteak sortuz), horixe litzateke *Alice's Adventures in Wonderland* obraren kasua; eta helduak enoratzea, soilik haurrez osatutako munduak eraikiz: heldurik agertuz gero, etsaitzat aurkeztuko dituzte, esaterako Enid Blyton-en obren kasuan. Hortxe dago, hain zuzen, literatura ez kanonizatua, edo "popular literature" deitutakoa.

Hala ere, oro har, idazle gehienek kontuan hartzen dute nolabaiteko irakurle inplizito gaztea, batez ere honako alderdi hauei dagokienez: testuaren konplexutasuna, narrazioaren egitura, maila estilistikoa eta gaia (Shavit, 1986:38-42).

I.3.6. HGLren merkatua: hartzaile bikoitzaren arazoa.

Aurreko atalaren azken aldean gainetik aipatutako hartzailearen arazora itzuliz, zenbait idazlek hartzaileari zuzentzeko askotariko bideak erabili dituzte (Wall, 1991:21). Egile horren arabera, hiru jarrera aurki daitezke narratzeko moduari dagokionez.

Lehenengoa ahots bikoitza da, txandaka haurrari eta helduari zuzentzen zaiona: haurrari istorio bat kontatzen dio eta, noizean behin, iruzkin didaktiko edo ironiko bat tartekatzen du helduei zuzenduta. Ahots hori, batzuetan, autoritarioa izan daiteke eta, bestetan, paternalista, eta haren oinarria ahozko kontakizunetan dago. Horregatik "ahozko narratzaile transferitua" ere deitu izan

zaio. Narratzaile mota horren ezaugarri batzuk galdera erretorikoak, bigarren pertsonaren erabilera funtzio konatiboarekin eta errepikapenak dira. Hona hemen *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* liburutik hartutakoa:

> Ezagutzen Seebühl mendiko herriska, Bühl lakuaren ertzean? Ezetz? Aztarrenik ere ez duzuela? Bitxia benetan! Nonahiri galdetu eta ez dizute beraren berririk emango. Seguru asko, Seebühl, hartaz galdetu izan ez diogun jendeak bakarrik ezagutzen du. En nintzateke gehiegi harrituko. Horrelakorik ere gertatu ohi da (Kästner, 1992:5-6).

Bigarrena, hartzaile bakarra izango litzateke. Haurrei zuzenean hitz egiten dien ahotsa erabiliz, eta helduak hartzaile gisa ezezik pertsonaia gisa ere baztertuz, ildo berri bat zabaldu da HGLren obretan. Bide hori guztiz arrakastatsua gertatzen da haurren artean, eta mesfidantza handia eragiten du helduengan; hainbestekoa, ezen polisistemaren periferiara baztertuak izaten dira, eta literatur kritikak eta historia liburuek isildu egiten dituzte, kanonetik urrun geraraziz. Arrakasta komertziala, ordea, izugarri handia izaten da; izan ere, baztertuta dauden aldetik haur biblioteketan existitzen ez direnez, irakurle grinatsuek erosi egin behar izaten dituzte. Liburu mota honen ezaugarririk nabarmenena haurren mundu berezi eta autonomo bat sortzea da. Horretarako, Shavit-en arabera (Shavit, op. cit.:105-108), hiru elementu nagusiko testuingurua eraiki ohi da: maila estilistikoa (haurren hizkera bereziak erabiliz, askotan akats gramatikalez beteta), abenturaren kokapena eta garaia (askotan oporretan eta ezohizko tokietan), eta haurren arteko harremanak deskribatzea (sarritan otorduen deskribapen ezin zehatzagoen bidez, helduentzat sexuak duen funtzioa haurrentzat janariak betetzen duelakoan). Ikus dezagun *Pippi Kaltzaluze* liburutik hartutako adibide bat:

> Suediako hiri txiki baten muturrean bazegoen inork zaintzen ez zuen jardin bat. Abandonatua. Jardin honetan etxe zahar bat zegoen eta hantxe bizi zen Pippi Kaltzaluze, bederatzi urteko neskatila. Bakar-bakarrik bizi zen. Ez zeukan ez aitarik eta ez amarik. Eta, noski, askotan oso ondo etortzen zitzaion hori: jolas eta jolas ibili nahi zuenean, inork ez zuen ohera bidaliko. Eta bakailo-

> gibelaren olioa hartzera ere inork ez zuen behartuko. Bestalde, nahi zuen guztietan, nahi adina mentazko goxoki jango zuen inork errietarik egin gabe (Lindgren, 1994:5).

Hirugarrena, azkenik, narratzaile duala da. Narratzaile mota horren bitartez, haurra da balizko hartzailea, baina *aldi berean* helduari ere zuzentzen zaio. Horrek esan nahi du idazleak bi literatur sistematan kokatu nahi duela bere obra, bi eredu desberdin erabiliz, eta irakurle mota bakoitzaren igurikipenen araberako irakurketa maila desberdinak eraginez. Haurrak, ezaguna gertatzen zaion ereduaren arabera burutzen du irakurketa, eta helduak nolabaiteko konplexutasuna antzematen dio, eta haur liburu on gisa onartzen du. Bide horretatik zenbait ondoriotara iristen da: alde batetik, idazleak prestigiatu egiten du bere burua, gehienetan liburu horiek haur eta gazte literatur polisistemaren gunean kokatzen baitira; beste aldetik, eredu berrien manipulazioaren bidez, sistemaren literatur arauek aurrera egiten dute (hala ere, obra kanoniko horien irudira sortzen diren epigonoek konplexutasun txikiagoa izaten dute, haurrek osotasunean bereganatu ahal izan dezaten). Adibide gisa, gorago aipatutako Carroll-en obraz aparte, askotan aipatu den “Dilijentzia”, Mariasun Landaren kontakizun laburra:

> Kalean dagoen auto zahar abandonatu batean sartu gara jolastera.
>
> Pellok eta beste mutilek esan dute indioetara jolastuko garela eta auto zahar hura dilijentzia bat izango zela. Neskak dilijentzian sartzeko eta beraiek atakatuko gintuztela...
>
> —Eta gero, zer?
>
> —Zuek indioak ikusi eta desmaiatu egin behar duzue.
>
> Eta guk horrela egin dugu. Gero, nik esan dut alderantziz egiteko, eta Pellok esan du ezetz. Beraiek ez zirela desmaiatzen. Eta neskak haserretu gara indioena egin nahi genuelako eta beraiei tokatzen zitzaielako dijilentziakoak izatea.
>
> Azkenean onartu dute, baina autoa inguratu dugunean, ateak zabaldu eta tiroka hasi dira. Inor ez da desmaiatu, eta gu berriro haserretu gara.
>
> Mutilekin ez dago jolasterik (Landa, 1988:10-11).

Iradoki dugun bezala, sarritan egilearen jarrerak merkatu berezi baten legeekin dauka zerikusia. Izan ere, haurrak desohizko kontsumitzaileak diren aldetik, hainbat bitartekariren bidez iritsi behar da liburura. X. Etxanizek Hunt-ek proposaturiko eskemaren moldaketa bat eskaintzen digu (Etxaniz, 1997b:24). Horren arabera, liburua sortu aurretik egilearengan eragina duten faktore berezien artean familia instituzioa, gizartea eta irakaskuntz liburuak daude. Argitaratu ostean, berriz, eskola erakundea, liburu-saltzailea, bibliotekaria eta beste zenbait bitartekari ageri dira.

Gemma Lluch i Crespo-k ere ikertu du HGLren komunikazio literario berezia. Irakasle honen ustez, "transformazio agenteak" dira egileei ezaugarri jakin batzuetako produktuak idaztea proposatzen dietenak; ondoren, testu horiek irakurtzeko egokiak direla esan eta, azkenik, lehenengo hartzaileei (maisu-maistra eta gurasoak) gomendatzen dizkietenak (Lluch i Crespo, 1995:86). Transformazio agente horiek hiru multzotan sailkatzen ditu egileak: lege aldetikakoak, hezkuntzakoak eta argitaletxeetakoak.

Hartzaileen artean ere, bereizketa hirukoitza egiten du Lluch i Crespo-k: liburuaren ustezko irakurlea (haurra), liburuaren balizko eroslea (gurasoak) eta liburua erostea gomendatzen duena (maisu-maistra) (op. cit.:101).

Bestalde, gero eta sarriagotan, paratestuak eta liburu bildumak erabiltzen dira genero eta gaiaren erakusle gisa, helduen onespena jasotzeko zein bibliotekari eta irakasleei laguntza emateko: "En principi, abans d'iniciar la lectura del text el lector pot preveure que l'autor li demana que supose que el text parlarà d'una experiència comuna; també pot realitzar una hipòtesis relativa al gènere del text i d'altres operacions més complexes" (op. cit.:105).

Helduen bitartekaritza hori positiboa izan daitekeela irudi lezake, beren ezagutza psikopedagokikoak eta literarioak direla medio, baina errealitatean bestelako baldintzak daude tartean, hala nola helduek beren haurtzaroaz duten irudi idealizatua, edota zenbait irakaslek irakurketarekiko duten ardura txikia. Olaziregiren

iritziz, ordea, irakaskuntza sistemaren bitartekaritza ez da espero zitekeen bezain onuragarria:

> Eskolak plazerezko irakurketarekin eduki ditzakeen harreman arriskutsuez gain, geure inkestan beste gertakari batzuez ere jabetu ginen: gomendatzen ziren irakurgai asko zaharkituak zeudela, edo etengabe titulu berak gomendatzen zirela, edo harrigarriena zena, itzulpenak ez zirela kontuan hartzen irakurgai-zerrendetan. Orokorrean irakasleen bizkar uzten bada sentsibilitate literarioa eta irakurzaletasuna sustatzeko ahalegina, horrek ondorio larriagoak ditu geurean, nobedadeak edo gidak zailtasunez iristen baitira garaiz profesionalen eskuetara (Olaziregi, 1998:28-29).

Laburbilduz, haurrek aukeraketa diferitua egiten dute gehienetan, gizarteko zenbait elementuren bitartekaritza dela medio. Hori dakielarik, egileak zenbait estrategia jartzen du jokoan estatusa hobetzeko, edo, besterik gabe, salmentak handitzeko.

I.3.7. Definizio saioak.

Aurreko guztiari begiratuta, beraz, badirudi HGLren definizioa *a posteriori* egin behar dela, eta esan HGL haur eta gazteentzat idazten den guztia, edota haur eta gazte horiek gozamen estetikoa lortzeko helburuz irakurtzen duten guztia dela. Graciela Perriconi-k komunikazioaren aldetik definitzen du literatura berezi hau:

> ... es un acto de comunicación, de carácter estético, entre un *receptor niño* y un *emisor adulto* que tiene como objetivo la sensibilización del primero y como medio la capacidad creadora y lúdica del lenguaje, y debe responder a las exigencias y necesidades de los lectores (Perriconi, 1983:5).

J. García Padrino-ren hitzetan, berriz:

> ... como conclusión de este apunte del concepto propuesto para la Literatura Infantil, la exigencia de un dominio depurado de las notas propias de la más nítida literatura: la sobriedad, la sencillez y el dominio expositivo, sin olvidar el tema adecuado, la linealidad y la brevedad (García Padrino, 1988:547).

Xabier Etxanizek honako definizio hau eskaintzen du:

> Haur eta gazte literatura, beraz, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, beraiei irakurtzean atsegina sentiarazten dien testu multzoa litzateke. Testu multzo horrek, gainera, hizkera berezia izan beharko luke (Etxaniz, 1997a:69).

Beste ikerlari batzuek, Peter Hunt kasu, definizio saio orokorragoak egiten dituzte, esaterako:

> Children's literature, disturbingly enough, can quite reasonably be defined as books read by, especially suitable for, or especially satisfying for, members of the group currently defined as children (Hunt, 1991:61).

Bide beretik abiatzen da Karin Lesnik-Oberstein-en definizioa (1996:17):

> The definition of "children's literature" lies at the heart of its endeavour: it is a category of books the existence of which absolutely depends on supposed relationship with a particular reading audience: children.

Eta, definiziorik zabalena, J. R. Townsend kritikari ospetsuak egindakoa da:

> Although the distinction is administrative rtaher than literary, it must have some effect on the way books are written. Yet authors are individualist, and still tend to write the book they want to rather than will fit into a category. Arguments whether such-and-such a books is "really for children" are always cropping up, and are usually pointless in any but organizational terms. The only practical definition of a children's book today — absurd as it sounds— is "a book which appears on the children's list of a publisher. (Townsend, 1971:10).

Beraz, badirudi aldaketa bat gertatzen ari dela HGLren definizio saioetan, beharbada hasierako definizio preskriptiboak indarra galtzen ari direlako, eta inguru anglo-saxoian azaltzen ari direnak, berriz, deskriptiboagoak direlako. Aldaketa bat, beraz, hasierako asmo hezitzaile eta testuen balio literarioetatik, oraingo definizio pragmatikoetara: haur literatura haurrek garai bakoitzean irakurtzen duten guztia bide da.

I.4. Bibliografia aipatua

AGUIAR E SILVA, Vítor Manuel (1972). *Teoría de la literatura*. Madrid, Gredos.

ARIES, Philippe (1987). *El niño y la vida familiar en el Antiguo Régimen*. Madrid, Taurus.

BLOOM, Harold (1996). *The Western Canon*. Londres: Papermac. 4. ed.

CERVERA, Juan (1991). "La literatura de transición", *Monteoliveti*, 7. zkia., 141-151.

COLOMER, Teresa (1998). *La formació del lector literari*. Barcelona: Barcanova.

DARNTON, Robert (1987). *La gran matanza de gatos y otros episodios en la historia de la cultura francesa*. Mexiko, D.F.: Fondo de Cultura Económica.

ETXANIZ, Xabier (1997a). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

ETXANIZ, Xabier (1997b). *Haur eta gazte literatura. Kontzeptuaren definizio baten bila*. Iruñea, Pamiela.

FERNANDEZ LOPEZ, Marisa (1996). *Traducción y literatura juvenil: narrativa anglosajona contemporánea en España*. Leon, Universidad de León.

GARCIA PADRINO, Jaime (1988). "La literatura infantil y la formación humanística", in VV.AA. *Didáctica de la lengua y la literatura*. Madrid: Anaya.

GENETTE, Gérard (1989). *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*. Madril: Taurus.

HÜRLIMANN, Bettina (1968). *Tres siglos de literatura infantil europea*. Barcelona: Juventud.

HUNT, Peter (1991). *Criticism, Theory, & Children's Literature*. Oxford, Blackwell Publishers.

JAUSS, Hans Robert (1989). "La Ifigenia de Goethe y la de Racine", in WARNING, Rainer (ed.), *Estética de la recepción*, Madrid: Visor (217-250).

KÄSTNER, Erich (1992). *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* Donostia: Elkar [Itzul.: Antton Narbaiza. Jat.: *Das doppelte Lottchen* (1949)].

LANDA, Mariasun (1988). *Iholdi*. Donostia: Erein.

LANDA, Mariasun (1995). "Tom Sawyer-ez maitemindu zen neska", Pako Aristik egindako elkarrizketa, *El Diario Vasco*, maiatzaren 24an, 73.

LESNIK-OBERSTEIN, Karin (1996). "Defining Children's Literature and Childhood", in HUNT, Peter (ed.). *International Companion Encyclopedia of Children's Literature*. Londres/New York, Routledge, 18-31.

LINDGREN, Astrid (1994). *Pippi Kaltzaluze*. Donostia: Elkar [Itzul.: David Urbistondo. Jat.: *Pippi Langs Trump* (1945)].

LLUCH I CRESPO, Gemma (1995). *La literatura infantil i juvenil en català: el lector model en la narrativa*. Doktore tesia. Valencia: Universitat de València.

MUKAROVSKY, Jan (1977). *Escritos de Estética y Semiótica del Arte*. Barcelona, Gustavo Gili.

OLAZIREGI, Mari Jose (1998). *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Donostia: Erein.

PERRICONI, Graciela (1983). *El libro infantil*. Buenos Aires: El Ateneo.

SHAVIT, Zohar (1986). *Poetics of Children's Literature*. Atenas/Londres: The University of Georgia Press.

TAMES, Román L. (1990). “Del cuento oral a la narrativa infantil de autor”, CERRILLO, Pedro eta GARCIA PADRINO, Jaime (koord.) *Literatura infantil*. Cuenca, Universidad de Castilla-La Mancha.

TOWNSEND, John Rowe (1971). *A Sense of Story*. Londres: Longman Young Books.

WALL, Barbara (1991). *The Narrator’s Voice: The dilemma of children’s fiction*. Londres: Macmillan.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (1997). *Euskal idazleak. Escritores en lengua vasca. Basque Writers*. Bilbo: Euskal Editoreen Elkartea.

II
ITZULITAKO LITERATURAREN AZTERBIDEAK

Aurreko atalean HGLri buruzko argibideak ematen saiatu garen era berean, bigarren atal honetan itzultzearen jarduerari buruzko ohar batzuk eman nahi ditugu. Itzulpengintzaren teoria orokorretik hasita, konkrezio maila gero eta handiagoan literatur itzulpengintzaz mintzatuko gara eta, ondoren, haur eta gazte literaturaren itzulpengintzaz.

II.1. Itzulpengintzaren teoria.

Itzultzearen ekintza oso zaharra da. Itzulpengintzaren protohistorian, badirudi, esaterako, K. a.-ko XVIII. mendetik aurrera testu sumeriarrak hitzez hitz akadierara itzultzen zirela. Geroago, grezieraz idatzitako testurik garrantzitsuenak latinera itzuli ziren: Homeroren *Odisea* (historian egindako lehen literatur itzulpena, Livio Andronikoren eskutik, K.a.-ko 240 urtean); Bibliaren zenbait bertsio (hebraieratik grekora itzulia izan ondoren), horien artean ezagunena Jeronimok buruturikoa eta "Vulgata" izenez bataiatua. Zizeronek eta Horaziok arreta berezia eskaini zioten itzulpengintzari, eta gaur egun arte iraun duen itzulpen literala/itzulpen askearen auzia planteatu zuten (Mendiguren, 1992:30-34).

Hamabigarren mendean, Iberiar penintsulan hiru zibilizazio elkartu ziren: juduak, arabiarrak eta kristauak. Hiru hizkuntzen arteko kontaktu luzeak eta kulturen arteko desoreka nabarmenak itzulpengintza sustatu zuten mende luzetan zehar. Gaztelako koroak azken musulmanak uxatu zituenerako, Toledoko Itzultzaileen Eskolak zientzia eta filosofiako obra greziarren bertsio arabiarrak

itzultzen zituen latinera, gaztelaniara eta katalanera (Newmark, 1981:3; Mendiguren, 1983:34).

Luteroren Bibliaren itzulpenak 1522an alemaniera modernoaren jaiotza ekarri zuen, eta Jaime Erregearen Bibliak oinarrizko garrantzia izan zuen Ingalaterrako hizkuntza eta literaturan. Halaber, Shakespeare, klasizismo frantsesa eta mugimendu erromantikoak itzulpenaldi garrantzitsuen ondoren sortu ziren (Mendiguren, 1981:3). Euskaraz, berriz, Leizarragaren *Iesus Christ gure iaunaren testamentu berria* (1571) obrak gerora oso garrantzitsuak izango ziren lexiko zein sintaxi baliabide berriez hornitu zuen hizkuntza.

Itzulpengintzaren teoria orokorra eraikitzeko posibilitatea, ordea, ez da XX. mendeko bigarren erdia arte proposatu. Horrela, egile batzuen lanak azpimarratu behar dira: ingelesaren eremuan, E.A. Nida eta J.C. Catford; frantsesaren eremuan, berriz, J.-P. Vinay-J. Darbelnet, G. Mounin, Parisko Eskola eta A. Berman, J.-R. Ladmiral, H. Meschonnic eta besteren ekarpenak; gaztelaniaren eremuan, E. Zierer eta V. García Yebra; alemanierarenean, R. W. Jumpelt, A. Neubert, O. Kade, W. Koller, W. Wilss, K. Reiss-H.J. Vermeer eta R. Stolze; eremu eslabiarrean, A.V. Fedorov, R.K. Mignard-Belorucev, V.N. Komissarov, J.I. Recker, J. Levy txekiarra eta A. Ljudskanov bulgariarra (Mendiguren, 1992:69).

Itzultzea zer den definitzeko orduan, berriz, bat gatoz Mendigurenen definizioarekin (1992:105), hau da, "hizkuntza bateko (SH) testu bat beste hizkuntza batera (XH) idatziz aldatzearen prozesua". Definizio horren bitartez, baztertu egiten dira hizkuntza baten barruko aldaera dialektalen arteko aldaketak (Agustin Paskual Iturriagaren *Jolasak* bizkaieraz eta lapurteraz, Kirikiñoren *Abarrak* euskara batuan, eta abar).

Valentín García Yebraren arabera (1982:30), itzultzearen prozesuak bi fase izan ohi ditu: SHko testuaren jabetze-fasea, eta bertako edukia XHko testu berri baten bidezko adierazpen-fasea. Azalpen horren bidez, garbi azaltzen da itzultzearen helburua, oro

har, edukiak aldatzea dela. Literaturari gagozkiolarik, ordea, “esateko modua”, forma, gutxienez edukia bezain garrantzitsua da.

II.2. Literatur itzulpengintzaren azterbideak.

Ondoren, literatur itzulpengintza askotariko ikuspegietatik nola tratatu den aztertuko dugu. Diziplinarteko zeregina izanik, alderdi ugariko hurbilketak saiatu dira: estrukturalista, literatura konparatuarena, harreraren estetikarena, *translation studies* direlakoak, eta bertatik eratorritako joera guztiak.

II.2.1. Orokortasunak

Literaturaren ikuspegi idealistatik, konkretuki Croce-ren ekarpenetatik abiatuz, zenbait kritikok literaturaren itzulezintasuna defenditu izan dute, artistak intuizioa jasotzen duen unea errepikaezina dela, eta itzulpenak intuizio horren eragina gutxitu edo itxuraldatu besterik ez duela egingo argudiatuz.

Aipatutako jarreraren erdibidean edo, Ortega y Gasset-ek *Miseria y esplendor de la traducción* (1937) obran, espainieraren eremuan eragin handikoa baita, azaltzen duen jokabidea dago: literatur itzulpena posible da, bai, baina eskolarako itzulpen gisa, hau da, STaren forma imitatzen saiatu gabe, beraren edukia zintzoki ematen duena, eman beharreko argibide guztiak orrialde-oinean eskainiz.

Literatur itzulpenari buruzko eztabaidetan eragin itzela izan duen lana, Walter Benjamin-en *Die Aufgabe des Übersetzers* (1923), berak itzulitako Baudelaire-ren *Tableaux parisiens* obrari jarritako hitzaurrea. Bertan, itzulpengintza ez etnozentrikoa defenditzen du, edo beste hitzetan esanda, XHrantz orientaturiko itzulpengintza. Horren abantailak, besteak beste, itzulpenaren bidez egindako ekarpenekin XH aberastea eta handitzea izango lirateke.

II.2.2. Pragako Eskolaren lanak eta Harreraren Estetikaren ekarpena

Estrukturalismotik, Pragako Eskolatik zehazkiago, ekarpen ugari jaso ditu literatur itzulpengintzak. Eskola horrentzat, itzulpengintza sistema ugariren testuinguruan jokatzen duen sistema da. Jirí Levy-ren arabera, itzulpenak arte mota bat dira, eta hiru egitura-osagai dituzte: STren balore semantiko eta estetikoak, itzultzaileak egiten duen balore horien interpretazioa eta XHko balore sistemaren araberako konkretatzea (XT), eta irakurle berriek itzulitako obra bereganatzea. Anton Popovic-entzat, berriz, literatur itzulpenak arau eta konbentzioen topaketaren emaitza, eta bi sistema linguistiko eta literarioen topaketa dira. Hori guztia frogatzeko, itzulpengintzarekin zerikusia zuten literatur fenomenoen azterketa sistematikoa burutu zuen (Gallego Roca, 1994:72-74).

Harreraren Estetikatik abiatuz gauzatu dira literatur itzulpengintzari buruz gaur egun egiten diren hurbilketa gehientsuenak. Literaturaren Historia eta Teoria ikuspuntu berri batetik —irakurlearen ikuspuntutik— ikusteak bere barnean hartzen du kanpoko obren harreraren testigantza.

Harreraren Estetikaren ikuspuntu historikotik, Jauss-ek eraikitako “igurikipen horizontea”, hau da, garai bakoitzeko konbentzio sistemaren arabera eta garai horretako beste obra batzuekiko konparazioz literatur obra bat atzemateko modua, aplikagarri zaio itzulpengintzari: garai bateko obra bat beranduagoko garai batean itzultzen bada, azken garai honetako interpretazio moduen arabera ulertuko da, eta XHko literatur historian toki berezia bete beharko du.

Beste aldetik, Jauss-ek berak proposatutako “distantzia estetikoa” ere, hau da, obra berri baten eta bere garaian eta irakurlegoan sortutako igurikipen horizontearen arteko distantzia,

oso berezia da; izan ere, XHko tradizio estetikoan txertatzen denean, irakurleak nolabaiteko arroztasuna somatuko du.

II.2.3. Literatura Konparatua, Intertestualitatea eta itzulpengintza

Literatura Konparatuaren oinarria literatur tradizioa da, hau da, literatura aurreko ereduekiko harremanetan etengabe eraikitzen ari delako ustea. Harreman horiek era askotakoak izan daitezke: kronologikoak, genetikoak, tipologikoak, etabar, eta ez dute beti suposatzen aurreko obraren onarpena, baizik eta, sarritan, intertestualitatea aipamen, ironia edo parodia gisa gertatzen da.

Koppen-ek (1990:91) azaldu duenez, Literatura Konparatuaren sorrera XIX. mendearen bukaeran koka daiteke Frantzian eta EEBBetan. Baina, nahiz eta mende bateko bizitza izan, oraindik ez dago garbi zein den bere tokia esparru akademikoan, ez eta zein ote den oinarrian duen literatur teoria (op. cit.:87):

> Sobre el ejemplo de la influencia literaria y su investigación es posible demostrar, por tanto, que la comparatística no tiene, desde luego ninguna teoría literaria propia, pero que dispone de una metodología particular o —si así lo quieren Vdes.— de una heurística. La investigación comparada de las influencias recorre una senda propia con un objetivo también propio. Esta senda —y esto constituye una peculiariedad de extraordinaria importancia— lleva por encima de las fronteras lingüísticas que separan las literaturas del mundo, y que no pueden ser ni eliminadas ni borradas por medio de una discusión científica.

Filologien aurrean bete beharreko zereginari buruz, berriz, hauxe diosku (op. cit.:105): “En mi opinión, el comparatista es competente para *todos* los fenómenos, problemas, autores y textos literarios que no pueden ser elucidados y comprendidos totalmente en el marco de una única filología, a través del conocimiento del solo contexto nacional-literario”.

Literatura Konparatua, beraz, itzulpengintzaz ere aritu izan da. Jatorri desberdinetako testuen arteko eraginak aztertzeko, ezinbestekoa da itzulpengintzaz hitz egitea: “Pero allí donde estas disciplinas interrogan por manuscritos o ediciones, el investigador de las influencias en el plano comparatístico planteará por lo general la pregunta de la traducción” (op. cit.:84).

Claudio Guillén-en hitzetan, berriz, literatura konparatua hauxe da: “investigación, explicación y ordenación de estructuras diacrónicas supranacionales” (1985:408). Alde horretatik, itzulpenak XHrantz orientaturiko ikuspuntutik aztertzeko joera gero eta handiagoa da. Literatur itzulpenak, esan bezala, XHko literatur tradizioan txertatzen diren aldetik, literatura nazional bakoitzeko zein tokitan txertatzen diren aztertzea proposatzen du. Era berean, itzulitako obrek XHko literatur sisteman eragiten dituen tirabirak ere aztertu gogo ditu, literatur garapenaren dinamika nabarmendu egiten baitituzte. Popovic-ek esana zuen, Estrukturalismotik, itzulpengintzaren historiak Literaturaren Historia orokorreko arazoak aztertzen lagun zezakeela (Gallego Roca, 1994:89). Ia gauza bera esaten du Claudio Guillén-ek:

> El traductólogo ha de ser un historiador, y de los más completos, pues no hay género de escritura que ponga hasta tal punto al descubierto los cimientos teóricos, sociales e ideológicos del fenómeno literario (Guillén, 1985:355).

Eta aurreraxeago, hauxe gaineratzen du:

> Pero no sólo hay que aprehender las traducciones históricamente. Es aun más importante, *mutatis mutandis,* integrarlas en la historia de la literatura. Pues esta historia no puede reducirse —sugería yo hace unos años, en mi *Literature as a System* [1971]— a una sucesión de novedades, de originalidades, de descubrimientos (“a tale of modernity in the making”). A fin de estudiar el sistema literario de determinado momento, es indispensable tomar en consideración también —decía— los autores pretéritos que se reeditan y vuelven a leer, los dramaturgos que se representan, los clásicos vivos y los que no lo son, los olvidados que algunos procuran recuperar: los escritores, los géneros, las obras que se traducen. La integración de

> todos estos componentes es lo que constituye un sistema histórico (op. cit.:356-357).

Hori guztia laburbiltzen duten hitzak ezin argiagoak dira: "Ahora es posible estudiar la organización de una literatura, sus normas y sus modelos, a través de la función que desempeñan las traducciones dentro del sistema literario" (Gallego Roca, 1994:110).

Hori guztia HGLra eramanez, Richard Bamberger ikertzaile austriarraren iritziz, hauek dira konparatisten zereginak alor horretan:

> Thus the task of comparative literary study in the field of children's books is twofold: *Fist*, to point out the importance of translations, with regard to quantity and quality, in a given national children's literature, that is to say its relation to the reader —and *secondly*, to investigate the influence translated books have on the writing of the authors in a given national children's literature (Bamberger, 1978:19).

Beste alde batetik, Intertestualitatearen kontzeptua Bajtin-ek sortu, eta Kristeva-k eta Genette-k zabaldutakoa da. Eraginaren kontzeptua zabalegia iruditu zitzaien egileoi, eta, hortaz, testu bakoitzak barnebiltzen dituen kategoriak aztertzeari ekin zioten. Egileon ustez, testuetan aldez aurreko ereduen eraikitze, sortze eta birsortze prozesuak gertatzen dira etengabe.

Genette-ren esanetan, bost harreman transtestual daude (Genette, 1989a:10-15): intertestualitatea (aipua, plagioa, alusioa); paratestualitatea (titulua, hitzaurrea, eta bestelako azalpenak); metatestualitatea (testu batek beste testu bat aipatu gabe komentatzen duenean); hipertestualitatea: "Entiendo por ello toda relación que une un texto B (que llamaré *hipertexto*) a un texto anterior A (al que llamaré *hipotexto*) en el que se injerta de una manera que no es la del comentario" (op. cit.:14); artxitestualitatea ("Se trata de una relación completamente muda que, como máximo, articula una mención paratextual... de pura apariencia taxonómica" —op. cit.:13—).

Aurrerago, testu batek bere bizitzan zehar jasan ditzakeen itxuraldaketa edo “transposizioez” aritzen da Genette (op. cit.:262-321). Horien arteko “erakargarriena”, Genette-ren beraren hitzetan, itzulpena da. Teorian, transposizio linguistiko hutsa izan behar zuen itzulpenak, beste transposizio mota asko hartzen ditu bere baitan (nahiz eta itzulitakoak ez diren testuetan ere gerta daitezkeen), hala nola, transestilizazioa (itzulpenetan askotan egiten den estilo aldaketa), eta itxuraldaketa kuantitatiboak (eszisioa, expurgazioa, konzisioa, kondentsazioa eta *digest* delakoa). Baina ustez kuantitatiboak diren itxuraldaketa horiek bestelako aldaketa testual funtsezkoagoak ekartzen dituzte ezinbestean.

Moztea obra baten zatiak kentzea da. Genette-k berak jartzen duen adibideaz baliatzeko, Robinson Crusoe-ren haurrentzako bertsio askok Robinsonen naufragiora eta uharteko bizialdira mugatzen dute narrazioa. Praktika hau irakurtze ekintzatik bertatik egiten den aukeraketarekin erlazionatzen du egileak.

Garbitzea murrizketa moralizantea da. HGLn sarri gertatzen da. Gazteari, ustez interesatzen ez zaion guztia ezezik, bere xalotasunean “kalte” egin diezaiokeen guztia ere ezkutatzen zaio. Sexuarekin zerikusia duten elementuak bereziki.

Laburtzea testua murriztea da, baina alderdi tematiko esanguratsurik ezabatu gabe. Hau da, testua laburkiago berridaztea da. Bertsio murriztuen egileak, ordea, oso gutxitan agertzen dira kredituetan.

Kondentsazioa testuaren laburpen didaktikoa da, testuliburu batean literatur obra baten laburpena ager daitekeen bezala. Genette-ren arabera, kondentsazioz jokatzen denean era narratiboa erabiltzen da (narrazio bat edo beste genero batean dagoen testua laburtzeko), eta horrekin batera orainaldiko hirugarren pertsona.

Digest delakoak, azkenik, hipotestua ordezkatu nahi du, baina aipatu ere egin gabe, izenburuan ez bada. Laburpen deskribatzailea da, edozein fokalizazio eta aditzaldi erabil dezakeelarik, ez baitu hipertestualitaterik erakusten.

II.2.4. *Translation Studies* direlakoak

Translation Studies direlakoek, bestalde, aurrerakuntza handia ekarri dute literatur itzulpengintzaren ikerkuntzara. 1980 urtearen inguruan sortu ziren, Israelgo eta Herrialde Beheretako ikerlari batzuen ahaleginaren ondorioz. Disziplina horren helburua, itzulpengintzan askotan banaturik egon diren teoria eta praktika uztartuz, itzulpengintzaren alor guztiak ikertzea da. Hala ere, lortutako emaitzarik interesgarrienak literatur itzulpenetako azterketetatik etorri dira.

Talde horretako kide gehienak (Lefevere, Toury, Even-Zohar, Lambert, etabar) konparatibismoaren mundutik iritsi dira, eta bat datoz literatur fenomenoa hipotesi eta helburu beretsuen pean ikertzeko orduan: literatura sistema dinamikotzat ulertzea; teoria eta praktikaren arteko trukaketa; itzulpenak ikuspuntu deskriptibo, funtzional eta XTrantz orientatutik birreraikitzea; itzulpenak ekoiztu eta, ondoren, ulertzeko jokoan sartzen diren baldintzak aztertzea; itzulpenen eta testuak eraldatzeko beste moduen arteko harremanak ikertzea; eta itzulpenek XHko literatura nazionalean betetzen duten tokia, eta literatura batzuen arteko eragina aztertzea (Gallego Roca, 1994:142).

Laburbil ditzagun aipatutako ikerlari horien emaitzarik interesgarrienak.

II.2.4.1. James S. Holmes-en gidaritza.

Bere *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies* (1988) delakoan, Holmes-ek *Translation Studies* izenez bataiatu zituen itzulpengintzari buruzko bide berriok. Itzulpen Ikerketa horiek deskriptibo eta teorikoak izan daitezke, eta, bi horien artean eguneroko itzulpengintza jardueraz aritzen dena lehenengoa izanik, hiru ataletan banatu zituen horren ikerketa-eremuak: *product-oriented*, hau da, XTetan oinarrituz itzulpen konkretuak aztertzea, edota ST batetik abiatuz egindako itzulpen desberdinak aztertzea helburu dutenak; *function-oriented*,

itzulpenek XHko egoera soziokulturalean betetzen duten funtzioa aztertzen dutenak; eta *process-oriented*, itzulpen prozesuan egiten diren gogoetak eta hartzen diren erabakiak ikertzen dutenak (Holmes, 1988:72-73).

II.2.4.2. Talde lanaren garrantzia.

Translation Studies direlakoen barruan egin diren azterketarik garrantzitsuenak talde baten emaitza gisa aurkeztuak izan dira, itzulpen estudioetara bildu diren iturri anitzen arragoa irudikatu nahian. Ondoren ikusiko den bezala, gai jakin batzuk, kezka nagusi batzuk, behin eta berriro agertzen dira bildumotan.

Horietatik lehena, *Literature and Translation* (1978), literatur itzulpengintzaren inguruko arazoez aritzen da: baliokidetzaren kontzeptua, literatur itzulpenak deskribatzeko bideak, itzulpengintzaren kontzeptu dinamikoa, itzulitako literatura sistematzat hartzea, besteak beste. Gainera, eskaintzen duen bibliografia exhaustiboa azpimarratzekoa da.

Bigarrena, beti ere kronologikoki mintzatuz, Theo Hermans-ek koordinaturiko *The Manipulation of Literature* (1985) izenekoa da. Hango gai nagusiak, berriro ere, baliokidetzaren auzia kontzeptu dinamiko gisa eta itzulpenen deskribapen sistematikorako aurrerapenak dira.

Beste bilduma aipagarri bat *Translation Studies: the State of the Art* (1991) izenekoa da, James S. Holmes-en omenez eginiko itzulpengintzari buruzko topaketen ondorioa. Aurreko bildumetan jorratutako gaiez gain, interpretazioarena ere ekartzen da hizpidera, beharbada Mukarovsky (1977) aitzindariaren lanarekin lotuz. Van der Voort-en artikuluan hauxe irakur daiteke:

> It is only for practical reasons that a translator, writing down his translation, is bound to the choice of one particular meaning, exactly as is the musician performing a piece of music in a concert hall.
>
> But here I am touching on the problem of interpretation, about which I want to talk later on in this

> lecture. (Cok van der Voort, in van Leuven-Zwart & Naaijkens, 1991:66-67)

II.2.4.3. Gideon Toury-ren lan programatikoa.

Arestian aipatutako bilduma guztietan parte hartutako ikerlari israeldar honek funtsezko lan bat argitaratu zuen 1980an: *In Search of a Theory of Translation*. Han, egokitasuna/onargarritasuna kontzeptuak ezartzen ditu, itzulpenaren orientazioa SH/XHrantz, bietatik zein den bereizteko (Toury, 1980:55).

Edozein itzulpenen azterketa egiteko gogoan izan beharreko kontzeptua "itzulpen-baliokidetza" da, hau da, hizkuntza natural batez idatzitako ST bat, beste hizkuntza natural batez idatzitako beste XT batez ordezkatzean sortzen diren harremanak. Toury-k aitortzen duenez, kontzeptu horren ideia Catford-i zor dio:

> Let us start our consideration of translation equivalence with a somewhat modified version of Catford's general definition (1965:50), a modification which may be justified according to Catford's own treatment of the concept throughout his book, even if the exact formulation is not to be found in it: "Translation equivalence occurs when a SL and a TL text (or item) are relatable to (at least some of) the same relevant features." (op. cit.:37).

Ondoren, itzulpengintzari buruzko aurreko jokabide normatiboak (Linguistikaren alorretik zetozenak bereziki) kritikatu, eta itzulpenen azterketa deskriptibo sistematikorako oinarriak ezartzen ditu, XH abiapuntutzat hartuta:

> This is also to say that descriptive translation studies are not to be reduced to mere comparative analyses of target and source texts (or parts of texts). Moreover, it is clear that this type of study itself, comparative study, is not really justifiable unless on the basis of the identification of the target texts and its constitutive elements as *translational* phenomena from the point of view of the *target* system. (op. cit.:84).

Deskribapen lan horri ekiteko, bereziki literatur itzulpengintzan nagusitzen diren “arauak” ezartzen saiatzen da, bi sailetan:

-Aldez aurretiko arauak (*Preliminary norms*): itzuliko diren lanen aukeraketa; itzulpena egiteko zubi-hizkuntza erabiltzea zilegi denentz; zilegi balitz, aitortu beharko litzateke, ala ez?; eta abar.

-Jarduerazko arauak (*Operational norms*): itzultze prozesuan bertan hartzen diren erabakiei buruzkoak. Bi eratakoak izan daitezke: matrizialak (*matricial norms*), hau da, XHko materialen kokapena eta segmentazioa; eta testualak (*textual norms*), hau da, itzulpenean erabiltzen diren material linguistiko eta literarioen aukeraketa bideratzen dutenak (op. cit.:54).

Hala ere, horien guztien aurrean, bada “hasierako araua” (initial norm) deritzana: horrek argitu egingo liguke itzulpen jakin bat SHko arau eta harremanen pean jartzen den, eta kasu horretan “egokitasuna” gertatuko litzateke; ala, aitzitik, XHn eta XLn nagusi diren arauen menpean dagoen, eta orduan “onargarritasuna” gertatuko litzateke. Itzulpenak oro bi mutur horien artean kokatzen dira; kontua, joera nagusia zein den argitzea izango litzateke.

Azkenik, obra nagusi horretan landutako teoriak hebraierara itzulitako literaturan oinarritutako hainbat azterbidetan aplikatzen ditu.

II.2.5. Polisistemaren Teoria

Translation Studies horretako kide batek, Itamar Even-Zohar, “Polisistemaren Teoria” formulatu, eta ondoren egin ziren lanak gidatu zituen. “Polisistemaren Teoria” horren oinarria egileak berak 70eko hamarkadan egindako hausnarketetan aurkitzen da, eta teoriaren behin betiko formulazioa *Poetics Today* aldizkariaren ale monografiko batean (Even Zohar, 1990) biltzen da.

II.2.5.1. Funtzionalismo dinamikoa.

Lan horrek 1920ko hamarkadako Formalismo Errusiarrarekin dituen zorrak hasieratik bertatik onartu ondoren, proposatzen duen metodologiaren zientifikotasuna azpimarratzen du Even-Zoharrek. Alde horretatik, literatura ez da *a priori* klase nagusiek edo modak definituta dagoen kontzeptu bat, baizik eta garai bakoitzeko baldintza sozialen arabera definituz doan zerbait:

> The science of literature, a conception without which Dynamic Functionalism is unthinkable, is therefore not an activity whose goal is to observe what certain dominant views (ideologies/set of norms) in society consider to be "literature". Nor do the differents views held by this science necessarily have an effect on any way the norms or views related to the question of what "literature" should be. In short, it is not the task of the science of literature to interfere with whatever anybody in society believes "literature" to be (op. cit.:3).

Funtzionalismoaren aipamenaren bidez, Formalista Errusiarrekin lotzeko gogoa azpimarratzen du berriz ere. Egilearen ustez, literaturarekin zerikusirik duten elementu semiotiko guztiek sistema bat osatzen dute, eta elementu bakoitza sistema horren barruan besteekiko duen funtzioaren arabera definitzen da. Eta, gainera, Funtzionalismo horren Dinamikotasuna aldarrikatzen du: sistemako elementuen arteko harremanak bi ardatzetan bana daitezke, diakronikoa eta sinkronikoa; eta azken horren izaera estatikoaren aurka (Ginebrako Eskolatik datorrena), sinkronikotasunaren izaera dinamikoaren alde egiten du (erroak, berriro ere, Formalismo Errusiarrean eta estrukturalista txekiarretan ditu) (op. cit.:1).

II.2.5.2. Polisistemaren ezaugarriak.

Polisistema, azken batean, etengabeko elkarreraginean dabiltzan sistemen (literarioa, linguistikoa, ekonomikoa, politikoa,

soziala, etabarren) sistema da. Sistema horiek guztiak, gainera, ez daude maila berean, baizik eta estratutan hierarkizaturik. Estratuen arteko etengabeko borroka ardatz sinkronikoan (dinamikoan) kokatuko litzateke; estratu horietariko bat garaile suertatzen denean, berriz, ardatz diakronikoaren aldaketa gertatzen da. Polisistemako elementurik garrantzitsuenak gunean daude, eta ahulenak, berriz, periferian. Hala ere, polisistema batean ez da egon ohi zentro bat eta periferia bakar bat; gerta daiteke, esaterako, elementu edo funtzio bat sistema bateko periferiatik ondoko sistemako periferiara pasatzea, eta ondoren azken sistemako zentrora joan daiteke ala ez. Mugimendu horiek *transferentziak* dira, eta "lehenbizi transferentziak zergatik gertatzen diren, transferentzia jakin batzuk gertatzeko arrazoiak, eta horiek nola gertatzen diren, horiexek dira Polisistemaren Teoriaren ardura" (op. cit.:14). Literaturaren kasuan, literatur elementu bat periferiatik zentrora mugitzeak bere estatusa hobetzea adierazten du: elementu hori kanoniko bihurtzen da, literatur zirkulu ofizialetan onartua izan den seinale. Literatura itzuliaren kasuan, bi polisistemen arteko elkarreragina gertatzen da: ST bere barnean hartzen duen polisistema, eta XT onartzen duen polisistemaren artean.

II.2.5.3. Estratu kanonizatuak/kanonizatu gabeak.

Kanonikotasunari buruz, Shlovski-ren iturriak aipatuz, literatur ezaugarri batzuk kanonizatu egiten dira, eta beste batzuk kanonizatu gabe geratzen dira. Beraz, "kanonizatutzat" ulertzen dira kultura bateko botere-zirkuluetan bidezkotzat onartutako literatur arau eta obrak (hau da, ereduak eta testuak), zeinaren emaitzarik behinenak komunitateak gordetzen dituen bere ondare historikoaren parte bihurtzeko. Beste muturrean, "kanonizatu gabekotzat" jotzen dira botere-zirkulu horiek bidegabetzat arbuiatzen dituen arau eta testuak, zeinaren emaitzak sarritan komunitatearen ahazturan erortzen diren epe luzera. Horrek esan nahi du kanonikotasuna ez dela literaturaren berezko ezaugarria, ez dela literatura "onaren" ordezkoa. Literatur ezaugarri batzuk, halako garai batean, ondo kontsideratutako mailaren inguruan biltzeko joerak ez du esan nahi

ezaugarriak eta maila betiko lotuta daudenik (op. cit.:15). Beste hitzetan esanda, literatur kritika tradizionalak polisistemaren zentroan dauden obrez arduratu ohi da, gainontzeko fenomeno periferikoei (HGL, literatura itzulia, generoko literaturak, etabar) arretarik eskaini gabe. Era horretan, literatura kanonikoan aldaketaren bat gertatzen denean, horren arrazoia azaldu gabe geratu ohi da ezinbestean: "interference often takes place via peripheries. When this process is ignored, there is simply no explanation for the appearance and function of new items in the repertoire" (op. cit.:25). Eredu polisistemikoaren bidez, ordea, bere osotasunean azaltzen dira literatura guztien arteko harremanak.

II.2.5.4. Errepertorioa/testuak.

Beste aldetik, kanonikotasuna polisistemako errepertorioan gauzatzen da. "Repertoire is conceived of here as the aggregate of laws and elements (either single, bound, or total models) that govern the production of texts" (op. cit.:17). Horregatik, beraz, "literatura" ez da testuekin edo errepertorioarekin identifikatu behar, azken horiek ez direlako haren erabateko gauzatzea, eta beren egiturak ez duelako zerikusirik polisistemaren barruan erakusten duten jokabidearekin. Kanonizatze prozesuan eragin baino, testuak prozesu horren emaitza dira.

II.2.5.5.Kanonikotasun estatikoa/dinamikoa.

Even-Zoharren arabera (op. cit.:19), bi kanonikotasun mota daude: estatikoa eta dinamikoa. Lehen kasua gertatzen da testu jakin bat onartua eta literaturako testu klasiko bihurtzen denean; bigarren kanonikotasun motan, berriz, literatur eredu jakin bat ezartzen da sistema literarioaren zentroan, emankorra izan dadin. Even-Zoharren ustez, bigarrena litzakete garrantzitsuena sistemaren dinamikotasunari begira, eta horretxek sortzen du benetan kanona. Horren arabera, testu bat eredugarri eta emankor bihur daiteke, eta bere eredua errepertorio kanoniko batera pasa daiteke (jo dezagun, beste sistema literario batzuetako obra kanonikoetako narratzaile

orojakilearen desagerpena euskal literaturaren sisteman kanoniko bihurtu da). Beste muturrean, gerta daiteke obra bat kanoniko bihurtzea, baina bere literatur eredu emankorra izateko errefusatua izatea (hipotesi gisa, Anjel Lertxundiren *Otto Pette* kanoniko genuke, baina mediebalismoa obra berrien eredu gisa agortuta legoke).

II.2.5.6. Lehen mailako/bigarren mailako errepertorioak.

Errepertorio kanoniko bat prediktibotasun handia izatera iristen denean, eta desbideraketarik nekez onartzen duenean, errepertorio hori "bigarren mailakoa" edo kontserbatzailea da; aldiz, errepertorioa elementu berriez handitu eta berregituratzen denean, eta ondorioz horren prediktibotasuna txikiagoa denean, errepertorio hori "lehen mailakoa" edo berritzailea da (funtzionatzeko duen aurrebaldintza ezarritako ereduen ezjarraikortasuna da). Kanonaren barruko bi maila horien arteko borroka sistemako goi eta behe estratuen artekoa bezain erabakigarria da sistemaren garapenerako (op. cit.:21).

II.2.5.7. Polisistema barneko eta polisistemen arteko erlazioak.

Polisistemaren barruko elementuen arteko harremanak gertatzen diren era berean, polisistema desberdinen arteko elementuak ere harremanetan egon daitezke. Esaterako, Erdi Aroan zehar, Erdi eta Mendebaleko Europak polisistema bakar bat osatzen zuen, zeinaren zentroa latinez idatzitako obrek betetzen zuten (periferian, noski, tokian-tokiko herri-hizkuntzetako idatzizko edo ahozko literatura zegoen). Denborarekin, ordea, polisistema handi hori behera etorri zen, eta horrek utzitako tokia polisistema elebakar gero eta independienteago batzuek bete zuten. Horren ondoren, polisistema horietako zentro eta periferiek etengabeko eragina mantendu zuten, eta borroka, orduan, eredu trasferituen eta jatorrizkoen artean gertatu zen. Antzeko zerbait gertatzen da

polisistema bateko obraren bat beste polisistema bateko hizkuntzara itzultzen denean. Horregatik guztiagatik, hauxe esaten du Even-Zoharrek (op. cit.:25):

> In short, it is a major goal, and a workable possibility for the Polysystem theory, to deal with the particular conditions under which a certain literature may be interfered with by another literature, as a result of which properties are transferred from one polysystem to another.

Eta aurrerago:

> Semiliterary texts, translated literature, children's literature —all those strata neglected in current literary studies— are indispensable objects of study for an adequate understanding of how and why transfers occur, within systems as well as among them.

II.2.5.8. Literatur sistemaren kontzeptua.

Aurrera joan baino lehen, dagoeneko "sistema literarioa" edo "literatur sistema" behin baino gehiagotan ageri dira. Even-Zoharrek bi definizio ematen ditu (op. cit.:28):

> The network of relations that is hypothesized to obtain between a number of activities called "literary", and consequently these activities themselves observed via that network.
>
> Or:
>
> The complex of activities, or any section thereof, for which systemic relations can be hypothesized to support the option of considering them "literary".

Horren arabera, berriz ere azpimarratzen da literaturak ez duela berezko ezaugarririk, baizik eta garai bakoitzean "literariotzat" jotzen diren "jarduerak" eta "harremanak" izango dira garai horretako "literatura".

II.2.5.9. Literatur (poli)sistemaren osagaiak.

Jakobsonen (1981:32) komunikazio linguistikoaren eskema oinarritzat hartuta, Even-Zoharrek literatur komunikazioaren eskema paralelo bat osatzen du (Even-Zohar, op. cit. :31), literatur (poli)sistemaren funtzioarekin zerikusia duten makro-faktoreak azaltzen dituelarik, hemen aurkezten duguna (kortxete artean Jakobsonen beraren terminoak):

INSTITUZIOA [testuingurua]

ERREPERTORIOA [kodea]

EKOIZLEA [igorlea] KONTSUMITZAILEA [hartzailea]

("idazlea") ("irakurlea")

MERKATUA [kontaktua/kanala]

PRODUKTUA [mezua]

Even-Zoharrek argi utzi nahi du goian azaldutako faktoreen artean ez dagoela inolako hierarkizaziorik, baizik eta elkarren arteko emnpekotasunak direla sistemaren funtzionamendua ahalbidetzen dutenak. Ondoren, osagai horien banan-banako azalpena egingo dugu, Even-Zohar-en irizpideari jarraituz (op. cit.:34-44).

Ekoizlea(k). Deitura hori nahiago izaten da "idazlea" baino. Ekoizlea, ikuspegi tradizionaleko idazle inspiratuarengandik urrun, etengabeko harremanetan dago bere gizartearekin, eta batzuetan bere emaitza literarioak gizarteko beste emaitza batzuetatik (irudi, jarrera eta jarduera-aukera politikoak) hurbil daude. Hori gertatzen denean, ekoizlea instituzioan eta merkatuan ere sar genezake. Gainera, ekoizle bakarraren irudia ere ez da beti egiazkoa, ekoizleek sarritan taldeka lan egiten dutelako.

Kontsumitzailea(k). Kontsumitzaileei buruz, ez da "irakurketa" terminoetan bakarrik hitz egin behar. Batetik, historian barreneko kontsumoa entzumenaren bidez gertatu delako eta,

bestetik, kontsumitzailea jarduera literarioen maila desberdinetan mugi daitekeelako. Alde horretatik, kontsumitzaileak "zuzenak" eta "zeharkakoak" izan daitezke. "Zuzenek", gutxiengoa, literatur ekoizpenen irakurleak dira. Baina, neurri batean edo bestean, komunitateko kide guztiak dira "zeharkako" kontsumitzaileak, hau da, kultur agente desberdinek digeritu eta zabaldutako, eta eguneroko diskurtsoan txertaturiko literatur zatiak kontsumitzen dituzte. Eta kontsumitzaile "zuzenen" artean ere, gutxiengo bat dira irakurtze jardueran soilik interesatuta daudenak; gainontzekoei gehiago axola zaie literatur sistemako beste ekintzetan parte hartzea (idazleen hitzaldietara joatea, etabar). Laburbilduz, literaturaren kontsumitzaileek (musika, antzerkia, dantza, eta beste jarduera soziokulturalen kontsumitzaileek bezala), sarri askotan, literatur jarduerarekin zerikusirik duten ekintzen funtzio soziokulturala kontsumitzen dute soil-soilik, produktu edo testua bera kontsumitu beharrik gabe. Horixe gertatzen da, esaterako, Bernardo Atxagarekin: testuinguru askotan ezagunagoa da emandako hitzaldiengatik eta egindako kantu, antzerki lan eta bestelako kolaborazioengatik, idatzi dituen obrengatik baino (Olaziregi, 1998:33-34).

Instituzioa. Instituzioa literaturaren garrantzizko jarduera soziokulturala mantentzearekin zerikusirik duten faktore guztiak dira. Espezifikoki, instituzioaren barruan honakook daude: gutxienez ekoizleen parte bat, edonolako kritikoak, argitaletxeak, aldizkariak, klubak, idazleen elkarteak, gobernu-taldeak (kultura sailak, akademiak), hezkuntza erakundeak (unibertsitatea barne), mass media izenekoak, eta beste. Instituzioa ez da zer homogeneo bat eta, horregatik, instituzioaren gidaritza lortzeko botere-borrokak gertatzen dira.

Merkatua. Literatur produktuak saldu eta erostearekin, eta kontsumo mota desberdinen promozioarekin zerikusirik duten faktore guztiek osatzen dute. Errealitate soziokulturalean, askotan merkatua eta instituzioa batera agertzen dira espazio berean: adibidez, literatur "saloietan". HGLren kasuan, irakasleak, esaterako, merkatuko agenteak dira liburu kanoniko edo ez-

kanoniko jakin batzuk eskolan sartzen dituzten mementutik. Merkaturik ezean, literatur jarduerak garatzeko espaziorik ez legoke. Beraz, merkatua handiagotzea da literatur sistemaren interesetariko bat.

Errepertorioa. Produktu jakin bat sortu eta erabiltzeko jokoan jar daitezkeen arau eta materialek osatzen dute. Jakobsonen "kodearekin" gertatzen den bezala, ekoizleak eta kontsumitzaileak errepertorioari buruzko ezagutza eta adostasun maila komun bat izan behar dute. Literaturaren emaitzarik behinena testuak badira, orduan errepertorioa testu jakin bat ekoiztua eta ulertua izateko behar diren arau eta osagaien multzoa da. Sistema bat gaztea denean, beraren errepertorioa mugatua izan daiteke, eta orduan eskura izan ditzakeen beste sistemetakoa erabiltzeko joera gerta daiteke. Zaharra denean, berriz, errepertorio aberatsa izango du, eta aldaketa garaietan erreziklaia metodoak entseia ditzake (beti ere sistemako beste osagaiekin adostasunean). Errepertorioa hiru mailatak egituratuta dago: osagai bakanen maila (morfemak, lexemak, etabar); sintagmaren maila (muga "esaldia" duelarik); eta ereduen maila (nobelaren eredua, elkarrizketaren eredua, heroearen fisonomia deskribatzeko eredua).

Produktua. Produktua egindako (edo egingarria den) zeinu multzo bat da. Literaturaren kasuan produktua testuarekin identifika badaiteke ere, badirudi testua beste zerbaiterako bidea besterik ez dela. Alde horretatik, ikuspegi semiotikotik, testuek itxuratzen dituzten errealitate-ereduak aztertu beharko lirateke.

II.2.5.10. Itzulitako literaturak literatur polisisteman betetzen duen posizioaz.

Tokian tokiko literatur historiak nekez arduratu dira itzulpenen funtzioaz, eta saihesteko modurik ez zegoenean bakarrik egin dute horien aipamena. Hala ere, itzulitako literaturak literatur sistema berezia osatu ezezik, literatur polisistemako sistemarik aktiboena da.

Itzulitako literaturak polisistemaren barruan betetzen duen posizioa zentrala ala periferikoa den, aztergai dugun polisistemaren ezaugarrien arabera dago. Itzulitako literaturak posizio zentrala betetzeak polisistemaren gunea itxuratzen aktiboki parte hartzen ari dela esan nahi du. Egoera hori hiru kasutan gerta daiteke: a) polisistema bat helduta ez dagoenean, hau da, literatura "gaztea" denean; b) literatura jakin bat periferikoa edota ahula denean; eta c) literatura batean inflexiouneak, krisiak edo gabeziak daudenean.

Lehen kasuan, itzulitako literatura literatura gazteagoaren beharrak betetzera dator eta, beraz, ahalik eta literatur eredu gehienak behar ditu literatur hizkuntza bezala eraginkorra izateko. Alde horretatik, itzulitako literaturak polisistema horren zentroa beteko luke. Bigarren kasuan, literatura erlatiboki osasuntsua baina inguruko polisistemen hierarkian periferikoa denak ez du sortzen bere baitan inguruko literaturetan antzematen duen jarduera literarioen espektro zabala, eta falta dituen jarduera literarioak ezinbestekoak dituelako irudipena sortzen du; orduan, adibidez, literatura periferikoak (polizi nobelak, abenturak, haur literatura) itzulpenen bidez eskuratzen ditu. Menpekotasun hori periferietatik gunera bertara heda daiteke, kontuan harturik literatur sistema ahulek ez dutela berrikuntzak beren periferiatik jasotzeko indartsuek beste aukera eta gaitasun, eta inportaturiko literaturaren pean daude. Hirugarren kasuan, azkenik, itzulitako literaturak polisistemaren gunean koka daitezke, baina XL berriro indartu denean periferiara itzultzen dira.

Sistema bat osatzen duen aldetik, itzulitako literatura ere estratifikatuta dago. Horrek esan nahi du itzulitako literaturaren parte batek posizio zentrala bete dezakeen bitartean, beste parte bat periferiko suerta daitekeela. Hori, itzulitako literaturaren estatusaren arabera dago. Hala ere, egindako ikerketen arabera, badirudi ohikoena posizio periferikoa hartzea dela (Europako kasurik nabarmenena Frantziarena da: hango literatur sistema oso zurruna izanik, itzulitako literaturak oso posizio periferikoa hartzen du).

Beste aldetik, itzulitako literaturak polisistema berrian hartzen duen posizioak ondorio nabarmenak izan ditzake itzulpen arau, jokabide eta estrategietan. Itzulitako literaturak posizio zentrala betetzen badu, itzultzaileak ez ditu erabiltzen ohiko ereduak, baizik eta XLko konbentzioak hautsiko dituen beste batzuk baizik. Egokitasun maila oso handia izango da, baina baliokidetasun maila ez hainbestekoa. Proposamen berria garaile ateratzen bada, itzulitako literaturaren errepertorioa aberastuko da. Horixe gertatzen da, kasurako, "Literatura Unibertsala" deritzan bildumarekin: zenbait idazlek, Anjel Lertxundik adibidez, aitortua dute itzulpen horiekiko zorra, errepertorio berritzaileak eta askotan kanonikoak eraikitzeko lanean.

Kontrako kasuan, itzulitako literaturak posizio periferikoa hartzen duenean, berriz, itzultzaileak eskura dauzkan bigarren mailako ohiko ereduak erabiliko ditu, baliokidetasun handikoa baina itzulpenaren egokitasunaren kalterako (1990:45-51).

II.2.5.11. Literatur interferentziaren legeak.

Interferentzia literarioa literaturen arteko erlazioa da, non A izeneko literaturak (SL) mailegu iturri zuzen edo zeharkako bihurtzen den B literaturarentzat (XL) (op. cit.:54).

XL hori gaztea izaten da, edo eraikitze prozesuan dago. Even-Zoharrek aipatzen duen gaur eguneko kasu bat, literatura gutxituena da (talde txikiek ekoiztua, edo indar ekonomiko edo politiko indartsuago baten menpeko talde batek ekoiztua).

Interferentzia, bestalde, zuzena edo zeharkakoa izan daiteke. Zuzena denean, XLko agenteek bitartekorik gabe beregana dezakete (SLren hizkuntza ezaguna zaie). Zeharkakoa denean, berriz, interferentzia gertatzeko bitartekoren bat behar izaten da (itzulpena, kasu). Nahiz eta bi kasuetan nolabaiteko itzulpena gertatu, itzulpenaren garrantzia handiagoa da bigarrenean.

Egile israeldarraren hipotesian, interferentziak honako lege hauen pean gertatzen dira (op. cit.:59):

1. Interferentziaren printzipio nagusiak.
    1.1. Literaturak inoiz ez daude interferentzia ezean.
    1.2. Gehienetan interferentzia unilaterala izaten da.
    1.3. Literatur interferentziak ez du derrigorrez zerikusirik komunitate arteko beste mailetan gerta daitezkeen beste interferentziekin.
2. Interferentzia agertu eta gertatzeko baldintzak.
    2.1. Lehenago edo beranduago kontaktuek interferentzia eragingo dute, aurkakotasunik agertu ezean.
    2.2. SL prestigioagatik aukeratzen da.
    2.3. SL nagusitasunagatik aukeratzen da.
    2.4. Interferentziak gertatzen dira sistema batek bere baitan eskuratu ezin dituen elementuak behar dituenean.
3. Interferentziaren prozesuak eta prozedurak.
    3.1. Kontaktua XLko zati batean bakarrik gerta daiteke, eta ondoren beste zatietara zabal daiteke.
    3.2. Bereganatutako errepertorioak ez ditu derrigorrez SLn betetzen zituen funtzioak betetzen.
    3.3. Bereganatutako elementuek sinplifikatu, erregularizatu eta eskematizatzeko joera dute.

II.2.5.12. Interferentzia menpeko literatur polisistemetan.

Menpeko literatur polisistema batean, kanpotik ekarritako literatura izan ohi da polisistema horren biziraupenerako baldintza epe luzean zehar. Hori gertatu zen Erdi Aroan Europako literatura berriek latinarekiko zeukaten menpekotasuna, edota Erromantizismoarekin batera birjaio ziren nazioek ordurako tradizio sendoa zutenekiko menpekotasuna: literatura flamenkoa frantsesaren aurrean, literatura norvegiarra literatura danimarkarraren aurrean, literatura txekiarra alemaniarraren aurrean, edo literatura ukraniarra errusiarraren aurrean. Gurean, kasurako, Joannes Leizarragak *Iesus*

Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria (1571) itzultzeko erabili zuen lexiko eta sintaxi eredu latinarra aski nabarmena da.

Literatura baten menpekotasuna gertatzeko baldintza nagusia, literatura hori ahula izatea da. Eta, jakina denez, ahultasun hori ez dator derrigorrez ahultasun politiko edo ekonomikoaren ondorioz. Orduan, normalean, sistema ez da gai bere errepertorio propioarekin soilik funtzionatzeko, eta ingurukoetara jotzen du, bai kanpoko errepertorioa bera bereganatuz, bai kanpoko errepertorioaren funtzioez baliatuz.

II.3. Euskal itzulpengintzaren historia. Periodizazioa.

Euskal itzulpengintzaren historia laburtzearekin batera, Mendigurenek (1995) proposaturiko periodizazioa ere azaltzen ahaleginduko gara ondoko lerrootan. Aipatu periodizazioa, bestalde, beste historiagile batzuek egin dutenaren antzekoa da (ikus Michelena, 1988; Sarasola, 1982).

II.3.1. Joannes Leizarraga.

Lehen atala itzultzaile bakar batek osatua dago: euskal itzulpengintzaren sorrera Joannes Leizarragaren *Iesus Christ gure iaunaren testamentu berria* (1571) obraren argitarapenean kokatu ohi da. Baina inprimaturiko lehen itzulpena izateaz gain, euskal itzulpengintzaren gailurretariko bat ere bada. Leizarragak bazekien euskalkien erronkari aurre egin beharko ziola, eta aniztasun hori gainditzen saiatu zen. Oinarritzat lapurtera erabiliz, behe-nafarrera eta zubereratik hartutako forma ugari gaineratu zituen. Gainera, latinetik hartutako mailegu ugari erabili zituen, lexikoan zein sintaxian.

II.3.2. Literatura aszetiko euskaratua.

Katolikoen Kontrarreformaren ondorioz sortutako itzulpen lanak dira, eta Iparraldean hartu zuten indarrik handiena. Besteak beste, Materre (*Dotrina christianatik*, 1617), Joannes Etxeberri Ziburukoa (*Manual Devotionezcoa*, 1627; *Noelac*, 1631; *Elizara erabiltzeko liburua*, 1636), Haranburu (*Debocino eskuarra, mirailla eta oracinoteguia*, 1635) eta Argaiñaratz (*Avisu eta Exortacionea probetchosac bekhatorearentçat*, 1641) aipatu behar dira.

Bestalde, XVII. mendeko itzultzailerik oparoena Silvain Pouvreau da. Beraren obrarik garrantzitsuenen artean hauek aipa daitezke: *Guiristinoen dotrina* (1656), *Philothea* (1664) eta *Gudu espirituala* (1665).

Ezin aipatu gabe utzi, azkenik, Allande Oihenarteren lana, *Les Proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur* (1657).

II.3.3. Larramendi eta Bonaparteren eraginpeko itzultzaileak.

XVIII. medean, Hegoaldeko kultura mugimenduak garrantzia hartzen du. Manuel Larramendi jesuitaren eraginpean belaunaldi oso batek ekin zion itzulpen lanari, beste batzuen artean, Agustin Kardaberaz, Sebastian Mendiburu, Joan Antonio Mogel, Bizenta Mogel eta Pedro Antonio Añibarro.

Iparraldean, berriz, Antoine d'Abbadie eta Bonaparte printzearen ikerketak sostengatzeko, Intxauspe, Duvoisin, Uriarte, Daskonagerre eta Arxu aritu ziren han hemenkako itzulpenak burutzen.

II.3.4. Foruen galeraren ondokoak.

XIX. mendearen bukaeran, 1876an, Foruen galeraren ondorioz, kultura bultzagile batzuk sortu ziren. Itzulpengintzari dagokionez, joera herrikoiak nagusitu ziren, besteak beste Arrue, Jose Ignazio Arana, Antia eta Soroaren eskutik.

Beste aldetik, Itxarkundiaren ondorioz, Bizkaian kokatzen dira mugimendu nagusiak. Batetik, Azkue eta bere lanen eragina; bestetik, Sabino Arana-Goiriren jarraitzaileak: Zabala-Arana, Arriandiaga, Eguzkitza eta Erramun Olabide.

Gerraren inguruan, Nikolas Ormaetxea "Orixe" nabarmendu zen. Itzultzaile horren joera, zentzua edo edukia itzultzea zen, formaz nolabait ahaztuz. Besteak beste, *Tormes'ko itsu-mutilla* (1929) eta *Mireio* (1930). Orixerekin batera, Ibinagabeitia, Larrakoetxea, Barandiaran, Etxaide, Akesolo, Onaindia etabar aipatu behar ditugu.

II.3.5. 1970etik aurrera: profesionalizazioa.

Euskara batuaren itunaren ondorioz, eta Itzultzaileen Eskolaren sorrerarekin batera, "euskal itzulpengintza modernoa" eratuz joan da gaur egun arte. Garai horretan, itzulpen zehatzagoak egiten hasi ziren, Urretabizkaia, Sarasola, Kintana, Txillardegi, Garmendia, Mendiguren etabarren eskutik.

Aldi berean, Martuteneko Itzultzaile Eskola sortu zen, 1980an. Bertan, mundu zabalean itzulpengintzari buruz egindako gogoetak euskalerriratu eta praktikara eraman ziren, euskal itzulpengintzaren eredu baten bila.

Hamar urte geroago, Graduondoko Itzulpen Masterrak abian jarri ziren Deustuko Unibertsitatean zein Euskal Herriko Unibertsitatean.

Gaur egun, euskal itzulpengintzaren arloa profesionalizatuta ezezik, arlo desberdinetan (administrazioa, justizia, hedabideak,

literatura) espezializatuta ere badagoela esan daiteke. Gero eta hizkuntza gehiagotatik euskaratzeko gai diren itzultzaileak ditugu, eta itzultzaile zein itzulpenak sozialki baloratzen hasi dira.

II.4. Bibliografia aipatua.

BAMBERGER, Richard (1978). "The Influence of Translation on the Development of National Children's Literature", in KLINGBERG, Göte; *et al.* ed. *Children's Books in Translation. The Situation and the Problems*. Stockholm: Almqvist & Wiksell International, 19-27.

BENJAMIN, Walter (1971). "La tarea del traductor", *Angelus Novus*, Barcelona: Edhasa (1923).

EVEN-ZOHAR, Itamar (1990). "Polysystem studies", in *Poetics Today*, 11, 1.

GALLEGO ROCA, Miguel (1994). *Traducción y literatura: los estudios literarios ante las obras traducidas*. Madrid: Júcar.

GARCIA YEBRA, Valentín (1982). *Teoría y práctica de la traducción*. Madrid: Gredos (2 liburuki).

GARCIA YEBRA, Valentín (1983). *En torno a la traducción. Teoría. Crítica. Historia*. Madrid: Gredos.

GENETTE, Gérard (1989). *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*. Madrid: Taurus.

GUILLEN, Claudio (1985). *Entre lo uno y lo diverso. Introducción a la Literatura Comparada*. Barcelona: Editorial Crítica.

HERMANS, Theo, ed. (1985). *The Manipulation of Literature*. London: Croom Helm.

HOLMES, James S. (1988) *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies*. Amsterdam: Rodopi.

HOLMES, James S.; LAMBERT, José & VAN DEN BROECK, Raymond, eds. (1978). *Literature and Translation*. Leuven (Belgika): Acco.

JAKOBSON, Roman (1981). *Lingüística y poética*. Madrid: Cátedra.

KLINGBERG, Göte (1986). *Children's Fiction in the Hands of the Translators*. Lund (Suedia): CWK Gleerup.

KOPPEN, Erwin (1990). *Thomas Mann y Don Quijote*. Barcelona: Gedisa.

KRISTEVA, Julia (1969). *Semiótica*. Madrid: Fundamentos.

LEUVEN-ZWART, Kitty M. van & NAAIJKENS, Ton, eds. (1991). *Translation Studies: the State of the Art.* Amsterdam: Rodopi.

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1992). *Itzulpengintza. Historia eta teoria*. Donostia: Elkar.

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1995). *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*. Donostia: Elkar..

MENDIGUREN, Xabier (1981). "Euskal literaturan itzuli izan diren liburuen zerrenda", *Euskera*, XXVI (2. aldia), 954-979.

MENDIGUREN, Xabier (1983). *Itzulpen teoriazko ezagupenak*. Donostia: Itzultzaile Eskola.

MICHELENA, Luis (1988). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein. 2. ed.

MUKAROVSKY, Jan (1977). *Escritos de Estética y Semiótica del Arte*. Barcelona: Gustavo Gili.

NEWMARK, Peter (1981) *Approaches to Translation*. Oxford: Pergamon.

OLAZIREGI, Mari Jose (1998). *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Donostia: Erein.

ORTEGA Y GASSET, José (1961). “Miseria y esplendor de la traducción”, Obras Completas, V, Madrid: *Revista de Occidente*, 433-452 (1937).

SARASOLA, Ibon (1982) *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal.

SHAVIT, Zohar (1986). *Poetics of Children’s Literature*. Atenas/London: The University of Georgia Press.

TOURY, Gideon (1980) *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.

III
EUSKARATUTAKO HGL-REN AZTERKETA: METODOLOGI ESKEMA BAT

Aurreko kapituluan ikusi ahal izan den bezala, itzulitako literaturaren azterbideak anitz dira, itzulpengintza diziplina aski berria izan arren oso laster garatu baititu norabide askotarako adarrak. Horien guztien artean, geure helburuetarako egokienak izan daitezkeenak hautatu eta metodologi eskema bat osatu dugu, kontuan harturik, alde batetik, gure azterketaren izaera diakronikoa eta, bestetik, praktikan jarri diren proposamen gehienak diziplinartekoak izan direla. Ondoren datorren lehen atalean, hortaz, euskaratutako HGLren funtzioak eta jatorrizko ekoizpenean izan dituen eraginak aztertzeko metodologia azalduko dut, eta, bigarrenean, itzulpen estrategiak hautemateko bideak ere bai.

III.1. Itzulitako literaturaren eraginak eta funtzioak aztertzeko metodologia.

XLren polisisteman betetzen dituen funtzioak eta eragiten dituen eraginak aztertzeko, Even-Zoharren teorizazioetan oinarrituko gara, "Manipulation School" delakoaren zenbait alderdiez ere baliatuz. Hemen aztertu beharreko kontu bat euskaratutako literaturaren funtzioa da: itzulitako literatura XLren polisistema gaztea osatzeko erabiltzen den ala ez; horrela argituko da itzulitako literatura bultzagarri gertatu den ala, aitzitik, bertako literaturaren ezaugarrietara egokitu eta polisistemaren periferian kokatu den literatura suertatzen den (Even-Zohar, 1990:45-51; Shavit, 1986:111-130; Toury, 1980; Holmes *et. al.*, 1978; Hermans *et. al.*, 1985).

Eragin edo transferentzien alorrean, SLtik ekarri eta XLan berritzaileak izan daitezkeen zenbait elementuri begiratuko diogu. Elementu horiek bi sailetan banatu ditugu, Colomer (1998:150-169) ikertzaileari jarraituz: historiaren elementuak eta diskurtsoaren elementuak.

Atal honetan dugun helburua euskaratutako HGLk jatorriz sortutakoan eraginik izan ote duen aztertzea izanik, modernotasun edo berritasun aztarnak bilatu behar ditugu, bai euskaratutakoan, bai jatorrizkoan, bien artean kausalitaterik antzematen den ala ez argitzeko.

Ezaugarri horiek, esan bezala, bitan banatuko ditugu —historia eta diskurtsoa—, eta gure helburuetarako egokitu eta mugatuko ditugu. Historiari dagozkion elementuak bi zatitan ematen dira —II. Mundu Gerra artekoak eta ordutik gaur egun artekoak—. Berrikuntza dakarten elementu horiek jatorrizko ekoizpenean agertuz gero, euskaratutako obren eraginez agertu ote diren argitu beharko genuke.

XIX. mendetik II. Mundu Gerra arteko genero eta gai berriak, beraz, honakoak dira:

-Haurra protagonista duten kontakizun errealistak: famili kronikak, eskolako istorioak, haur taldeak.

-Abenturazko kontakizunak: “robinsonadak”, abenturazaleak, kontakizun historikoa.

-Animalien kontakizunak: giza itxurako animaliak, animalien istorio errealistak.

-Fantasiazko eta umorezko kontakizunak: elementu magiko bat mundu errealean, objetuen pertsonifikazioa, goi mailako fantasia.

XX. mendeko bigarren erditik hona agertutakoak, berriz, honakoak:

-Fantasia modernoa: errealismo fantastikoa, naturaz gaindiko indarrak.

-Zientzia fikzioa.

-Fikzio errealista berria: gai sozialak, gai psikologiko-pertsonalak.

Eta, azkenik, diskurtsoari dagozkion berrikuntzak, helduen literaturatik zein mass-medietatik jasotakoak, honako hauek dira:

-Diskurtsoaren antolakuntza: narratiboak ez diren testuak tartekatzea, generoak nahastea, diskurtsoaren antolakuntza bereziak (kateatzea, istorioa istorioaren barruan, txandakatzea).

-Fokalizazioa: hau da, gertakariak nork ikusten dituen. HGLri berezko zitzaiona fokalizaziorik eza zen. Fokalizaturiko ikuspuntu guztiak, beraz, berritzat jo ditzakegu: barne fokalizazioa (protagonistaren, bigarren mailako pertsonaia baten, edo pertsonaia batzuen aldibereko fokalizazioa) eta kanpo fokalizazioa (objektiboa edo behaviorista).

-Ahotsa: hau da, gertakariak nork kontatzen dituen. Hemen ere bereiztu behar da kanpoko narratzailearen (heterodiegetikoa) eta barruko narratzailearen (homodiegetikoa) artean.

III.2. Itzulpen estrategiak aztertzeko metodologia.

HGL, "Trivialliteratur" edo "popular literature" kontsideratua izan den aldetik, ezin hobeto sartzen da Even-Zoharren "literatura periferikoen" kontzeptuaren barruan (Even-Zohar, 1990:47). Alde horretatik, euskal HGL euskal literatur polisistema orokorreko zein tokitan kokatzen den aztertu beharko dugu. Ondoren, euskal HGLren barruan emandako estratifikazioa ere kontuan hartuko dugu, eta garai bakoitzean euskaratutako literatura, euskal HGLren

polisistema espezifikoan jada, gunekoa ala periferikoa den azalduko dugu.

Aurreko kapituluan adierazi dugun bezala, Even-Zoharren teoriak literatur itzulpengintzaren arlora lehenbizi ekarri zituen ikertzaileetariko bat Toury izan zen (ikus II.2.5.3). Egile horrek azaltzen duenez, ikerketari ekin aurretik, sorburu polisistema eta xede polisistemaren deskribapena egin behar da, itzulitako literaturaren funtzio aldaketez ohartu ahal izateko. Horretarako, itzulitako HGLren azterketa kuantitatiboari ekin beharko genioke, besteak beste sorburu polisistemak zeintzuk diren argitzeko, eta argitaletxe eta itzultzaileen berri izateko.

Ondoren, "baliokidetza" termino zaharkitu eta arau-emailearen ordez, Toury proposaturiko "arauen" azterketari ekingo diogu, itzulpenak egin baino lehen egiten den hautaketaz ohartu ("preliminary norm"), itzulpena burutu bitartean itzultzaileak hartutako erabakiei buruzkoak ("operational norms"), eta egin ondoren egokitasun/onargarritasun *continuum* horretako zein puntutan kokatzen diren aztertzeko ("initial norm") (Toury, 1980:53-54). Antzeko azterketa bat burutu zuen Marisa Fernández López-ek ingelesetik gaztelaniara itzulitako gazte literaturari buruz (Fernández López, 1996). Ikertzaile horrek, hain zuzen ere, itzulitako HGLrekin zerikusi handia daukan beste arau bat kontuan hartzea proposatzen du: Rosa Rabadán-ek proposaturiko "harrera arauak" ("normas de recepción") direlakoak. Egile horren arabera, harrera arauak "son las que determinan la actuación del traductor según el tipo de audiencia que se presume va a tener el TM. Además, son las que caracterizan y definen el marco de negociabilidad de la comunicación, lo que se refleja en su funcionamiento respecto a la elección del criterio sociolingüístico dominante en la jerarquización del conjunto de relaciones translémicas" (Rabadán, 1991:56-57).

Ikertzaile talde israeldarraren eraginez, eta "Manipulation School" delakoan integraturik, José Lambert-ek eta Hendrik van Gorp-ek, itzulpenen azterketa sistemikoaren beharra azpimarraturik, Toury-renaren antzeko ikuspegi diakronikoa proposatzen dute, itzulpen jakin baten azterketatik harantzagokoa:

> In fact, we are convinced that the study of translated literature, if approached from such a broad, systemic angle, will contribute substantially to a more dynamic and functional approach to literature as such, for there is no doubt that the analysis of literary translations provides an important key to our understanding of literary interference and historical poetics (Lambert & Van Gorp, 1985:52).

Alde horretatik, azterketa programa zabala proposatzen dute, aztertutako obren azaleko ezaugarrietatik hasi eta testuinguru sistemikoaren azterketaraino. Gure azterketan, "itzulitako liburuen ezaugarriak" deituko diogu lehengo puntuari, eta gure ustez zabalduago dagoen Genette-ren "paratestu" kontzeptua aplikatuko dugu (Genette, 1989a:11); azkenari dagokionez, hau da, testuarteko harremanak, bereziki beste itzulpenekin edo jatorrizko obrekin gertatzen direnak, "itzulpenen funtzio eta eraginak" izenburupean aztertuko dugu.

Beste alde batetik, Even-Zoharren kolaboratzaile batek, Zohar Shavit, aztertuak dauzka helduen literaturako obra batzuek HGL gisa onartuak izateko erabili dituzten itzulpen estrategiak. Ikertzaile horren datuak hebraierara itzulitako literaturan oinarritzen diren arren, menpeko beste sistema nazionaletan ere aplikagarri direlakoan dago (Shavit, 1986:111).

Abiapuntu gisa, HGLko obrak itzultzeko orduan, literatura mota horren izaera periferikoa dela eta, Shavit-en iritziz itzultzaileak askatasun handiz jokatzen du, testua aldatu, luzatu edo laburtzeko. Alde horretatik, itzulpen estrategiak bi helbururen inguruan erabakitzen dira: testuaren egokitzapena, haurrarentzat egokia eta erabilgarria izan dadin, gizarteak garai bakoitzean

ezartzen duenaren arabera (egokitzapen didaktikoa); eta argumentu, karakterizazio eta hizkeraren egokitzapena, gizarteak garai bakoitzean haurrari suposatzen dizkion irakurtzeko eta ulertzeko gaitasunen arabera (egokitzapen estilistikoa). Bi mutur horien artean (edukiaren egokitzapena / formaren egokitzapena) mugitzen dira HGLko itzulpenak hartzen dituen formak (op. cit.:113).

Itzulitako HGLk literatur polisisteman hartzen duen lekuari buruz, helduen literatura ez kanonizatuaren antzekoa da, hau da, biak polisistemaren periferian kokatzen dira, eta bigarren mailako ereduak erabiltzen dituzte. Hala ere, helduen literatura ez kanonizatuan nagusitzen den motibazioa komertziala da; HGLn, berriz, indar handiagoa dauka hezkuntza alderdiak. Alde horretatik, HGLren sistemara lerratzen diren obra itzuliak honako alderdi hauetan azter daitezke hobekien: dagoeneko existitzen diren ereduetara makurtzea; testuen osotasuna; testuen konplexutasun maila; egokitzapen ideologiko edo didaktikoak; eta estilo arauak (op. cit.: 115).

Beste ikertzaile batek, Göte Klingberg (1986), ingelesetik suedierara eta suedieratik ingelesera itzulitako haur eta gazte liburuetan aurki daitezkeen itzulpen estrategiak aztertu ditu, ikuspuntu preskriptibo batetik bada ere, era honetako baieztapenen bidez:

> Localization of cultural elements, simplification, and substitution by cultural elements belonging to the context of the target language are not to be recommended. When such methods are chosen, the source text is violated (Klingberg, 1986:18-19).

Gainera, Klingberg-en perspektiba, Shavit-ena ez bezala, sinkronikoa da, eta bere azterbidea honako atal hauetan banatzen du: egokitzapen kulturala, modernizazioa (zaharkiturik gelditu diren alderdi estilistikoez ari da batik bat), purifikazioa (balizko irakurleen baloreen arabera egiten diren moldaketak, zentsura), eta testuen laburpena.

Gure helburuetarako, beraz, goian aipatutako alderdiak bilduz, honako eskema metodologikoa aplikatuko dugu itzulpen estrategien azterketaren alorrean:

-Hasteko, Touryren "hasierako araua" delakoan, HGLko itzulpenak onargarritasun/egokitasunaren artean non kokatzen diren aztertu behar da.

-"Aldez aurretiko arauak" zeintzuk diren ere argitu behar da.

-Ondoren, Shaviti jarraituz, proposatzen dituen bost alderdiak euskal polisisteman ere betetzen ote diren aztertuko dugu:

*Dagoeneko existitzen diren ereduetara makurtzea.

*Testuen osotasuna.

*Testuen konplexutasun maila.

*Egokitzapen ideologiko edo didaktikoak.

*Estilo arauak.

-Aurreko alderdiei, Klingberg-en alderdi bat gehituko diogu: egokitzapen kulturala.

Eskema horretatik Shavit eta Klingberg-i jarraituz proposaturikoak beste sistema batzuen azterketarako baliagarriak izan diren proposamenak dira; guk euskal sisteman noraino betetzen diren aztertuko dugu

Amaitzeko, azken kapitulu batean, ikerketaren emaitzetatik atera daitezkeen ondorioak zeintzuk diren zehaztuko dugu.

III.3. Aipaturiko bibliografia.

COLOMER, Teresa (1998). *La formació del lector literari*. Barcelona: Barcanova.

EVEN-ZOHAR, Itamar (1990). "Polysystem studies", in *Poetics Today*, 11, 1.

FERNANDEZ LOPEZ, Marisa (1996). *Traducción y literatura juvenil: narrativa anglosajona contemporánea en España*. León: Universidad de León.

GENETTE, Gérard (1989a). *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*. Madril: Taurus.

GENNETE, Gérard (1989b). *Figuras III*. Bartzelona: Lumen.

HERMANS, Theo ed. (1985). *The Manipulation of Literature*. Londres, Croom Helm.

HOLMES, James S.; LAMBERT, José & VAN DEN BROECK, Raymond, eds. (1978). *Literature and Translation*. Leuven (Belgika): Acco.

KLINGBERG, Göte (1986). *Children's Fiction in the Hands of the Translators*. Lund (Suedia): CWK Gleerup.

LAMBERT, José & VAN GORP, Hendrik (1985). "On describing translations", in HERMANS, Theo (ed.). *The Manipulation of Literature*. Londres: Croom Helm.

RABADAN, Rosa (1991). *Equivalencia y traducción. Problemática de la equivalencia translémica inglés-español*. León: Universidad de León.

SHAVIT, Zohar (1986). *Poetics of Children's Literature*. Atenas/London: The University of Georgia Press.

TOURY, Gideon (1980) *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.

IV
EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LIBURUEN AZTERKETA KUANTITATIBOA

Atal honetan, euskarara itzulitako HGL aztertzen ahaleginduko gara. Horretarako, lehenbizi, itzulitako literatura hori barne hartu duen sistemaren deskribapena egingo dugu, hau da, euskal HGLren ezaugarririk esanguratsuenak azalduko ditugu.

Ondoren, euskaratutako HGLren azterketa estatistikoari ekingo diogu. Bertan azalduko dira, besteak beste, zenbat euskaratu den urtealdi bakoitzean, zein sistematako literaturak inportatu diren, nortzuk diren gehien euskaratu duten itzultzaileak eta zein argitaletxek egin duten itzulpen lanik handiena.

Aurreko datuok ikusirik, hurrengo zereginak izango dira sorburu sistema nagusien deskribapena, eta kanpoko obrak euskal sisteman nola eta zein unetan txertatu diren zehaztea.

Azkenik, euskaratutako literatura horrek jatorrizko euskal ekoizpenean izan ahal izan dituen eraginak aztertuko ditugu.

IV.1. Euskal haur eta gazte literatur polisistemaren deskribapena.

Hasieran iragarri bezala, deskribapen honetarako Xabier Etxanizen lanean (1997a) oinarrituko gara, eta beste zenbait egileren iritziekin osatuko dugu.

IV.1.1. Hasieratik 1900 arte.

Euskal HGL berandu jaio zen, XIX. mendean, didaktismoari loturik. Europako beste literaturetan gaizki ikusita zegoen herri literatura bazter utzita, Euskal Herrian ere alegiak aukeratu ziren orduko haurren hezkuntza egokirako.

Sintomatikoa da, gainera, euskal HGLko lehen obratzat hartu izan dena itzulpen bat izatea: Bixenta Mogelen *Ipui onac* (1804), Esoporen alegietan oinarriturik egindakoa. Hala ere, Etxanizek dioenez (1997a:99):

> Bixenta Mogel ez zen itzulpenera mugatu, eta zenbait ipuinetan bere iritzia ere ematen du alegien helburu didaktikoa eta morala ageriago utziz, eta bere helburua argiago plazaratuz. Alde horretatik, euskal letretan mendetan topikoak izan diren ezaugarriak ikus ditzakegu: kristautasuna eta baserriaren defentsa.

Bixenta, Juan Antonio Mogelen iloba zen, eta haren eraginez ikasi omen zuen latina. Apaizen artean hazi izanak eraman omen zuen herri literatura baztertzera. Hala diosku Villasantek (1979:251):

> Este aprendizaje [latinarena] lo empezó cuando sólo contaba ocho años de edad y recibía gran placer con las fábulas de Fedro, Esopo, etc., que le hicieron olvidar los cuentos de Peru ta Maria, que tanto le entusiasmaban cuando era aún más pequeña.

Bide beretik, Agustin Paskual Iturriagak *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano* (1842) argitaratu zuen, Samaniegoren berrogeita hamabost alegia bilduz. Hitzaurrean, gazteentzat pentsatutako lana zela dio. Itzulpenari dagokionez, berriz, balorazio bat egiten digu Etxanizek (1997a: 108): "Itzulpena izanik, jatorrizko testuak dirudite". Liburu horretaz gain, azpimarratzekoa da *Jolasak* (1842), elkarrizketa moduan antolaturiko testu liburua.

Iparraldean ere, antzeko joera gertatzen ari zen. J.B. Archuk La Fontaine-ren alegiak zubererara itzuli zituen 1848, nahiz eta liburuaren izena ezagutzen ez den. Gainera, haurrentzako lehen

gramatika ere argitaratu zuen 1852an: *Uskara eta Franzes Gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina*. Euskal Herri kontinentaleko kostaldeko probintzian, berriz, L. Goyetchek La Fontaineren alegiak euskaratu zituen berriro ere: *Fableac edo aleguiac* (1852).

Duvoisin kapitainak, bere aldetik, *Laborantzako liburua, edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean* (1858) argitaratu zuen. Duvoisin Bonaparte printzearen kolaboratzailea zen, eta Biblia lapurterako euskarara itzuli zion. Hala ere, hori baino lehen, Fenelon-en *Telémaque* euskaratu zuen, nahiz eta bizi bitartean ez zuen argitaratu.

Bestelako joera baten barruan, Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca* aipatu beharko genuke. Nahiz eta mendearen hasieran idatzia izan, 1880 arte ez zuen argirik ikusi. Mitxelenak dioenez (1988:114-115) euskal literaturako libururik entretenigarrienetarikoa ezezik, irakurrienetarikoa ere da. Elkarrizketa moduan antolatua, desagertzeko zorian zegoen gizarte zaharraren aldarrikapena da (Juaristi, 1987:69). Nahiz eta egileak berak hitzaurrean kontrakoa esan, gazteentzako obra kontsidera daiteke, eta pentsatzekoa da, Calleja eta Monasteriorekin batera, mende bukaerako gazte askok irakurri izatea:

> Parece lógico pensar que muchos sacerdotes y padres de tendencias carlistas leyeran o hicieran leer este libro a los chicos después de la pérdida foral vasca en la Tercera Guerra Carlista (1876), en la que el campesinado vasco tomó parte directa en defensa de su forma de vida (Calleja, Monasterio, 1988:92).

Beste aldetik, J.B. Elisanburu poetaren prosazko obratxo bat aipatu beharrean gaude: *Piarres Adame* (1946). Narratzaileak kontatzen dizkigu, gaztea zelarik, hamabost bat urte, Saratik Olhetarako bidean Piarres Adame zaharrarekin topo eginik bizi izandako gorabeherak eta Adameren ateraldiak. Elkarrizketa biziez osaturik, hona hemen gazte literaturatzat har daitekeen beste liburu bat.

Berriro ere mende bukaerara joanik, Antero Apaolazaren *Patxiko Txerren* (1890) nobela laburra dugu, hau ere itzulpen bat, Truebaren *Cuentos de color de rosa* liburuko ipuin batean du oinarri. On eta gaiztoen arteko borrokan, era duinez lortutako diruaren balioa azpimarratzen da lapurretaren aurrean (Etxaniz, 1997a:131).

Azkenik, baina aro berri bati hasiera emanez, aipatu behar dira Sabino Aranaren *Umiaren lenengo aizkidia. Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko* (1897), eta R. Mª Azkueren *Agakia. Euskeras irakurten ikastekoa* (1897) silabarioak, Errenazimendua eta abertzaletasunaren ateetan.

IV.1.2. 1900-1940 urtealdia.

Foruen galeraren osteko urteetatik Espainiako Gerra Zibila hasi bitartean, haur eta gazte liburugintzak igoera kuantitatibo nabarmena izan zuen. Horren arrazoiak, mende hasierako garai hartan jaio zen nazionalismoaren eraginez sortutako ikastolak, eta haurra ideia nazionalista eta kristauetan hezteko gogoan bilatu behar ditugu. Torrealdairen hitzetan: "Baina txikientzako liburuak sistematikoki ateratzeko lehen saioa Eskal Pizkundekoa da (...) Jakina da liburugintza mota hau nazio-eraikuntzari eta bereziki eskolari hertsiki lotua datorrela beti" (1997:230). Aurrekoarekin batera, atzerriko lan klasikoak euskaratzeari ekin zitzaion, era horretan sortu berriak ziren argitaletxeen katalogoak osatuz.

Batetik, beraz, haurrentzako liburu erlijiosoen ugalketa gertatu zen: *Umiak Autortuten eta Jaunartuten* (Imanol Arriandiaga, 1911), *Josu-Kristo'ren bizitza (Umientzako)* (Juan Gorostiaga, 1931), *Jesu-Kristoren bizitzea edo Ebanjelio Ttipia* (Pierres Lafitte, 1934), besteak beste.

Bilbon 1914an sortutako Grijelmo argitaletxeak, bestalde, hainbat haur liburu kaleratu zuen: Joan Gauzekitzek idatzitako *Luki ezkela'tar Ander otzana*, *Andoni'ren gurendea* eta *Margarite'ren*

ames ixukorra, azken hau Sabino Aranaren ideien apologia delarik (Etxaniz, 1997a:152-153).

Evaristo Buztintza "Kirikiño" izan zen haur liburu irakurrienetariko baten egilea: *Abarrak* (1918). Liburua, jatorriz, helduentzako izanik, Xabier Etxanizen iritziz (1997a:161) euskal haurrek nabarmenki bereganatutako obratzat hartu behar dugu. Pasadizo eta istorio laburrak dira *Abarrak*, hizkuntza herrikoian kontatutakoak.

Bitor Garitaonandiak *Ipuin laburrak umetxoentzat* izeneko obra argitaratu zuen 1922an, umorea eta irakaspena bilduz. Urte berean, Tene Mujikak haurrentzako lehenengo antzerki liburua plazaratu zuen: *Nekane edo Neskutzaren Babesa*.

Lehen Mundu Gerraren ostean hazkunde ekonomiko handia gertatu zen Euskal Herrian eta, horren ondorioz, etorkinak inguratzen hasi ziren hiri handietara, "baserri giro euskalduna vs. hiri giro erdalduna borroka" (Etxaniz, 1997a:167) eraginez. Giro horretan kokatzen da *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak* (1927) liburua, pertsonaia historiko baten gorabeheretan oinarritu eta Gregorio Mujikak bildutakoa. Helburu hezitzailerik gabea, "baserri giroa da nagusi liburuan, nekazari pobrearen burutapen azkarren bidez, honen ironiaren eta gertaeren aurrean azaldutako zorroztasunaren bidez XIX. mendeko erromantizismoa ikus daiteke obra honetan, bai eta ahozko tradizioaren arrastoak ere" (Etxaniz, 1997a:169).

Bestelako tradizioek bere bideari jarraitzen zioten, helduen literaturan zaharkiturik dauden ereduek haur literaturan bizirauten dutela frogatuz. Alegien alorrean, esaterako, Oxobik La Fontaineren moldeari jarraikiz, 60 alegia orijinal bildu zituen *Alegiak* (1926) liburuan. Jules Moulier "Oxobi" euskal alegigilerik handientzat hartua izan da.

Herri literatura biltzeko ahaleginek, bestalde, aurrera jarraitzen zuten. Alde batetik, Iparraldean Jean Barbierrek egindako bildumak ditugu: *Supazter xokoan* (1924) eta *Ixtorio-Mixterio* (1931).

Bigarrena, aldez aurretik *Gure Herria* aldizkarian argitaratutako ipuinen bilduma da; lehenengoan, berriz, ipuinez gain, hainbat kanta eta antzerki lanak ere biltzen dira. Mayi Ariztiaren eskutik, bestalde, *Amattoren uzta* (1934) izeneko herri ipuinen bilduma ere iritsi zitzaigun. Hegoaldean, bestetik, herri literaturatik jasotako bi ipuintxo kaleratu ziren 1929an: *Dar-Dar-Dar* eta *Txomin Arlote*.

Garai honetakoa da, bestalde, testu liburugintzaren hasiera, Ixaka Lopez-Mendizabalen lan handiari esker. Egile-argitaratzaile horren lehen liburua 1907an argitaratu zen: *Aita Santu Amargarren Pio'ren dotriña laburra*; urte batzuk geroago, Tolosako ikastolako umeek irakurgairik izan zezaten, beste bi liburu kaleratu zituen: *Zenbakiztia* (1913), eta *Umearen laguna* (1920), irakurtzen ikasteko metodoa. Urte batzuk geroago, 1931n, liburu horren bertsio laburtua argitaratu zuen Lopez-Mendizabalek: *Martin Txilibitu. "Umearen laguna" izenekotik ateratako euskal-irakurbide laburra*. Beste hainbat liburu argitaratu zuen, baina ezagunena, dudarik gabe, *Xabiertxo* (1925) izan zen, ikastola askotan alfabetizatzeko erabilitako liburu nagusia (Calleja eta Monasterio, 1988:96; Etxaniz, 1997a:187-188).

IV.1.3. 1940tik 1960 arte.

Urtealdi hau gerra ondoko garaiari dagokio. Ordurarte aurreraturiko guztia bertan behera gertatu zen Hegoaldean diktadura ezarri ondoren. Orduko liburu urriak Iparraldetik eta erbestetik (Hegoamerikatik bereziki) iritsi ziren hasiera batean. Giro horretan, Leontzio Ormaetxeak *Lontzi Aba'ren ipuintxuak* (1927) eta *Bigarren ipuintxuak* (1948) argitaratu zituen Txilen; aipagarria da, gainera, Orixek 1948an argitaratutako liburuxka bat: *Leoi-kumea*, itzulpen bat Villasanteren iritziz (Villasante, 1979:421).

Hegoaldean argitara zitezkeen liburu bakarrak erlijiozkoak ziren. Horien artean, Manuel Lekuonak Donostian argitaratutako *Iesu Aurraren Bizitza* (1948) eta *Haurren Eliz-liburutxoa* (1949), edo Nemesio Etxanizen *Kristau-Ikasbidea Bertsotan* (1950).

R. Mª Azkueren *Euskalerriaren Yakintza* folklore bildumaren bigarren liburua 1942an argitaratu zen, eta gainontzeko biak 1945 eta 1947an (lehena gerra aurrekoa zen, 1935ekoa), denak Madrilen (Espasa-Calpe).

Ondoko urteetan nolabaiteko irekieraldi bat gertatu zen Espainian. Hala diosku García Padrinok: "entre 1952 y 1955 España iniciaba un nuevo período en su historia. A una cierta liberalización intelectual se unía la apertura política internacional" (García Padrino, 1992:513). Testuinguru horretan, Zarauzko Itxaropena argitaletxeko Kuliska sortak bere ibilbideari hasiera eman zion Plazido Mujikaren *Noni eta Mani* (1952), Svensson idazle islandiarraren liburuaren itzulpenarekin. Hurrengo urtean, Yon Etxaidek *Purra! Purra! (irri ta par egiñarazteko ipui sailla)* argitaratu zuen. Lehen polizi-nobela 1955ean argitaratu zen: J.A. Loidiren *Amabost egun Urgain'en*.

Solasgai dugun aldiaren bukaera aldera, berriz, *Pernando Plaentxiarra* (1957), Yon Etxaidek bildutako umorezko egoerak; *Ipuin barreka* (1959), Felix Bilbaoren ipuin bilduma; eta *Zirikadak* (1958), Juan San Martinen ipuin barregarriak argitaratu ziren. Horietaz gain, "Umetxoen ipuiak" izeneko haur sail berriari hasiera eman zitzaion 1957an; bertara bildutako lanak hauexek dira: *Pipo, Konejutxu Arroa* ; *Nini, Konejutxu Argia* ; *Doni, Konejutxu Negartia* ; *Toto, Konejutxu Bihurria* ; *Pitxi, Konejutxu Potxoloa* ; eta *Piru, Konejutxu Jakintsua*, denak Carlos Bernal Aralucek idatzi eta Sabin Berazaluzek eta Juan Azurmendik euskaratuak.

IV.1.4. 1960-1980 urtealdia.

Urtealdi honetan askatasun pixka bat gehiago nabaritzen hasi zen Hegoaldean. Horren arrazoiak munduko ekonomiaren gorakadan eta aurreko atalean aipatutako irekialdi politikoan bilatu behar dira. Gainera, 1959an diktaduraren aurka jaio zen ETA talde armatuak konformismoarekin apurtu eta burujabetasunaren bila abiatzera bultzatu zituen belaunaldi berriak.

Beste aldetik, Mendebaldeko herrietan joera pedagogiko berriak nagusitzen ari ziren bitartean, Euskal Herrian artean ez zuten batere oihartzunik.

Batetik, ipuinak eta jakituria tradizionala jasotzeko ahaleginek aurrera jarraitzen zuten; kasu honetan, Barandiaranen lanari esker, 1962an *El mundo en la mente popular vasca* izeneko obra kaleratu zen hiru liburukitan. Bertan bildutako lanaren erdia euskal ipuin tradizionalez osaturik dago. Ondorengo urteetan eta gaur egun arte, Barandiaranen lan hori haurrentzako ehundaka ediziotan argitaratu izan da.

Beste alde batetik, Julene Azpeitiak umeentzako idatzitako ipuin eta kontakizunak *Amandriaren altzoan* izeneko liburuan bildu ziren 1961ean. Antzeko zerbait egin zuen 1974an argitaratutako *Zuentzat* liburuarekin, bertan bildurik baitaude 1959 eta 1973 bitartean idatzi eta itzulitako testuak.

Hurrengo urtean, 1962an, Orixek *Mamutxak* izeneko liburua argitaratu zuen, zomorroen inguruko testu labur ilustratuak.

Minaberry eta bere *Itchulingo anderea* (1963) ipuin liburua, eta *Xoria kantari* (1963) bere poesi liburua euskal haur literaturaren hasieratzat jo izan dira (Etxaniz, 1997a:268), bereziki haurren gaiak tratatzeko xumetasunagatik, testuen balio alegorikoarengatik eta hizkera literarioaren egokitasunagatik.

Minaberryren ondoan, Jean Etchepare Landerretche gaztearen (1937-1961) lana ere haur literaturaren punta-puntan kokatzen da. Han-hemenkako aldizkarietan argitaratutako lanak *Mendekoste Gereziak* liburuan bildu ziren 1963an. Hogeita lau urte zituela hil zen egile hau Aresti eta Miranderekin konparatua izan da.

Egile handien hirukotea osatzera datorren egilea Nemesio Etxaniz da. Bere liburuan, *Lur Berri billa* (1967) izenekoan, Nemesio Etxanizek haurrentzako idatziak zituen lan guztien arteko aukeraketa egin zuen. Horrela, genero guztiak (nobela, irratsaioa, ipuinak, antzerkia, poemak, kantak) landu zituen duintasun handiz,

Xabier Etxanizek bere homonimoari buruz dioenaren arabera (Etxaniz, 1997a:284):

> Nemesio Etxanizek literatur lan serio eta sakona eginez, korronte berriak, lur berriak, euskal literaturara ekarri nahiz, haur eta gazte literatura duina plazaratu zuen. Iparraldean Minaberryk edo Etcheparek egin zutenaren antzera, Hegoaldean ere duintasuna ekarri zuen haur literaturaren arlora.

Aurreko urtean, Martin Ugaldek argitaratu zituen bere *Umeentzako kontuak*; hurrengo urtean, 1968an, berriz, Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarra egin zuen. Jakina denez, topaketa haien ondorioz itxuratzen hasi zen euskara batua.

Dibulgazio liburuen alorrean, berriz, 1969 eta 1971 bitartean *Margo Ederdun Entziklopedia* argitaratu zen; eta 1971n *Amerikako Walt Disney* entziklopedia. Ordurako ikastola ugari martxan zegoen, eta era horretako liburuen beharra ikusi zen. Horietako bat prestatu zuten Andoaingo ikastolako irakasle batzuek: *Amazonetako indioak* (1971), indio horien ohituren eta bizimoduaren berri emanez.

Hamarkada horren hasieran argitaletxe askoren sorrera gertatu zen, eta horietako batek, Gero argitaletxeko "Kimu" sailak, haur eta gazte liburuak argitaratzeari ekin zion. Lehenengo tituluen artean Lurdes Iriondoren *Hego-haizearen ipuinak* (1973) eta *Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile maltzurra* (1973) antzerki lanak aurki daitezke.

Gorago aipatutako pedagogia sortzailearen bidetik, berriz, hainbat liburu plazaratu ziren haurren sormena bultzatzeko asmoz. Horien artean, Tomas Elortzaren "Mikel, Miren eta Txantxangorria" saila, edo Euxebi Osaren *Mimi katua* eta *Elurra* liburuak aipagarriak dira. Horiekin batera, eta pedagogi ildo beretik, haurrek berek idatzitako liburu batzuk argitaratu ziren.

Beste aldetik, eta lehen aipatutako "Kimu" sailean, hainbat nobela historiko agertu ziren hamarkadaren hasieran, euskalduntasuna eta abertzaletasunaren sustraien irudi erromantikoa

ezagutarazteko asmoz. Horien artean, *Harkaitz, elurra ari zueneko haurra*, kobazuloetako euskaldunei buruz; *Antso Gartzeiz* (1974) eta *Eneko Haritza* (1976), Arturo Campiónen obretan oinarrituta; *Katalin Erauso* (1976), moja alferezaren bizitzaz; Jesus Mari Arrieta eta Iñaki Azkuneren eskutik. Baina, obrarik ezagunena beharbada, aipatu bikoteak moldatutako *Amaia* izan zen, Navarro Villosladaren nobelaren itzulpen librea.

Komikigintzaren arloan, 1978aren inguruan argitaratzen hasi ziren *Kili-kili* eta *Ipurbeltz*, diktadura osteko lehen urteetan gehien irakurri ziren euskal komikiak.

Urte haietan Europan zehar oso zabalduta zegoen errealismo kritikoaren korrontearen barruan kokatu behar dugu 1974an Iharra izeneko batek sinatutako *Herrialde berdea* liburua, herri batek bere askatasuna lortzeko egin behar dituen ahaleginen alegoria. Gainera, oso liburu modernoa da narrazio tekniken aldetik. Ezizen horren atzetik ezkutatzen den egilea Kiko Bofill katalana da, eta marrazkiak Jon Redortak egin zituen.

Bitartean, beste hainbat liburu plazaratu ziren, horien artean Barandiaranen obran oinarritutako banan-banako liburuxka ilustratuak, euskal folkloreaz zegoen ezjakintasuna gainditzeko asmotan.

Eta, urtealdi honen amaiera aldean, aipatzekoak dira Andoni Sarriegiren *Belartzelaiko mutikoteak* (1977) nobela iniziatikoa, "Kimu" sailean argitaratua; eta Hordago argitaletxeko "Tximista" sailean, hainbat eta hainbat itzulpenen artean, Txomin Peillenen hiru ipuin liburu (*Errrotaria errege*, *Bufalo Bill-en abentura* eta *Mirko printzea*), eta Jon Etxaideren bi nobela historiko (*Eneko Agerroa* eta *Alos-torrea*).

IV.1.5. 1980tik gaur egun arte.

Azken hogei urteotako HGLren edozein panoramikatan azpimarratzen den lehen datua izugarrizko hazkundea da. Torrealdairen esanetan (1997:232):

> Frankismo-garaia eta aro garaikidea elkarrekin konparatuz, ikusten da produkzioak kontzeptu guztietan gora egin duela. Lehen edizioa 14,9 aldiz gehitu da; jatorrizko liburua 10,4 aldiz; itzulpena 18,9 aldiz. Baina saltorik handiena berralgitalpenean gertatu da: 70,3 aldiz gehiago berrargitaratzen da gaur egun. Fondoa aberastuz doan seinale.

Baina egoera horretara iristeko, urte horietan bat etorri ziren hainbat faktore aipatu behar dira: batetik, Eusko Jaurlaritzaren sorrera; bestetik, eta aurrekoaren ondorioz, Elebitasunaren Legea (1982), zeinaren arabera, besteak beste, Euskadiko Autonomi Erkidegoko haur guztiek euskara asignatura izan behar baitzuten; hirugarrenez, ikastoletako haurren matrikulazioa bikoiztu egin zen 1974-1980 urte bitartean; eta koiuntura horretan jaio ziren Elkar eta Erein argitaletxeak.

Aipatutako argitaletxe horien eskutik, gaur egun garrantzitsuak diren hainbat idazleren lanak hasi ziren plazaratzen, gai eta genero guztietan. Hain zuzen ere, ugaritasun horrek bultzatu du Etxaniz (1997a:361-445) urtealdi honetako ikerketa literatur korronte eta generoen arabera sailkatzera, egileen arabera egin beharrean. Horrela, esaterako, narratibaren barruan fantasia / errealismoa banaketa proposatzen du, eta sailkapenik handiena errealismoaren barruan egiten du: abenturazkoak, umorea, nobela historikoa, poliziakoa eta errealismo kritikoa. Ondoren aipatuko ditugu horietako batzuk, inolako exhaustibotasun-asmorik gabe.

Fantasiaren alorrean, aurreko urteetako joeren segida aurkitzen dugu (gero eta edizio zainduagoetan, hori bai): herri ipuinen edizioak, nekazal giroko kontakizunak eta bestelako irakurgaiak.

Errealismo fantastikoari dagokionean, aipatzekoa da Anjel Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko makina* (1981), Rodariren tekniken aplikazio librea. Beranduago ere, idazlan ugari kokatu dira korronte horren barruan. Batzuk aipatzeagatik, Mendiguren Elizegiren *Joxeme gerrara daramate* (1992), Markuletaren *Asier eta egia gurutzatuen liburua* (1995), Juan Kruz Igerabideren sail bat: *Egunez parke batean* (1993), *Gauez zoo batean* (1994), *Denboraldi bat ospitalean* (1995) eta *Oporraldi bat baserrian* (1996).

Zientzia fikzioaren eremuan, azkenik, ez dago lan gehiegi, eta 90eko hamarkadan etorri dira lehen tituluak eta ia bakarrak: Jesus Mari Olaizola "Txiliku"ren *2061: antzinako kronikak* (1990), Joanen Urkixoren *Shangai Tom, espazioko zaindaria* (1992).

Errealismoaren atalean, berriz, liburu sail zabala aritu da abenturez, besteak beste, Aitor Aranaren *Afrikako semea* (1991) eta *Urtegi misteriotsua* (1994), Txilikuren *Indianoa* (1993), Aingeru Epaltzaren *Lur zabaletan* (1994). Umorezko ipuingintzak ere izan du jarraitzailerik: Pello Añorgaren *Pottoko* (1984), Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea, Ixabel* (1994), Anjel Lertxundiren *Horrela bizi bagina beti* (1991), eta abar. Nobelagintza historiko eta biografikoak, bestalde, Jesus Mari Arrietaren *Landetaratuak* (1985) eta Xabier Mendigurenen *Iparragirre* (1981) izan ditu ordezkari. Eta genero poliziakoaren barruan, Mendiguren Elizegiren *Tangoak ez du amaierarik* (1988), Joxemari Iturralderen *Sute handi bat ene bihotzean* (1994) eta Anjel Lertxundiren Madame Kontxexi-Uriberen saila aipa daitezke.

Errealismo kritikoa deitutakoaren esparruan, bestalde, Mariasun Landaren *Txan Fantasma* (1984) jotzen da aitzindaritzat. Nolanahi ere, korronte horren azpian gai-multzo desberdinak dauden aldetik, gutxi batzuk besterik ez ditugu aipatuko. Horrela, Txilikuren *Muxi eta Puxi* (1987) eta *Hiru lagun* (1995) eta Calleja eta Kortazarren *Isu, haginik ez zuen marrazoa* (1984), ekologiaren inguruko gaien aldetik; Atxagaren *Txitoen istorioa* (1984) eta Zubizarretaren *1948ko uda* (1994), familiako arazoei buruz; pobrezia eta etorkinen gorabeherez, berriz, Joxantonio Ormazabalen *Kittano* (1988), Javi Cilleroren *Eddy Merckxen gurpila* (1994) eta

Patxi Zubizarretaren *Eztia eta ozpina* (1994); maitasunaren inguruan, Iturralderen *Zikoinen kabian sartuko naiz* (1986) eta Mariasun Landaren *Romeo, Julieta eta saguak* (1994); eta askatasunari buruz, azkenik, Mariasun Landaren *Amets uhinak* (1981), Koldo Izagirreren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (1991), Felipe Juaristiren *Tristuraren teoria* (1993) eta Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991).

Beste alor batera pasatuz, haur txikientzako **albumak** ere azken urtealdi honetan sortu ziren. Horien artean hauexek aipa daitezke: *Ernioko Ziripot* (1981), *Udaberria* (1981), *Lotara joateko ipuinak* (1982), *Ainara eta hodeitxoa* (1982) eta *Munia eta hilargia* (1982); beranduago, sorta moduan agertu ziren beste batzuk, hala nola, "Txintxinbela", "Ahate bihurriarenak", "Rodariren sorta urdina",...

Komikigintzaren aldetik ere egin da ahaleginik: *Ion eta Mirka. Espedizio galdua* (1983); Kili-kili sailean, berriz, *Bizargorri itsas lapurrak* (1985), *William Tell abertzalea* (1985), *Dick Turpin zuzen zalea* (1985) eta *Ivanhoe zalduna* (1987). Bestalde, 1988tik aurrera Gabai saila argitaratzen hasi zen; horietako lehena *Gabai. Gure Herriaren Historia. Historiaurrea* (1988) izan zen.

Poesiagintza oso berandu hasi da lantzen, eta Juan Kruz Igerabideren *Begi-niniaren poemak* (1992) izan zen gerora argitaratu direnen gidaria: Igerabideren beraren *Egun osorako poemak eta beste* (1993), Joan Mari Irigoienen *Metak eta kometak* (1994), Joxantonio Ormazabalen *Hitzak jostailu* (1994), edo Yolanda Arrietaren *Denboraren kanta-kontuak* (1995).

Eta, amaitzeko, **antzerkigintza** idatzia familiakide pobretzat jo dezakegu, apenas bizpahiru lan plazaratu direlarik: Marijane Minaberriren *Haur antzerki* (1983), Manu Lopezen *Andoni eta Maddalenen komediak* (1994) eta Xabier Diaz Esarteren *A zer nolako komeria!* (1995).

IV.2. Euskaratutako haur eta gazte liburuen azterketa kuantitatiboa.

Honelako azterketa bati ekiteko orduan, erabilitako irizpideak garbi azaldu behar dira, interpretazio akatsak gertatuko ez badira. Kasu honetan, euskal HGLren sistemara ekarri diren obrak neurtzeko, nagusiki, Joan Mari Torrealdaik bildu eta aztertutako datu orokorretan (Torrealdai, 1993, 1995, 1997) oinarrituko gara. Geure aldetik egin ditugun ikerketen ondorioz datu-base horretan gerta daitezkeen oharpen xumeek ez dakarte, funtsean, ondorio estatistikoen aldaketarik. Geure helburu espezifikoetarako, bestalde, Torrealdairen datuen interpretazioa egin dugu. Funtsean, Torrealdairen datu-baseak, euskal HGLri dagokionez, gehiegitzazko eta gutxiegitzazko akatsak dauzka: gehiegitzaz, bertan sartutako zenbait obra, haurrentzat pentsatutako testuak izanik, testu literarioak ez direlako (esaterako, Itxaropena argitaletxeak "PPC liburuxkak" izenez plazaratutako eliz liburutxoak); eta gutxiegitzaz, berriz, literatur ondareko obra asko, haur edo gazte literatura ez zirelakoan, sartu ez direlako (*Tormes'ko itsu-mutilla*, Wilderen *Ipuñak*, *Noni eta Mani*, *Mendiko argia*, besteak beste).

Lehenengo eta behin, haur eta gazte liburuak zeintzuk diren erabakitzeko orduan, 1. kapituluan esandakoak berresten ditugu. Beste alde batetik, azterketa honetarako liburu formatoan argitaratu diren obrak bakarrik hartu ditugu aintzat, aldizkako argitarapenak baztertuz. HGLren espezifikotasunari kasu eginik, ordea, liburu ilustratuak eta komikiak kontuan izan ditugu. Liburu formatoan ageri direnen artean, berriz, haur eta gazteentzako bildumetan aurkeztutakoetara mugatu gara, horiek direlako literatura berezi horren ezaugarriak hobekien gordetzen dituztenak. Esaterako, R. L. Stevensonen *Treasure Island* liburuak euskaraz dituen bi bertsioetatik, Elkar argitaletxeak haur eta gazteentzako "Itzul" sailean argitaratu zen *Altxorraren uhartea* (Xabier Etxanizen adaptazioa, Elkar, 1984) bakarrik hartuko dugu kontuan, bestea, *Altxor uhartea* (Maria Garikanoren itzulpena, Ibaizabal, 1991), helduentzako bilduma batean dagoelako (eta azken horren helburua

literatura unibertsaleko klasikoak bertsio osoetan helduei eskaintzea da).

Itzulpen zein diren erabakitzeko orduan, bestalde, halakotzat aitortutakoetara mugatuko gara, bai kreditu-orrialdean, bai hitzaurre edo bestelako paratestuetan, itzulpen edo moldaketa osoa zein zatikakoa izanda ere; esplizituki baztertuko ditugu, beraz, jatorrizko egilearen aipamenik egiten ez duten obrak.

Datuetara joz, aipagarria da UNESCOren gai-taulan HGL ez egotea Literatura (21) gaiaren pean, baizik eta Orotarikoen (01) barruan: Haur eta gazte literatura (015); Tebeo, komiki eta istorioak (016).

IV.2.1. Euskal HGL itzulia. Datu orokorrak.

Euskal munduari dagokionez, literatura berezi hori, HGL, liburugintza osoaren %20koa izan da, batez beste, hasieretatik gaur egun arte, lehen edizioko jatorrizko produkzioa eta itzulpenak kontuan hartuz. Torrealdaik (1997:230) erabilitako urtealdien arabera, honela banatzen da portzentaia hori:

urtealdia	titulu kopurua	lit. produkzioaren %
1876-1935	31 titulu	%2,4
1936-1975	159 titulu	%9,8
1976-1995	2.370 titulu	%23,1

Ikusten denez, HGLren garrantzia, kuantitatiboa bederen, handituz joan da urtealdirik urtealdi, gaur egun ekoizpen guztiaren %23aren inguruan kokatu arte.

Bestalde, HGLren barruan, itzulpengintzak erabateko garrantzia dauka: euskal HGLren %72,1 itzulia da, lehen edizioari erreparatuta. Europako batez bestekoaren gainetik dago portzentaia hori, Ronald Jobe-ri kasu egiten badiogu: “European publishers use

translations to complement theis own lists: between 30 and 70 per cent of the children's books published in Europe are translated" (Jobe, 1996:519).

Berriz ere euskarari dagokionean, urtealdika adierazita dator ondoko koadroan, geure datuen arabera:

urtealdia	itzulpen kopurua	Euskal HGL osoaren %
1876-1935	12 itzulpen	%38,7
1936-1975	97 itzulpen	%6,1
1976-1995	1.746 itzulpen	%73,67

Datu horiek garbi adierazten dute euskal HGLren menpekotasuna beste literatur sistemekiko. Hauxe da, Even-Zoharren teoriaren arabera, literatura periferiko zein ahuletan gertatzen den fenomeno bat:

> As a consequence of this situation [periferiko edo ahul izatea], such literatures often do not develop the same full range of literary activities (organized in a variety of systems) observable in adjacent larger literatures (which in consequence may create a feeling that they are indispensable). The may also "lack" a repertoire which is felt to be badly needed vis-à-vis, and in terms of the presence of, that adjacent literature. This lack may be filled, wholly or partly, by translated literature. For instance, all sorts of peripheral literature may in such cases consist of translated literature (Even-Zohar, 1990:47).

Adibide gisa aipatutako literatura periferiko horietako bat, jakina, HGL da, periferikoa baita euskal literaturaren sisteman. HGLren barruan literatura itzuliak betetzen duen portzentaia oso altua da, konparatzen badugu, adibidez, kontuan izandako azken aldirako gaztelaniazko HGLn agertzen zaigun %29arekin (Fernández López, 1996:92).

IV.2.2. Itzultzaileak.

Azterketa estatistikoan aurrera eginez, itzultzaileen arloan, hauxe da gehien euskaratu duten itzultzaileen zerrenda, titulu kopuruari begiratuta, *corpus* osoa kontuan hartuta:

Joxantonio Ormazabal: ..... %15

Patxi Elizegi: ..... %4,28

Iñaki Mendiguren:..... %2,76

Xabier Mendiguren Bereziartu:%2,28

Joxemari Azurmendi: ..... %2,17

Xabier Monasterio: ..... %1,57

Pello Zabaleta: ..... %1,19

Jose Antonio Sarasola: ..... %1,13

Sabin Barruetabeña: ..... %1,13

Juan Garzia Garmendia:.....%1

X.X.: .....%16,71

Gainontzeko itzultzaileek %1a baino gutxiago euskaratu dute, HGLren arloan aritu diren 300 itzultzaile inguru osatu arte.

Atera daitekeen lehen ondorioa, beraz, itzulpengintza-produkzio oso zatikatua dela. Hori, HGLk betetzen duen posizio periferikoaren ondorio da: zeregin ez oso zaila eta ez oso garrantzitsua zelakoan, profesionalak ez diren itzultzaile asko hurbildu dira langintza horretara. Hala ere, titulu gehien euskaratu dutenen zerrenda horretako gehienak itzultzaile profesionalak edo

argitaletxeetako arduradunak dira (Patxi Elizegi Xabier Mendiguren Elizegiren ezizena da).

Bestalde, itzultzaile aitorpenik gabe edo kolektibo batek sinatutako itzulpenen kopurua handiena da (%16,71), berriro ere literatura mota honi inplizitoki aitortzen zaion garrantzi txikiaren adierazgarri oso nabarmena.

Honela geratzen da itzultzaileei buruzko estatistika urtealdika banatuta:

1876-1935: Joseba Altuna: %25

Nazario Oleaga: %12,5

Ipolito Larrakoetxea: %12,5

J.B. Eguzkitza: %12,5

B. Garro “Otxolua”: %12,5

N. Ormaetxea “Orixe”: %12,5

Gabriel Manterola: %12,5

Lehen urtealdi honetan, beraz, zortzi titulu eta zazpi itzultzaile ditugu.

1936-1975: Yon Oñatibia: %14,45

Xabier Kintana: %7,22

Xabier Mendiguren: %6

Juan San Martin: %6

X.X.: %21,6

Bigarren urtealdian, jada, izenik gabeko itzulpenak dira nagusi.

1976-1995: Joxantonio Ormazabal: %15,92

Patxi Elizegi: %4,5

Iñaki Mendiguren: %2,9

Joxemari Azurmendi: %2,29

Xabier Mendiguren: %2,11

Xabier Monasterio: %1,6

Azken urtealdi honetan, berriz, datu orokorren ia parekoak dira itzultzaileek betetzen dituzten tokiak.

Azken batean, aurreko ataleko datu orokorrak baiestera datoz datuok: hirugarren urtealdian, bereziki 80ko urteetan etorri da hazkunderik handiena.

IV.2.3. Sorburu hizkuntzak.

SHen azterketa estatistikoa egiteko orduan ez dugu kontuan hartuko, oraingoz, halako itzulpenak jatorrizko hizkuntzatik ala zubi hizkuntzen bidez egin diren. Gure helburua, euskal HGLn eraginik handiena izan duten literatur sistemak zein diren jakitea da, testua bera nondik euskaratu den begiratu gabe.

Hizkuntzak, bestalde, ez datoz beti bat herrien muga politikoekin. Gerta daiteke, beraz, alemanierazko literatur polisisteman Austria eta Suitzako idazleak eta obrak egotea. Gauza bera gertatzen da ingelesarekin, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Australia hartzen baititu bere baitan. Halaber, galiziera diogunean, Portugal, Brasil eta Galiziako hizkuntza adierazi nahi dugu. Irizpide hori argituta, hauexek dira helburu hizkuntza nagusiak eta dagozkien portzentaiak:

Gaztelania: %28,5

Ingelesa: %17,3

Katalana: %14,4

Frantsesa: %11,8

Alemaniera: %9

Italiera: %3,6

Galiziera: %3

Garbi geratzen da euskal HGL, SLren statusari erreparatu gabe, gertuen (fisikoki zein argital politikaren aldetik) dituen sistemetatik elikatu dela nagusiki. Eskuragarritasuna izan da irizpiderik nagusiena.

Gaztelaniaren kasuan, askotan Euskal Herrian bertan gaztelaniaz sortutako obrak izan dira euskaratu direnak (Seve Callejaren liburuak, kasu); eta, beste batzuetan, gaztelaniaz idatzita baina artean argitaratu gabe zeuden hainbat liburu euskarara itzuli eta argitaratu egin dira. Bestalde, gaztelaniatik hartutako literaturaren zati garrantzitsu bat Katalunian sortutakoa da (Teo eta Ibai sailak, adibidez).

Katalanezko sistemari dagokionez, berriz, koedizioaren eta hitzarmen bitarikoen bidez iritsi dira euskaraz argitaratuak izatera.

Sistemarik indartsuena, ingelesera, bigarren tokian dago, batik bat azken urteotan ingelesezko obra garaikideak argitaratzeko egin den ahaleginaren ondorioz.

Frantsesezko haur eta gazte literatur sistemak, Euskal Herritik hurbil egon arren, ez du izan espero zitekeen eragina, eta betetzen duen laugarren postua Verneren obren eta komikien (Tintin, Asterix,...) indarrari esker lortu du.

Alemanierazko sistemak ere, mende honetan izan duen pisua izan arren, itzulitako produkzioaren %9a besterik ez du lortu.

Urtealdirik urtealdi, bestalde, hona hemen emaitzak:

1876-1935: Alemaniera: %50 (4 liburu)

Gaztelania: %25 (3 liburu)

Frantsesa: %16,6 (2 liburu)

Italiera: %8,3 (liburu 1)

Ingelesa: %8,3 (liburu 1)

Grekera: %8,3 (liburu 1)

Alemanierazko sistematik hartutako liburuak Grimm anaien bertsioak eta Schmid erromantikoaren ipuinak eta Bravanteko Genovevaren istorioa dira; horren ondoan, gaztelaniazko sistemaren eragina ageri da.

1936-1975: Gaztelania: %20

Frantsesa: %14,5

Alemaniera: %14,5

Katalana: %11

Ingelesa: %9

Urtealdi honetan, oraindik, euskaratutako obren *corpus*-a oso txikia da; nabari denez, gaztelaniaren nagusitasuna aurkitzen dugu. Dena dela, tradiziozko testuak (Grimm anaiek eta Perraultek jasotakoak gehi *Mila eta bat Gau*-etakoak) multzo bakar batean jarriz gero, emaitzak oso bestelakoak dira:

Tradiziozkoak: %37,6

Gaztelania: %23,6

Katalana: %13

Ingelesa: %7,5

Frantsesa: %5,3

Aurreko datuek ipuin tradizionalekiko menpekotasuna adierazten dute: ordua arte jaso gabeko tradizio handi bat jaso beharra.

1976-1995: **-8 urte**

Gaztelania: %26

Katalana: %16

Ingelesa: %11

Frantsesa: %8,8

Alemaniera: %1,4

+8 urte

Ingelesa: %21,5

Gaztelania: %15,2

Frantsesa: %12,7

Alemaniera: %10,5

Italiera: %4,3

Azken urtealdi honetan adinaren araberako banaketa egin dugu: batetik, zortzi urtetik beherakoentzako liburuak (liburu ilustratuak, oso testu txikikoak), eta zortzi urtetik gorakoentzakoak. Lehenengo multzoan gaztelaniaren eta katalanaren nagusitasuna nabarmentzen da, bien artean itzulitakoaren %40 baino gehiago hartzen baitute. Kontuan hartu behar da txikienentzako liburuak tamainaz handienak direla, eta horiek direla ilustrazio eta koloreen aldetik ahalegin ekonomikorik handiena eskatzen dutenak. Arrazoi horiengatik, koedizioetan argitaratzen dira normalean: ilustrazioek hizkuntza guztietarako balio dute (galegoa, euskara, gaztelania eta katalana), eta aldatzen den tinta bakarra beltza da, testuari dagokiona hain zuzen; ekoizpen prezioa asko merketzen da horrela.

Bigarren multzoan, zortzi urtetik gorakoenean, ingelesa da nagusi, batez ere sistemarik emankorren eta garrantzitsuena delako. Hala uste dute hainbat egilek, hala nola Alfonsecak: “Los países de habla inglesa poseen, en su conjunto, la literatura infantil y juvenil

más importante del mundo" (Alfonseca, 1997:7); edo Fernández Lópezek: " ... la, sin duda, más pujante e interesante LIJ del mundo" (Fernández López, 1996:67). Besteak beste, ingelesezko klasikoen itzulpenak ditugu multzo honetan (Stevenson, Twain, Kipling, Carroll); gainera, Disney faktoriak ekoiztutakoa ere kontuan hartu behar da; azkenik, idazle garaikide arrakastatsuen obrak (Blyton, Dahl).

Hirugarren urtealdi hori euskal HGLren normalizazio aldiari dagokiola kontuan harturik, euskaratutako kopururik handiena ingelesetik hartu izanak nolabaiteko homologagarritasuna ematen dio literatura horri, munduko beste literatura txikiekin konparatuz gero.

IV.2.4. Gehien itzuli diren egileak.

Izen propioen alorrean, gehien itzuli diren egileen zerrenda aurkeztuko dugu ondoren. Euskaratutako egile bakoitzaren obra guztiak, eta horien edizio desberdinak konputatu dira, berrargitalpenak kontuan hartu gabe. Portzentaia, hemen, oso txikiak dira, espero zitekeenez:

1. Violeta Denou: %2,4
2. Seve Calleja: %1,8
3. Jesús Ballaz: %1,6
4. Mercé Company: %1,6
5. Hergé: %1,3
6. Goscinny: %1,1
7. Walt Disney: %1,1
8. Roald Dahl: %0,9
9. Antonio Rodríguez Almodovar: %0,9
10. Grimm: %0,9

Sailkapeneko lehen tokian ageri dena, Violeta Denou, egile batzuen arteko goitizena da, Teo sailaren egileena hain zuzen. Jesús Ballaz, hirugarren tokian agertzen baita, Ibai sailaren egilea da. Goscinny, seigarren tokian, Nikolas Txiki sailaren eta Asterixen saileko titulu batzuen egilea da.

Egileen literatur hizkuntzari buruz, lehenengo tokietan gaztelaniazko idazleak ditugu; ondoren, katalanezko idazle bat, eta frantsesezko bi. Orduan ageri da ingelesez idazten duen lehen egilea, nahiz eta ingelesezko titulu kopurua lehen edo bigarren tokian egon, ingelesezko sistemako egile aniztasunaren seinale.

Klasikotzat jotako egileei dagokienez, Grimm anaiak dira lehenak, hamargarren tokian, %0,9arekin. Hurrengoak Perrault, Rodari, Twain eta Verne dira, %0,6arekin; atzerago, berriz, Andersen, London eta Salgari, %0,5arekin.

IV.2.5. Argitaletxeak.

Euskal HGLren barruan euskaratutako obrak %70 baino gehiago izateak, ekoizpen handieneko argitaletxeak eta gehien euskaratu dutenak berberak izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen digu.

Datuetara joz gero, aurreko baieztapena nahiko erlatiboa dela frogatzen da. Hauek dira gehien euskaratu duten argitaletxeei buruzko emaitzak:

1. Elkar: %17,58

1’. Elkar + Elkar/La Galera + Elkar/ Timun Mas: %29

2. Ttartalo: 6,18

3. Ibaizabal: %5

4. S.M.: %3,41

5. Desclée de Brower: %3,3

6. Alfaguara/Desclée: %2,8

7. Fher: %2,7

8. Erein: %2,5

9. Hemma: %2,4

10. Anaya: %2,3

Ikusten denez, Elkar argitaletxearekin zerikusirik duten taldeek %35etik gora hartzen dute (Ttartalo Elkarren adar bat da). Gainontzekoek, berriz, oso portzentzaia txikia hartzen dute. Beraz, argitaletxeei dagokienez, HGLko itzulpengintza Elkarren eskuetan dago nagusiki, eta beste %65a oso zatikatuta dago.

Azpimarratzekoa da Erein argitaletxeak betetzen duten tokia, zortzigarrena, HGLren produkzio orokorrean bigarrena izan arren.

Laurogeiko azken urteetan euskaraz lanean hasitako Euskal Herritik kanpoko argitaletxeen artean, S.M. da lehena, Elkar argitaletxearekin lankidetzan aritzen direnak kontuan hartzen ez baditugu. Kanpoko argitaletxe horiek, hala ere, gero eta gehiago euskaratzen ari dira, kostu txikiagoak dituztelako. Honela azaltzen du Torrealdaik:

> Bigarren une batean, merkatuaren usainera, erdal argitaletxeak hasten dira haur eta gazteentzako liburuak argitaratzen euskaraz. Beren fondoko liburuak itzultzen dituzte. Herena ere ez da hauen kostua (Torrealdai, 1997:245).

IV.3. Sorburu polisistema nagusien deskribapena.

Aurreko ataleko estatistikak era batera zein bestera irakurrita, euskal HGLn eraginik handiena izan duten sistemak hiru dira: gaztelaniazkoa, katalanezkoa eta ingelesezkoa. Sorburu polisistema nagusi horien deskribapen arina da ondoren egin asmo duguna, hain zuzen ere euskaratutako obra horien jatorrizko testuinguruak ezagutu, eta euskal testuinguru berriarekin alderatu ahal izateko.

IV.3.1. Gaztelaniazko HGL sistema.

Gaztelaniazko HGL sistema ere ahula izan da, Europako beste sistema batzuekin konparatuta, bere sorrera eta garapenari begira, nahiz eta azken urteotako ekoizpena oso maila onekoa izan den. Ikus dezagun ondoren nolako garapena izan duen.

IV.3.1.1. Hasieratik XX. mendea arte.

Carmen Bravo-Villasanteren ustez (1983:15), Gaztelaniazko literaturaren beraren hastapenetatik egon ziren haurrentzako irakurentzungaiak: Berceoren *Los milagros de Nuestra Señora* (XII. mendea), Alfonso X el Sabioren *Cantigas* (XIII. mendea), *Mio Cid Campeador* (1140), *Romancero* delakoa bera, etabar.

Hala ere, badirudi XVIII. mendearen bukaera arte gaztelaniazko HGLk ez duela berezko *corpus*-a osatzeko moduko obrarik (Fernández López, 1996:76). Espainiako idazle eta pentsalari gehienek, garai hartan, kultura frantziarrean oinarritutako formazioa zeukaten, eta HGL ez zen eragin hartatik libre geratu. Horren adibide garbia, euskal HGLra ere pasatu zena, "alegiazaletasuna" zen, haurrak zuzen hezteko tradizioaren barruan: Samaniegoren *Fábulas* (1781) eta Iriarteren *Fábulas literarias* (1782), eta ondoren etorriko ziren beste asko. Bide batez esanda, azken egile horren eraginez eman zen ezagutzera Espainian Robinson pertsonaia, ez Defoeren bertsio jatorrizkoan, baizik eta Camperenean oinarrituta (*El nuevo Robinson*, frantsesezko bertsiotik itzulitakoa, 1800 inguruan argitaratua), haurrentzat moralki egokiagoa zelakoan (Bravo-Villasante, 1983:58).

Beste literatura nazionaletan bezala, espainierara itzultzen ziren lanek orduko norabide eta irizpideak argitzen lagun dezakete: gehienbat Hector Malot frantziarraren eta Edmundo de Amicis italiarraren obren itzulpenak ziren, garaiko sentiberakeriaren adierazgarri.

XIX. mendearen bukaeran jaiotako argitaletxe batzuek HGLren egoera errotik aldatu zuten. Horietatik lehena, eta oihartzun handienekoa, Editorial Calleja izan zen, Saturnino Callejak 1876an sortua, Madrilen. Gainera, argitaratutako gehiena itzulpen edo egokitzapenak ziren, nahiz eta testuaren egile, itzultzaile edo moldatzaileari buruzko informaziorik kasu askotan ez zen agertzen. Bestalde, S. Callejak mundu zabaleko literatura idiosinkrasia espainiarraren iragazkitik pasatzeko joera nabarmena zeukan:

> Las traducciones y las adaptaciones fueron las grandes fuentes de los títulos incluidos en los "Cuentos de Calleja". Además del descuido antes indicado por la cita justa de sus creadores, autores o traductores, Calleja parecía imponer sus peculiares modos de entender tales tareas. Un resaltado casticismo en el lenguaje y una españolización en los tipos, los detalles o los ambientes, caracterizan los textos traducidos o adaptados incluidos en aquellas colecciones (García Padrino, 1992:35).

Edonola ere, Callejaren ekimenari esker eman zen ezagutzera haurrentzat mundu zabalean idatzitako garrantzizko guztia: herri ipuin klasikoak (Perrault, Grimm, Andersen), *Las mil y una noches*, *Los viajes de Gulliver*, *Las aventuras de Robinson Crusoe*, etab.

Mende bukaerako jatorrizko ekoizpenari buruz, ikuspegi idealizatzailearen eta helburu moralizatzaileen menpean zegoela adierazi behar da. Fantasiazko korronteak alde batera utzirik, errealismo kostunbristaren eskemetan sartzen ziren garaiko obra asko eta asko (Armando Palacio Valdés, José Ortega Munilla). Horietaz aparte, garai hartako narratiban hiru talde bereizten ditu García Padrinok (1992:74): inspirazio iturria folklorean bilatu zutenak (Fernán Caballero, Trueba, Coloma), haur psikologiara hulbiltzen ahalegindu zirenak (Julia de Asensi, Pilar Pascual de Sanjuán, Teodoro Baró, Carlos Frontaura, Alfonso Pérez Nieva), eta nolabaiteko dibulgazio zientifikoa entseiatu zutenak (José Muñoz Escámez, Rafael Zambrano Rubio).

IV.3.1.2. Mende hasieratik Gerra Zibila bitartean.

Denboraldi honetan, aurreko mendeko planteamenduak pixkanaka ahaztuz joan ziren, eta HGL modernizatuz joan zen, gai zein tratamenduen aldetik. Argitaletxeen aldetik, berriz, Calleja etxeak bereari eusten zion bitartean, korronte berriei erantzutera zetozen beste argitaldari batzuk sortu ziren. Horien artean, Juventud-ek, 1923an sortua, *Peter Pan y Wendy*, *Heidi*, *Bibi*, *Alicia en el país de las maravillas*, *Mary Poppins* argitaratu zituen bertako lanen batekin batera (Antonio Robles-en *Hermanos monigotes*).Azken egile horrek, Manuel Abril-ekin batera, famatu egin ziren CIAP (Compañía Iberoamericana de Publicaciones) delakoaren lan laburrari esker, 1931n hondoa jo baitzuen. Cenit argitaletxeak, bere aldetik, garaiko pentsamendu sozialista eta komunista zabaltzeko lanean ziharduen, alemanieratik itzulitako egile errusiarren lanen bidez. Manuel Aguilar-en argitaletxeak, 1923an sortua, Elena Fortún, Matilda Ras, Concha de Salamanca eta besteren obrak argitaratu zituen. Magisterio Español argitaletxeak obra didaktikoak argitaratzen zituen, eta Espasa-Calpe-k Mª Teresa León-en *Flor de leyendas* (1935) eta tankerakoak argitaratzen ziharduen (García Padrino, 1992:179).

Garai hartako haur poesiagintzaren alorrean, nabarmentzekoa da haur folklorearen berreskuratzea: jolasak, kantak, igarkizunak eta beste. Horien agergarri dira, besteak beste, Fernando Llorca-ren *Lo que cantan los niños* (1915), Enrique Sánchez Rueda-ren *Acertijos, enigmas, adivinas y adivinanzas* (1922) eta María Rodrigo eta Elena Fortún-en *Canciones infantiles* (1935). Beste maila batean, beste poeta batzuk ahalegindu ziren umeen sentiberatasunetik gertu koka zitekeen poesia mota bat sortzen; horien barruan kokatzen ditu Bravo-Villasantek Juan Ramón Jiménezen *Platero y yo* (1914), eta Rubén Darío, Federico García Lorca, Rafael Alberti eta Miguel de Unamunoren zenbait poema, besteak beste (1983:139-162). Dena den, II. Errepublikak sustatutako hezkuntza mugimendu berritzaileen eraginez, poesia ikasgelara eramateko proposamenen bat ere iritsi zen, José Luis

Sánchez Trincado eta Rafael Olivares Figueroa-ren *Poesía infantil recitable* (1934), esaterako.

Antzerkigintzaren aldetik, berriz, nahiz eta behar bezainbesteko laguntzarik ez izan, ekimen interesgarriak kaleratu ziren, batez ere garaiko aldizkarietako orrialdeetan. Bestalde, Benavente, Valle-Inclán, Alvarez Quintero anaiak eta Casona bezalako egile kontsakratuak ere saiatu ziren haurren mailako antzerki lanak egiten.

Narratibagintzaren arloan, bien bitartean, Collodi italiarraren Pinotxo pertsonaiarengan oinarrituta, Calleja argitaletxeko idazle eta ilustratzailea zen Salvador Bartolozzik sudurluzearen bertsio espainiarra idatzi eta ilustratu zuen, pentsaezineko arrakastaz. Lehenbizi *Pinocho* (1917) argitaratu zuen; eta, horren haritik, Pinotxori buruzko oso sail zabala: *Pinocho emperador*, *Pinocho en la China*, *Pinocho en la Luna*, *Pinocho en la Isla Desierta*, *Pinocho en Jauja*, etabar. Egile beraren eskutik, "Las aventuras maravillosas de Pipo y Pipa" sail famatua ere sortu zen.

Hogeita hamarreko hamarkadan arrakasta lortu zuen beste idazle bat Elena Fortún izan zen. Egile horren eskutik, zeinaren benetako izena Encarnación Aragoneses baitzen, Celia izeneko pertsonaia famatu egin zen. Celia, erdi-goi klaseko neska izan arren, bihurria zen, eta handituz zihoan neurrian helduek agindutakoaren aurka azaltzen zen nolabaiteko ironia erabiliz. Celiaren inguruko liburuek ere sail bat osatzen dute: *Celia: lo que dice* (1933), *Celia en el colegio* (1934), *Celia, novelista* (1934), *Celia en el mundo* (1934), *Celia y sus amigos* (1935), etabar.

IV.3.1.3. Gerraosteko panorama.

Sorkuntza interesgarrietako giro hori eten egingo zuen Espainiako Gerra Zibilak. Gerra amaituta ere, zentsura gogorrak eta paper eskasiak Hegoamerikara joatera behartu zituzten Espainiako argitaletxeak. Gerra osteko lehen urteetan ez zegoen oso panorama itxaropentsurik. Salbuespen batzuk, Celia pertsonaiaren eraginez

Radio Madrid-eko emanaldietan sortu zen “Antoñita la Fantástica”, Borita Casas-en pertsonaia, eta berrogeiko urteetan famatuena izan zen pertsonaia: “El Coyote”, José Mallorquí-rena, zeinaren nobela saila milaka salduko baitzen (Fernández López, 1996:79). Garai horretako bi argitaletxerik garrantzitsuenak Molino eta Juventud ziren, batez ere kanpoko HGL (Crompton-en *Gillermo* ; Grahame-ren *El viento en los sauces* ; etabar) ezagutzera eman zutelako.

Berrogeita hamarreko hamarkadako mugarria José Mª Sanchez Silvaren *Marcelino Pan y Vino* (1952) izan zen, geroago IBBYk emandako Andersen Sariaren jabe bihurtuko zuena. Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, gainera, “Lazarillo” saria ematen hasi zen Espainiako Kultura Ministeritza.

IV.3.1.4. Hirurogeiko hamarkadatik gaur egun arte.

Sanchez Silvaren eraginez, beste egile askok ekin zioten HGL idazteari, 60 eta 70eko hamarkadetan. Orduan hasi zen nolabait normaltzen Espainiako panorama. Argitaldari lanaren aldetik, azpimarratzekoak dira Doncel, Molino, Juventud eta Editora Nacional, HGL berpizteko eta egile berriak plazaratzeko ahaleginengatik. Hirurogeiko hamarkadaren hasierakoak dira Doncel Saria eta Comisión Católica Española de la Infancia delakoak antolatutako sariketa. Orduan ezagutzera eman ziren egileen artean honakook aurkitzen dira: Carmen Kurtz, Montserrat del Amo, Carmen Pérez Avelló, Angela C. Ionescu, Ana Mª Matute, Joaquín Aguirre Bellver, eta beste.

José Mª Sánchez Silvak, bere aldetik, goian aipatutakoaz gain beste obra batzuk argitaratu zituen (*La Burrita Non*, *Cuentos de Navidad*, *Colasín y Colasón*, *Adán y el Señor Dios* eta *Adiós, Josefina*), eta 1968an bere obra osoa saritu zuen Andersen Saria jaso zuen.

Egile gazteagoen artean, berriz, Ana Mª Matute da gehien nabarmentzen dena: Lazarillo Saria 1965 *El Polizón del Ulises* lanarengatik, Andersen Sarirako hautagaia izan zen 1970 eta

1984an, eta Haur Literaturako Sari Nazionala 1984an *Sólo un pie descalzo* lanarengatik.

Zenbait egileren ustez (Sáiz Ripoll, 1993), hirurogeiko hamarkadatik abiatu zen HGL berritzailea da alderdi askotan: orduan hasi zen haurren talde edo koadrilatan oinarritutako joera, Enid Blyton hogei urte lehenago hasitako bideari jarraituz, haur horien bidez garaiko arazo sozio-ekonomikoak islatzeko; ume eredugarriak alde batera utzirik, argumentuak ume problematikoen inguruan jiraraztea; eta, gaietan, askatasun pertsonal eta sozialaren nagusitzea.

"68ko maiatzeko" ideologia berritik mundu zabalean sortutako egileek, bestalde, proposamen berriak ekarri zituzten HGLren panoramara. Gizarte ereduak eta giza baloreak berriztatu egin ziren 70eko hamarkada barruan: famili egitura berriak, hirietako ohiturak, gizarte garaikideko gertakizun sozial berriak (feminismoa, antiarrazismoa), pertsonaien barne gatazkak,.... Eta edukiekin batera, formak ere berriztatu ziren: bukaera irekiak, ironiaren eta anbiguotasunaren erabilera, testua eta irudiaren arteko harreman estuagoa, ikuspuntuaren aldaketak, etabar. Aurreko guztiaren oihartzunak 80ko hamarkadan iritsi ziren Espainiako HGLra: J. Fariasen *El guardián del silencio* (1985), M. Félixen *Historia de la ratita encerrada en un libro* (1980), M.A. Pacheco eta J.L. Garcíaren *Un millón de cuentos* (1982), etabar (Colomer, 1991).

Hala ere, aipatutako 80ko hamarkada horretan bestelako fenomenoak ere azaltzen hasi ziren. Alde batetik, haur eta gazte liburuen ekoizpenak goia jo zuen, eta produkzioa zertxobait jaisten hasi zen merkatuko zenbait faktoreren eraginez. Bestetik, ordua arte nagusi zen errealismoaren aurkako erreakzioak sortzen hasi ziren, bai errealitatearen tratamenduan umorea tartekatuz, bai fantasiara joz.

Azken urteotan bestalde, eta beharbada merkatuak behartuta, "psikoliteratura" izeneko joera bat indarra hartzen ari da (Lluch Crespo, 1996). Gazte literatura mota horrek narrazio egitura errepikakorra erabiltzen du: protagonistaren larritasun egoera—

protagonistak laguntza jasotzen du —protagonistak larritasuna eragin zuen iturria onartzen duenean arazoa konpondu egiten da. Pertsonaien ideologia, bestalde, hezkuntzako zehar lerroetan sustatu nahi denarekin bat etorri ohi da: antiarrazista, liberala, antisexista, demokratikoa eta positiboa. Joera horren barruan sartzen dira, adibidez, J. Sierra i Fabra-ren *Noche de viernes* (1993) edo *Seis historias en torno a Mario* (1995), G. Moure Trenor-en *¡A la mierda la bicicleta!* (1994), G. Lienas-en *Así es la vida, Carlota* (1990), M. Casariego-ren *Y decirte alguna estupidez, por ejemplo, te quiero* (1995), etabar.

IV.3.2. Katalanezko literatura sistema.

IV.3.2.1. Hasieretatik XX. mendea arte.

Katalanezko HGL idatziaren hasierak XIX. mendean bilatu behar dira, nahiz eta lehenago ahozko literatura ugari, eta zenbait liburu didaktiko aipa daitezkeen (Baldiri Reixac-en *Instruccions per a l'ensenyança de minyons* —1749—, besteak beste).

Baina XIX. mendearen hirugarren herenetik aurrera, haurrentzat bereziki idatzitako liburu batzuk ageri ziren, katalanez idatzita: Francesc Pelagi Briz-en *Lo Llibre des Angels* (1865) eta *Lo Llibre dels nois* (1871), bertsotan idatzitako aholku erlijioso eta moralen bildumak; eta Terenci Thos i Codina-ren *Lo Llibre de la infantesa* (1866), folkloreak iradokitako liburu modernoagoa. Horrelako obrak argitaratu ahal izateko, aurrebaldintza batzuk bete behar izan ziren, besteak beste "Renaixença" delako mugimenduaren indartzea, Bastinos argitaletxearen sorrera (1852), eta Perraulten ipuinak aipatu argitaletxean gaztelaniaz argitaratu izana (*Cuentos de Hadas*, 1862, J. Coll i Vehí-ren itzulpena).

Garai horretatik mendearen bukaera arteko ekoizpen urria bi adarretan bana daiteke: batetik, liburu moralizatzaileak, esaterako Jaume Collell-en *Faules i Simils* (1881); eta, bestetik, folklore-bildumak, hala nola F. Maspons i Labrós-en *Jocs de la infància* (1874), edo *Lo Rondallaire* (hiru liburukitan, 1871-1885).

Hemeretzigarren mende hondarrean gertatutako zenbait aldaketa sozial, politiko eta kulturalek egoera berria eragin zuten XX. mendeko HGLri begira. Gertaera horiek, Teresa Rovira-ren arabera (Rovira, 1988:427), honako hauek dira: haurraren beharren kontzientzia hartzea (libertimendurako literatura edizio egokietan emana, literatura didaktikotik urrun); teknika grafikoen aurrerakuntza, haur liburuetan irudi ugari agertzea erraztu baitzuen; derrigorrezko irakaskuntzaren zabalkundea, irakurlego potentziala ere handituz; katalana literatur hizkuntza bilakatzea; modernista eta "noucentistek" haurren hezkuntzaz duten kezka; katalanezko argitalpen sare industriala eratu izana (haurrentzako "En Patufet" aldizkari aitzindaria, kasu); ipuin tradizionalekiko eta oro har folklorearekiko interesa; eta katalanismo politikoaren lorpen instituzionalei esker bideratutako ekoizpen eta banaketa sare zabala.

IV.3.2.2. Espainiako Gerra Zibila bitarteko aldia.

Espainiako Gerra Zibila bitarteko urtealdia hiru ataletan banatzen du egile berak: hastapenak (1904-1916), haur literatura "noucentista" (1917-1930), eta Espainiako II. Errepublika eta Gerra Zibileko haur literatura (1931-1939).

Haur eta gazteentzako liburu modernoaren hastapen aldian, folkloreak eskainitako gai eta motibo ugarien bidez, Josep Carner-ek *Deu rondalles de Jesús infant* argitaratu zuen 1904an; eta 1908-1909 bitartean R. Miquel i Planas-ek *Rondalles populars catalanes il.lustrades per Joan Vila* izeneko obra ere bai. *El company de camí*, Andersenen ipuina ere 1909an argitaratu zen, Billy-k ilustratua. Bestalde, "La Rondalla del dijous" aldizkarian egile katalanen zein atzerrikoen (Grimm, Perrault, Tolstoi,...) ipuinak agertzen ziren. Haur antzerkiaren emanaldiak ere oso ugariak ziren, batik-bat Angel Rius i Vidal-en eskutik.

Katalanezko lehen haur aldizkaria, "En Patufet", 1904an sortu zen, eta 1938 arteko bizitza izango zuen. "Josep Aladern"ek sortua, eta ilustrazio ugariez hornitua, astero-astero argitaratzen zen,

neska-mutilak kalataneraz irakurtzaletzeko asmoz. Aldizkariaren inguruan sortutako giroak eraginda, 1907tik aurrera "Biblioteca Patufet" izenekoa jarri zen martxan, aldizkariko kolaboratzaileek idatzi eta ilustraturiko ipuinez osatua.

Egileen alorrean, Josep M. Folch i Torres nabarmentzen du Teresa Rovirak. Errealismo idealizatuaren barruan, Folch i Torres-ek 70 bat nobela argitaratu zituen "Biblioteca Patufet"en; gainera, haurrentzako antzerkia ere landu zuen.

Hurrengo urtealdia, "noucentista" izenekoa, "és un dels més interesants i originals de la literatura infantil catalana" (Rovira, 1988:440). Aurreko aldiko lorpenetan oinarrituta, urte horietako haur liburuen ekoizpena gogotik bultzatu zen. Urtealdi hau bi zatitan banatu ohi dute adituek: "Mancomunitat" delakoarena (1914an sortua), eta Primo de Riveraren diktadurarena. Kataluniako "Mancomunitat" delako hori lau probintzietako diputazioak elkartzearen ondorio izan zen, geroagoko autonomiarako lehen urratsa. Erakunde horrek kultur arloan buruturiko ekimen garrantzitsuen artean herri biblioteken sarea eta bibliotekarien kolegioa daude. "Mancomunitat"eko pedagogia kontseiluak, bestalde, haurrentzako testu bilduma bat argitaratu zuen 1918an, "Llibres per a servir de lectura a les Escoles de Catalunya" izenaren pean. Bartzelonako udalak, bere aldetik, gazteentzako bi antologia argitaratu zituen: *Infants i flors* (1917) eta *El llibre del mar* (1921).

Erakundeen lanez gain, argitaldari pribatuen lana ere aipatzekoa da: Muntañola argitaletxeak, 1916tik aurrera, haur liburuen edizio bikoitzak (katalanez eta gaztelaniaz) plazaratzeari ekin zion, oso kalitate handikoak, orri osoko kolorezko ilustrazioz hornituak, gaur eguneko liburu ilustratuen parekoak. Urtebete geroago, 1917an, Catalana argitaletxea sortu zen; hark argitaratutako haur eta gazte liburuen artean *Contes d'Andersen* (1918), Carner-ek itzulia; Grimmen *Contes d'infants i de la llar*, Riba-ren bertsioan; Mark Twain eta Rudyard Kiplingen lanen itzulpenak aurki daitezke. Mentora argitaletxea, gerora Juventud izango zena, 1926an sortua, garaiko argitaletxerik garrantzitsuena izan zen, kantitatez zein kalitatez. Aipatzekoak dira, argitaletxe

horren produkzioan, *L'Illa del tresor* (1927), *La volta al món en vuitanta dies*, eta Josep Carner-ek bertsionatu eta Lola Anglada-k ilustratutako *Alícia en terra de meravelles* (1927). Beste argitaletxe batzuk ere sortu ziren, haurrentzako liburu modernoak zein herrikoiak kaleratzeko zereginean aritzeko.

Bestalde, intelektual talde batek, "En Patufet" aldizkariaren joera populistarekin ados ez zegoelarik, "La Mainada" haur aldizkaria sortu zuen 1922an. Garaiko kolaboratzailerik ospetsuenek parte hartu zuten aldizkari berrian: Lola Anglada eta Joan d'Ivori ilustratzaileak; eta idazleen artean, Carner, Riba, López-Picó, Millàs Raurell, eta, kolaboraziorik entzutetsuena, Joan Salvat-Papasseit-en *Els nens de la meva escala*, atalka argitaratutako narrazioak. Primo de Riveraren diktadurak itxi zuen azkenik, "catalanisme radical"ekoa zelakoan. "TBO" gaztelaniazko aldizkariaren konkurrentzia zela eta, bestalde, "En Patufet"en editoreek aldizkari berri bat plazaratu zuten: "Virolet" (1922-1930), katalanezko lehen komiki-aldizkaria.

Hirugarren urtealdian, hau da, Espainiako II. Errepublika eta Gerra Zibila bitartekoan (1931-1939), Katalunia autonomoa zen Generalitat delakoaren bidez; katalana hizkuntza koofizial bihurtu zen, eta hezkuntzaz arduratzen ziren erakundeek gogotik lan egin zuten eskola berri baten alde. Hori guztia zela eta, ordua arte sorkuntzazko literaturan aritutako profesional gehienak testuliburugintzari begira jarri ziren. Haur literaturaren aldetik, krisi urteak ziren: urte horietako produkzio gehiena Kataluniako historiari buruzko dibulgazio liburuek osatzen zuten; gainera, zenbait literatur antologia eta poema eta kanta bildumak ere argitaratu ziren.

Haur eta gazteentzako literaturaren alorrean, Juventud argitaletxea nabarmendu zen: aurreko aldian aipatutako Andersen eta Grimmen ipuinek bertsioak berrargitaratzeaz gain, Europako literatura modernoaz ere arduratu zen (*Llibre des fades*, *Peter Pan i Wendy*, *Les aventures de Pinotxo*, *Emili i els detectius*, gehienak Marià Manent-en ardurapean). Jatorrizko produkzioa, ostera, oso urria zen. Valriu i Llinàs-ek dioenez (1994:94):

> La pobresa de la producció contrastava amb l'augment des llibres en català per a públic adult i amb el gran èxit dels llibres per a infants de les editorials en catellà —com és el cas de Molino—, que començaven a importar productes de Walt Disney i fins i tot revistes, com la titulada "Mickey" (1935).

Gerra Zibila hastearekin batera, jarduera kulturala ofizialdu egin zen, bateko eta besteko ekimenak kontrolpean izateko helburuz. Haur eta gazteen liburugintza "Comissariat de Propaganda de la Generalitat de Catalunya" delakoaren pean gelditu zen, eta eduki propagandistikoa zen nagusia: Josep Obiolsen *L'auca del noi català antifeixista i humà*, eta Lola Angladaren *El més petit de tots* nabarmenenak izan ziren. "En Patufet" aldizkaria 1938an itxi zuten.

Alderdi frankistaren garaipenaren ondoren, kultura kataluniarra krisi sakonean murgilduta geratu zen, eta HGL izan zen atalik ahulduenetariko bat.

IV.3.2.3. Hirurogeiko hamarkadatik gaur egun arte.

Diktadura garaiko aroa zentsurak markaturikoa izan zen. Haur eta gazteentzat zegoen gauza bakarra zenbait komiki eta tebeo ziren (*El capitán Trueno* Víctor Móra i Pujadas idazle katalanak sortu zuen 1956an, eta "Ambrós" marrazkigile valentziarrak ilustratu). Bagunyà argitaletxeak Folchi Torresen obra batzuk berrargitaratu zituen 1946an; 1949an, Ariel argitaletxeak, "Rondalles" izeneko sail batean, narrazio popularrak bildu zituen. Frantziatik, eta Carles Ribak itzuliak, Babar elefante zibilizatuaren istorioak iritsi ziren.

Hala ere, euskarazko literaturaren ikuspegian adierazi bezala, katalanezko literaturak ere arindua hartu ahal izan zuen 60ko hamarkadako irekiera politikoari eta ongizate ekonomikoari esker. Literatura sistema honetan ere, berrikuntza pedagogikoa bultzatu nahi zuten irakasle eta gurasoak ageri ziren panorama kulturalera, "Escola Activa" izenaren pean (Valriu i Llinàs, 1994:164). Eskola adineko umeek zer irakurria izan zezaten, "Cavall Fort" eta "L'Infantil" haur aldizkariak sortu ziren eta, 1963an, La Galera

argitaletxe ezaguna jaio zen. Gainera, gazte literaturako bi sari eratu ziren: Josep M. Folch i Torres eta Joaquim Ruyra izenekoak.

Diktadorea hil ostean, 1975etik aurrera, katalanezko eskola normalizatuz joan zen, ikasketa planetan katalanezko ikasgaiak sartzearekin batera, eta, ondorioz, irakurlegai multzo handi bat sortu zen. Horrek guztiak argitaletxe eta haur bildumen ugalketa ekarri zuen. Herri erakundeek, beren aldetik, bibliotekak haur liburuz hornitu, irakurketaren inguruko animazio ekintzak bultzatu eta literatur sariak antolatu zituzten. Azkenik, HGL unibertsitatean sartzen hasi zen, kritikarako oinarri sendoa eskainiz.

Euskal literatura sisteman egin dugun bezala, hemen ere egile eta ilustratzaileen ugaritasunak irizpide tematikoa hautatzera bultzatu gaitu. Ondoren eskainiko den ikuspegiak, beraz, azken hogeita hamar urte hauetan ekoiztutako haur eta gazte narratibagintza hiru ataletan bilduko du: errealismoa, fantasia eta errealismo fantastikoa. Ondoren, berriz, beste genero batzuk aztertuko dira.

Errealismoaren barruko joerak, elkarrekin oso estuki erlazionaturik egon arren, sei zatitan aztertuko ditugu Valriu i Llinàsekin batera (1994:167): eguneroko bizimoduaren errealismoa, talde liburuak, errealismo kritikoa, abentura nobela, nobela historikoa eta nobela beltza.

Lehenengo motaren barruan umearen ohiko testuinguruetan kokatutako narrazioak sartuko lirateke, esaterako *Entre juliol i setembre* (1967), Robert Saladrigas-ena; *24 hores de la vida d'En Cesc Martí* (1982), Andreu Vallvé-rena; edo *John Lennon, la història* (1990), Jordi Serra i Fabra-rena.

Talde liburuak indibidualismoaren aurkako ideologia baten barruan sortu ziren, 60ko hamarkadan, eta talde lanaren inguruko baloreak bultzatzen dituzte oro har: adiskidetasuna, elkartasuna eta talde lana. Joaquim Carbó-ren *La colla dels deu* (1969) liburuan mutikoez osatutako koadrila ageri da, baina geroagoko liburuetan, nahiz eta errealitarearekin bat ez etorri, neska-mutilen taldeak

agertzen hasi ziren horrelako liburuetan: bakoitzak bere rol oso markatua zuen, eta kide guztiak elkarren osagarri ziren. Narrazio mota horretako pertsonaia lauak izaten dira, eta narrazioaren beraren egitura oso eskematikoa. Gatazka, normalean, konpondu gabeko misterioren bat edo guztien artean lor daitekeen helbururen bat izaten da, eta bukaera zoriontsua eta itxia. Joera honen lehenengo emaitza *El zoo d'en Pitus* (1966), Sebastià Sorribas-ena izan zen. Ezagunenen artean, berriz, Joaquim Carbóren *L'home de Munic* (1977), eta Mercè Canela Garayoaren *De qui és el bosc?* (1976) daude.

Errealismo kritikoaren barruan, berriz, erralitate anitzaren aurrean hartutako jarrera kritikoa ageri da, HGLn ordua arte azaldu gabeko gai asko tratatuz. Hemen, bereizketa bat egiten da: batetik, errealismo kritikoaren alderdi soziala (feminismoa, antimilitarismoa, mestizaia, etabar); eta, bestetik, errealismo kritikoaren alderdi psikologikoa (seme-alaba bakarrak, dibortzioa, nerabeen arazoak, etabar). Europako HGLn sarri landutakoa izan arren, errealismo kritikoaren obren itzulpenak ez ziren berehala iritsi katalanezko panoramara eta, kasu askotan, gaztelaniazko itzulpenen bidez ezagutu ziren:

> En parlar de com se desenvolupa aquesta tendència als Països Catalans hem de tenir en compte que la migradesa de les traduccions al català de la literatura contemporània infantil i juvenil al llarg dels anys setanta no afavoreix l'arribada ni l'arrelament d'aquestes obres. En gran part seran conegudes i valoradas alguns anys després, sobretot a partir de les traduccions al castellà que publiquen algunes editorials capdavanteres en literatura juvenil, com Alfaguara i Lóguez (Valriu i Llinàs, 1994:174).

Jatorriz katalanez idatzitakoei buruz, Francesc Candel-ek emigrazioaren gaia ukitu zuen *Una nova terra* (1967) liburuan, eta gauza bera egin zuen Gabriel Janer Manila-k *El rei Gaspar* (1976) izeneko obran. Laurogeiko hamarkadan, berriz, gehiago azpimarratu ziren gatazka psikologikoak, errealitatearen presioaren eraginez. Aipagarriak dira Josep Vallverdú-ren *En Roc drapaire* (1970), Pep Albanell-en *El Barcelonauta* (1976), bizimodu marginaleko gazte

batzuen bizikizunak; Gemma Lienas-en *Cul de sac* (1986), diru errazak miretsita droga trafikoan hasten den neska bati buruz; Francesc Saler-en *Fugir* (1985), neskatxa baten suizidioaz. Azpimarragarria da, ikusten den bezala, gaien ugaritasuna (horietako asko oraindik ukitu gabeak euskal HGLn).

Abenturetako nobelari dagokionez, obra gehienek generoaren eskemari jarraitzen diote: urruntasuna, heroe gazte bat, aurre egiten zaion arazoa, konponbidea, gazteak irabazitako heldutasun psikologikoa. Obra batzuk aipatzearren, Josep Vallverdúren *La caravana invisible* (1968); Joaquim Carbóren *La casa sota la sorra* (1966), Afrikako beltzen esplotazioari buruz; edo Robert Saladrigas-ek joera didaktiko batez idatzitako *El prodigiós viatge d'en Ferran Pinyol*, 1971 eta 1978 artean idatzitako sei liburuek osatutako saila.

Nobela historikoaren funtzioak, dagoeneko beste toki batean esanda geratu den bezala, historiak ahaztutako pasarteak gogora ekartzea, eta komunitate bat herri bezala batzen duten gertakizunak azpimarratzea dira. Katalanezko literaturan, ordea, aspaldiko iraganera jo izaten da, mende honetako historia zeregin horretatik baztertuz. Libururik azpimarragarrienak Emili Teixidor-en *L'ocell de foc* (1971), XIII. mendean kokatua; Jaume Cabré-ren *La història que en Roc Pons no coneixia* (1980), Espainiaren Independentzia Gerrari buruz;Joan Blasco Casanovas-en *El rescat de rei minyó* (1976), Erdi Aroan kokatua.

Nobela beltzak, azkenik, parodia eta umorearen bidetik jo izan du. Hori gertatzen da Joaquim Carbóren *Felip Marlot* (1979), edo Andreu Martín i Jaume Riberaren *No demanis llobarro fora de temporada* (1987).

Fantasia hirurogeita hamarreko hamarkadan garatzen hasi zen, aurreko hamarkadetako errealismoaren nagusitasunaren aurreko erreakzio gisa. Fantasiaren alorrean hiru atal bereizten dira: tradizioak iradokitako narrazioak, zentzugabea eta zientzia fikzioa.

Lehenengoari dagokionez, herri ipuinek iradokitako obrak idaztea Kataluniako literatur tradizioaren barruan kokatzen da mende hasieratik. Aztergai dugun urtealdiari buruz, berriz, garrantzitsua izan zen La Galera argitaletxea 1970ean ateratzen hasi zen "Contes populars" izeneko liburu saila, mundu osoko ipuin tradizionalak bilduz. Denboran hurbilago, ordea, nolabaiteko desmitifikazio prozesuari eman zaio hasiera, zeinaren bitartez ipuinetako pertsonaien rolak eta ezaugarriak aldatuz doazen; horrela, era guztietako sorginak agertzen hasi ziren, batzuk oso gaiztoak, beste batzuk ez hainbeste, eta beste batzuk barregarriak. Antzeko zerbait esan daiteke deabru, otso, izpiritu eta abarrei buruz. Hala ere, zintzotasun handiz gordetzen dira hasiera eta bukaerako formulak, eta baita tradiziozko kontakizunek berezko dituzten bestelako esaerak ere. Fantasian ere, narrazio berriek transmititzen dituzten baloreei buruz hitz egiten du Valriu i Llinàsek (1994:187): adiskidetasuna; askatasuna eta ingurugiroarekiko errespetua lortzeko borrokatu beharra; lan, zorroztasun eta irmotasunaren balorazioa; eta fantasia, irudimen eta ahozko narrazioen balorazioa. Obra batzuk aipatzeko, Mercè Canela-ren *Els set enigmes de l'iris* (1984), Joles Sennell-en *El bosc encantat* (1982), edo Mercè Company-ren *La reina calba* (1985).

Zentzugabearen barruan azaltzen dira, bestalde, surrealisten eta Rodariren proposamenen jarraitzaileen lan berritzaileak: Joles Sennellen *La guia fantàstica* (1977), eta *En Patancràs Xinxolaina* (1981), edo Miquel Obiolsen *Ai Filomena, Filomena!* (1977) dira, besteak beste, egindako entseiu batzuk.

Zientzia fikzioa, azkenik, gutxien landutako generoetariko bat da. Tankera horretako lehen liburua *Mecanoscrit del segon origen* (1974), Manuel de Pedrolorena izan zen, etorkizun hurbil batean kokatua, neska bat eta mutil bat aurkezten dizkigu, hondamendi baten ondoren bizirik atera diren bakarrak. Gazteentzako nobelen artean, Lluís Busquets i Grabulosa-ren *El viatge fantàstic de Griselda* (1981) aipa daiteke.

Errealismo fantastikoa da narratibaren barruan egindako sailkapenaren hirugarrena eta azkena. Errealismoaren arauen barruan jokatuta, elementu fantastikoak tartekatuz iristen da korronte horretara, L. Carroll, J. M. Barrie, R. Dahl edo Ch. Nöstlinger bezalako egileen eskutik. Normalean, errealismo fantastikoko obretan kritika soziala oso indartsua da, nahiz eta aipatu elementuen nahasketaren atzean gordeta egon. Gabriel Janer Manila izan da arlo hori gehien landu duena, *El rei Gaspar* (1975), edo *La serpentina* (1983) obretan esaterako. Mercè Canelaren *Utinghami, el rei de la boira* (1979) ere korronte honen barruan sartzen da.

Bestelako genero minoritarioagoen artean, ilustraturiko albuma, poesia, antzerkia eta komikia aipatu behar dira.

Ilustraturiko albumetan irudia da nagusi, eta testuak itxuratzen duen gutxieneko argumentudun istorioa, berriz, bigarren mailakoa. Oro har, narratibaren barruan gertatzen diren joera berberak ematen dira albumetan ere, nahiz eta nagusia errealista izan. Hain zuzen ere, joera horren barruan kokatzen da *Teo* saila, Violeta Denou goitizeneko taldeak egina. Errealismo kritikoaren barruan, *Els nens del mar* (1991) eta *Brrrrrgg!* (1992) aipa daitezke, Carme Soler eta Jaume Escalak elkarrekin egindakoak. Fantasiaren alorrekoak, berriz, *El pardalet sabut i el rei descregut* (1982) eta *La serp, el riu* (1986), biak Manuel Boix-ek ilustratuak. Eta errealismo fantastikoaren barruan, Montse Ginesta-ren *La capsa verda* (1982), Marta Balaguer-en *En Jaumet de les Xanques* (1980), edo Carme Solé-ren *La lluna d'en Joan* (1984), pertsona berak idatzi eta ilustratutakoak.

Poesiaren alorreko produkzioa nahikoa urria da. Aipagarrienen artean, Josep Carner-en *Museu zoològic* argitaratu zuen 1963an, Joana Raspall-en *Petits poemes per a nois i noies* (1981), eta Empúries argitaletxeko "La Poma Verda" poesi sailean argitaratutako hiru tituluak: *Marina* (1986), Olga Xirinacs-ena; *Bon profit!* (1986), Miquel Martí i Pol-ena; eta *Música, mestre!* (1987), Miquel Desclot-ena. Poemen antologien artean, berriz, Marià Manent-ek *Espígol blau* (1980) liburuan poema tradizional

ingelesen aukeraketa egin zuen; Antoni Artigues-ek prestatutako *Lluna de l'alba* liburuan ilargiaren inguruko poemak bildu zituen.

Antzerkigintza tradizio handiko generoa da Kataluniako literaturan. Idatzitako haur antzerkia bi bildumatan aurki daiteke: "Teatre Edebé" delakoan eta La Galerako "Teatre Joc d'Equip"en. Valriu i Llinàs-ek (1994:205) hiru adar bereizten ditu haur antzerkigintzaren barruan: lehenengoa, Kataluniako zein mundu zabaleko ipuin tradizionaletan oinarritutakoa (Perrault, Grimm, Andersen, La Fontaineren obren antzerki adaktaketak); bigarrena, literatur testu klasikoen moldaketak egiten dituena (*Tirant lo Blanc*, *El màgic d'Oz*, *Les dones sàvies*, Ovidioren alegiak, etabar); eta hirugarrena, nolabaiteko kritika soziala egiten duena (ekologia, bakezaletasuna, askatasuna, etabar).

Komikien aitzindariak "En Patufet" aldizkariaren "Virolet" gehigarria, 1922tik aurrera; eta 1917aren inguruan Bartzelonan gaztelaniaz agertutako *TBO* ezaguna dira. Beranduago, "Cavall Fort" eta "Tretzevents" aldizkarietan ere bertako zein kanpoko egileen komikiak argitaratzen hasi ziren. Komiki horiek, denborarekin, liburutan bildu eta, horrela, Picanyol-en "Ot, el bruixot", Xots Clapers-en "En Camús" edo Madorell-en "Jep i Fidel" pertsonaien bildumak argitaratu ziren. Beste joera baten barruan, bestalde, lehenago narratiban arrakasta lortutako obra batzuk komikiratu egin ziren.

IV.3.3. Ingelesezko HGL sistema.

Ingelesez idatzitako HGLren ikuspegi honetarako, Harvey Darton-en azterketa klasikoarekin batera (Darton,1982), Townsend-en lan interesgarriaz baliatuko gara (Townsend,1995), bereziki egile horrek ezarritako kronologia eta generokako banaketaren aldetik, azken urteotako emaitza interesgarrienen berri eskaintzen duten zenbait artikuluz gain.

IV.3.3.1. Hastapenetatik XX. mendearen hasiera arte.

Lehenengo eta behin argitu beharra dago ingelesezko HGLren hastapenez mintzatzea HGLren beraren hastapenez hitz egitea dela. Hori dela eta, hemen adieraziko diren zenbait kontu lehen kapituluan azaldutakoen bidetik joango dira.

John Locke filosofo inglesak 1693an hezkuntzaz zituen ideiak argitara eman zituenean, *Thoughts Concerning Education* izeneko liburuan, irakurtzen ikasteko lan astuna burutu ondoren umeentzako sari gisa irakurketa atsegingarriak egiteko aukera proposatzen zuen teorian; praktikan, ordea, halako libururik ez zegoen *Biblia*, Esoporen *Alegiak* eta *Reynard the Fox* liburuetatik kanpo.

Hala ere, aipatu liburua idatzi zuen urtearen inguruan, gerora HGLn klasiko bihurtuko ziren hiru testu argitaratu ziren: John Bunyan-en *The Pilgrim's Progress* (1678), Daniel Defoe-ren *Robinson Crusoe* (1719) eta Jonathan Swift-en *Gulliver's Travels* (1726).

Burgesiaren sorrerarekin batera, irakurlego gazte sendo baten jaiotza berriaz oharturik, John Newbery izan zen haur liburuak idatziz eta argitaratuz arrakasta lortu zuen lehena. *Litte Pretty Pocket-Book* (1744) liburuarekin abiatuta, gutxienez beste hogeita hamar titulu idatzi eta argitaratuko zituen, horien artean azpimarragarriena beharbada *Goody Two-Shoes* (1766) izan zelarik.

Bitartean, herri ipuinak, behe mailako jendearen artean arrakastatsuak izan arren, goi mailakoen eta hezkuntza gidarien iritziz kaltegarriak ziren: izan ere, Newberyren beraren hitzetan "People stuff Children's Heads with Stories of Ghosts, Fairies, Witches, and Fools all their Days" (Townsend, 1995:30). Erromantizismoa, ordea, iritzi horiek aldatzera etorri zen, eta Mary Howitt-ek Grimm-en (1823-26) eta Andersen-en (1846) ipuinak itzuli zituen arrakasta handiz.

Garai victoriar emankorrean sartuta, askotariko generoak aurki ditzakegu. Lehenik, **abentura liburuak**, mutilentzat idatziak. Liburu mota horren jatorria, batetik, *Robinson Crusoe* da eta,

bestetik, Walter Scott-en nobelagintza historikoa. Haurrentzat bereziki idatzitako lehen abentura liburuak Marryat kapitainaren eskutik etorri ziren, *Peter Simple* (1834) eta *Mr Midshipman Easy* (1836), kasu, Defoe-ren oso eragin nabarmena dutenak. Garaiko beste egile batzuk W. H. G. Kingston eta Ballantyne emankorrak izan ziren, bakoitzak ehundik gora liburu idatzi zituelarik.

Baina benetako berrikuntza R. L. Stevenson-en eskutik etorri zen: *Treasure Island* (1883) nobelan, pertsonaia ezin biziagoak agertzeaz gain, didaktismoa erabat desagertu da. Obra horren oihartzunez, Rider Haggard-ek *King Solomon's Mines* (1885) idatzi zuen, exotikotasunean oinarrituz.

Amerikan, berriz, J. Fenimore Cooper-ek, Walter Scoot amerikarra deitua, mende hasieran idatzitako nobelak nabarmentzen dira; horien artean ezagunena *The Last of the Mohicans* (1826) izanik. Egileak indiarren ohiturei buruz begirune handiz idatzi zuen, baina, antza, bizimodu tribalaren lehen eskuko ezagutzarik gabe.

Mark Twain-ek *Tom Sawyer* (1876), *Life on the Mississipi* (1883) eta *Huckleberry Finn* (1884) idatzi zituen, gazte garaiko bizipenetan oinarrituta eta umorez zipristinduta.

Beste egile amerikar batzuk Horatio Alger, Jr. (*Ragged Dick*, 1868) eta Thomas L. Janvier (*The Aztec Treasure House*, 1890; *In the Sargasso Sea*, 1898) izan ziren.

Australian, berriz, William Howitt (*A Boy's Adventure in the Wilds of Australia*, 1854), J. H. Hodgetts (*Tom's Nugget: a Story of the Australian Goldfields*, 1888) eta Gordon Stables (*From Squire to Squatter*, 1888) izan ziren, nahiz eta Australiari buruzko liburuen egileak bisitariak baino ez ziren izan, lurraldearen ezagutza sakonik gabeak.

Garaiko beste genero bat, oraingoan emakumezko idazleek idatzia eta emakumeei zuzendua, **familia-istorioena** da, edo, nahiago bada, Townsend-en hitzetan (1995:54), drama domestikoena. Oro har, kontakizun hezitzaileak eta negar eragileak izaten dira, non protagonistak (emakumezkoa hori ere) gora-behera

handiko bizitzari aurre egin beharko baitio, normalean neke handiz bukaera zoriontsu batera iristeko. Koordenada horien artean idatzirik, arrakasta handia lortu zuten egile eta titulu batzuk honako hauek dira: Elizabeth Wetherell-en *The Wide, Wide World* (1850) eta *Queechy* (1853); Maria Cummins-en *The Lamplighter* (1854); Charlotte M. Yonge-ren *The Heir of Redclyffe* (1853) eta *The Daisy Chain* (1856). Azken liburu hori, generoko titulurik ezagunenaren aitzindaritzat jo izan da: Louisa May Alcott-en *Little Women* (1868), bigarren partea ezagutu zuena urtebete geroago. Beste egile famatu batzuk Susan Coolidge (*What Katy Did*, 1872), Kate Douglas Wiggin (*Rebecca of Sunnybrook Farm*, 1903), Mrs Molesworth (*The Cockoo Clock*, 1877) eta Lucy Maud Montgomery (*Anne of Green Gables*, 1908).

Beste alde batetik, XIX. mendearen hasieran **ipuin tradizionalekiko** eta oro har fantasiazko narrazioekiko sentiberatasuna pizten hasi zen HGL "ofizialaren" alorrean. Townsend-en hitzetan:

> Their emergence into respectable print is probably associated with the rise of Romanticism, the greater esteem for imagination that had followed the Age of Reason, and the replacement to some extent of classical influences by Nordic ones (Townsend, 1996:680).

Gorago esanda geratu denez, mendearen erdialdean Grimm, Andersen eta Perraulten ipuinen itzulpenak eskuragarriak ziren jadanik, tradizio britainiarreko beste ipuin bildumekin batera. Hala ere, moral victoriarrarekin bat etortzeko ahaleginetan, zenbait egilek manipulazioan erori ziren; hori da George Cruikshank eta bere *Fairy Library* (1853-54) obraren kasua, erabateko abstinentziaren propaganda egiteko erabilia.

Badirudi maitagarrien ipuingintza modernoa Catherine Sinclair-en "Uncle David's Nonsensical Story" ipuinarekin hasi zela, *Holiday House* (1839) liburuan aurki daitekeena. John Ruskin-en *King of the Golden River* (1851) ere oso liburu zabaldua eta famatua izan zen.

Mendearen 60ko hamarkada urrezkoa izan zen fantasiari dagokionean: Charles Kingsley-ren *The Water Babies* (1863), eta bereziki Lewis Carroll-en *Alice's Adventures in Worderland* (1865) eta *Through the Looking-Glass* (1871) garai guztietako haur libururik garrantzitsuenak dira.

Garai victoriarreko irudimen handiko beste idazle bat George MacDonald izan zen; beraren liburuen artean *The Princess and the Goblin* (1872) eta *Dealings with the Fairies* (1867), bereziki azken honetan bildutako bi ipuin: "The Golden Key" eta "The Light Princess". Azken honetan, airean flotatzen ibiltzen den printzesa arinak grabitatea eskuratzen du maitemintzen denean.

Edith Nesbit da atal honetan aipatu beharreko beste idazle bat. Alfonseca-k dioenez, "desempeñó un papel fundamental en el desarrollo de la literatura inglesa de fantasía e influyó poderosamente en los representantes de este género en el siglo XX" (Alfonseca, 1997:10). Fantasiaren alorrean idatzi zituen obren artean honakoak daude: *Five Children and It* (1902), *The Phoenix and the Carpet* (1904) eta *The Story of the Amulet* (1906), izaki magikoekin harremanetan dauden haurren familiei buruzkoak.

Nesbit-en azken obra horren antzekoa, eta urte berean argitaratua da R. Kipling-en *Puck of Pook's Hill*.

Aipamen berezia merezi duen beste obra bat *Peter and Wendy* (1911) da, J. M. Barrie-rena. Handitu nahi ez zuen mutikoaren istorio ezaguna, egileak berak 1904an estreinatutako *Peter Pan* antzerki lanaren ondorioa da eta, kritikoei kasu eginez gero, antzerki lan horrek eman dio ospea liburuari: "All in all, *Peter and Wendy* is not a very good book: I am sure it benefits unduly from the fame of the play" (Townsend, 1995:81). Hala ere, *Peter and Wendy* aurreko eredu literarioen desmitifikazioa izan zen: indiar onberak, Hook kapitaina gizabideaz kezkatuta ageri da etengabe, umeei kalte egiten ez dien krokodiloa, etabar.

Amerikan, azkenik, zahar kutsuko estiloa erabiliz, Howard Pyle idazle eta artistak fama handiko liburuak argitaratu zituen, besteak

beste: *Pepper and Salt* (1886), *The Wonder Clock* (1888) eta *Twilight Land* (1895). Ez hainbesteko arrakastaz, baina kritikoen esanera kalitate handiagoz, L. Frank Baum-en *The Wizard of Oz* (1899) plazaratu zuen, liburuko fantasiazko elementuak osagai amerrikarrez eraikirik.

Beste joera bat **eskolaren inguruko kontakizunak** dira. Gehienbat barnetegietako giroetan kokatuta, bertan ezarritako harremanak beste edozein gizarte txikirenekin pareka daitezke, bereziki norgehiagokak eta disziplinaren inguruko kontuetan. Istorio mota horiek Thomas Hughes-en *Tom Brown's Schooldays* (1857) eta F. W. Farrar-en *Eric, or Little by Little* (1858) liburuekin jaio ziren. Lehen liburua episodikoa da, argumentu itxirik gabekoa, eta didaktismotik urrunduz, Tomen askotariko iniziazioen berri dibertigarria emateko asmoa zuen, bereziki taldeko kirolen bidez. Bigarrena, berriz, gizabanakoaren patu moralaz aritzen da, eskola testuinguru gisa erabiliz, protagonistaren *descensus ad inferos* baten bidez.

Amerikan, Thomas Bailey Aldrich-en *Story of a Bad Boy* (1870) izenekoan, Tom Brown-en pareko amerikarra agertu zen, pertsonaiari kutsu marginalxea emanez. Beste obra amerikar aipagarria, Edward Eggleston-en *Hoosier School Boy* (1883) da.

Erresuma Batura itzuliz, eskolaren inguruko kontakizunetan maisua izan zen idazlea Talbot Maines Reed izan zen. Reed-en liburuak *Boy's Owner Paper* aldizkarian agertu ziren aldez aurretik kapituluka, eta haren lanik ezagunena *The Fifth Form at St Dominic's* (1887) izan zen.

Hortik aurrera, generoa estereotipatuz joan zen, eta kalitatea galduz, harik eta R. Kipling-ek *Stalky* (1899) obra gogorra eta sentimenturik gabekoa argitaratu zuen arte. Townsend-en hitzetan,

> And Kipling, with his new ideas, must take some of the blame, for it was he who introduced the serpent into the Old School Eden. After the knowingnees of *Stalky* it was difficult ever again to assert the innocent values of the classical school story (Townsend, 1995:90)

Beste genero batera pasatuz, **animalien kontakizunak**, bai animaliak bere hartan hartutakoak, bai animaliei giza ezaugarriak emanez, haur literaturaren hasiera-hasieratik aurki ditzakegu (mendebaleko herri ipuinetan, kasu). Aztertzen ari garen urtealdian, ordea, lehen animali kontakizuna Anna Sewell-en *Black Beauty* (1877) izan zen, zaldi batek lehen pertsonan kontatua.

Kanadan, bi idazlek generoaren alderdi errealista eta ia dokumentala landu zuten: Ernerst Thompson Seton eta Charles G. D. Roberts. Seton-en obrak, bukaera tragikokoak gehienak, hauek izan ziren: *Wild Animals I Have Known* (1898), *The Biography of a Grizzly* (1900) eta *Monarch the Big Bear* (1904). Roberts-en obra nagusian, berriz, *Red Fox* (1905), askatasun eta basatasuneranzko bukaera zoriontsua gertatzen da.

Baina animalien liburuez ari garela, ezin aipatu gabe utzi Rudyard Kipling-en *The Jungle Books* (1894-5), eta umeek hain maite duten Mowgli pertsonaia. Liburu hauen azpian moraltasun viktoriarra datza: azken batean, mundua oihan arriskutsua da, eta umeek jakin beharko lukete bertan kontuz ibiltzen. Kipling-en beste era bateko beste obra bat *Just So Stories* (1902) da: ume txikiagoentzako idatzitako animali mitoak (baleak nola eskuratu zuen bere eztarria, gameluak nola eskuratu zuen bere konkorra, etabar).

Animalien inguruko beste obra klasiko bat Kenneth Grahame-en *The Wind in the Willows* (1908) da. Pertsonaia nagusiak Satorra eta Ur-arratoia dira, ibai ertzean bizimodu idilikoa eramaten dutenak; handik ez oso urrun, ordea, "Baso Basatia" dago, lurralde arriskutsua. Liburuari gerra aurreko nostalgia moduko bat dario, gaur egun antzemanezina dena.

Amaitzeko, Jack London amerikarraren gizon eta txakurren arteko *Call of te Wild* (1903) obra, helduentzat idatzita ere, gazte literaturan sartu ohi da.

Haurrentzako poemek ere haur literaturaren hasieran dute iturburu: haur kantak, baladak, aho-korapiloak, etabar. Ingelesez,

XIX. mendearen ekarpena umeentzako zentzugabea lantzen duten poemak izan ziren. Horien artean nabarmenenak Edward Lear eta Lewis Carroll izan ziren. Lear-ek limerick-ez osatutako liburu bat idatzi zuen, *Book of Nonsense* (1846), baina haren benetako zentzugabezko poema liburuak *Nonsense Songs* (1870) eta *Laughable Lyrics* (1877) izan ziren. Carroll-en poemarik originalenak, berriz, *Through the Looking-Glass* (1871) liburuan aurki daitezke, *Alice´s Adventures in Wonderland* liburuan agertutakoak beste poema batzuen parodioak baitira.

Beste alde batetik, Christina Rossetti-k *Goblin Market* (1862) idatzi zuen, neurtitzetan idatzitako maitagarri ipuina.

R. L. Stevenson-ek, bere haurtzaroko oroitzapenetan oinarriturik, *Child's Garden of Verses* (1885) argitaratu zuen.

Amerikan, berriz, Eugene Field-en *Lullaby Land* (1897), Laura Richards-en *Tirra Lirra* (1932, nahiz eta XIX. mendean idatzitako poemez osatua dagoen), eta Hilaire Belloc-en *Bad Child's Book of Beasts* (1896) eta *Cautionary Tales* (1908) dira obrarik aipagarrienak.

Amaitzeko, **ilustrazio-liburuen** alorrean, Edmund Evans grabatzaile eta inprimatzailea izan zen generoari lehen bultzada eman ziona, XIX. mendearen hirugarren herenean. Besteak beste, Walter Crane eta Randolph Caldecott-en obrak bultzatu eta ekoiztu zituen. Baina garaiko idazle ilustratzailerik ospetsuena Beatrix Potter izan zen, Peter Rabbit pertsonaiaren inguruan haur txikientzako burututako maisulan ugarirekin.

IV.3.3.2. 1915-1945 aldia.

Lehen Mundu Gerrak eragin handia izan zuen Erresuma Batuaren literatura ekoizpenean, eta beraren ondorioek urte luzeetan iraun zuten. Gerran hildako pertsonen kopuru handiak, idazle potentzialen galera ezezik, irakurle potentzialena ere eragin zuen. Horri, krisialdi ekonomikoa gaineratu behar zaio: paper falta,

argitalpen industriaren ahulezia,... Haur literaturarekiko interesa galdu zen, eta 20ko hamarkadako ekoizpen orokorra oso maila eskasekoa izan zen.

Estatu Batuetan, bien bitartean, egoera oso bestelakoa zen: han, argitalpen industria goraka zihoan, haurrentzako biblioteka sareek garrantzi handia hartu zuten, bibliotekariak prestatzeko ikastaroak antolatzen ziren, etabar. 1921ean American Library Association delakoak "John Newbery Medal" izenea sortu zuen, idazle amerrikarrik nabarmenenak saritzeko. 1924tik aurrera, *New York Herald Tribune* egunkariak orrialde bat dedikatu zion haur literatur kritikari, eta urte berean haur literaturari buruzko *The Horn Book Magazine* argitaratzen hasi zen. Hala ere, Townsend-en esanetan, bertako haur literatura ez zen gertatu espero zitekeen bezain interesgarria (Townsend, 1995:128).

Fantasiazko liburuen artean nabarmenena, *The Story of Dr Dolittle* (1920) izan zen, sendatzen zituen animaliekin hitz egiteko gai zen sendagilearen gorabeherak. Liburuaren egileak, Hugh Lofting-ek, (Erresuma Batuan jaioa izan arren, Estatu Batuetan eman zituen bere urte gehienak —hango Newbery Medal jaso zuen) dozena bat liburu idatzi zuen pertsonaia beraren inguruan, berehala jaso zuen arrakasta ikusita. Kritikarik ere jaso zuen, hala ere: pertsonaia beltz batek medikuari zuri bihurtzea eskatzeak, besteak beste, arrazistatzat joa izatea kostatu zitzaion.

Guztiz arrakastatsua izan zen beste liburu bat A. A. Milne-ren *Winnie the Pooh* (1926) izan zen. Pertsonaiak giza dohainak hartzen dituzten panpinak dira: hartza, txerria, tigrea, etabar. Jonhn Mansfield bi liburu interesgarriren egilea izan zen: *The Midnight Folk* (1927) eta *The Box of the Delights* (1935). Hogeita hamarreko hamarkadan sartuta, P. L. Travers idazleak *Mary Poppins* argitaratu zuen 1934an; eta J. R. R. Tolkien-ek *The Hobbit* (1937).

Joera berberaren barruan, Australian, Norman Lindsay-k *The Magic Pudding* (1918) argitaratu zuen, bertako haur literaturako obrarik onena.

Nolabaiteko **errealismoaren** barruan, berriz, Estatu Batuetan Laura Ingalls Wilder-en *Little House in the Big Woods* (1932) eta ondorengo zazpi liburu gehiago, benetako gertaeretan oinarrituak, dira aipagarriak. Guztien artean onena, *The Long Winter* (1940) izenekoa da.

Erresuma Batuan, Arthur Ransome-k "let some fresh open air into children's books" (Townsend, 1996:683), *Swallows and Amazons* (1930) liburuaren bidez: benetako umeen benetako bizitzak kontatuz, oporretan gertatzen diren hamabi liburutako sail batean.

Richmal Crompton hamarkada batzuetan luzatuko zen beste sail baten egilea da: William Brown-ena. Ume bihurri eta barregarriaren berri ematen zuen lehenengo liburua *Just William* (1922) izan zen.

Poesiaren alorrean, Walter de la Mare izan zen idazlerik nabarmenena: *Poems for Children* (1930) eta *Rhymes and Verses* (1944). A. A. Milne-k poesia ere landu zuen bere *When We Were Very Young* (1924) eta *Now We Are Six* (1927) liburuen bidez. Azkenik, T. S. Eliot-ek ere bere ekarria egin zuen haur poesigintzan: *Old Possum's Book of Practical Cats* (1939).

IV.3.3.3. 1945etik gaur egun arte.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, munduak inoiz ezagutu ez zuen egoera batean zegoen: hondamendi atomikoa benetako mehatxu bihurtu zen, areago "Gerra Hotza" delakoaren gorritasunean; beste aldetik, Mendebaldeko ekonomi loratzeak ordua arte ezezaguna zen ongizate maila eskaini zion gizarteko sektore handi bati (autoak, elektratresnak, telebista). Estatu Batuetan bereziki, burgesiak munduaren salbatzailetzat eta demokraziaren jabetzat jotzen zuen bere burua eta, betetasun horretan ezarririk, 50eko hamarkadako kultur emaitzak dezente kontserbatzaileak izan ziren.

Haur literaturari dagokionez, laguntza instituzionalak gero eta handiagoak ziren, liburu horiek famili balore tradizionalen gordailu zirelakoan. Bestalde, jende asko hasi zen haur literaturaren

garrantziaz ohartzen, hezitzaileak bereziki, eta horrekin batera korronte kritiko bat garatu zen 50eko hamarkadaren bukaera aldean: horren arabera, haur literatura eta bere autoreak “klase ertainean kokatuegi” zeuden, eta klase horretatik kanpoko umeentzako libururik ez zegoen; beste hitzetan esanda, haur literaturak ezarritako gizarte egiturari eusten zion, eta ez zuen lanik egiten egitura zuzenago baten alde (Townsend, 1995:169).

Hirurogeiko hamarkada aurrera joan ahala, ordea, gai eta esperientzia berriak erakarri ziren haur literatura anglosaxoira: beltzen bizimodua, sexismoaren aurkako liburuak, gurasoen aginpidearen aurkako “teenage” delako kulturaren sorrera (eta horrekin batera gazte literaturarena), ordua arte adierazi gabeko esperientzia krudelagoak (dibortzioa, gaixotasunak, heriotza, gerra, holokaustoa), eta 68ko matxinadak ekarritako askatasun haizeak.

Hurrengo hamarkadan, 70ekoan, krisialdi ekonomikoak, kontserbadurismoaren itzulera ekartzearekin batera, dexente baldintzatu zuen haur liburuen ekoizpena: biblioteka eta beste erakunde publikoen eroste ahalmena jaitsi zen neurrian, liburudenda eta supermerkatuetako salmenten menpean geratu zen haur liburugintza. Horren ondoriorik zuzenenetariko bat, erosle berriak bibliotekariak baino prestakuntza gutxiagoko pertsonak izatea izan zen, kalitatezko haur liburuak baino, dibertimenduzkoak nahiago zituztenak.

Laurogeiko hamarkadan, orekatu egin zen nolabait aurreko egoera, baina ez zen idazle berririk agertzen. Hamarkadako ekoizpen ia osoa jadanik ezagunak ziren idazleen eskutik etorri zen. Generoei dagokienez, fantasia zen nagusi, herri anglosaxoietan ordua arte indartsuak izan ziren fikzio historikoa eta errealismoa bigarren mailan utziz.

Mendeko azken hamarkadan, HGL unibertsitateetan sartu izana azpimarratu beharko litzateke. Horrekin batera, gaiari buruzko aldizkariak eta irrati-telebistetako saioak jada ez dira gauza bitxiak. Ekologismoa (ingurugiroaren babesa, bereziki) eta pobrezia

(etxegabekoak, txabolismoa) dira hamarkada honetako bi gai berri indartsuak.

Ondoren, aurreko urtealdiarekin egin dugun bezala, generokako ikuspegia eskainiko dugu. Lehenbizi, **fikzio historikoaren** gainbeheraren arrazoia gaur eguneko umearentzat historiak garrantzirik ez duela uste izatetik dator. Hala ere, tradizioak ezertarako balio behar baitu, urtealdi honetan kalitatezko emaitza batzuk aurki ditzakegu. Alde batetik, Erresuma Batuaren iragan erromatarrari buruzko obrak ditugu, hala nola, Rosemary Sutcliff-en *The Eagle of the Ninth* (1954) edo, hurbilagoko obra interesgarri bat aipatzearren, *Sun Horse, Moon Horse* (1977), beste askoren artean. Nobela horien kokapen historikotik Normandoen konkista bitartean kokatutakoak, berriz, Henry Treece-ren *Viking's Down* (1955), *Viking's Sunset* (1960) eta *The Last of the Vikings* (1964) dira. Beste batzuk esklabutzaren amaieraren garaian kokatzen dira, hala nola Marjorie Darke-ren *The First of Midnight* (1977); garai biktoriarrean, Ann Schlee-ren *Ask Me No Questions* (1976); eta abar.

Estatu Batuetan, berriz, eta genero berberaren barruan, iragan kolonialari buruzko obrak ditugu: Patricia Clapp-ren *Constance* (1968); beste batzuk, Estatu Batuetan tradiziorik baduen esklabutzaren gaiaz: Thomas Fall-en *Canalboat to Freedom* (1966), edo Paula Fox-en *The Slave Dancer* (1973); baita Gerra Zibilaren ingurukoak ere: Irene Hunt-en *Across Five Aprils* (1964); edo mendebalde mitikoari buruzkoak: Scott O'Dell-en *Sing Down the Moon* (1970).

Abenturazko fikzioak ere ez ditu hauek bere garairik onenak. Izan ere, telebista oso lehiakide indartsua da abenturen alorrean. Aldi hartako abenturazko obra askoren gaia II. Mundu Gerra da. Ian Serraillier-en *The Silver Sword* (1956) nobelan, ume poloniar batzuk naziek eramandako gurasoen bila dabiltza; Erik Haugaard-en *The Little Fishes* (1967), hiri batean galdurik eta aterpe bila dabiltzan bi neska-mutili buruz; Joan Lingard-en *Tug of War* (1989), etxetik botatako familia letoniar bati buruzkoa; Jill Paton Walsh-en *Fireweed* (1969), Londresen gaineko bonbardaketaz. Estatu

Batuetan, nahiz eta gerra urrunagoko zerbait izan, badira gerra bizitako zenbaiten lekukotasunak: Johanna Reiss-en *The Upstairs Room* (1972), edo Lois Lowry-ren *Number the Stars* (1989), azken hori Newbery sariduna. Itsasoaz bestaldean oraindik, baina gerrarekin zerikusirik ez duten abenturazko beste gai batzuk landu dituzten idazleak hauek dira: Richard Armstrong, *The Mutineers* (1968) eta *The Albatross* (1970) itsas giroko nobelekin; Gillian Cross, *Born of the Sun* (1983) obrarekin, inka indiarren hiri galdu baten bila; Leon Garfield, *Master of Morgana* (1960) obrarekin.

Gazteentzako **zientzia fikzioa** estatus apaleko genero bat izan da Erresuma Batuan, eta baloratuagoa egon da Estatu Batuetan. Bigarren Mundu Gerraren osteko lehen hogei urteetan, zientzia fikzio idazlerik ezagunenak Estatu Batuetan Robert Heinlein eta André Norton, eta izan zituzten gai nagusiak espazioan zeharko bidaiak izan ziren. Heinlein-en obrarik interesgarrienak *Rocket Ship Galileo* (1947), *Starman Jones* (1953) eta *Citizen of the Galaxy* (1957) dira; Norton-en libururik ezagunena, berriz, *Dark Piper* (1968) da. Genero horretako beste idazle estatubatuar batzuk Madeleine L'Engle (zeinaren *A Wrinkle in Time* —1962— liburu ezagun eta anbiziotsuena baita EE.BB.etan), Laurence Yep (*Sweetwater* —1973—), eta William Sleator (*Interestellar Pig* —1984—) dira.

Erresuma Batuari dagokionez, ez dago ezer aipagarririk John Cristopher argitaratzen hasi zen arte. Idazle horren obra aipagarri batzuk *The White Mountains* (1967), *The Lotus Caves* (1969) eta *The Prince in Waiting* (1970). Beste idazle interesgarri bat Peter Dickinson da; beraren liburuen artean aipatzekoak dira *The Blue Hawk* (1976), *Healer* (1983) eta *Eva* (1988). Azken urteotako idazleen artean, azkenik, Jan Mark aipatu behar da: *The Ennead* (1978), *Divide and Rule* (1979).

Edonola ere, **Fantasia Modernoak** bere nagusitasuna erakutsi du ingelerazko HGLren munduan. J. R. Townsend-ek (1995:213) hiru ataletan banatzen du genero zabal hori: animalia antropomorfoei buruzkoa; irudizko mundu edo herrialdeetan

kokatutakoa; eta gure munduan kokatuta egon arren, elementu fantastikoak jokoan jartzen dituena.

Lehenengoari dagokionez, istorioetan agertzen diren animaliak umeen edo umetasunaren metafora izan ohi dira. Horixe gertatzen da, Erresuma Batuko idazleen artean, Elsa Minarik-en *Little Bear* (1957), edo Arnold Lobel-en *Frog and Toad are Friends* (1970) eta ondorengoak. Beste batzuetan, giza familia batean bizi diren animaliak dira protagonistak: Michael Bond-en *A Bear Called Paddington* (1958), edo Joan Aiken-en *Arabel's Raven* (1972). Amerikarren artean, berriz, E. B. White eta bere *Charlotte's Web* (1952) aipatu behar da: armiarma bat eta txerri baten arteko harremana. Egile beraren beste obra batzuk *Stuart Little* (1945) eta *The Trumpet of the Swan* (1970) dira.

Beste egile eta obra aipagarri batzuk honako hauek dira: Richard Adams-en *Watership Down* (1972), Dodie Smith-en *The Hundred and One Dalmatians* (1956) eta, azken urteotan, Dick King-Smith-en obrak: *The Fox-Busters* (1978), *The Sheep-Pig* (1983), *Noah's Brother* (1986).

Bigarren azpigeneroaren barruan ezinbestekoa da Tolkien-en eragina aipatzea. Esaterako, C. S. Lewis-en Narnia sailean, 1950etik aurrera argitaratua, eta *The Lion, the Witch and the Wardrobe* liburuarekin abiatu zena. Beste idazle aipagarri bat Alan Garner da: *The Weirdstone of Brisingamen* (1960), *Elidor* (1965), *The Owl Service* (1967) edo *Red Shift* (1973), gai mitiko eta alegorikoei buruzkoak. Diana Wynne Jones ere Tolkienen jarraitzaileen artean kokatzen da, *Cart and Cwidder* (1975) eta *Drowned Ammet* (1977) obrekin.

Bestelako fantasia mota bat erabiliz, Mary Norton-ek *The Borrowers* (1952) eta bere ondorengo guztiak idatzi zituen arrakasta handiz. Joan Aiken-ek irudizko Erresuma Batu batean kokatzen ditu bere obra batzuk, *The Wolves of Willoughby Chase* (1963) liburuarekin hasita.

Estatubatuarrei dagokienez, James Thurber, Lloyd Alexander eta Ursula Le Guin aipatu behar dira idazle arrakastatsuenen artean.

Hirugarrenari buruz, azkenik, K. M. Peyton-en *A Pattern of Roses* (1972) eta L. M. Boston-en "Green Knowe" saila mugako fantasian kokatzen dira: ez dago garbi errealismoaren mugak gainditzen dituzten ala ez. Azpigenero horretako beste obra batzuk Clive King-en *Stig of the Dump* (1963); Penelope Lively-ren *The Ghost of Thomas Kempe* (1973), eta beste obra batzuk; Penelope Farmer-en A Castle of Bone (1972) edo Robert Westall-en *The Scarecrows* (1981). Ian McEwan bezalako helduentzako idazle batek ere obra bat idatzi du atal honen barruan: *The Daydreamer* (1994).

Roald Dahl idazle ezagunaren liburu gehienak korronte honen barruan kokatzen dira: *Charlie and the Chocolate Factory* (1964), *The BFG* (1982), *The Witches* (1983) eta *Matilda* (1988), besteak beste.

Amaitzeko, **Errealismoaren** esparruan kokatzen diren joerak aipatuko ditugu. Hasteko, Erresuma Batuaren mugetan, Philippa Pearce-k zenbait lan on eman ditu argitara mendearen erdialdetik hona; besteak beste, *Minnow on the Say* (1955), *A Dog So Small* (1962), *The Battle of Bubble and Squeak* (1978), *The Way to Sattin Shore* (1983) edo *Lion at School* (1985), altxor baten bilaketatik etxeko animalia bat lortu nahi duen umearena bitarteko askotariko gairi buruzkoak, eta zortzi urtetik hamalau urte arte inguruko irakurleentzat.

Errealismo sozialaren barruan koka litezkeen liburuak ere idatzi izan dira, hala nola, E. W. Hildick-en *Jim Starling* (1958), Frederick Grice-ren *The Bonnie Pit Laddie* (1960), Bill Naughton-en *The Goalkeeper's Revenge and Other Stories* (1961). Liburu horietan, langileriaren egoera askotan tamalgarria islatzen da: bizibaldintza latzak, grebak, lan-istripuak, eta beste. Korronte beraren barruan, eta garaiko bizimoduaz aritzen diren obra batzuk Bernard Ashley-ren *The Trouble with Donovan Croft* (1974), *A Kind of Wild Justice* (1978); eta Jan Needle-ren *Albeson and the Germans* (1977) edo *My Mate Shofiq* (1978). Arrazarteko elkarbizitzari

buruzko obrarik indartsuenak Farrukh Dhondy-k idatzi ditu; Indian jaio eta Erresuma Batuan bizi den idazle honenak dira *East End at Your Feet* (1976), *Come to Mecca* (1978) edo *Poona Company* (1980).

Errealismoaren korronte zabalean nolabaiteko mugak jartzearren, aipa ditzagun, azkenik, egile eta titulu batzuk gehiago: Anne Fine-ren *The Summer-House Loon* (1978), *Goggle-Eyes* (1989), edo *Flour Babies* (1992); Jean Ure-ren *Hi There, Supermouse!* (1983); Jan Mark-en *Hairs in the Palm of the Hand* (1981), edo *Trouble Half-Way* (1985); Janni Howker-en *The Nature of the Beast* (1985), edo *Isaac Campion* (1986); Gillian Cross-en *Wolf* (1992).

Iparramerikarren artean, bereziki beltzen mundua islatu dutenen artean, berriz, aipatzekoak dira Dorothy Sterling-en *Mary Jane* (1959) korronte honen aitzindari gisa; gainera, Virginia Hamilton-en *Zeely* (1967), *The Planet of Junior Brown* (1971), *M. C. Higgins the Great* (1974, Newberry Saria 1975), eta beste obra batzuk (egile honek Andersen Saria jaso zuen 1991n).

Belaunaldien arteko gatazkaz eta gazteen arazoez idatzi dutenen artean, Paula Fox-en *Maurice's Room* (1966), *One-Eyed Cat* (1984) eta *The Lost Boy* (1987); Walter Dean Myers-en *Scorpion* (1988), *Motown and Didi* (1984) eta *The Young Landlords* (1979) aipatu behar dira. Azkenik, sailkapen zaileko obra gisa, J. D. Salinger-en *The Catcher in the Rye* (1964), edo Susan E. Hinton-en *The Outsiders* (1967) ere aipatu behar direlakoan gaude.

IV.4. Bibliografia aipatua

ALFONSECA, Manuel (1997). "Literatura infantil y juvenil anglosajona", *CLIJ*, 96, 7-23.

BRAVO-VILLASANTE, Carmen (1983). *Historia de la literatura infantil española*. Madrid: Doncel. 4. ed.

CALLEJA, Seve; MONASTERIO, Xabier (1987). “Las traducciones al euskara de libros infantiles y juveniles”, *Euskara*, XXXII (2. aldia), 133-163.

CALLEJA, Seve; MONASTERIO, Xabier (1988). *La literatura infantil vasca*. Bilbo: Mensajero.

COLOMER, Teresa (1991). “Ultimos años de la literatura infantil y juvenil. Desde el mayo del 68 a la posmodernidad de los ochenta”, *CLIJ* , 26, 14-24.

DARTON, F. J. Harvey (1982). *Children´s Books in England. Five Centuries of Social Life*. Cambridge: Cambridge University Press, 3. ed.

ETXANIZ, Xabier (1997a). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

EVEN-ZOHAR, Itamar (1990). “Polysystem studies”, in *Poetics Today*, 11, 1.

FERNANDEZ LOPEZ, Marisa (1996). *Traducción y literatura juvenil: narrativa anglosajona contemporánea en España*. León: Universidad de León.

GARCIA PADRINO, Jaime (1992). *Libros y literatura para niños en la España contemporánea*. Madrid: Fundación Germán Sanchez Ruipérez.

IZTUETA, Paulo (1991). *Orixe eta bere garaia*. Donostia: Etor.

JOBE, Ronald (1996). “Translation”, in HUNT, Peter (ed.), *International Companion Encyclopedia of Children’s Literature*. London/New York, Routledge, 519-529.

JUARISTI, Jon (1987). *Literatura vasca*. Madrid: Taurus.

LLUCH CRESPO, Gemma (1996). “la literatura de adolescentes: la psicoliteratura”, *Textos* , 9, 21-28.

MENDIGUREN, Xabier (1981). “Itzulpena gurean”, *Euskara*, XXVI (2. aldia), 954-979.

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1995). *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*. Donostia: Elkar.

MICHELENA, Luis (1988). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein. 2. ed.

ROVIRA, Teresa (1988). “La literatura infantil i juvenil”, apèndix a *Història de la literatura catalana*, RIQUER, COMAS, MOLAS. Barcelona: Ariel, 11. liburukia, 421-471.

SAIZ RIPOLL, Anabel (1993). “Años 60, nuevos horizontes. La literatura infantil española de los 60”, *CLIJ* , 53, 7-17.

TORREALDAI, Joan Mari (1997). *Euskal kultura gaur.* Donostia: Jakin.

TOWNSEND, John Rowe (1995). *Written for Children. An Outline of English-language Children´s Literature*. London: The Bodley Head. 6. ed. zuzendua.

TOWNSEND, John Rowe (1996). “British Children’s Literature: A Historical Overview”, in HUNT, Peter (ed.), *International Companion Encyclopedia of Children’s Literature*. London/New York, Routledge, 676-687.

VALRIU I LLINAS, Caterina (1994). *Història de la literatura infantil i juvenil catalana*. Barcelona: Pirene.

VILLASANTE, Luis (1979). *Historia de la literatura vasca*. Burgos: Ed. Aranzazu. 2. ed.

V
EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LIBURUEN AZTERKETA KUALITATIBOA

Atal honetan, euskarara itzulitako haur eta gazte liburuen azterketari ekingo diogu, aurreko atalean zehazturiko urtealdiei jarraituz. Lehenbizi, gai eta tratamenduaren aldetik gertatutako ekarpenak aztertuko ditugu, datu horiekin helburu-polisisteman izandako eraginen bila. Bigarrenik, itzulpen estretegiarik deigarrienak aztertuko ditu, hori dena aurreko kapituluan adierazitako metodologiaren arabera. Itzulpen kopurua oso handia denean (bigarren eta hirugarren urtealdietan gertatuko da hori, batez ere ume txikientzako itzulpen kopuruagatik), joera nagusien berri ematen duten obrarik interesgarrienak aztertuko ditugu.

V.1. 1876-1935 urtealdia.

Urtealdi honetan euskaraturiko liburuen deskribapena egiteko orduan, irizpide kronologikoa erabiliko dugu. Aldia irekitzen duen urtea 1876 izatea, jakina denez, sinbolikoa da: Euskal Herriko foruak behin betiko galdu ziren urtea, Antzinako Errejimenaren eredu ekonomiko eta politikoa krisi larrian sartzearen ondorioz. Hori baino lehen, hala ere, ezinbestez gogoan hartu beharreko alegi itzulpen garrantzitsu batzuk daude.

V.1.1. Itzulitako liburuen ezaugarriak.

Horietarik lehena, *Ipui Onac* , Bizenta Mogelek 1804an argitaratutako alegi bilduma da. Izenburu osoa adierazgarria da: “Ipui onac, ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta

gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zuzentzeco". Izan ere, alegien bertsioak egitea oso zabalduta zegoen Europa osoan, horixe baitzen haurrak hezteko bideetariko bat, hezkuntzaren aldetik zuzenena bai behintzat, herri ipuinak, gorago ikusi den bezala, gaizki ikusita baitzeuden. Euskal Herrian ere sortu omen zen herri ipuinak/alegiak dikotomia hori, Bizenta Mogelek hitzaurrean azaltzen duenez:

> Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororic, ta pozez erotuta, atso ipuiac. Sinisten nituen eguia andi batzuec becela, *Peru, ta Mariaren* ipui farragarri, ta sustrai gabeac: enzunac enzunda ere, aspertu ecin nintzan; ta paqueric ematen ez nien atso gaissoai berriz ta berriz esateco alaco ipuiac. Au da aur gucien gaitza, edo zorasuna. Orain bada, ¿ondoric, ta opndorengo onic ez cecarten ipui eroac ambat atseguin ematen bacidaten, nere adinaren arguiabarretan sartu baño leenago, cembat eztituco ez zan nere biotza iracurri nituenean guerora ipui onac? (Mogel, 1804:10-11).

Aipaturiko urtea arte, euskaraz ez zegoen horrelakorik, eta Bizentak, osabarengandik jasotako latinezko ezagutzak baliatuz, Esoporen 50 alegia euskaratu zituen hitz lauz. Horiei, osabak neurtitzez sortutako beste zortzi gaineratu zizkien. Alegia bakoitzaren bukaeran ageri den ikaskizun errimatua, berriz, Bizentarena berarena zen, garai eta tokiari egokitua.

Bizenta Mogelek zabaldutako bideari jarraikiz, beste alegia asko itzuli eta argitaratu ziren XIX. mendean zehar, eta baita XX. mendearen hasieran ere. Garrantzitsuenak aipatzearren, Iparraldean, Jean Baptiste Arxuk *La Fontainaren aleghia berheziak* argitaratu zuen 1848. urtean, frantses ilustratuak egin zuen bezala, neurtitzetan emanak eta zuberera oinarri harturik (Gómez, 1990:15-16). Liburuaren eskaintzan ezin argiago ikusten da "jostatuz irakasteko" helburua:

USKAL HERRIARI

Igorten dautzut, herri maitia,
Ghezurtto batzu, hau da eghia,
Zure haurren tchostatzeko,
Menturaz hen skolatzeko.
Tchostatzia,
Skolatzia
Hanitz alditan
Ber tokietan
Egoten dia.
(La Fontaine, 1848).

Goyhetchek ere bertsotan euskaratu zituen La Fontaineren 99 alegia, *Fableac edo aleguiac* obran, lapurteraz, 1852an argitaratua. Hemen ere, helburu didaktikoa hasieratik ageri da: "Hirriz onguia eta eguia / Irakhatx ez daitezkeia?" (La Fontaine, 1852). Biblian ematen diren parabolekin konparatu ondoren, alegia desegoki edo itsusiak kendu egin dituela aitortzen du; gainera, ahalik eta hizkerarik garbienean aldatzen saiatu dela dio, irakurleak ez nekarazteko asmoz (La Fontaine, 1852:XI-XII).

Hegoaldean, berriz, alegi itzultzailerik ospetsuena, Mogelen ondoren, Agustin Pascual Iturriaga idazle eta pedagogoa izan zen, bere *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* edo *Ipuyac eta beste moldaera batzuec* (1842) izeneko obraren bidez. Bertako alegia gehienak, 55, Samaniegorenetatik euskaratuak dira; gainera, Virgilioren lehen eta hirugarren eglogak, "San Ignacioren marcha" eta "Ezpata dantza"ren hitzak biltzen dira. Aipatutako guztiak bertsotan emanak daude eta, Iturriagaren asmo hezitzaileak ezagututa "Euscal-errico gazteriari" eskainia.

Juan Mateo Zabalak, azkenik, "Fábulas en dialecto vizcaino" argitaratu zuen RIEV aldizkarian (I, 90, 529; III, 27), eta geroago, 1934an liburu moduan. Bertara bildutako alegietatik hogeita bat

Zabalarenak dira, eta besteak Esopo, La Fontaine, Samaniego eta Juan Antonio Mogelenak dira (Zelaieta, 1986:22-23). Ehun urte baino gehiago iraganik, Bizenta Mogelen argudio berbera errepikatzen du Zabalak "Berba-aurrekoa"n: "Gogoan dot oraindo zelan umetan entzun geroaguzan aoa zabalik, eta edurra erigula, Peru ta Mariaren ipuin sustraibaakoak. Oraingo oneek dira sustrai andikoak, mamin ederrekoak, eta on eta onura zabalekoak. Alan balira geiago" (Zabala, 1986:33-34).

Alegiak alde batera utzita, Gregorio Arruek *Santa Jenobebaren Bizitza* euskaratu zuen 1868an, Schmid apaiz alemaniarraren bertsiotik. Cristoph Schmid (1768-1854) apaiz katolikoa eta eliz-eskoletako zuzendari nagusia izan zen; idatzi zituen lan gehienak gazteei zuzendutakoak izan ziren, tonu erromantikoan idatziak, eta oso idazle irakurria izan zen Europa osoan, "herri liburu" moduan eta foiletinaren itxurarekin. Espainian, XIX. mendearen erdialdean itzuli ziren haren kontakizunak eta, horren bidez ziurraski, euskaratuko ziren (Hürlimann, 1968:11; Calleja, 1994:247; Escarpit, 1986:67).

Brabanteko Genobebaren kontakizunaren historia luze samarra da. Erdi Aroko elezahar bat izanik, Schmid-ek idatziz jaso zuen molde erromantikoaren kutsuarekin (1809). Gregorio Arrueren 1868ko itzulpenak beste edizio bat izan zuen 1885ean, eta horixe da 1960an Kuliska Sortan berrargitaratu zena. Beste alde batetik, eta aurrerago adieraziko dugunez, Zapirain bertsolariari Manuel Lekuonak 1929an jasotako bertsozko beste bertsio bat, beharbada Arrueren itzulpena irakurri edo entzun izanaren ondoriozkoa.

XX. mendean sartuz, Nazario Oleagak liburuxka bitxi samarra euskaratu zuen 1923an: *Zurtasun-Gogoa. Umeentzat oartxo egokiak*. Jatorrizko bertsioa, gaztelaniaz idatzia, Gregorio Mujikak idatzi zuen, *Pernando Amezketarra* liburuaren egilea bera, gutxi gora behera urtebete lehenago, eta Bilboko kutxak antolaturiko

lehiaketako lehen saria izan zen: *El espíritu de economía*. Argitaratzailea Bilboko Caja de Ahorros Municipal bera izan zen, eta Jose Arrueren irudiez osaturik argitaratu zen.

Izenburuak berak aditzera ematen duen legez, aurreztearen inguruko gaiak lantzen dira liburu honetan, hiru ataletan bereizita: "Zurtasun-Gogoa", "Esakunak" eta "Ipuñak". Lehenean, aurreztearen ontasunei buruzko iritzi eta aholkuak ematen dira, modu ia publizitatezko batean. Ondoren ematen dena atalaren bukaera da:

> Gomuta zaitezte, maitetasunezko agurra bezela, yaiotzan libreta bat seaskara bidaldu eutzuela, ta lagun izango yatzuela, arik eta, obiratzean, zaartzaro-egun-saria laga bearrean aurkituko zaren arteraño (Mujika,1923:33).

Bigarren atala, berriz, aurreztearen inguruko Aforismo modukoez osatua dago, esaterako:

> Ez aurreztea zentzunbakokeria da; neurriz aurreratzea zentzutasuna da; larregi aurreztea zekenkeria da (Mujika, 1923:39).

Ipuinak ere gai berberari buruzkoak dira: aurrezkia sustatzeari buruzko kontakizun instrumentalak, hiriko langile giroan, zein baserrian zein ikastolan kokatutakoak. Azken ipuinak, "Maitasunez erein", 1920an "Caja Postal de Ahorros" delakoak antolaturiko saria irabazi zuen. Ahozko ipuinen kontaketa-egoera irudikatzen du: ume batzuk amaren inguruan ipuin eske, umeek amaren narrazioa behin eta berriro eteten dutelarik galderaren bat egiteko.

Laburbilduta, X. Etxanizek dioenez, "*Zurtasun-Gogoa* liburua euskal haurrak hezitzeko eginiko liburua dugu. Ikastoletan erabiltzeko moduko liburua, azalpen teorikoa, esaerak eta kontakizun entretenigarri baina batez ere hezitzaileak biltzen dituen liburua" (Etxaniz, 1997:97).

Itzulpenari dagokionez, berriz, garbizaletasun eta herrikoitasunaren arteko tirabira nabaritzen da. Itzultzaileak, hitzaurrean, batasuna eta erraztasunaren bila dabilela aitortzen du:

> Bizkaieraz egiteko agindu eusten eta bizkaieraz doa, noizik-bein eta euskerearen batasuna lagundu nairik, Bizkaian ezagun diran eta zabal dabiltzan itz, esakera ta, batez bere, aditz-laguntzallearen irabiaketa batzuk Gipuzkoa'ko izkelgitik artu ditudan arren.
>
> Euskera errezean egiteko bere esan eusten. Askok uste izaten dau euskera erreza aitatu ezkero, itz barri bakoa baña erderakadaz yosia izan bear daula (Mujika, 1923:3).

Hamarkada horretan bertan, Joseba Altunak Oscar Wilderen zenbait narrazio bildu zituen *Ipuñak* (1927) izenburupean. Itzulpena bizkaieraz eginda dago, eta Ander Jauregibeitiaren marrazkiz lagunduta. Berez, Wilderen bi ipuin-bildumatatik hartutakoak dira euskal bertsioa osatzen duten sei ipuinak: *The Happy Prince* (1888) delakotik bost, eta *The Star-Child* (1891) izenekotik bat, bildumari izena ematen diona, hain zuzen ere.

Ipuinen egitura eta edukia ipuin tradizionalen antzekoa da, eta antzekotasun hori areagotu egiten da itzulpenean, egilearen garaiari buruzko iruzkin ironikoak dauzkaten pasarteak ezabatuz, "ahozko narratzaile transferitua" erabiliz (Fernández López, 1996:39-42), lexikoa erraztuz, etabar. Lexikoari dagokionez, berriz, neologismoz beteta dago eta, askotan, pareko hitz herrikoia edo itzulpena parentesi artean eskaintzen da: "Uri-ganetik, arrimeta andijan jarritta, Bakaldungai (Príncipe) Zorijontsubaren irudija agiri zan" (Wilde, 1927:9).

1929 urtea oparoa izan zen itzulpenen argitaratzeari dagokionean. Batetik, Cristoph Schmid apaiz alemaniarraren bi obra euskaratu ziren, oso modu desberdinetan euskaratu ere: *Ipuñak* izenekoa, Gabriel Manterolak itzulia; eta *Genoveva de Bravante*, Juan Cruz Zapirain Etxeberria bertsolariak bertsotan emandako bertsioa. Bestetik, Grimm anaien ipuin bilduma bana eskaini zuten "Legoaldi" ezizenez sinatzen duen Y. A. Larrakoetxeak (*Grimm Anayen Ipuñak*), eta Joseba Altunak (*Ipuñak*). Azkenik, urte

horretan bertan eman zen argitara *Tormes'ko itsu-mutilla*, Orixek euskaratua.

Manterolaren itzulpena, aztergai dugun aldi honetako itzulpen gehienak bezala, bizkaieraz eginda dago, eta Schmiden 21 ipuin biltzen ditu, bakoitzaren bitartez mezu edo ikasgairen bat eskaini nahian. Manterolak euskaratutako kontakizunak oso laburrak dira, bi orrialde ingurukoak, eta kristautasunari buruzko gaiak darabiltzate; bukaeran, ondorio eta ikaskizun gisako poematxo bana daramate, tankera honetakoa:

> Txarto egina onaz ordaindu,
> da kristau onen legea
> etsaya bere maite bear da
> maite dogun lez anaya.
> (Schmid, 1929:32).

Itzulpenaren tonu nagusia herrikoia da, neologismorik gabea. Pertsona izenak moldatzen saiatzen da Manterola: Koldobike, Yon, Andoni; baina horien ondoan beste hauek ageri dira: Birgite, Paule, Nikola, Godopredo..., jatorrizkoen moldaketa izan nahi bide dutenak.

Erdi Arotik Europan zehar oso zabalduta zegoen, eta Schmidek 1809an jasotako "Brabanteko Genobeba" delako elezaharraren bertsio batean oinarrituta dagoen beste itzulpena bitxi samarra da. Berez, itzulpena baino gehiago, Juan Cruz Zapirain bertsolariak egindako bertsio libre moduko bat da, bertsotan emandako ahozko bertsioa, alegia. Liburuko hitzaurrea, gaztelaniazko itzulpena eta transkribaketa Manuel Lekuonak egindakoak dira. Bereak dira, orobat, hitzok:

> [Obra hau] Está inspirada también en el texto de Schmid, pero su contenido se halla vaciado en el troquel de los bertso berriak, género eminentemente oral; y por añadidura, la versión es obra de un bertsolari que no sabe ni escribir ni leer. Consta de 163 estrofas, con un total de 1.304 versos (Schmid, 1929:IV).

Aldiz, oso bestelakoa da Legoaldik egindako Grimm ainaien ipuinen bertsioa. *Grimm Anayen Ipuñak* liburuak 50 ipuin biltzen ditu eta, orain arte aztertutako obren artean lehen aldiz, zein hinkuntzatatik itzuli dituen aitortzen du: "doitxeratik euskeratuta", irakur daiteke hasierako orrialdeetan. Bizkaieraz itzulita daude, eta eskaintza bi umeri zuzenduta dago: "Uriarte ta Gangoiti'tar Nekanetxo ta Iñakitxo'ri", eta sarreratxoan euskal ume guztiak gonbidatzen ditu Grimm anaien ipuinak irakurtzera. Liburua, hirurehun orrialde pasako alea, zenbait argazkiz eta Hermes sinadura daramaten marrazki urriz osatuta ageri da.

Klingbergek "Cultural Context Adaptation" deitzen dionaren arabera (1986:14-18), pertsona zein toki izenak moldatuta daude, hala nola "Durango'ko erri-abeslariak" ("Die Bremer Stadtmusikanten") edo "Yulitxo eta Libetxo" ("Hänsel und Gretel"). Bestela, nahikoa zintzo jarraitzen dio jatorrizko bertsioari.

Joseba Altunaren bertsioan, berriz, 14 ipuin baino ez dira biltzen, Wilderen ipuinen itzulpenean bezala Ander Jauregibeitiaren ilustrazioez apaindutako edizio dotorean. Hitzaurrean bertan iragartzen du Altunak Grimm anaien ipuinek beste hizkuntza baten argia ezagutu dutela, Legoaldiren lanaren berririk izango ez balu bezala:

> Baña orain janzki barrijagaz jantzita datorkixuz: euzkel-jantzijagaz. Ele (berbeta) gustijakin apainduta mundu-ziar dabiltzan ezkero, ¿zer dala-ta ez apaindu Euzkereagaz be? (Grimm, 1929b:5).

Balizko hartzaileei buruz, haur zein helduak izan daitezkeela irizten dio:

> Grimm'en ipuñak eztira umientzako bakarrik Gixon egiñak be irakurri daikiez, astija gozaro emoteko baño ezpada be (Grimm, 1929b:5).

Moldaketei dagokienez, Legoaldiren kontrako joera aukeratu du Altunak: Pertsona eta toki izenak errespetatzen saiatzen da. Esaterako, "Brema'ko abeslarijak" izeneko ipuinaren hasiera hauxe da: "Dotxerri'ko gixon batek asto bat eukon antzin-antziñetik" (Grimm, 1929b:109). Edukiari dagokionez, berriz, material narratiboaren "errazketa" gertatzen da, kenketa moduan.

Nikolas Ormaetxea "Orixe" da *Tormes'ko itsu-mutilla* (1929) obraren itzultzailea. Lexiko zein joskera aldetik joera aranazaleak nagusi ziren garaian, Orixe "zentzuzko itzulpenaren" defendatzaile eta praktikatzailea izan zen. Hauxe dio Villasantek garaiko eztabaidei buruz: "Orixe realizó esta traducción para demostrar a los archipuristas, neologistas y reformistas del tiempo que se podía escribir guardando fidelidad a la lengua popular y tradicional" (Villasante, 1979:419). Edizioa elebiduna da: ezkerraldean jatorrizko bertsio gaztelaniazkoa, eta eskuinaldean euskal bertsioa. Arturo Kanpioni dedikatua dago, eta barruan ageri den izenburua hauxe da: "Tormes'ko lazarotxuren bizitza ta zorion-zorigaitzak". Argitaratua izan zen garaian jasotako harrerari buruz, Paulo Iztuetak Lizardiren iritzia aipatzen du:

> "Toda versión al euskera de obra castellana, del castellano clásico sobre todo, debe, a nuestro juicio, dirigirse en términos generales por las normas que se observan en la que hoy nos ocupa, y que podríamos titular, más o menos propiamente, concisión, división e impresión". Euskaraz esanda: zehaztasuna, zatiketa eta inpresioa dituzu arau horiek, Orixeren itzulpenean oso ondo betetzen direnak. (Iztueta, 1991:650).

Ondoren zehazkiago azaltzen ditu ezaugarriok. Zehaztasuna, lehenbizi, nolabaiteko trinkotasunari dagokio: "Alferrikako apainkeriak bazter utzita, ideia zuzen eta garbi ematera jo behar da. Honek esan nahi du, oraingo bertsio modernoan, ez hitzak, baizik eta kontzeptuak itzuli behar direla" (Iztueta, 1991:650). Bigarren ezaugarria, zatiketa alegia, euskarari berezko omen zaion esaldi laburren egitura sintaktikoaz ari da; hortaz, jatorrizko testuan esaldi luzeak ageri direnean, zilegi da esaldi laburragoetan banatzea,

ulergarritasunaren alde. Hirugarren ezaugarria, inpresioa, esamolde berezien itzulpen librea izango litzateke, batez ere jatorrizkoaren erreferentea ezaguna ez denean.

Lizentzia horiek hartuta, Orixeren itzulpen honek baditu berezitasun batzuk, hala nola, bizkaieraz egina izatea, Ormaetxeak gutxien menderatzen zuen euskalkia, eta baliteke horrek zerikusirik izatea Villasantek aipaturiko lehiarekin. Gainera, zenbait aldaketa eta kenketa ere badira, eduki moral desegokiko pasarte batzuetan batez ere, azken tratatu edo jardunaren amaieran inolako lotsarik gabe Orixek berak aitortutakoak:

> Erdel-yaubearen idazti yatorretik, yardun au osoa kendu dot, eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz, ganera, esan zantar bat lelengo yardunean, amazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte lau garrenean. Kritikuak begirapena zor ei deutsoe yaubearen idazti yatorrari; nik ostera begirapena zor deutsot neure buruari ta irakurle euskaldunari (Orixe, 1929:121).

Egia esanda, aipatzen duen zazpigarren jarduna ez dago ezabatuta, baizik eta Orixek asmatutako bukaera zoriontsuago baten ordez aldatuta. Itzuli behar den testu baten aurrean horrela jokatzea, haatik, ez da harrigarri gertatu behar. Aitzitik, bizi izan zen garaian berritzailetzat jo beharko genuke Orixe. Xabier Mendigurenek honela kokatzen du itzultzailearen lana:

> Orixeren itzulpengintza bigarren eta hirugarren joeren artean kokatu behar dugu, hots historikoki Erroman sortzen den eta Klasizismoaren aroan Frantzian garatzen den itzulpen-mota librearen artean. Orixeren itzulpenak ez du aurkitu alemaniar erromantikoen ondotik itzulpen teoria eta praktikak beretzat eskatzen duen inbariantzia, hots forma eta edukinaren arteko batasun etenezina, eta horregatik zentzuaren transmisio orokorrean eta ideal estetiko-moral platonizante eta absolutisten atzetik ibili da. Zentzu honetan, Euskal Herrian inguruko herrialdeekin alderatuta atzeraturik zebilen kultur eta ideologi giro baten barruan funtzio historiko ezinbesteko bat burutzea egokitu izan zaio (Mendiguren, 1991:525).

Urtealdi hau ixteko, azkenik, Giulio Cesare della Croceren *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarriak* izeneko itzulpena dugu, Bernardo Garro "Otxoluak" 1932an argitaratua, nahiz eta lehenago *Euzkadi* egunkarian atalka agertu ziren. Della Crocek bi liburu gisa plazaratu zituen materialok jatorriz, *Bertoldo* eta *Bertoldino*, biak ustez 1620 urtearen inguruan argitaratuak.

Otxoluak "Len-itza" izeneko atarikoan aitortzen duenez, testu horiek aukeratu izanaren arrazoia, literaturako obra gorenak izatea baino, euskararen ahozko baliabideak zuzenean erabiltzeko eskaintzen zuen aukera izan zen. Didaktikotasun hori Arejitak laburtzen du, honela:

> Helburu bi bete gura ditu itzulpenaz Otxoluak: euskera ona emon irakurleari (hizkuntzaren erabilera ona erakutsi), eta euskerea neke barik eta atseginez irakatsi (helburu didaktikoa). (Arejita, 1983:10).

Bizenta Mogelen itzulpenaren kasuan bezala, hau ere herri xehearentzat eta umeentzat pentsatua dago, esaera eta ekintza itsusirik gabea. Otxoluaren hitzetan:

> Beraz, ene irakurle on orrek, ezeren kezka baga ta txarrik aurkituko eztozunen ardura barik irakurri daikezu euskerazko idaztitxu au, ta, era berian, naiz-ta edozein umekondori be irakurteko emon, umientzako batez be antolaturiko batetik euzkeralduba dalako, ta euzkeraldueran antolatzallien asmua neure gogo ixan dodalako (Della Croce, 1932:4).

Itzulpenean neologismo ugari erabiltzen dira, eta sintaxia Altuberen aginduak zorrozki betez eratua dago. Arejitaren iritziz, hala ere, Otxoluaren estiloa ez da muturrekoa: "Otxolua, euskeraren herrikoitasunari begira, Lauaxeta eta Kirikiñoren arteko erdibide baten dagoala esango neuke" (Arejita, op. cit.:12). Horretaz gainera, atsotitzak barra-barra erabili zituen, horietatik asko *Refranes y Sentencias* (1596) delakotik ateratakoak.

V.1.2. Urtealdi honetako itzulpenen funtzio eta eraginak.

XIX. mendearen hasieratik Espainiako Gerra Zibila hasi bitarteko urtealdian argitaratutako haur eta gazte liburu itzuliek, oro har, jatorrizko ekoizpenaren antzeko atzerapena erakusten dute. XIX. mendeko alegi-itzultzaileek mende bat lehenago Europan nagusi zen Ilustrazioaren helburu berberak zituzten: arrazoiaren bidez atseginez irakastea; *Tormes'ko itsu-mutilla* eta *Bertolda eta Bertoldin*, ordezkatzen dituzten eredu literarioengatik baino areago, euskara eredu herrikoiak lantzeko aukeratuak izan ziren, ia-ia itzultzaileek bere buruari ezarritako desafio gisa. Hala ere, ohartuta edo ohartu gabe, helduen literaturaz jabetzeko tradizioan errotzen dira bi lanok. Denise Escarpit-ek lehenaren aipamena egiten du gazteriak bereganatutakoen artean, protagonista gaztea izateagatik eta, obra laburra izanik, osorik eta moldaketarik gabe irakurtzeko aukera ematen zuelako (Escarpit, 1986:70). Bigarrena, berriz, ahozko tradiziotik jasotako pasadizoetan oinarritzen da, bost urte lehenago argitaratutako *Pernando Amezketarra* (1927) obraren bide beretik.

Mugimendu erromantikoak eragindako herri literaturaren berreskuratzea ere, Grimm anaien kasuan bezala, mende bat geroago iritsi zen, XX.aren lehen herenean; beste hainbeste gertatu zen *Genoveva de Bravante*-rekin, Erdi Aroko mito batean oinarritu eta giro erromantikoak berreskuratutako kontakizuna; Schmiden beste obra, *Ipuñak*, denboraz kanpoko kristautasunari dagokio.

Atzerapenezko joera horretatik aldentzen diren itzulpen bakarrak, beharbada, *Zurtasun-gogoa* eta Oscar Wilderen *Ipuñak* dira. Arrazoirik begibistakoena, noski, jatorrizko testuen argitaratze datarekin duten nolabaiteko hurbiltasuna da, baina bada besterik. *Zurtasun-gogoa*ren kasuan, aurreztearen aldeko puritanismo hori gora-behera, sortu berriak ziren aurrezte erakundeek literaturan presentzia izateko izan zuten azkartasuna, nolabaiteko *marketing* bidez, orduko gaurkotasuneko elementuak liburuetaratuz. Bestetik, Oscar Wilderen ipuinen samurtasunaren azpian ezkutatzen diren jarrera ironiko eta estetizistak 1927rako euskaraz izatea zantzu itxaropentsutzat hartzekoa izan beharko luke. Zoritxarrez, horrelako

ukitu gehienak ezabatu egin ziren Altunaren itzulpenean (ikusi aurrerago, testuen konplexutasunari buruzko atala).

Itzulpen sorta honen funtzioak, beraz, askotarikoak dira. Batetik, haurrak euskaraz hezitzea, bai famili giroan ahots goran irakurritako alegia eta ipuinen bidez, bai eskola-ingurunean heziketarako beharrezko diren hainbat tresna eskainiz (gogoratu Iturriagaren hezkuntza ahalegin handiak). Bestetik, aranazaleen giroan sarturik, ideologia sortu berriari euskarria eskaintzea: abertzaletasuna zabaltzeko bideetariko bat euskal eskola izan zen; horrela, lehen eskola elebiduna 1903an sortu zen eta, urteetan zehar, hainbat testu didaktiko eta Lopez-Mendizabalen *Umearen laguna* (1920) eta *Xabiertxo* (1925) testu liburu ezagunak plazaratuz joan ziren (ikus Etxaniz, 1997:95-104). Horrekin batera, euskara-eredu jakin batzuk zabaldu nahi ziren: erdal kutsu orotatik libre egon nahi zuen hizkuntza eredua, garbizaletasuna. Testuinguru nazionalistan behinik behin, aztergai dugun urtealdi honetako itzulpen batzuek hedapen eta zabalkunde handia izan zuten; hala frogatzen dute *Euzkadi* egunkarian izan zuten agerpena, bai artikulu kritikoen bidez, Lizardirenak kasu, bai bestelako iragarki eta gomendioak zirela medio. Adibidez, "Bibliografía para niños euzkeldunes" izeneko zutabe baten buruan hauxe adierazten da:

> A fin de facilitar a los padres que tienen la preocupación de legar a sus hijos el conocimiento del idioma racial los medios para conseguirlo, publicamos a continuación una lista de obras en euzkera propias del caso que podrá hallar en las principales librerías de Bizkaya" (*Euzkadi*, 1936-1-2:4).

Ondoren agertzen diren berrogeita hamar tituluen artean, *Umearen laguna*, *Xabiertxo*, *Martin Txilibitu* eta beste liburu didaktiko batzuekin batera, *Dar-dar-dar* eta *Txomin Arlote* euskal ipuingintzaren tradiziotik edaten duten liburuak, eta itzulpen batzuk ageri dira: Grimm anaien ipuinen bi itzulpenak, Schmiden eta Wilderen ipuinak.

Ikuspegi sistemiko batetik, beraz, urtealdi honetako euskal literaturaren polisistemaren gunea, toki zentrala, helduentzako literatura kanonikoak betetzen zuen. Horrela gertatu ohi da, Even-

Zoharrek argitzen duenez ("As a rule, the center of the whole Polysystem is identical with the most prestigious canonized repertoire", 1990:17). Guneko izate hori, jakina denez, dinamikoa da, aldakorra, literatur polisisteman tirabiran aritzen diren indarren araberakoa. Hortaz, urtealdi honen hasieran toki hori Elissanburuk eta *Peru Abarka*k (eta bere ezaugarriak) betetzen bazuten, XX. mendearen hasieran Txomin Agirreren lanek hartu zuten, eta Pizkundearen garaian Lizardi eta Lauxetaren obrek, besteak beste, irabazi zuten aipatutako posizio hori. Polisistemaren periferian, berriz, gainontzeko literaturak ageri dira: herri literatura, eliz literatura, haur literatura, itzulitako literaturak.

Polisistemaren gunean zein periferian kokatzen diren testuak ez dira testu soil, baizik eta testu horiek gauzatzeko baliatu diren eredu eta ezaugarriak ere bai. Alde horretatik, testu eta eredu batzuk produktiboak direnean lehen mailakoak direla esaten da, eta bere baitan agortzen direnak bigarren mailakoak.

Beste alde batetik, literatura periferikoek, "azpikulturek", eragin handia izan ohi dute gunearen itxuraketan: denborarekin mugigaitz geratzeko arriskua duen jarduera kanonikoak dinamikotasuna jasotzen du azpiko estratoetatik. Horri esker, batzuetan guneko ereduak garatu egiten dira, eta beste batzuetan desagertu egiten dira, azpitik kementsu etorritako eredu emergente baten alde.

Hizkuntza desberdinetako polisistemen artean ere bada eraginik, itzulpenak direla medio edo itzulpenik gabe. Adibide bat oso gainetik aipatzeagatik, gaztelaniazko polisisteman, Andaluziako herri literaturak eragin handia izan zuen García Lorcaren obra kanonikoa itxuratzeko orduan. Euskal polisistemaren gunean kokatutako Lauaxetaren obraren ezaugarri batzuk, berriz, ez datoz zuzenean herri literaturatik, baizik eta García Lorcak (eta beste herrietako idazle batzuek), hartan oinarriturik, formalizatutako elementuetatik. Kontu hori, hots, polisistema jakin bateko partaideek (idazle, irakurle, argitaratzaileak) bere polisistemakoak ez diren obrak jatorrizko hizkuntzan irakurri eta bide horretatik "transferentziak" gertatzearena, geografikoki guztiz bat ez datozen

komunitate eleaniztunena azken batean, ez dago behar bezala tratatua Even-Zohar eta bere jarraitzaileen ikerketetan.

Hariari helduz, esandakoaren bidetik, euskal HGLren sistema periferian kokatzen da. Sistema hori, batetik, "gaztea" da, hau da, sistema bezala osatzeko prozesuan dago, eta, horregatik hain zuzen, "periferikoa" eta "ahula" ere bada (Even-Zohar, 1990:47). Eta bere gaztetasun horretan betetzeke dituen hutsuneak itzulitako literaturaren bidez bete ditu, irakurlegoaren beharrak asetu ahal izateko. Hautaketa hori nork eta nola egin duen aztertzeak sistemako indarrak nolakoak ziren argitu beharko liguke.

Alde horretatik, I. atalean argitu den bezala, "irakurlegoaren beharrak" diferituak dira, hots, gorago aipatu dugun *Euzkadi* egunkariko liburu zerrenda horren buruan esaten denaren bidetik, behar horiek guraso eta irakasleek (eta batzuetan, oraindik ere apaizek) finkatzen dituzte. Bigarren eskuko aukeraketa baten aurrean gaude.

Bestalde, hautaketa horretan ez da sistematikotasunik antzematen: corpusa oso txikia da, inguruko zein urrutiko obrak hautatu dira, eta askotariko jenero eta edukiak ekarri dira; obra horietako batzuk lehen mailakoak (berritzaileak) izan ziren beren jatorrizko polisisteman, eta beste batzuk ez. Gainera, ordurako beste literatura askotara itzulita zeuden titulu "klasiko" asko falta dira, hala nola, *Gulliver's Travels* edo *Robinson Crusoe*, eta garaikide "modernoagoak" ere bai: *Peter and Wendy* (1911), *Emil und die Detektive* (1928), *Celia* (1929)... Beraz, badirudi libururik eskuragarrienak itzuli zirela, askotan itzultzaileen gustuen edo ideologiaren araberakoak; gainera, horrelako itzultze lanetan aritzen zirenak oso gutxi ziren. Horiek guztiak sistema gazte baten ezaugarritzat har daitezke.

V.1.3. Itzulpen estrategiak.

Bigarren kapituluan esan dugun bezala, HGLren alorrean aritzen diren itzultzaileek era askotako lizentziak hartu ohi dituzte,

esku artean duten literaturaren izaera periferikoaren zioz, horietarik arruntenak testua modu askotara laburtu, luzatu eta aldatzea izanik. Prozedura horiek oso normalak ziren garai bateko helduen literaturaren itzulpengintzan, eta denbora aurrera joan ahala literatura periferikoetara mugatu ziren. Horiek guztiak zilegi omen dira baldin eta, Zohar Shaviten arabera, bi baldintza nagusi betetzen badituzte: haurraren heziketarako egokia izatea, eta haurraren ulermen mailarako egokia izatea (Shavit, 1986:113). Bi indar sistemiko horien eragina, egile berari jarraituz, jadanik existitzen diren ereduetarako lerratzean ikus daiteke hobekien (op. cit.:115), eta lerratze hori maila batzuetan aztertzea proposatzen du: testuen osotasuna eta konplexutasuna, testuen egokitzapen ideologiko-didaktikoa, eta testuen estiloa. Gainera, Klingbergen proposamenetik ateratako beste azterketa-maila bat erabiliko dugu: egokitzapen kulturala (Klingberg, 1986:14-18). Ikusten denez, arrazoi metodologikoengatik egindako banaketa horretako maila guztiak baldintza didaktiko-moral bakar baten menpean daude, aktiboki (ustez ulertuko ez dena argituz) zein pasiboki (ustez ulertuko ez dena ezabatuz). Ondoren ikusiko dugu euskal HGLren sisteman ere betetzen diren ala ez.

Jadanik existitzen diren ereduetara lerratzea.

HGLra itzulitako testu batek sistema berriko ereduetara egokitzen ez bada, irakurleek ez dute onartuko. Sistemaren joera kontserbadore horri eusteko ahalegin guztiak egingo dituzte prozesuan inplikaturiko agenteek, itzuli behar den testuaren aukeraketatik bertatik hasita, itzulpenean beharrezko diren aldaketa guztiak egiteraino.

Itzuli behar diren testuen hautaketaz jadanik hitz egin dugun arren, komenigarria da gogoraraztea urtealdi honetan itzuli diren testu gehienak edo ipuin tradizionalak, edo horien antza handia daukaten testuak direla, testu mota hori erraz onar dezakeelako ahozko transmisiora ohituta dagoenak. Horrelakoak dira Grimm anaien ipuinak eta, baita ere, zenbait aldaketa gora-behera,

Wilderenak. Alegiek bestalde, garai batean herri ipuinen ondorio ustez kaltegarriak saihesteko eta ipuin horiek ordezkatzeko sortuak, erraz onartuak izan ziren beren laburtasun eta sinpletasunagatik.

Hala ere, itzultzaileek askotariko egokitzapenak egin dituzte, ondoren zehazten diren mailetan. Horren adibide gisa, jatorriz Oscar Wildek idatzi eta Joseba Altunak euskaraturiko *Ipuñak* liburuaz baliatuko gara nagusiki.

Testuen konplexutasuna

Testuak askotariko konplexutasunak eskaintzen dituenean, moldatu, edo zuzenean ezabatu egiten dira. Horietatik lehena narratzaile motari dagokio. STn narratzaile neutroa erabiltzen denean, itzultzaileek "ahozko narratzaile transferitua", ahozko kontakizunetan ageri dena, erabiltzeko joera dute. Narratzeko bide horren ezaugarririk nabarmenenak hauexek dira: lehen pertsonaren erabilera, singular zein pluralean; estilo zuzena; galdera erretorikoak; eta "eternal present" delakoaren erabilera (Fernández López, 1996:39). Ikus ditzagun adibide batzuk (etzanak gureak dira):

He was too polite to make any personal remarks out loud ("The Happy Prince", 21)	*Gure txorija*, barritsu-samarra ixan-arren, azi-kera (edukaziño) onekua zan, *¿bai?*, ta etzan azartu Bakaldungayari ori esa-ten) (*Ipuñak*, 14).

Edo beste honetan:

When the day broke he flew down to the river and had a bad ("The Happy Prince", 17).	Eguna zabaldu zanian, bijaramonian, ibaira juan zan gure txorija, soña bustiten (Ipuñak, 18).

Beste konplexutasun testual batzuk sintaktikoak dira. Esaldiak oso luzean direnean zatikatu egiten dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

The young man had his head buried in his hands, so he did not hear the flutter of the bird's wings, and when he lloked up he found the beautiful sapphire lying on the withered violets ("The Happy Prince", 20).	Mutilak esku-artian buruba eukon ukondoak mai-ganian ezarrita. Orixe zala-ta, ezeban ezer en-tzun, ez ikusi. Gerotxubago, buruba jaso (altzau) ebanian, lora zimelduben ganian ikatzarri oztiña ikusi eban (Ipuñak, 20).

Hurrengo adibidean, esaldiak banatzeaz gainera, gehiketa bitxi bat dago, aurrerago aipatuko duguna:

(...) 'How hungry we are!', they said. "You must not lie here', shouted the watchman, and they wandered out into the rain ("The Happy Prince", 22).	—¿Zegaz asetuko etegenduban geuk daukogun gosia? —bijok batera esaten eben. —¡Alde emetik! —txiñelak agindu eutsen, makila bategaz zartada gogorra emonaz. Eta alde egin biar ixan eben. Eurija zan-eta, burutik oñetaraño busti ziran (Ipuñak, 23).

Baliabide narratiboekin zerikusia duen beste konplexutasun bat "istorioa istorioaren barruan" delakoa da. "Benetako adizkidia" ("The devoted friend") ipuina honela planteatuta dago: jatorrizko bertsioan Uretako Arratoia (The Water-rat) eta Txoka (The Linnet) adiskidetasunaz mintzatzen ari dira, eta adibide gisa bigarrenak ipuin bat kontatzen dio lehenari. Joseba Altunaren bertsioan, berriz, Uretako Arratoia eta Txokaren arteko guztia kendu egin da, eta Hans eta Errotariaren arteko ipuin txertatua zuzenean ematen da. Altunak kendu egin ditu, orobat, ipuin txertatua hobeto ulertzeko Txokak egiten dituen galderak eta Uretako Arratoiaren erantzunak.

Esandakoarekin lotuta, txertatutako ipuina hobeto ulertzeko egindako iruzkin batean ironia eta metaliteratura erabiltzen da, eta hori ere ezabatu egin da, noski:

> 'Is that the end of the story?' asked the Water-rat.
>
> 'Certainly not', answered the Linnet, 'that is the beginning'.
>
> 'Then you are quite behind the age', said the Water-rat. 'Every good storyteller nowadays starts with the end, and then goes on to the beginning, and concludes with the middle. That is the new method. I heard all about it the other day from a critic who was walking round the pond with a young man. He spoke of the matter at great length, and I am sure he must have been right, for he had blue spectacles and a bald head, and whenever the young man made any remark, he always answered "Pooh!". But pray go on with your story. I like the Miller immensely. I have all kinds of beautiful sentiments myself, so there is a great sympathy between us' ("The devoted friend", 38-39).

Egokitzapen didaktikoak

Egokitzapen sail honek umeari suposatzen zaion testuaren ulermen mailarekin zerikusia dauka, bereziki esamolde eta hiztegiaren aldetik. Horrela, testuan datu edo xehetasun asko ematen denean, kenketak gertatzen dira. Adibidez:

> 'What a curious thing!' he cried; 'there is not a single cloud in the sky, the stars are quite clear and bright, and yet it is rainning. The climate in the north of Europe is really dreadful. The Reed used to like the rain, but that was merely her selfishness' ("The Happy Prince", 14-15).

> —¡Auxe dok barre-garrija! —burubari egin eutson—. Ortzian (zeru-ban) odeirik etxagok, ixar argijak baño. Orratiño, baña, eurija eztok, ba! ¡Olakorik! (Ipuñak, 12).

Testua behar bezala ulertu ez dela pentsatzen duenean, berriz, azalpenen bat gehitzen du itzultzaileak bere kabuz:

but the Reed shook her head, she was so attached to her home (“The Happy Prince”, 14).	Baña ingiak buruba makur-makur egin eta lurra jo eban. Orregaz adirazo gura eutson, lurrari itxasita (lotuta) eguala ta ezin ebala bertotik alderik egin (Ipuñak, 11).

Edo beste adibide honetan:

The Swallow came back to the Prince. ‘You are blind now’, he said, ‘so I will satay with you always’ (“The Happy Prince”, 21).	Elayak atzera-egin eban Bakaldungayagana. —Orain itxu zagoz-ta —oni esan eutson— zeugaz lotuko naz betiko. Itxura negargarri orretan etzaitut laga gura (Ipuñak, 22).

Esamolderen bat oso berezitua denean, perifrasi bidez azaltzen da:

He passed over the Ghetto (“The Happy Prince”, 17).	Judutarren auzotik igaro zanian (Ipuñak, 16).

Hiztegiaren aldetik orokortasunak gertatzen dira batzuetan, eta bestetan sinplifikatu egiten da:

In all the countryside there was no garden so lovely as his. Sweet-Williams grew there, and Gilly-flowers, and Shepherds’-purses, and Fair-maids of France. There were damask Roses, and yellow Roses, lilac Crocuses and gold,	Lurralde atan ezeguan beria baño baratz (jardin) politagorik. Gustitariko lorak eukozan bertan. Larrosak, klabeliñak, txidarrak (alelíes), lilipak (narcisos)-eta eurrez azten yakozan. Orixe zala-ta, Jon’en

purple Violets and White. Columbine and Lady-smock, Marjoram and Wild Basil, the Clove-Pink bloomed or blossomed in their proper order as the months went by, one flower taking another flower's place, so that there were always beautiful things to look at, and pleasant odours to smell ("The devoted friend", 36).

baratzian beti egoten ziran lora politak begijen atseginerako ta usain gozua surren pozkarrirako (Ipuñak, 55).

Egokitzapen didaktikoekin amaitzeko, parentesi artean ematen diren sinonimoak aipatu behar dira. Batzuetan beste euskal hitz bat ematen da, eta beste batzuetan gaztelaniazko itzulpena. Berez, ustezko zailtasun horiek ez datoz jatorrizko bertsiotik, baizik eta itzulpenean erabilitako lexikoa erabat ulertuko ez dela pentsatzetik. Joera horrek astun eta nekagarri bihurtzen du testua. Ikusi, bestela, *Ipuñak* liburuaren lehen orrialdea:

> Uri-ganetik, arrimeta andijan jarrita, Bakaldungai (Príncipe) Zorijontsubaren irudia agiri zan.
>
> Irudi au urreztauta eguan, urrezko azalakin apainduta.
>
> Bere begijak ikatzarri urdin (zafiro) dizdiratsu bi ziran. Ezpata-muturrian ikatzarri gorri (rubí) bat eukon.
>
> Gusti au zala-ta, bertotar ta kapotarrak, berari begira, gelduten (mirarituten) ziran.
>
> —Axe-orratza baxen ederra da —buruba jakituntzat eukon uriko ziñegotzi (kontzekal) batek esaten eban—. Baña ezta ain biarrezkua.
>
> —Zegatik ez-ete-az Bakaldungai Zorijontsuba-lakua? —ilargija atrapau gura ebala-ta negarrez eguan umetxu bati amak itanduten eutson—. Bakaldungai Zorijontsubak etxok sekula be negarrik egiten.
>
> —Pozkarrija da, ixan be, ludijon (mundu onetan) zorijontsurik ikustia— Bakaldungayaren irudija ikusita, zorigaiztoko batek esan eban.
>
> —Gotzonen (aingeruben) antzekua da gure Bakaldungaya —bein esan eben, txadonetik (elexatik)

urtetian, ikastolako umiak, zuri-gorriz polito egozanak (*Ipuñak*, 9).

Aipatutakoaz gain, parentesi arteko argibideek beste funtzio bat ere izan dezakete, didaktikoa orobat: urtealdi horretan sortu zen ideologia berriak, nazionalismoa, hizkuntzaren aldetik proposatutako neologismoetara ohitzea haurrak.

Egokitzapen ideologikoak

Egokitzapen ideologikoari dagokionez bada bitxikeriaren bat *Ipuñak* liburuan (etzana gurea):

Her father will beat her if she does not bring home some money, and she is crying ("The Happy Prince", 20).	Amak astinduko dau, txindirik (dirurik) ezpadaruatso. Orixe dala-ta negar ta negar-egiten dau (Ipuñak, 21).

Alegia, itzultzailearen aburuz badirudi umea jotzeko ekintza amari dagokiola, eta ez aitari jatorrizkoan bezala.

Baina urtealdi honetako itzulpenen deskribapenean esan dugun bezala, mota honetako egokitzapenik nabarmenenak *Tormes'ko itsumutilla* Orixeren itzulpenean gertatzen dira. Gehienak kenketak dira, eta moralarekin zerikusia dute; hirugarren jardunean, esaterako, janariaren truke harreman sexualetarako prest egoten ziren emakumeei buruzko pasarteak osorik kenduta daude. Kendutako zatia hizki etzanetan ematen da:

> Hago la negra dura cama y tomo el jarro y doy conmigo en el río, donde en una huerta vi a mi amo en gran recuesta con dos rebozadas mujeres, *al parecer de las que en aquel lugar no hacen falta, antes muchas tienen por el estilo de irse a las mañanicas del verano a refrescar y almorzar, sin llevar qué, por aquellas frescas riberas, con confianza que no ha de faltar quien se lo dé, según las tienen puestas en esta costumbre aquellos hidalgos del lugar.*

> *Y como digo, él estaba entre ellas, hecho un Macías, diciéndoles más dulzuras que Ovidio escribió. Pero como sintieron dél que estaba bien enternecido, no se les hizo de vergüenza pedirle de almorzar, con el acostumbrado pago. El, sintiéndose tan frío de bolsa cuanto estaba caliente del estómago, tomóle tal calofrío, que le robó la color del gesto, y comenzó a turbarse en la plática y a poner excusas no válidas. Ellas, que debían ser bien instituidas, como le sintieron la enfermedad, dejáronle para el que era* (X. X., 1997:85-86).

Antzeko zerbait gertatzen da laugarren jardun motzean, non ezabatuta dagoen fraileari buruzko iradokizun bat (kendutako zatia etzanetan):

> Hube de buscar el cuarto, y éste fue un fraile de la Merced, *que las mujercillas que digo me encaminaron, al cual ellas le llamaban pariente* (op. cit.:110).

Zazpigarren jardunean, berriz, kenketaren ordez aldaketa erabiltzen du: jatorrizko testuaren azken pasarte horretan, Lazaro, pregoilari lan on bat lortuta, artzapez baten neskamearekin ezkondu zen eta, neskaren ustezko adulterioei buruzko zurrumurruak zabaldu baziren ere, Lazaro emazteaz maiteminduta eta konforme geratu zen. Orixek, ordea, pasarte osoa ezabatu eta berria egitea erabaki zuen: bertan, Lazaro Salamanka aldera itzuli, eta bere ugazaba itsu hasierakoa loba bati dirutza ederra utzita hil zela jakinik, loba horrekin harremanetan jarri eta berarekin ezkondu zela eta zoriontsua izan zela kontatzen du. Bi testuok ematen ditugu ondoren:

TRACTADO SEPTIMO

Cómo Lázaro se asentó con un alguacil, y de lo que le acaesció con él

Despedido del capellán, asenté por hombre de justicia con un alguacil; mas muy poco viví con él, por parescerme oficio peligroso: mayormente, que una noche nos

corrieron a mí y a mi amo a pedradas y a palos unos

ZAZPIGARREN YARDUNA

Lazaro zori onaren gandorrean

Neure burua ornidu-txuago ikusi nebanetik, Salamanka-errira itzultze-ra erabagi neban, Tormes ibai-ertzera, yayo nintzan tokira. Yainkoak argi egin eustan, eta bide obean ipiñi ninduan, itsu kaskar-autsia nik arri-mutil-aurrean

retraídos; y a mi amo, que esperó, trataron mal, mas a mí no me alcanzaron. Con esto renegué del trato.

Y pensando en qué modo de vivir haría mi asiento, por tener descanso y ganar algo para la vejez, quiso Dios alumbrarme y ponerme en camino y manera provechosa. Y con favor que tuve de amigos y señores, todos mis trabajos y fatigas hasta entonces pasados fueron pagados con alcanzar lo que procuré, que fue un oficio real, viendo que no hay nadie que medre, sino los que le tienen. En el cual el día de hoy vivo y resido a servicio de Dios y de Vuestra Merced. Y es que tengo cargo de pregonar los vinos que en esta ciudad se venden, y en almonedas, y cosas perdidas, acompañar los que padecen persecuciones por justicia y declarar a voces sus delictos: pregonero, hablando en buen romance.

Hame sucedido tan bien, yo le he usado tan fácilmente, que caso todas las cosas al oficio tocantes pasan por mi mano; tanto, que en toda la ciudad, el que ha de echar vino a vender, o algo, si Lázaro de Tormesno entiende en ello, hacen cuenta de no sacar provecho.

En este tiempo, viendo mi habilidad y buen vivir, teniendo noticia de mi persona el señor arcipreste de Sant Salvador, mi señor, y servidor y amigo de Vuestra Merced, porque le pregonaba sus vinos, procuró casarme con una criada suya. Y visto por mí que de tal persona no podía venir sino bien a favor, acordé de lo hacer.

Y, así, me casé con ella, y hasta agora no estoy arrepentido, porque, allende de ser buena hija y diligente servicial, tengo en mi señor arcipreste todo favor y ayuda. Y siempre en el año le da, en veces, al pie de una carga de trigo; por las Pascuas, su carne; y cuando el par de los bodigos, las calzas viejas que deja. E hízonos alquilar una casilla par de la suya; los domingos y fiestas, casi todas las comíamos en su casa.

Mas malas lenguas, que nunca faltaron ni faltarán, no nos dejan vivir, diciendo no sé qué y sí se qué de que veen a mi mujer irle a hacer la cama y guisalle de comer. Y mejor les ayude Dios que ellos dicen la verdad. Porque, allende de no ser ella mujer que se pague destas burlas, mi señor me ha prometido lo que pienso cumplirá. Que él me habló un día muy largo delante della y me dijo:

—Lázaro de Tormes, quien ha de mirar a dichos de malas lenguas nunca medrará; digo esto porque no me maravillaría alguno, viendo entrar en mi casa a tu mujer y salir della. Ella entra muy a tu honra y suya. Y esto te lo prometo. Por tanto, no mires a lo que te pueden decir, sino a lo que te toca: digo a tu provecho.

—Señor —le dije—, yo determiné de arrimarme a los buenos. Verdad es que algunos de mis amigos me han dicho algo deso, y aun por más de tres veces me han certificado que antes que comigo casase había parido tres veces, hablando con reverencia de Vuestra Merced, porque está ella delante.

Entonces mi mujer echó juramentos sobre sí, que yo pensé la casa se hundiera con nosotros; y después tomose a llorar y a echar maldiciones sobre quien conmigo la había casado: en tal manera, que quisiera ser muerto antes que se me hobiera soltado aquella palabra de la boca. Mas yo de un cabo y mi señor de otro tanto le dijimos y otorgamos, que cesó su llanto, con juramento que le hice de nunca más en mi vida mentalle nada de aquello, y que yo holgaba y había por bien de que ella entrase y saliese, de

ipiñi neban baiño. Alango zorionik eneiken gura, ez amestu bere. ¿Nork esan, nik isekaz osaba neritxon itsu gaizto a egizko osaba izango nebanik, eta ago betean gizagaxua beti betiko esango neutsonik?

Olan yazo zan. Salamankan zear niñoiala, itsu zoliak totelkeritik atara nindun uri atan, egun batzukaz ostatu batera batu nintzan, eta an izan neban, itsuaren loba bat urian egoalako entzutea. Nire irakasle itsua zikoitz utsa zala esan bai gendun, kaltzerdi batzuen barruan dirutza handia itzita yoan ei zan mundu ontatik. Aurrera-gokorik ez ta, loba au egin eban zorioneko diru-tzaren yaube. Alkar-ikustea egin gendun, eta itaundu neutson itsuaren amaia zertzelada guztie-kaz, eta neuk yalgi neutsozan egundoko ipui-ñak osaba zanaz. Atsegin artu edo eban nitaz, pitxarkadeaz ezaindutako aurpegi au arren, eta neuk bere atsegin artu neban aren aurpegi eder ederraz ezpada bere, gomutan neukozan urre-dobloeenaz.

Ezkondu giñan, eta Lazaro zoriontsu bizi da bere eukiteaz, eta auzo-tarrak "bésoos las manos, Señor" esaten deutsoe, beiñola nagosi aiton-seme ak beretzako gura eban lez. Eskaleak nire atea yoten dabienean, eskua zabal zabal agertzen deutset,

noche y de día, pues estaba bien seguro de su bondad. Y así quedamos los tres bien conformes.

Hasta el día de hoy nunca nadie nos oyó sobre el caso; antes, cuando alguno siento que quiere decir algo della, le atajo y le digo:

—Mirá, si sois mi amigo, no me digáis cosa con que me pese, que no tengo por mi amigo al que me hace pesar. Mayormente, si me quieren meter mal con mi mujer, que es la cosa del mundo que yo más quiero y la amo más que a mí, y me hace Dios con ella mil mercedes y más bien que yo merezco. Que yo juraré sobre la hostia consagrada que es tan buena mujer como vive dentro de las puertas de Toledo. Quien otra cosa me dijere, yo me mataré con él.

Desta manera no me dicen nada, y yo tengo paz en mi casa.

Esto fue el mesmo año que nuestro victorioso Emperador en esta insigne ciudad de Toledo entró y tuvo en ella Cortes, y se hicieron grandes rego-cijos, como Vuestra Merced habrá oído. Pues en este tiempo estaba en mi prosperidad y en la cumbre de toda buena fortuna (op. cit.:127-135).

lenagoko bizibideko izerdi-nekeen gomutaz. Aen gitxitatik igon neban zori onaren gandorrera (X.X., 1929:121-123).

Egindako aldaketa horiek, gainera, gaztelaniara itzuli eta jatorrizko testua bailitzan jarri zuen (lehen edizioa, esan bezala, orrialdez orrialdeko edizio elebiduna delako). Orixeren erabaki horrek kritikak zein onespenak merezi izan zituen itzulpena argitaratu bezain laster. Horrela, Paulo Iztuetak adierazten duenez, "Lizardik gehiegizko erizten dio bi testuak, euskarazkoa eta jatorrizkoa, aldatzeko lizentzia horri. Barkagarri zitekeen, jatorrizkoa zergatik ezabatzen den esan eta, horri zegokion orrialdea zuri utzi eta euskarazkoa bakarrik asmatu izan balu" (Iztueta, 1991:653). Ikertzaile berak aipatua, berriz, aita Estefaniak *Razón y Fe* aldizkarian argitaratutako kritika batean ontzat ematen du Orixek egina: "El último capítulo se sustituye por otro compuesto por el traductor en ambas a nuestro juicio con bastante buena fortuna, aunque no es posible atenuar el fondo de simpleza y cinismo del sustituido, sin que se descaracterice un poco la obra" (Ibid.).

Egokitzapen kulturala

Egokitzapen mota hau nola erabili den ikusteko, Legoaldiren *Grimm anayen berrogetamar ume-ipuin* (1929) bildumaz baliatuko gara. Gorago aipatu dugu jada toki eta pertsona izenak moldatuta ageri direla; baita beste elementu batzuk ere. "Edurnetxo" izeneko ipuinean, esaterako, pertsonaien "tituluak" aldatu egiten dira. Horrela, errege-erreginak "Urdin-zubiko etxandere" eta "Urdin-zubiko Nagusi" bilakatu dira (Grimm, 1929a:198). "Urdin-zubiko etxandere" bihurtutako amaorde gaiztoa, ordea, ez omen da gai pozoina bere kabuz prestatzeko, "ta Lamiña-pozura yoanda sorgin nausiari orrazi edendu (benenodun) bat eskatu eutsan" (op. cit.:203). Planteamendu horren ondorioz, ipuinaren bukaera aldean agertzen den printzea "Galarrateko Nagusiaren semea" (op. cit.:206) bihurtzen da, eta amaordeak, ispiluarekin dituen elkarrizketetan, hauxe galdetu beharrean:

> Spieglein, Spieglein an der Wand,
> wer ist die schönste im ganzen Land?
> (Grimm, 1985:236)

Beste hau galdetzen du: "Ormako izpillutxo, izpillutxo, ¿nor dok ludian ederrena?" (Grimm, 1929a:198). Hau da, "lurraldea" edo beste bertsioetan ageri ohi den "erresuma" erabili beharrean, "mundua" erabiltzen du (bide batez, eta formula honetaz ari garelarik, aurkako joera ere aipatu beharra dago: errima lortzea beste funtziorik ez duen "Wand" hori huts egin gabe itzultzen dute urtealdi honetako bi bertsioetan —Altunarenean: "Ormatik dingilizka zagozan antzikur mattia: ¿Nor ete-da gure bakalderriko (erreñuko) emakumerik ederrena?", Grimm, 1929b:20—, eta baita bertsio modernoagoetan ere).

"Arantza-lilitxo" ipuinean ere (hots, "Basoko loegile ederra" ipuin frantsesaren bertsio alemaniarra), "Edurnetxo"n gertatzen denaren antzeko zerbait aurki dezakegu: errege-erreginak euskal jauregi bateko nagusi bihurtuta ageri dira. Hauxe da ipuinaren hasiera: "Beñola Azkaraiko Yauregian Nagusia ta emaztea bizi zirean" (Grimm, 1929b:182). Jatorrizko bertsioan, berriz, hauxe dio: "Vor Zeiten war ein König und eine Königin" (Grimm, 1985:225). Era berean, hildako neska esnatzera etorritakoa ez da printze bat, "Auñe-Mendi urriñeko Nagusi baten semea" (Grimm, 1929b:185) baizik.

Antzeko joera ageri da gorago aipaturiko "Durango'ko erri-abeslariak" ("Die Bremer Stadtmusikanten") ipuinean edo, pertsona izenen moldaketari dagokionez, "Yulitxo eta Libetxo" ("Hansel und Gretel") izenekoan (izenak moldatzeko joera hori liburu osoan zehar ematen da). Hala ere, errege-erreginei buruzko beste ipuin batzuetan ez da horrelakorik gertatzen, itzulpenaren barne koherentziak huts egiten duen seinale. Esaterako, "Ugaraxu-erregea" ("Der Froschkönig oder der eiserne Heinrich") ipuinak, izenburuaz gainera, hasiera hauxe dauka: "Norberak gure eban guztia yazoten zan antxiñako aldi zoragarrietan Bakaldun (errege) bat bizi zan" (Grimm, 1929b:10). Orobat, "Kirtena zorion-bidean",

"Yon zintzoa", "Amabi anayak" eta "Okotz-luze erregea" ipuinetan ere ez dira erregeak jauregi euskaldunetako nagusiez ordezkatu.

Liburuari euskal giroa ematen laguntzen dioten beste elementu batzuk Hermes-ek egindako marrazkiak dira: bertako pertsonaiak euskal baserritarren janzkeraz agertzen dira ia beti, baita pertsonaia miragarriak ere: zazpi epotxak, esaterako, txapela buruan daukatela marrazturik daude. "Zazpi belak" ("Die sieben Raben") izeneko ipuinean, gainera, jatorrizkoan agertzen ez den hasierako formula "euskaldundua" dago: "Antxiña, Basayaunak-eta bizi zireanean" (Grimm, 1929b:94).

V.1.4. Bibliografia aipatua.

AREJITA, Adolfo (1983). "*Bertolda eta Bertoldin* eta Otxolua", in DELLA CROCE, G. C. *Bertolda eta Bertoldin*. Bilbo: Labayru, 7-27.

DELLA CROCE, Giulio Cesare (1932). *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarriak.* Bilbo: Verdes [Itzul.: Bernardo Garro "OTXOLUA". Jat.: *Le sottilissime astuzie di Bertoldo* (1620) eta *Bertoldino* (1620)].

ESCARPIT, Denise (1986). *La literatura infantil y juvenil en Europa*. México D.F.: Fondo de Cultura Económica.

ESOPO (ikus MOGEL, Bizenta).

ETXANIZ, Xabier (1997). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela.

FERNANDEZ LOPEZ, Marisa (1996). *Traducción y literatura juvenil: narrativa anglosajona contemporánea en España*. León: Universidad de León.

GOMEZ, Ricardo (1990). "Jean Baptiste Archu", in *La Fontainaren alegia berheziak*. Donostia: Ibaizabal, 7-21.

GRIMM anaiak (1929a). *Grimm Anayen Ipuñak*. Bilbo: Alvarez [Itzul.: LEGOALDI. Jat.: *Kinder- und Hausmärchen* (1837)].

GRIMM anaiak (1929b). *Ipuñak*. Bilbo; Verdes-Atxirika [Itzul.: Joseba ALTUNA. Jat.: *Kinder- und Hausmärchen* (1837)].

GRIMM (1985). *Grimms Märchen. Neue kommentierte Edition sämtlicher Märchen und ihrer Anmerkungen nach der zentralen Ausgabe von 1837*. Frankfurt am Main: Deutscher Klassiker Verlag.

HÜRLIMANN, Bettina (1968). *Tres siglos de literatura infantil europea*. Barcelona: Juventud.

ITURRIAGA, Agustin Pascual (1884). *Ipuyac eta beste moldaera batzuec*. Tolosa: Eusebio Lopez.

IZTUETA, Paulo (1991). *Orixe eta bere garaia*. Donostia: Etor.

KLINGBERG, Göte (1986). *Children's Fiction in the Hands of the Translators*. Lund (Suedia): CWK Gleerup.

LA FONTAINE, Jean (1848). *La Fontainaren aleghia berheziak*. La Réole: Pasquier [Itzul.: J.-B. ARCHU. Jat.: *Fables* (1668)].

LA FONTAINE, Jean (1852). *Fableac edo aleguiac*. Baiona: Fore eta Lasserre [Itzul.: GOYHETCHE. Jat.: Fables (1668)].

LAKARRA, Joseba, ed. (1997). *Refranes y Sentencias* [1596]. Bilbo: Euskaltzaindia.

LOPEZ-MENDIZABAL, Ixaka (1920). *Umearen laguna*. Tolosa: Lopez-Mendizabal.

LOPEZ-MENDIZABAL, Ixaka (1925). *Xabiertxo. Umiei euskaraz irakurtzen erakusteko idaztia*. Tolosa: Lopez-Mendizabal.

MARURI, Erramun (1929). *Txomin arlote*.

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1995). *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*. Donostia: Elkar.

MENDIGUREN, Xabier (1991). "Orixeren itzulpengintza", in *Orixeren Mendeurrena (1888-1988). Hitzaldiak* (IV liburukia), Donostia: Etor, 517-532.

MOGEL, Bizenta (1804). *Ipui onac* . Donostia: Antonio Undiano [Jat.: ESOPO (K.a. VI. m.) ?].

MOULIER, Jules Martin "OXOBI" (1992). *Alegiak eta poemak* [1926]. Donostia: Susa.

MUJIKA, Gregorio (1923). *Zurtasun-Gogoa. Umeentzat oartxo egokiak*. Bilbo: Caja de Ahorros Municipal [Itzul.: Nazario OLEAGA. Jat.: *El espíritu de economía*. (1922?)].

SCHMID, Cristoph (1929b). *Genoveva de Bravante* [Mold.: Juan Cruz ZAPIRAIN. Jat.: *Genoveva* (1810)].

SCHMID, Cristoph (1929a). *Ipuñak*. Zornotza: Jaungoiko-Zale [Itzul.: Gabriel MANTEROLA. Jat.: (1816)].

SHAVIT, Zohar (1986). *Poetics of Children's Literature*. Atenas/London: The University of Georgia Press.

VILLASANTE, Luis (1979). *Historia de la literatura vasca*. Burgos: Ed. Aranzazu. 2. ed.

WILDE, Oskar (1927). *Ipuñak*. Bilbo: Verdes-Atxirika [Itzul.: Joseba ALTUNA. Jat.: *The Happy Prince* (1888) eta *The Star-Child* (1891)].

X. X. (1929a). *Tormes'ko itsu-mutilla*. Bilbo: Verdes-Achirica. [Itzul.: ORIXE. Jat.: *El Lazarillo de Tormes*. (1554)].

X. X. (1929b). *Dar-dar-dar*. Donostia: Iñaki Deuna.

X. X. (1936). "Bibliografía para niños euzkeldunes", *Euzkadi*, Bilbo. Urtarrilaren 2a, 4. or.

X. X. (1997). *Lazarillo de Tormes*. Madril: Cátedra. Ed.: Francisco Rico. 12. ed.

ZABALA, Juan Mateo (1986). *Fábulas en dialecto vizcaino*. Bilbo: Labayru.

ZELAIETA, Anjel (1986). "Juan Mateo Zabala", in *Fábulas en dialecto vizcaino*. Bilbo: Labayru, 21-28.

V.2. 1936-1975 urtealdia.

Aztergai dugun bigarren urtealdi hau Espainiako Gerra Zibila hasi zenetik Diktadura amaitu artekoa da, nahiz eta aldi horretako lehenengo itzulpenak haur eta gazteentzat berrogeita hamarreko hamarkada arte ez ziren argitaratzen hasi. Hemen ere, aurreko aldiaren azterketan egin genuen bezala, irizpide kronologikoa erabiliko dugu itzulpenen deskribapenerako. Zenbait kasutan, hala ere, itzulpenak sail edo bildumetan ageri direnean, deskribapena bildumaka egingo da. Horixe da, esaterako, "Umetxoen ipuiak" edo "Abere alaiak" izeneko bildumen kasua. Beste batzuetan, itzultzaile beraren obra batzuk urte desberdinetan argitaratu direnean, egokiago iritzi diogu batera aztertzeari, hala nola Plazido Mujikaren itzulpenen kasuan.

V. 2.1. Itzulitako liburuen ezaugarriak.

Urtealdi honetako lehen itzulpenaz ez dago adostasun handirik; eztabaida handirik ere ez. Nikolas Ormaetxea "Orixe"ri Parisen finkatutako Euskal Gobernuak agindu zion umeentzako liburu batez ari gara: *Leoi-kumea* (1948). Badirudi itzulpen bat dela, edo, Jon Bilbaok Orixeren omenaldian esan zuen moduan, moldaketa bat:

> Aurrak etzituen aztu "Orixe"k. Or daukagu LEOI-KUMEA, baina liburu au itzulpen baño egokitze bat dela esatea zuzenago litzake. Ez zitzaion prantsesari orpoz-orpo lotu, ori etzuen bere asmoa, baizik aur-euskera zoragarri batean egokitu zituen liburuak dakazkin irudi ederrak (AA. AA., 1965:110).

Geroago, Jon Bilbaok berak Seve Callejari jakinarazitakoaren arabera, Euskal Gobernuak liburu horren eskubideak erosi zizkion La Photolith argitaletxeari, eta gero Orixeri agindu zion itzulpena; eta argitaratu ostean "isilpean zabaldu zen euskal etxe eta eskoletan" (Calleja, 1994:99).

Formato handiko liburu ilustratu bat da, lehoikume baten argazki ugariz osatua, hiriko eta etxeko giroan piztia horrek

daraman bizimoduaz aritzen dena. Bitxikeria gisa aipatzen dugu hemen, Francoren diktaduraren lehen urteetan argitaratu zen haurrentzako *itzulpen* bakarra delako, atzerrian argitaratua izan zen arren. Izan ere, argitaratu zen urte berean P. Lafittek bere iruzkinean aurreratu zuen bezala, zaila izango zen jarraipena izatea:

> Ce beau volume, illustré par Ylla, a une haute valeur artistique. Les images en sont des plus riches et le text explicatif est écrit par Orixe en une belle langue guipuzcoane mâtinée de navarrais. Un pareil ouvrage est nécessairement cher et sera, craignons-nous, difficilement populaire, alors qu'il est composé à l'intention des enfants basques (Lafitte, 1948:682).

Itzulpen izaera onartzen duten liburuetara pasatuz, "Kuliska sorta" 1952an argitaratzen hasi zen Zarautzen Itxaropena argitaletxearen eskutik, eta lehenengo zenbakia gazteentzako itzulpen bat izan zen, Plazido Mujika jesuitak euskaratutako *Noni eta Mani. Islandiar mutiko biren gertaldiak*, Jon Svensson jesuita islandiarraren obretariko bat. Liburuan bertan adierazten den legez, Mujikak alemanieratik euskaratu zuen obra hori; izan ere, liburua jatorriz alemanieraz argitaratua izan zen (Hunt, 1996:704), *Nonni und Manni* (1914) izenburupean.

Liburuan, zenbait abentura bizi ostean, fede katolikora bihurtu ziren bi mutikoren istorioa kontatzen da; azkenean, biak Frantziara joan ziren ikasketak bukatzera, jesuslagunen ikastetxe batera eta, bigarren mailako ikasketak bukatuta Jesusen Lagundian sartu ziren. Nolabait, Svenssonen beraren bizikizunetan oinarrituta dago. Liburuaren solapan hauxe irakur daiteke:

> SVENSSON (que es el mismo NONNI protagonista de la narración) nació el 16 de Noviembre de 1857 en Mödruvellir, cerca de Akureyri, al norte de Islandia (…) Las obras del famoso escritor nórdico han sido traducidas a más de 50 idiomas. Svensson expresó con verdadera ilusión en numerosas ocasiones su deseo de que fueran traducidas a la lengua de San Ignacio de Loyola y San Francisco Javier (Svensson, 1952).

Gertakizunak xalotasun handiz kontatuta daude, lehen pertsonan, eta katolikotasun biderako edukiak gora behera, liburua interesgarri egiten duten elementu literarioak daude bertan. Itzulpena gipuzkeraz egina dago eta oso arrakastatsua izan zen, eginiko berrargitalpenak horren.

Itzultzaile beraren bigarren itzulpena *Mendiko argia* (1968) izan zen, Franz Weiser (Viena, 1901-¿) jesuitaren *Das Licht der Berge* (1931) obraren euskal bertsioa, Mensajero argitaletxe bilbotarrean argitaratua. Bertako protagonistak gazteak dira, eta Viena hiriaren eta Tiroleko mendien artean gertatzen diren abenturetan sinismenak eman dezakeen kemena eta bizigogoa azpimarratzen dira behin eta berriro, eskolako gazte-taldeen arteko liskar giroko hari argumental ahul batean zehar.

Formari dagokionez, lehen pertsonan kontatua dago; sintaxiaren aldetik, Altuberen legeak estu-estu bete nahi izateak dexente astuntzen du irakurketa, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala:

> Garagarrileko aste aiek, ekaitz aundizko gauen ondoren eguzki ederra bezela, igari ziran. HEINI ta bion artean etzegon eragozpiderik andik aurrera. Bi anai bezela, beti elkarrekin genbiltzan eta adixkide mamiak giñan. Aren kontra len nituan irudimenak, aste aietan gertatu zanaz, nere burutik zearo aienatu ziran. Nere buruz eta indarrez bakarrik garbi ta zintzo irautea, ezin zitekela, argi ta garbi ikusi nuan. HEINI'k berak ere ezin zezaken-da! Jainkoaren lege santuaren menpean biotz alaia eta naita jartzea, eta bere graziz gure griñak ezitzea: orixe bakarrik zan nere asmo ederrak irixteko bidea. Eta berriz otoi egiten hasi nintzan... (Weiser, 1968:98-99).

Obra honek ere zenbait berrargitalpen izan zituen, irakurleen harrera onaren adierazgarri. Edonola ere, bi liburuen kasuan —*Noni eta Mani* eta *Mendiko argia*—, egileak itzal zabaleko jesuitak izateak egin bide zuen posible euskarazko bertsioetarako baimena lortzea. Bi lanok, gainera, aldi berean berrargitaratu ziren Mensajero-Gero argitaletxearen "Kimu" sailean, 1983an.

Kuliska sortako gazteentzako beste itzulpen bat *Itxasoa laño dago*... (1959) izan zen, Pío Barojaren *Las inquietudes de Shanti Andia* eleberriaren euskal itzulpena. Itsas giroko nobela hori abenturetakoa da, Conrad edo Stevenson-en nobelen bidetik, eta, Barojaren "ekintzazko" jarrerarekin bat etorriz, bata bestearen ondoren kateatutako gertakizunez beteta dago: protagonistak oroituriko bidaia luze batean azkar-azkar pasatzen diren piratak, altxorrak, esklabuak eta beste. Nobela aproposa da, beraz, irakurle gazteentzat.

Ia 300 orrialdeko liburu honen itzulpena Jon Etxaidek egin zuen, eta itzulpenari jarri zion hitzaurrean Barojak erlijioarekin (katolikotasunarekin zehazkiago) izan zituen harremanez aritzen da. Eleberri hori aukeratzea, itzultzaileari Barojaren obrarik ederrena iruditzeaz gain, "kristauki pentsatzen dugunontzat ezten-mingarririk ez darabillelako, eskuarki beñepein; Baroja'ri gaitz baizitzaion, edo-ta bere izakera ezagutuz, erabat eziñezko, eztenkarik sortu gabe idazten" (Baroja, 1959:5).

San Anton katekesiaren eskutik liburuska sorta zabal bat plazaratu zen 1965etik aurrera, horietatik batzuk haurrei zuzendutako itzulpenak. Ondoren deskribatuko ditugun itzulpen guztiek Juan Anjel Etxebarriaren sinadura daramate, eta Bilbon argitaratu ziren.

Horietatik lehena *Phedro'ren alegiak* izenekoa da, hiru aletan argitaratuak 1965 eta 1966an. Liburuxka bakoitzaren azalean, izenburua eta itzultzailearen izenarekin batera, "Lateratik euskeratua" dagoela adierazten da. Fedroren alegien itzulpen hau elebiduna da, eta bertsotan emana dago. Horri buruzkoa da itzultzaileak egindako lehen oharra: "Seiko neurtitza-Versus senarius: sei oindun bertsoa. Erromatarrak euren bertsoak neurtzeko etziran silabaka ari, oinka baiño. Oiña izkin luze ta laburrak, era askotara alkartuta, osotzen eben" (Fedro, 1965:7).

Esan dugun bezala, liburuxka txikiak dira, 28 eta 32 orrialde bitartekoak; bigarren eta hirugarrenak, gainera, latina-euskara hiztegitxo bat dakarte.

Esoporen alegiak ere euskaratu zituen Juan Anjel Etxebarriak: *Esopo'ren alegiak* (1967). Azalean, aurreko obretan bezala, jatorrizko hizkuntzatik euskaratuta daudela adierazten da: "Etxebarria'tar Juan Anjel'ek gerkeratik euskeratuta". Hamabost orrialdeko liburuxka da, hitzaurrea eta guzti. Bertsio hau ere elebiduna da, hitzaurrean azaltzen duenez, apaizgaiek latina lantzeko Salamankara joan beharrik izan ez dezaten. Horrekin batera, euskararen maila jasotzeko hartu beharko litzatekeen konpromisoaz ere mintzatzen da:

> Ez da naikoa "euskera plazara urtetea", ondo apainduta bear dau, guztien begi-biotzak bereganatzeko. Ia errege-gai zintzoren batek, beragaz maiteminduta, bere jauregira eroan ta eztegu andiak egiten dauzan. Olan balitz luzaro bizi daitela ta "videat filios suos usque in tertiam et quartam generationem" (Esopo, 1967:7).

Haurren hezkuntzarako alegiek duten balioa azpimarratu ondoren, bere aitzindariari kritikatxo bitxi bat egitera ere ausartzen da:

> Euskaraz Bizenta Mogel'ek jantzi euskuzan Esopo'ren batzuk. Beste itzulpen batzutan edan eban-eta, jatorrizko lanetik urrintxo ibilten da. Mamiña, barriz, oso-osoan Samos'ko idazleagandik artuta. Zertzelada nagusienak bardin-bardin izaten dira (Esopo, 1967:4).

Etxebarriak argitaletxe berean egindako beste itzulpen bat *Charles Perrault'en Ipuiñak* (1965) izenekoa da. Hitzaurrea eta lau ipuin biltzen ditu, aitzin-solasean dioenez, "Or daukazuz Perrault'en lau ipuin, prantzeratik zuzen-zuzen euskaratuta" (Perrault, 1965:5): "Txanotxu Gorri", "Maitagarriak", "Bizar Urdiña" eta "Orkolotxo"; 35 orrialde, guztira. Bere txikian, haatik, hauxe da Perraulten ipuin bilduma bat euskaraz argitaratzen den lehen aldia. X. Etxanizek dioenez, "itzultzailearen asmoen artean hezitzailea ez zen nagusiena, irudimena asetu eta gogoa gozatu baizik" (Etxaniz, 1997:177). Ume txikientzako Edili argitaletxeak

argitaratutako *Txano Gorritxu* delakoan ez bezala (ikusi gorago), Etxebarriak zintzo jarraitzen dio Perraulten bukaerari:

> -Ene amama, zuk daukazuzan agin ikaragarriak!
> -Zu jateko dira! "Ta itzok esanaz batera, otsoa Txanotxu Gorriagana oldartu eta jan eban (Perrault, op. cit.:8).

Hain zuzen ere, azalean Gustave Dorék "Le Petit Chaperon Rouge" ipuinerako egin zuen grabatua ageri da. Barnealdean ilustrazio gutxi dago: ipuin bakoitzaren hasieran bana baino ez.

Azkenik, San Anton katekesiarentzat Etxeberriak egindako azken itzulpena beste klasiko batena da: Andersenen *Ipuiñak* (1969). Aurrekoetan bezala, hitzaurre txiki bat dago, eta ondoren bost ipuin: "Erregin-gaia ta idarra", "Mutiko okerra", "Zeruko lorea", "Poxporo-saltzaillea" eta "Txarrizaiña". Bizkaieraz itzulita daude, baina oraingoan ez dauka jatorrizko testuaren aitortzarik.

Hurrengo urtean, 1970ean, bi liburu gogoangarri euskaratu ziren: *Le Petit Prince*, Saint-Exupéry-rena, eta *Marcelino Pan y Vino*, Sánchez-Silva-rena.

Printze Txikia Plan argitaletxean argitaratu zen, Salvador Garmendiaren itzulpena izan zela medio. Mundu osoan ezaguna egin dena bezalako edizio zainduan, egilearen marrazkiez lagunduta plazaratu zen "Ikastolako Liburutegian", Donostiako Gordailu pedagogi-taldearen babespean. Jatorrizko edizio osoaren itzulpena da, baina jatorrizko izenburua ez da inon agertzen. Itzultzailearen izena barruko krediuetan azaltzen da.

Ardo ta ogi Martxelin (Gurasotatik haurretara datorren ipuia) Iruñeko Gómez argitaldarian plazaratu zen, eta itzulpena Jose Maria Satrustegirena izan zen. Aurrekoan bezala, kolorezko marrazkiak daude tartekaturik, eta jatorrizko izenburua ez da agertzen, nahiz eta haren itzulpen osoa izan.

Haur txikientzako liburuez jardun baino lehen, 1974tik aurrera Cinsa argitaletxea argitaratzen hasi zen gazteentzako liburu sail bat aipatu behar dugu. Bertara bildutako liburuak hauexek izan ziren: *Robinson Crusoe* (1974, Xabier Kintanaren itzulpena), *Heidi* (1975, Xabier Mendigurenen itzulpena), *Morgan* (1976, bi liburuki, Xabier Mendigurenen itzulpena), *Sandokan* (1976, IKER-en itzulpena), *Pirataren emaztea* (1977, IKER-en itzulpena) eta *Mompracem azkena* (1977, IKER-en itzulpena).

Liburuok elkarren antzeko ezaugarriak zituzten: itzultzailearen izena azalean dago, egilearen izenarekin eta tituluarekin batera; zuri-beltzezko marrazki gutxi batzuk dauzkate tartekaturik; eta 100-150 orrialdeko liburuak dira. Liburu hauetariko batzuen kontrazalean adierazten denez, gehiago plazaratzeko asmoa zegoen ("Berriz ere Heidi", "Tom Sawyer-en ibilaldiak" eta "Osaba Tom-en etxola"), baina ahaleginak, antza denez, huts egin zuen, eta beste proiektu batzuetan argitaratu behar izan ziren.

Haur txikientzako bildumak

Haur txikientzako lehen liburu bilduma **"Umetxoen ipuiak"** izenekoa da, Arantzazuko Frantziskotarrek 1957tik 1960ra bitartean "San Antonio" aldizkariaren eskutik argitaratua. Zortzi orrialde inguruko liburu hauen guztien egilea Carlos Bernal Araluze da; hona hemen izenburuak eta argitaratze urteak: *Pipo, Konejutxu Arroa* (1957); *Nini, Konejutxu Argia* (1960); *Doni, Konejutxu Negartia* (1960); *Toto, Konejutxu Bihurria* (1960); *Pitxi, Konejutxu Potxoloa* (1960); eta *Piru, Konejutxu Jakintsua* (1960). Umeei ikaskizun moralen bat irakasteko helburua dute, zenbait oker erakusten dituzten untxi familia bateko untxikumeen bitartez, eta gurasoek ondorioz ezarritako zigorren bidez. Liburuetako ilustrazio koloretsuak J. A. Urkijok eginak dira.

Itzultzaileei dagokienez, liburuetan bertan ageri diren krediuei kasu eginik, hiru izan ziren: Sabin Berasaluze (Pipo, Nini eta Doni), Juan Azurmendi (Pitxi eta Piru) eta Zurutuza (Toto).

Hirurogeiko hamarkadan sartuta, Edili/Editorial Vasco-Americana argitaletxea zenbait ipuinen haur txikientzako moldaketak argitaratzen hasi zen. Hidalgo eta beste norbaiten ilustrazio handiez osatutako hamar orrialdeko ipuintxoak ziren, hamabi guztira. Edili argitaletxeak bi egoitza aitortzen ditu ipuinotan, bata Donostian eta bestea Bilbon; beharbada horregatik, guk aztertutako aleetan behintzat, hamabi horietarik seitan "Gipuzkoeraz" dioen oharra ageri da azalean bertan, eta beste seitan "Bizkaieraz" dioena. Ipuin guztietako azalean, gainera, euskarazko izenburuarekin batera gaztelaniazko izena ageri da, nahiz eta testua euskara hutsean emana egon. "Gipuzkoerazkoak" honako hauek dira: *Sagutxo jakintsua-La ratita sabia* (1962), *Sagutxo ausarta-El ratoncito aventurero* (1962), *Arrigarrizko ibillaldia-Un viaje maravilloso* (1962), *Erbia ta apo-armatua-La liebre y la tortuga* (1962), *Mitxiñ'en biurrikeriak-Aventuras de Michín* (1964) eta *Ikasbide on bat-El conejito travieso* (1964). "Bizkaierazkoak", berriz, beste hauek: *Aatetxo itsusia-El Patito Feo* (1964), *Errauskiñe-La Cenicienta* (1964), *Edurne zuri ta zazpi ipotxak-Blanca Nieves y los siete Enanos* (1964), *Ipotx triskaria-El Enano Saltarín* (1964), *Txano Gorritxo-Caperucita Roja* (1964) eta *Hamelin'go Txirularia-El Flautista de Hamelin* (1964). Ikusten den bezala, bizkaierazkoak Perrault, Grimm eta Andersenen ipuin moldatu eta laburtuak diren bitartean, gipuzkerazkoak, *Erbia ta Apo-armatua* alegia ezaguna salbu, kontakizun modernoak dira, tartean espaziora egindako astrountzi bidaiak eta guzti (*Sagutxo ausarta* , *Arrigarrizko ibillaldia*), eta gorago deskribatutako sailaren kontrara, ipuin gehienek ez daukate ikaskizun edo moraleja agerikorik.

Hamabi ipuinon itzultzaile bezala Yon Oñatibia agertzen da, nahiz eta jatorrizko testuen egilea nor den azaldu ez.

Haur txikientzako bildumekin jarraituz, 1966 eta 1969 bitartean **"Oyalzabal sorta"** argitaratu zuen, La Galera argitaletxe kataluniarrarekin egindako koedizio lan bati esker, Edili euskal argitaletxeak. Sailaren izenak berak adierazten duenez, liburuen

diseinua sei aldiz tolestutako orri luze bat zabaltzeko modukoa da. Formato horrek marrazki handiak egiteko aukera ematen dio ilustratzaileari. Guztira zortzi liburuk osatu zuten sorta hori:

Eulàlia VALERI (1966). *Jostalluen uria*. Itzultzaileak: Josu Atxa eta Jon Oñatibia.

Eulàlia VALERI (1966). *Altxor billa*. Itzultzaileak: Josu Atxa eta Jon Oñatibia.

Maria GASCH (1966). *Segalarien askaria*. Itzultzaileak: Josu Atxa eta Jon Oñatibia.

Eulàlia VALERI (1967). *Ludiko aur guziok lagun egingo gera*. Itzultzailea: Nemesio Etxaniz.

Xohana TORRES (1967). *Goazen: sardinetara!* Itzultzailea: Nemesio Etxaniz.

Francesc CANDEL (1967). *Lurralde berria*. Itzultzailea: Nemesio Etxaniz.

Aurora DIAZ-PLAJA (1969). *Jolas artean... liburu bat!* Itzultzailea: Irene Elizondo.

Josep Mª ESPINAS (1969). *Guztiok ditugu senide txikiak*. Itzultzailea: Irene Elizondo.

Liburuon testua eskuz egina dago, biribila izeneko hizkiak itxuratuz. Testuaren erabateko ulermenerako, gainera, orrialdearen oinean zenbait hitzen esanahia adierazten da, eta aditz laguntzaileak bizkaieraz eta gipuzkeraz emanda daude, parentesi bidez.

Irakaskuntzari begira egindako obrak dira, eskolan zenbait gai lantzeko aproposak. Horretarako, azken orrialdeak ulermen galdera batzuk daude, marrazkiz lagunduta. Liburuetan lantzen diren gaiak, besteak beste, emigrazioa, hezkidetza, irakurzaletasuna, arrazen arteko elkartasuna, giro desberdinetako bizimodua, etabar dira.

Diseinua eta edukiari dagokienean, euskaraz ordua arte plazaratutako libururik modernoenak direla esan daiteke. Esan dezagun, anekdota gisa, *Ludiko aur guziok lagun egingo gera* liburuaren ilustratzailea Asun Balzola izan zela.

La Galeraren eskutik, baina oraingoan Cinsarekin lankidetzan Aurora Díaz-Plaja-ren liburu bakar bat argitaratu zen 1975ean, *Eguzki ibiltaria* izenekoa. Egileak zenbait ipuin bildu zituen, hilabete eta urtaroetan oinarrituta. Koloretako marrazkiez lagunduta, oso liburu orijinala da. Itzultzailea Xabier Mendiguren izan zen, eta itzulpenean nolabaiteko moldaketa lana egin zuen.

Timun Mas argitaletxe kataluniarrak **"Ipuin polit kikirriki"** izeneko ipuin bilduma argitaratu zuen 1968an. Kolorezko marrazki handiez eta testu gutxiz osatutako 32 orrialdeko lau liburu dira. Jatorrizko testuen egileak idazle iparramerikarrak ziren, eta lau liburuen euskaratzailea Manuel Lekuona izan zen. Hauxek izan ziren: Mildred Summit-en *Nexka-mutil txintxoak*, Peter Abbott-en *Bu-bu larrugorritxo*, Alma Cogins-en *Xagu Axkar illargira* eta Inez Bertail-en *Muturtxo etxetik igesi*. Kreditu orrialdean azaltzen denez, jatorrizko lanak New Yorken argitaratuak izan ziren 1953 eta 1960an.

Timun Mas-en edizioari buruz Seve Callejak dioenez, "gazteleraz ere egongo da, eta argitaletxeak hizkuntza ezberdinetan aldi berean egindako koedizioa delako susmoa dago" (Calleja, 1994:256).

Azalean liburu bakoitzaren izenburua besterik ez da agertzen, eta itzultzailearen izena barruko "portadatxoan" aurki daiteke gainontzeko kredituekin batera. Kontrazalean, berriz, liburuen helburuari eta iraupenari buruzko ohar interesgarria agertzen da, garaiko liburuetan horrelako paratestu gutxi aurkitzen direla kontuan hartuta:

> Ipuin auek, umeen irudimenaren pozerako eta umeak txoraturik eukitzeko asmatuak izan dira. Gai zoragarriak eta irakur-errexak, banan-banan eta zeatz-zeatz prestatuak, gai auetan maisu diranen ardurapean. Neurri egoki eta tajuzkoan eratuak danak; orrialde bakoitza, margo ta kolore bizi-biziz edertua; eta azalak, apañak eta sendo josiak. "Ipui polit KIKIRRIKI"ren ipuiak, umetxoentzako irakurgairik onenak eta orduorokoenak izango dira (SUMMIT, 1968:kontrazala).

Baina “marketing” hori gora behera, ipuinetako gaiak, xaloak izanik, modernoak direla esan daiteke: ume larrugorri baten abenturatxo bat, ilargirako bidaia egin zuten basoko lehen animaliak, etxeko katuaren ibilaldi bat... Beharbada joera horretatik zertxobait aldentzen dena *Nexka-mutil txintxoak* izenekoa da: bertso errimatuen bidez era guztietako aholkuak ematen zaizkie ume txikiei (etxean, hondartzan, kalean... zuzen ibiltzekoak, eta abar).

Hurrengo urtean, 1969an, **“Urrezko Galera”** sorta argitaratu zen. “Oyalzabal sorta”rekin gertatu zen bezala, La Galerarekin koedizioan, oraingoan Sendoa argitaletxeak plazaratutako liburuak izan ziren. Aipatutako beste sorta horren irakas-zuzendari beraren pean, Marta Mata, 24 orrialdeko azal gogorreko bi liburu hauek izan ziren: Antoni Cuadrench-en *Nire adiskidearentzat eskutitza*, eta Mª Angels Ollé-ren *Xapaburu bat ikastolan*, biak Irene Elizondok euskaratuak.

“Oyalzabal” sailarekin antz handia daukate: alde batetik, Elizondo sorta horretako azken bi tituluen itzultzailea izan zen, eta, han bezala, aditz laguntzaile batzuk bizkaieraz eta gipuzkeraz emanda daude. Bukaeraldean, gainera, laupabost lanketa-orrialde dauzka liburu bakoitzak. Azalean izenburua eta azpizenburua besterik ez da azaltzen.

Xapaburu bat ikastolan oso kontakizun modernoa da. Maistrak zapaburu bat ekarri du eskolara, umeek nola garatzen den ikus dezaten; baina istorioak (eta orrialdeak) bi zati ditu: goialdean umeek ikuspuntutik kontatutakoa, eta behealdean zapaburuaren ikuspuntua.

Nire adiskidearentzat eskutitza ipuinaz beste hainbeste esan genezake: “bertako” ume batek eskutitz bat egiten dio Turkiako lagun bati, eta aitzakia horrekin posta prozesua azaltzen da.

Urtez aldatu gabe, 1969an, **“Abere alaiak”** saila argitaratu zuen La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxe bizkaitarrak. Formato handiko bederatzi liburu dira, marrazki handiz lagundutakoak, 12-14 orrialdekoak. Jatorrizko testuaren egilearen aipamenik ez dago, nahiz eta S. Callejak Jon Bilbaoren *Bibliographia* delakoan oinarrituta, egiletza “G. Belkromm” (sic) izeneko bati egotzi. Liburuak aztertu ondoren, berriz, hauxe da azaltzen den bakarra: “Dep. Leg. MU-112 -1969- G. Belkrom, S.L. Ctra. Alcantarilla, 132 - MURCIA 1969”. Pentsatzekoa da, beraz, “Gráficas Belkrom” edo horrelako zerbaiti dagokiola, eta ez egilearen izenari.

Liburuak zenbatuta daude, eta azalean izenburua eta euskaratzailearen izena agertzen dira. Hona hemen liburuen izenburuak eta itzultzaileak:

1. *Duri kattagorria*. Itzultzailea: Xabier Peña.
2. *Terry artzakumea, basoan*. Itzultzailea: Xabier Peña.
3. *Dudu zalditxoa, mozorro-dantzan*. Itzultzailea: Xabier Peña.
4. *Hiru katakume kezkatiak*. Itzultzailea: Juan San Martin.
5. *Puffy txita ibiltaria*. Itzultzailea: Juan San Martin.
6. *Kurrin txerrikumea eta bere jaia*. Itzultzailea: Juan San Martin.
7. *Iko oihaneko oreinkumea*. Itzultzailea: Juan San Martin.
8. *Piru ahatetxoa*. Itzultzailea: Juan San Martin.
9. *Untxi kuitxo arrantzalea*. Itzultzailea: Juan San Martin.

Ikusten denez, zenbait abereri buruzko kontakizunak dira, aski xumeak, gehienetan harrokeria zuzentzeko edo obedientzia agintzeko.

Maves argitaletxe bilbotarrak hiru bilduma plazaratu zituen 70eko hamarkadaren erdialdean. Horietatik lehena **“Birbizkunde sorta”** izan zen, hamabi orrialdeko sei liburu bikoitzez osatua. Formato handiko albumak ziren, bi zutabetara idatziak eta marrazki koloretsuz lagunduta. Bilduma ipuin klasikoz osatu zen, denak 1975ean argitaratuak:

1. *Aladino eta kriseilu miragarria / Katu botaduna*. Itzul.: X. Mendiguren.
2. *Jostuntxo azkarra / Edurne Zuri*. Itzul.: X. Mendiguren.
3. *Txokolatezko etxea / Xagueme pertxenta*. Itzul.: X. Mandiguren.
4. *Erpurutxo / Txano Gorritxo*. Itzul.: X. Kintana.
5. *Oihaneko printzesa lotia / Nano saltaria*. Itzul.: X. Kintana.
6. *Mari Errauskin / Ali-Baba eta berrogei lapurrak*. Itzul.: X. Kintana.

Bigarrena, **"Lis sorta"** izan zen, hogei tituluz osatua. Hauek ere formato handikoak eta koloretako marrazkiez eginak, eta hamabi orrialdekoak dira. Hemen, ipuin tradizionalekin batera, horien antzera eginikoak (Andersenenak), umeentzako asmatutakoak (Pinotxo) eta literatura "irabazia" deitzen den horretatik hartutakoak (Gulliber) ageri dira. Hona hemen zerrenda:

1. *Edurnetxo* (1975).
2. *Gulliber Gizonttoen herrialdean* (1975).
3. *Erpurutxo* (1975).
4. *Asta-larru* (1975).
5. *Haustertxu* (1975).
6. *Ali-Baba eta 40 lapurrak* (1975).
7. *Oskidun katua* (1976).
8. *Txano Gorritxo* (1976).
9. *Pinotxo* (1976).
10. *Arratoitxo kaskarina* (1976).
11. *Hiru hartz eta hile gorri* (1976).
12. *Xokolatezko etxetxoa* (1976).
13. *Loti Ederra* (1977).
14. *Beraunezko soldadutxoa* (1977).
15. *Hiru txarrikumeak* (1977).
16. *Ahatetxo itsusia* (1977).
17. *Otsoa eta zazpi ahuntzak* (1977).
18. *Hamelingo xirularia* (1977).
19. *Jostuntxo ausarta* (1977).
20. *Urrezko arraultzedun oiloa* (1977).

Liburuetan ez da itzultzailearen izenik agertzen. Hala ere, Torrealdairen zerrendan X. Mendiguren eta X. Kintana aipatzen dira itzultzaile gisa.

S. Callejaren arabera, bestalde, "Birbizkunde" eta "Lis" sailak gaztelaniaz zeuden lehendik (Calleja, 1994:258). Guk ez dugu horren lekukotasunik aurkitu.

Maves argitaletxearen eskutik plazaratu zen hirugarren bilduma, **"Loto"** izenekoa, "Lis" bilduma bera da (plantxak batere aldatu gabe; izan ere, barrualdean berriro agertzen dira "Lis" sailaren izena eta ikurra), baina aleak binaka bildu eta azal gogorretan kuadernatuta: *Edurnetxo/Gulliber*, *Erpurutxo/Asta-larru*, *Haurtertxu/Ali-Baba*, eta abar, hamar ale osatu arte. Lehenengo sei aleak 1975ean argitaratu ziren, eta gainontzeko laurak 1977an.

"Lis-Loto sorta" aztergai dugun urtealdiaren mugan kokatzen da, eta zertxobait gainditu ere bai. Hala ere, batasuna ematearren, 1936-1975 urtealdian sartzea erabaki dugu.

Komikiak

Hirurogeita hamarreko hamarkadan sartuta jada, Etorkizuna argitaletxe nafarrak Publicacions de l'Abadia de Montserrat-ekin lankidetzan koeditatutako beste sail bat dugu: "Panpina sorta".

Komiki itxurako albumak dira, 32 orrialdekoak, eta harpidetzaz jasotzen ziren. Guztira zazpi dira, nahiz eta lehen alea l'Abadia de Montserrat-ekin ez, baizik eta Jaimes-Libros S.A.-rekin batera argitaratu zuen Etorkizunak. Azalean, izenburuarekin batera, egile, marrazkigile eta itzultzailearen izenak azaltzen dira, sailaren izenarekin batera. Hona hemen datuok:

1. GREG (1972). *Laminzulo*. Itzul.: J. M. Satrustegi.
2. Amadeo HOFFMAN (1973). *Intzaur koskailu*. Itzul.: J. M. Satrustegi.
3. Lewis CARROLL (1974). *Alizia*. Itzul.: J.M. Satrustegi.

4. J. eta W. GRIMM (1974). *Hansel eta Gretel*. Itzul.: J. M. Satrustegi.
5. Miquel Angel SAYRACH (1974). *Gudu garratza*. Itzul.: Sto. Tomas Lizeoko ikasleak.
6. Herrikoia (1974). *Peru eta babarrun-gorria*. Itzul.: X. Garmendia.
7. IVA (1975). *Kim ibilkaria*. Itzul.: Gorka Trintxerpe.

Azken albumean Ivá-k egin zituen hitzak eta marrazkiak. Gainontzekoetako marrazkiak Albert Rué-renak dira.

Bilduman, beraz, zenbait testu klasikorekin batera, bizpahiru testu berri agertzen dira, orduko umeek komiki bidez ezagut zitzaten.

Komiki formatoko beste bilduma bat Plan argitaletxeak argitaratu eta Iñaki Beobidek banatutakoa izan zen. HGLko lau klasikoz dago osatuta: Stevensonen *Altxorraren isla*, Collodiren *Pinotxo*, Twainen *Tom Sawyer-en ibilerak* eta Barrieren *Peter Pan*, denak 1971n argitaratuak. Komiki bakoitzak 32 orrialde dauzka, eta horien artean batzuk koloretakoak dira eta beste batzuk zuri-beltzak.

Plan argitaletxe donostiarrak argitaratutako komiki horietan ez da itzultzailearen edo marrazkigilearen izenik azaltzen.

Bigarren urtealdi honetako beste komiki-liburu batzuk Tintinenak izan ziren. 1972an hiru titulu plazaratu ziren: *Tornasol arazoa*, *Ottokar-en errege-makilla*, eta *Tintin Ameriketan*, hirurak Etor-Mensajeroren eskutik eta gaur eguneko diseinu dotore berberarekin. Hergé-ren komiki hauetan ere ez dago itzultzailearen aipamenik.

Urtealdiko azken komikia *Aladiño* (1975) izenekoa izan zen. Etor argitaletxeak argitaratutako koloretako eta formato handiko obra honen itzultzaileak Nemesio Etxaniz eta Jesus Gaztañaga izan ziren.

V.2.2. Urtealdi honetako itzulpenen funtzio eta eraginak.

Oso zaila gertatzen da urtealdi honen polisistema kulturala itxuratzea sistema sozio-politikoaren testuingurua kontuan izan gabe, Espainian Francoren diktadurak, eta Frantzian II Mundu Gerrak euskal literaturaren iraupenerako oztopo ia gaindiezinak ezarri baitzituzten, lehen bi hamarkadetan bederen. Torrealdaik laburtua du zentsurak nolako min handia egin zion euskal liburugintzari, ez bakarrik debekatu zuenagatik, baizik eta, batez ere, sortzen utzi ez zuenagatik (Torrealdai, 1997:123-127).

Gerra Zibilaren aurreko euskal idazle gehienek atzerrira jo behar izan zuten, eta bertatik ahalegindu ziren euskal literaturari bizirik eusten. Lehenengo fruituak 40ko hamarkadaren bukaeraldean jasotzen hasi ziren. Orixek, esaterako, *Leoi-kumea* argitaratu zuen Parisen, eta bi urte geroago, Jokin Zaitegirekin batera, *Euzko-Gogoa* aldizkaria sortu zuen Guatemalan (1950); urte horretan bertan *Euskaldunak* poema luzea argitaratu zuen, eta urte berean Jon Etxaidek *Alos-torrea* plazaratu zuen. Hamarkada horretan *Egan* aldizkariaren inguruan ondu zen belaunaldia, "Uhin berria" edo "Apurketaren belaunaldia" ere deitua, 60ko hamarkadan hasi zen bere onenak ematen: Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1960) eta *Elsa Schleen* (1969); Gabriel Arestiren *Maldan behera* (1959), *Harri eta Herri* (1964) eta *Euskal Harria* (1967); Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969).

Beraz, esan genezake urtealdi honen hasieran Orixek eta bere obrek, hau da, literatura eredu zahar edo tradizionalak, betetzen dutela literatura sistemaren gunea; urtealdiaren bukaera aldera, berriz, gunearen aldaketa bat dator "Uhin berriko" idazleen obren alde. Idazle berritzaile eta heterodoxoak ziren, eta gerra aurreko ereduen aurka azaldu ziren: aranismotik Orixeren eredura, Azkueren "gipuzkera osatu"tik pasatuz. Eta askoz lehenagoko historiara jo zuten eredu horien bila: Leizarraga eta Axular, esaterako (op. cit.:132). Horren adibide gisa, bere ibilbidearen une batean Gabriel Aresti lapurtera klasikoaren eredua erabiltzen hasi zen bere obra eta

itzulpenetan (gogora bedi T. S. Eliot-en “Lau kuartetoak” obraren itzulpena); horren bidez errepertorioaren aldaketa bat aldarrikatzen hasi zen (ikus II.2.6.9). Kanonikotasunaren alorrean, Iñaki Aldekoak Txillardegi-Saizarbitoria-Mirande triangelua marrazten du narratibari dagokionean. Besteak beste, gizaki modernoaren, eta beraz urbanoaren kezketatik eratorritako gaien aldean, ordu arte inoiz erabili gabeko teknika narratiboak (lehen pertsonaren erabilera, plano eta ikuspuntuen nahasketa,...) ekarri zituzten euskal literaturara (Aldekoa, 1998:15-29).

Aldaketa horretan zerikusirik izan zuten faktoreen artean, elizaren aurkako erreakzioa, euskal nazionalismoa berritzeko gogoa, eta garaiko mugimendu filosofiko-sozialen eragina, Sartreren obratik 68ko maiatzeko matxinadara eraman zuten ideia askatzaileetara, 60ko hamarkadan bizi izan zen ekonomiaren eta ongizatearen hazkundea ahaztu gabe.

Egoera horretan, HGLren polisistema oso bazterrean kokatzen da (Torrealdaik ez du aipatu ere egiten bere 1977ko azterketa soziologikoan, *Euskal idazleak, gaur*), eta urtealdi honetako produkzio nagusiak elizaren eskuetan jarraitzen du: eliz-liburuak, dotrinak eta almanakak ugaritzen dira (Calleja, 1994:97-103), urtealdi honen lehen hogei urteetan bereziki. Aurrekoei, eta itzulitako liburuetara pasatuz, alegien tradizioa gaineratu beharko litzaieke: Oxobiren *Haur elhe haurrentzat*, 1944; Bizenta Mogelen liburua berrargitaratu egin zen (*Ipui onak*, 1963). Horien ondoan, berriz, folklorea berreskuratzeko lan eskergak aurrera segitzen du: Azkueren *Euskalerriaren Yakintza*ren bigarren eta hirugarren liburukiak (1942, 1945); *Elezarrak. Arraun ta Amets* izeneko antologia (1955); A. Irigarayk aukeratutako *Euskalerriko ipuiñak* (1957). Eta folklore hori bera nola edo hala lantzen zuten liburu arrakastatsuak: Jon Etxaideren *Purra! Purra!* (1953), 1956an berrargitaratu zen Kirikiñoren *Abarrak* , Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* (1961), edo Juan San Martinen *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965).

Aurreko panoramaren azalpena egiteko, HGLren berezko joeratik harantzago, zentsurari buruz Torrealdaik egin duen

azterketara jo behar dugu berriz ere. Egile horren arabera, frankismoaren zentsura pasatzeko aukera gehien zeukaten liburuak "erlijio-liburu xumea da, dotrina edo deboziozkoa. Hurrengoa, aurrekoaren ondoan ez urruti, herri-literaturako liburua, bi modutakoa: herri-jakintzaren bilketa, adibidez; eta bertso-liburua" (Torrealdai, 1997:126).

Aipatutako joera horietatik guztietatik aldentzen diren jatorrizko obrak oso gutxi dira. Nabarmenena, narratibari dagokionez, *Amabost egun Urgain'en* (1955) da, J. A. Loidirena, euskal polizi nobelaren aitzindaritzat jotakoa; poesiari dagokionez, berriz, Marijane Minaberryren *Xoria kantari* (1965) aipatzen da berritzaileenen artean (Etxaniz, 1997:173-174).

Itzulpena dago zentsurak gogorkien eragotzitako liburu-moten artean:

> Frankismoak euskarari kultur statusa ukatu eta hutsaren pareko kategoria aitortzen baitio, nekez onar dezake itzulpenak hizkuntza minorizatuari eransten dion balio positibo hori. Homologarraritasuna. Bestearen pareko izatea, alegia. Eta, gainera, itzulpenari esker kulturako hizkuntza bezala finkatu ahal izatea (Torrealdai, ibid.).

Horrexegatik, hain zuzen, urtealdi honen lehen hogei urteetan bi itzulpen besterik ez dira argitaratu. *Leoi-kumea* atzerrian argitaratu zela kontuan hartuz, *Noni eta Mani* geratzen da soil-soilik.

Svensson jesuslagunaren obra horrek, bere proselitismoarekin ere, badu elementu berritzaile interesgarririk. Hasteko, lehen pertsonan idatzita dago eta, gezurra badirudi ere, euskal HGLn horrelakorik aurkitzeko Mariasun Landaren *Txan Fantasma* (1984) liburura jo behar dugu. Egia da *Noni eta Mani* liburuko lehen pertsona nolabaiteko autobiografikotasunaren ondorioa dela, baina hala izanik ere "berrikuntza" hori ekarri zuen HGLra (*Noni eta Mani* obraren euskaratzaile bera duen eta antzeko gaia darabilen *Mendiko argia* (1968) obrak ere lehen pertsonako narratzailea

erabiltzen du, kontakizuna protagonistetariko baten ahotsaren bitartez iristen baitzaigu).

*Noni eta Mani*ren beste osagai aipagarria, erakusten duen testuartekotasuna da, aipuaren forman (Genette, 1989:18), bereziki ipuin tradizionalen aipamenen bitartez. Adibidez:

> Eta gero esan nion: "Txilibitu-otsa nere ustez nik entzun ditudan guzietan ederrena da".
>
> "Ondo diozu gaztetxo. Soñu ontan zoragarrizko gauza sakon bat ba'dago. Soñu orrek piztiak ere laxter bereganatzen ditu. Sugeak, sagutzarrak eta itxasoko arraiak ere soñu onek auro zoratzen ditu. Alemani'ko uri batean diotenez, 'Hameln'go Sagutzar-Eiztariak' txilibitua jotzen zuenean, sagutzarrak alde guztietatik irten eta atzetik jarraitzen omen zioten" (Svensson, 1952:7-8).

Edo beste hau:

> Aretoaren erdian zegoen maiean jartzeko esan zigun ofizialak, eta apal batetik irudiz betetako liburu andi bat atera ta aurrean ipuñi zigun.
>
> Ikusteko adierazi zigun kiñuka ta andik irten zan.
>
> Bakarrik geundela, esan nion Mani'ri:
>
> "Gauza arrigarria! *Milla ta Bat Gau*'etan askotan irakurri duguna bera gertatzen zaigu".
>
> Ta Manik erantzun zidan:
>
> "Bai, ta Milla ta Bat Gau'etako errege-seme aiei baño ia tratu obea egiten digutela iruditzen zait" (op. cit.:21).

Era berean, aipatutako testuko itsasontzira igo baino lehen, beste itsasontzietako marinelekin trukatzen dituzten agur hitzak frantsezez eta inglesez agertzen dira, eta hori ere guztiz berria zitzaion euskal HGLren polisistemari.

Gainerantzeko itzulpen guztiak XHko jatorrizko polisistemaren ereduen barruan sartzen dira. Behin eta berriro errepikatzen ari gara itzulpen bat, onartua izateko, xede polisistemako ereduetara egokitu behar dela. Hori bereziki egia da HGLri dagokionean, eta itzulgarriak diren testuen aukeraketatik bertatik hasten da funtzionatzen. Zohar Shavit-en hitzetan:

> Translation of children's literature tends to relate the text to existing models in the target system. This phenomenon, known from general translational procedures (see Even-Zohar 1975, 1978d, Toury 1977, 1980a, 1980b), is particularly prominent in the translation of children's literature because of the system's tendency to accept only the conventional and the well known (Shavit, 1986:115).

Hain zuzen ere, horregatik argitaratu ziren *Phedro'ren alegiak* (1965) eta *Esopo'ren alegiak* (1967), eta horregatik berrargitaratu ziren 1963an Bizenta Mogelen alegiak: haur irakurleari ezezik hezitzaileari ere ezagunak eta onargarriak gertatzen zaizkiolako; "funtzionamendu ona" ederki frogatua dutelako.

Beste aldetik, R. Mª Azkue bertako tradizioaren altxorra biltzen ari den garaian, Europako ipuinak ere ekarri nahi dira, aurreko urtealdian hasitako lanari jarraipena emanez: *Charles Perrault'en Ipuiñak* (1965), Andersenen *Ipuiñak*, eta haur txikientzat egokitutako beste ipuin asko (ikus V.2.1). Herri ipuinen eredua erabat ezaguna zen ahozko bidetik, baina hezkuntzaren alorrean fantasia, kaltegarria izan beharrean, onuragarria ere gerta daitekeela onartzen hasten den garaian, neurri handi batean Bruno Bettelheim-en obraren zabalkundeari esker (Orquín, 1983:14), mundu zabaleko ipuin tradizionalak euskaraz ere kontatzen hasten dira.

Aurrekoen ondoan, galdutako denbora berreskuratu nahian bezala, 70eko hamarkadan HGLko obra klasikoak euskarara moldatzen hasi ziren, Cinsa argitaletxearen bitartez gehienbat: *Robinson Crusoe*, *Sandokan*, *Pirataren emaztea*, *Morgan*, *Heidi*. Beste batzuk komiki moduan argitaratu ziren: *Alizia*, *Intzaur koskailu*, *Altxorraren isla*, *Tom Sawyer-en ibilerak*, *Peter Pan* eta *Pinotxo*. Eta, azkenik, klasikorik hurbilena denboran, *Printze Txikia*.

Itzulpen horiek euskal polisisteman zeuden hutsune batzuk betetzera etorri ziren (gabezia gehiegi jasandako euskal kulturak sarritan erabili du, oraintsu arte, "hutsuneak betetzeko" metafora hori).

Eta, hirugarren multzo batean, haur txikientzako obra garaikideen itzulpenak ditugu. Kasu askotan, ez zaigu jatorrizko testuen egilearen izenik eman; beste askotan, egile anglosaxoi eta katalanen obrak izaten dira. Eta, harrigarria bada ere, hemen, polisistemaren bazter-bazterrean, "atseginez irakasteko" gai eta baliabide tradizionalen ondoan, euskal HGLra ordua arte iritsi gabeko elementu berritzaileak aurkitzen ditugu. "Oyalzabal sortan", esaterako, deigarriak dira lantzen diren gaiak: emigrazioa, hezkidetza, irakurzaletasuna, arrazen arteko elkartasuna, etabar, gai guztiz modernoak dira, 1966-69 urteetan argitaratu zirela kontuan hartuz. Teresa Colomer-ek "68ko maiatzeko" inflexio-puntutik ateratako egile eta obretan kokatzen dituen elementuak atzeman daitezke jadanik:

> Una de las primeras constataciones que pueden hacerse a partir de la observación de los libros infantiles y juveniles es la ampliación producida en las situaciones familiares y sociales descritas, ya que los cambios introducidos en la estructura familiar, las costumbres urbanas o la constitución de nuevos sectores y fenómenos sociales propios de las sociedades actuales, pasan a tener cabida en este tipo de narraciones (Colomer, 1991:16).

Haur txikientzako itzulpenen artean azpimarratzekoa den beste sail bat "Urrezko Galera" izenekoa da. Saila osatzen duten bi liburuak zein baino zein harrigarriagoak dira, 1969an idatziak izan zirela ahaztu gabe: *Xapaburu bat ikastolan (Bakoitza bere giroan umetan eta zartzaroan)*, Mª Angels Ollé-rena, narraziobide polifonikoaren aitzindaritzat jo genezake, bere xumean gelako umeen ikuspuntua aztertzen ari diren zapaburuaren ikuspuntuarekin osatzen baita; bi ikuspuntuok bereizteko bidea ere ez da nolanahikoa: ikuspuntu bat orrialdearen goialdean, eta bestea orrialdearen oinean. Beste obran, *Nire adiskidearentzat eskutitza (Nere eskutitza adiskide bila)* , Antoni Cuadrench-enean, posta zerbitzuaren funtzionamendua azaltzeko aitzakian, "bertako" ume batek Turkiako beste bati idazten dio eskutitz bat; horrek, "bertako" eta Turkiako giroari buruzko marrazki ezin egokiagoen laguntzaz, arrazen arteko adiskidantza kantu bat osatzen du, eta ez

halabeharrez (izan ere, postaren kontua azaltzeko, lagun alemaniar edo italiar bat aukera zezakeen).

Beste arraza bateko umeekiko harreman epistolarra edo ikuspuntu polifonikoa bezalako berrikuntza horien oihartzuna jatorrizko ekoizpenean entzuteko, ordea, 20 urte baino gehiago igaro behar izango ziren, Patxi Zubizarretaren *Gutun harrigarri bat* (1992), edo Manu Lopezen *Olioa urpean* (1998) obretan, hurrenez hurren.

V.2.3. Itzulpen estrategien deskribapena.

Urtealdi honetan, bereziki azken urteetan, itzulpenak gero eta ugariagoak izan ziren HGLren eremuan. Aurreko atalean ikusi ahal izan den bezala, bestalde, haur txikientzako liburuen ekoizpen bereziki handia gertatu zen, Euskal Herritik kanpoko beste argitaletxeekin ezarritako zubiei esker. Zubi horiek, ordea, norabide bakarrekoak ziren, eta beste muturretik iritsitako material askoren jatorria zein zen ez zegoen batere garbi. Liburu gehienetan ez dago jatorrizko tituluaren aipamenik, askotan egilearen izena ere ez da agertzen, egokitzapenak ia inoiz ez dira aitortzen, eta euskaratzaileen izenak poliki-poliki errespetatzen hasten dira.

Gauzak horrela, Toury-ren "aldez aurretiko arauei" dagokienez, aski garbi geratu da 60ko hamarkada ondo sartu arte Euskal Herrian argitaratutako itzulpenen aukeraketan indar bikoitzak eragin zuela. Alde batetik, frankismoak ezarritako zentsurarena eta, bestetik, euskal polisisteman artean nagusi zen "instituzioarena", Even-Zohar-en terminologian, hau da, elizaren eragina. Horrela azal daitezke *Noni eta Mani* , *Mendiko argia* , *Phedro'ren alegiak* , *Esopo'ren alegiak* eta *Ardo ta Ogi Martxelin* izatea haur itzulpenetarako hautatutakoak: bide batetik edo bestetik, haurrak moral jakin baten bideetatik barneratzeko. *Itxasoa laño dago...* obraren aukeraketan ere, Barojaren obren artean antiklerikalismo gutxien zeukanaren aldeko hautua egin zen, jadanik gorago esan dugun bezala. 70eko hamarkadatik aurrera bakarrik itzuliko ziren beste tankera bateko obrak, "instituzioan" aldaketak gertatzen ari ziren seinale: *Printze Txikia* , *Robinson Crusoe* , *Heidi* , etabar.

"Aldez aurretiko arauen" barruan, beste aldetik, aipatutako obra gehienak jatorrizko hizkuntzatik euskaratu ziren. Esan daiteke joera horrek ikastolen mugimenduak eragindako liburu-eskari handia heldu arte iraun zuela. Etxanizek ekarritako datuen arabera, "ikastoletan ere matrikulazio igoera nabarmena izan zen (1970ean 11.885 haur zeuden ikastoletan, 1974an 27.000 inguru, eta 1980an, berriz, 65.000 ziren ikastoletan ikasten ari zirenak)" (Etxaniz, op.

cit.:207-208). Une horretatik aurrera, nolabaiteko pragmatismoa nagusitu zen, eta eskura zeuden materialak ZHen bitartez euskaratzen hasi ziren, jatorrizko titulua aitortu gabe, egia da, baina erabilitako bertsioa ere aipatu gabe. Jokabide hori, bestalde, normaltzat jo daiteke sistema bezala eratzen ari zen euskal haur eta gazte literaturgintzan.

Azkenik, aldez aurretiko arauen artean, ezin dugu aipatu gabe utzi urtealdi honen azken urteetan sortzen den jokabide garrantzitsu bat. Beharbada polisistemaren gaztetasunak bultzatuta, eta irakurlegoaren hizkuntza maila kontuan hartuta, beste polisistema batzuek (gaztelaniazkoak nagusiki) egindako egokitzapenak euskaratzen hasi ziren. Jokabide horrek bi inplikazio nagusi dauzka: batetik, euskal polisistemak beste polisistema baten beharretara egindako egokitzapenak bere egin zituela, bi polisistemen beharrak desberdinak izan zitezkeela kontuan hartu gabe (eta desberdinak ziren, izan; esaterako, gaztelaniazko haur eta gazte literatur polisistemaren estratifikazioaren barruan, egokitutako *Robinson Crusoe* askoren ondoan, *Robinson Crusoe*-ren bertsio osoa baitzegoen; euskal polisisteman, berriz, gaztelaniazko egokitzapenaren itzulpena "benetako" *Robinson Crusoe*-tzat har zitekeen). Bigarren inplikazioa, aurrekoaren ondorioa, euskal haur eta gazte literatur polisisteman egokitzailetza-tradiziorik ez egotea da; euskal polisistemak ia inoiz ez du egokitzen, euskaratu egiten du soil-soilik, horren dakarren menpekotasun ondorio guztiekin.

"Jarduerazko arauetara" pasatuz, urtealdi honetan nolako itzulpen estrategiak erabili diren aztertuko dugu ondoren. Kristautasun giroko itzulpenei dagokienez, *Noni eta Mani* eta *Mendiko argia* obren sorburu testua eskuratzea ezinezkoa gertatu zaigu. Ez, ordea, *Ardo ta Ogi Martxelin* delakoa. Oro har, egokitasun handiz itzulitako testua da. Esaterako:

> En sus juegos, Marcelino siempre contaba con un personaje invisible. Este personaje era el primer niño que él había visto en su vida. Ocurrió
>
> Jostatzeko garaian, ikusten ez zen laguntxo batekin zituen Martxelinek bere hartu-eman guziak: behin ikusia zuen haurtxo batekin, alegia.

una vez que una familia que se trasladaba de un pueblo a otro, fue autorizada por el padre Superior a acampar cerca del convento para poder suministrarse de agua y otras cosas que necesitaba. Iba con la familia el menor de sus hijos, que se llamaba Manuel, y allí conoció por primera vez Marcelino a un semejante suyo de parecida edad. No había vuelto a olvidar a aquel niño con el que apenas si había cambiado algunas palabras durante el juego. Desde entonces, Manuel estaba siempre a su lado en la imaginación y era tal la realidad con que Marcelino le veía, con su flequillo rubio sobre los ojos y las respingadas naricillas nada limpias, que llegaba a decirle:

—Bueno, Manuel, quítate de ahí; ¿no ves que me estás estorbando? (Sanchez-Silva, 1991:40-42).

Herri batetik bestera zijoan gurasoekin eta Nagusiaren baimenarekin, ura eta beste behar zituztenen hartzeko komentu inguruan egonak ziren. Manuel izeneko haur txikiena zeramaten berekin, eta orduan zuen ezagutu lehenbiziko aldiz Martxelinek bere kideko bat. Hura zen haurra gehiago ahaztu ez zuena. Eta hori, hitz gutxi egin zutela elkarrekilan! Handik aurrera Manuel beti han zegon bere burutapenetan. Ikusi ere, bizi bizia ikusten zuen bere mototx oria bekainean eta sudur xorrotx ez hain garbiekin.

—Manuel, kenadi hortik —esaten zion. Ez al duk ikusten galarazten naukela? (Sanchez-Silva, 1970:26).

Gauza bera gertatzen da *Itxasoa laño dago*... obrarekin, Jon Etxaide kontu eta errespetu handiz euskaratu zuelarik. Bi kasuotan "baliokidetza" lortuta dagoela esan daiteke.

Phedro'ren alegiak eta *Esopo'ren alegiak* ere baliokidetza ariketa bat dira, eta argitalpen elebidunaren bitartez Juan Anjel Etxebarriak, hizkuntza klasikoen menperakuntza maila handia erakutsi nahi izateaz gainera, euskararen bidez hizkuntza klasiko horiek ikasteko asmo didaktikoa ere azaldu zuen (ikus, IV.2.1).

70eko hamarkadaren lehen urteetan Salvador Garmendiak egin zuen *Printze Txikia* itzulpena ere aurrekoen bide berean kokatu behar da, hau da, onargarritasun eta egokitasunaren arteko oreka lortu dutenen artean, euskara batua finkatzen ari zen garaian itzuli zela kontutan hartuta. Batzuetan, jatorrizkoan ez dagoen testua gaineratzen da, testua azaltzeko baino gehiago efektu estetikoa lortzeko, gure ustez. Hona hemen adibide bat:

J'ai donc dû choisir un autre métier et j'ai appris à piloter des avions. J'ai volé un peu partout dans le monde. Et la géographie, c'est exact, m'a beaucoup servi (Saint-Exupéry, 1943:12).	Bizia nolabait atera behar eta, Abioiak pilotatzen ikasi nuen. Gutxi bada gutxi, mundu osoa korritu nuen alderik alde. Egia esan, geografiari askotxo zor diot (Saint-Exupéry, 1970:10).

Zenbaitetan, lexiko aldetik gaztelaniara jotzeko joera azaltzen du: negoziante (45), geografo (54), efimera (56), bolkan (63), rapido ("ur-lasterra", 80), mundua (Lur planeta izendatzeko, 58). Hala ere, ahalegin handia egin du hizkera homologagarria eskuratzeko.

Hamarkada berean jarraituz, Cinsa argitaletxeak plazaratu eta Iker taldeko kideek euskaraturiko gazte liburuak, esan dugun bezala, nabarmen aldentzen dira aurreko joeretatik, eta testuen osotasunean, konplexutasun mailan, eta moldaketak egiteko moduetan eragina duten jokabide berriak azaltzen dituzte. Azter ditzagun banan-banan.

Testuen osotasuna

Robinson Crusoe , *Heidi* , *Morgan* , *Sandokan* , *Pirataren emaztea* eta *Mompracem azkena* liburuetako testua jatorrizkoekin konparatzea besterik ez dago, dezenteko murrizketa egon dela

ohartzeko. Hala ere, goian adierazi dugun bezala, murrizketa hori ia inoiz ez da euskal polisisteman burutu, itzulpen horien ZH izan den gaztelaniazkoan baizik. Aski zaila izan bada ere, zenbaitetan gaztelaniazko itzulpen horiek aurkitu ahal izan ditugu, esandakoaren frogagarri: *Robinson Crusoe*, 1974 (*Robinson Crusoe*, Porrúa, 1970); *Heidi*, 1975 (*Heidi*, Molino, 1965); *Piratataren emaztea*, 1977, eta *Mompracem azkena*, 1977 (*La mujer del pirata*, Gahe, 1970). Adibide gisa, konpara dezagun *Heidi* obraren pasarte bat jatorrizko edizio batean, gaztelaniazkoan eta euskarazkoan, euskal bertsioa gaztelaniazko egokitzapenean oinarrituz eginda dagoela konturatzeko:

7. Kapitel
Fräulein Rottenmeier hat einen unruhigen Tag

Als Heidi am ersten Morgen in Frankfurt seine Augen aufschlug, konnte es durchaus nicht begreifen, was es erblickte. Es rieb ganz gewaltig seine Augen, guckte dann wieder auf und sah dasselbe. Es saß auf einem hohen, weißen Bett, und vor sich sah es einen großen, weiten Raum, und wo die Helle herkam, hingen lange, lange, weiße Vorhänge, und dabei standen zwei Sessel mit großen Blumen darauf, und dann kam ein Sofa an der Wand mit denselben Blumen und ein runder Tisch davor, und in

Capítulo VII
Un día agitado

A la mañana siguiente, al despertarse, Heidi se encontró en un lugar completamente desconocido. Saltó de la cama y empezó a recorrer la habitación. Trató de abrir las ventanas, pero no lo consiguió, pues eran muy distintas de las de su cabaña. Trató de mirar a través de los cristales y, cuando esperaba ver el cielo y los árboles, descubrió enfrente otra ventana semejante y una pared de ladrillos, cosa que le llenó de asombro. —El desayuno está servido —anunció de pronto Tinette, una de las doncellas. Y sin esperar más se

VII
Egun nahasi bat

Biharamunez iratzartzean, toki ezezagunean aurkitu zen Heidi. Ohetik jaiki eta gelan alde batetik bestera hasi zen. Leihoak zabaltzeko ahaleginak egin zituen baina alferrik, ez bai ziren txabolakoen antzekoak. Kristaletatik begira jarri zen. Zerua eta zuhaitzak ikusi asmoa bazue ere, beste leiho berdin bat eta adreiluzko orma baizik ez zuen ikusi aurrez aurre. Harriturik gelditu zen.

—Gosaria prest dago! —aditzera eman zuen Tinettek, neskameetarik batek. Eta besterik gabe alde egin zuen (Spyri, 1975: 45).

der Ecke satand ein Waschtisch mit Sachen darauf, wie Heidi sie noch gar nie gesehen hatte. Aber nun kam ihm auf einmal in den Sinn, daß es in Frankfurt sei, und es erinnerte sich an den gestrigen Tag und zuletzt noch ganz klar an die Unterweisungen der Dame, soweit es sie gehört hatte. Heidi sprang nun von seinem Bett herunter und machte sich andere; es mußte den Himmel sehen und die Erde draußen, es fühlte sich wie im Käfig hinter den großen Vorhängen. Doch es konnte diese nicht wegschieben; so kroch es dahinter, um an ein Fenster zu kommen. Aber es war derart hoch, daß Heidi nur gerade mit dem Kopf so weit hinaufreichte, daß es durchsehen konnte. Aber Heidi fand nicht, was es suchte. Es lief von einem Fenster zum anderen und dann wieder zum ersten zurück; aber immer war dasselbe vor seinen Augen: Mauern und Fenster und wieder

alejó (Spyri, 1965: 67-68).

Mauern und nochmals Fenster. Es wurde Heidi ganz bange. Noch war es früh am Morgen, denn Heidi war gewohnt, früh aufzustehen auf der Alp und dann sogleich hinauszulaufen vor die Tür und zu sehen, wie's draußen aussehe, ob der Himmel blau und die Sonne schon droben sei, ob die Tannen rauschten und die kleinen Blumen bereits die Augen offen hätten. Wie das Vögelein, das zum erstenmal in seinem schönen glänzenden Gefängnis sitzt, hin und her schießt und bei allen Stäben probiert, ob es nicht dazwischen durchschlüpfen und in die Freiheit hinausfliegen könne, so lief Heidi immer von dem einen Fenster zum anderen, um zu probieren, ob es nicht aufgemacht werden könne, denn dann mußte man doch etwas anderes se-hen als Mauern und Fenster, da mußte doch unten der Erdboden, das

grüne Gras und der letzte, schmelzende Schnee an den Abhängen zum Vorschein kommen, und Heidi sehnte sich, das zu sehen. Aber die Fenster blieben fest verschlossen, wie sehr auch das Kind drehte und zog und von unten suchte, die kleinen Finger unter die Rahmen zu pressen, damit es Kraft hätte, sie aufzudrücken; es blieb alles eisenfest aufeinander sitzen. Nach langer Zeit, als Heidi einsah, daß alle Anstrengungen nichts halfen, gab es seinen Plan auf und überdachte nun, wie es wäre, wenn es vor das Haus hinausginge und hinten herum, bis es auf den Grasboden käme, denn es erinnerte sich, daß es gestern abend vorn am Haus nur über Steine gekommen war. Jetzt klopfte es an seine Tür, und unmittelbar darauf steckte Tinette den Kopf herein und sagte kurz: »Frühstück bereit!« (Spyri, 1988: 101-103).

Ikusten den bezala, testu asko ezabatu da jatorrizko bertsiotik: deskribapenak batez ere, baina baita zenbait ekintza eta figura ere. Gaztelaniazko testua eta euskarazkoa, berriz, baliokideak dira.

Konplexutasun maila

Gaztelaniazko moldaketetatik egindako zenbait itzulpenetan testua are laburtuagoa ageri da. Jokabide hori irakurlearentzat konplexutasuna ekar dezakeen elementuren bat dagoenean agertzen da, bereziki narratzailearen edo pertsonaiaren baten jarduna luzea denean, testuak lirikotasun kutsua hartzen duenean, edo lexikoa eta bere erreferentea arrotzak gertatzen direnean.

Pirataren emaztea (1977) eta *Mompracem azkena* (1977), gaztelaniazko *La mujer del pirata* (1970) bertsiotik hartuta daude, gorago esan dugun bezala (bide batez, badirudi testu hori apokrifoa dela, hau da, Salgari hil ostean idatzi eta haren izenean argitaratu zirenetako bat, ezin izan baitugu inongo bibliografiatan aurkitu). Testuaren luzera dela eta, euskaraz bi liburukitan argitaratzea erabaki zuten, baina bai kapituluen hurrenkerak, bai orrialdeenak, bata bestearen jarraipena dela adierazten dute. Testu hauek akziozkoak izanik, elkarrizketek tramaren garapenerako esanguratsuak direnean inoiz ez dira laburtzen, batzuetan ZTarekiko atxikimendu handiz (ikus bedi, gainera, euskal bertsioak duen subjektua koma bidez bereizteko joera):

—Es posible que la borrasca no les haya permitido volver hacia el Sur —dijo Yáñez—. El viento ha soplado continuamente del Mediodía.

Sin embargo, estoy muy inquieto por lo que pueda haberles ocurrido —contestó el Tigre de la Malasia—. Esta tardanza me pone en gran cuidado.

—Baliteke, haizeteak ez diela Hegorantz nabigatzen utzi —esan zuen Yañezek—. Haizeak, Hegoaldetik jo du beti.

—Hala ere, oso urduri nago, zerbait gertatu ote zaien arduraz —erantzun zuen "Malasiako Tigreak"—. Tardantza honek, oso kontu handitan jartzen nau.

—¡Bah! Nuestros hombres son marineros muy hábiles (Salgari, 1970:7).

—Boa! Gure gizonak, marinel oso onak dira (Salgari, 1977a:5).

Hala ere, elkarrizketak ekintzarako hain esanguratsuak ez direnean, laburtu egiten dira. Jokabide hau oso gutxitan gertatzen da:

—¡Escucha, amor mío! —le decía—. ¡No llores; yo te haré feliz, inmensamente feliz, y seré tuyo, completamente tuyo! ¡Marcharemos lejos de estas islas, enterraremos mi pasado, y no vol-veremos a oír jamás hablar ni de mis piratas ni de mi salvaje isla de Mompracem! ¡Mi gloria, mi poderío, mis san-grientas venganzas, mi temido nombre; todo lo olvidaré por ti, porque quiero ser otro! ¡Oyeme, niña adorada! ¡Hasta hoy fui asesino, fui cruel, terrible tigre...; pero ya no lo seré más! ¡Refrenaré los ímpetus de mi salvaje naturaleza, sacrificaré mi poder, abandonaré este mar, que estaba orgulloso por ser mío y de mis terribles bandas! ¡No llores, Mariana; el porvenir que nos espera no será tan tétrico, sino sonriente y feliz! ¡Iremos muy lejos; tan lejos, que no vol-veremos a oir hablar jamás de nuestras islas, de estas islas que nos han visto crecer, vivir, amar y

—Entzun ezan, ene laztana! —ziotson—. Ez egin negarrik; zorioneko eginen haut oso-osorik! Nire iraganari lur emango diogu eta irla hauetatik urrun itzuriko gara! Den-dena ahantziko dugu. Den-dena galduko dugu: aberri, adiskide eta ahaideak; baina zer axola du? Irla berri bat emango dinat, zoritsu eta irribera, pirataren oihu eta ka-noiren orroerik gabe. Maite haut, maite! Oi, esaidan niri; hire ezpai-netatik entzun nahi dut (Salgari, 1977b:111).

sufrir! Perderemos patria, amigos, parientes; pero ¿qué importa? Te daré una nueva isla, más alegre, más risueña, en la cual no oiré el rugir de los cañones, donde no tendré noches que agol-pen en torno mío el lúgubre cortejo de las víctimas que he inmolado y que gritan continua-mente: ¡Asesino! ¡No, ya no veré nada de esto, y podré repetir desde la mañana a la noche aquella divina palabra que para mí lo es todo: ¡Te amo y soy tu esposo! ¡Oh; repite esa dulce palabra, que nunca resonó en mis oídos durante mi vida borrasco-sa! (Salgari, 1970:90-91).

Ohikoena, esan dugun bezala, narrazioa laburtzea da, honako kasu hauetan bereziki: lirikotasuna agertzen denean, eta lexikoa edo bere erreferentea arrotzak direnean:

La noche era mag-nífica. La luna, ese astro de las noches serenas, brillaba en un cielo sin nubes, proyec-tando su pálida luz, transparente y de una infinita dulzura, sobre las murmuradoras aguas del riachuelo, refle-jándose con vago temblor en las aguas del amplio mar de la Malasia (Salgari, 1970:89-90).

Gaua miragarria zen (Salgari, 1977b:111).

Lexiko arrotza, gehienetan, landaretzari buruzkoa da:

Ambos se ocultaron en ella a todo correr.

A cada paso que daban, la marcha se hacía más difícil.

Por todas partes surgía una manigua espesísima entre los enormes árboles que alzaban su grueso y nudoso tronco a una altura extraordinaria, y por todas partes se deslizaban, entrecruzándose como boas monstruosas, miles de raíces.

De lo alto descendían, para volver a subir, agarrándose a los troncos y ramas de los grandes vegetales, los cálamus, rotang gambires, formando verdaderas redes que resistían tenazmente a todos los esfuerzos, aun a las hojas de los cuchillos; debajo del piper nigrum formaban montones tales que hacían vana toda tentativa de paso (Salgari, 1970:34).

Oihanean sartu ziren arin-arinka. Gero eta zailagoa egiten zitzaien aurrera egitea. Zuhaitzen sustraiak, beren enbor bihurtuak eta goitik behera erortzen zirèn aihenak benetako sare hertsi bat osotzen zuten, eta sastakai eta aihotzen ahoei ere iragangaitz gertatzen zitzaien (Salgari, 1977a:44).

Bestelako lexikoak, hala nola piraten ohiko lanabesak, eta noblezia-tratamenduak (lord, milord, milady) bere horretan gordetzen dira, exotikotasuna azpimarratzeko:

—Es mejor construir un attap, Yáñez.

—No había pensado en ello. Lo tendremos dentro de unos cuantos minutos.

Sirviéndose de los kriss, cortaron algunos bambúes que crecían en la

—”Atapp” bat eraikitzea dugu hobe, Yañez.

—Ez dut horretan pentsatu ere egin. Minutu gutiren barruan, egina dugu.

“Kriss” izeneko sastakaiekin, banbu batzu ebaorilla del riachuelo, y los clavaron bajo un soberbio pombo, cuyas ramas y hojas eran tan espesas, que casi bastaban ellas solas para protegerlos contra la lluvia. Cruzaron las cañas, formando como el esqueleto de una tienda de campaña a dos vertientes, y las cubrieron con las gigantescas hojas de los plátanos, para reforzar la improvisada techumbre.

Se metieron debajo los dos piratas, llevándose un racimo de plátanos, y terminada la frugal cena, procuraron conciliar el sueño, a pesar de que el huracán se desencadenaba con mayor violencia, menudeando los relámpagos y los truenos ensordecedores (Salgari, 1970:6-7).

ki zituzten, eta beraun lurrean hinkatuz, ponbondo baten azpian hain zuzen, eginik zeuzkaten kanpadenda antzeko baten eskeletoa. Gainetik platanorri batzu ipini zizkioten eta barrura sartu ziren pirata biak, platano mordo bat eskuan zeramatela, afalgarri. Hurakana ez zen baretzen, oinaztargiak maizten ziren, eta trumoiak gorgarriak ziren. Baina, hala ere, lo egiten ahalegintzen ziren (Salga-ri, 1977a:4).

Bestalde, aurreko adibideetan ikusi ahal izan den bezala, esaldi eta paragrafoen segmentazioa ez da guztiz errespetatzen.

Azkenik, zenbait kasutan konplexutasuna areagotu dezakeen elementu bat dago; izan ere, piraten arteko elkarrizketak, eta Sandokan eta Marianaren artekoak ere hitanoan ematen dira.

Itxasoa laño dago... (1959) Barojaren obraren itzulpenean, jatorrizko zeharresanak itzulpenean argitzeko joera dago, euskal bertsioan ulertuko ez zirelakoan. Aipatuko dugun kasu honetan, *ébano* hitzaren zentzu bikoitza da zeharresanaren bidea:

Tantos naufragios seguidos le dieron una buena fortuna y una mala fama. Entonces se dedicó al comercio del ébano (Baroja, 1970:204).

Ainbeste ontzi-galtzek bata bestearen ondotik, diru-pillo galanta eman zioten, baiñan, baita fama txarra ere. Orduan, gizaki beltzen sal-erosketari ekin zion (Baroja, 1959: 145).

Lexiko aldetiko konplexutasunak, ordea, ez dira samurtzen, orrialde-oineko oharren bidez ez bada:

El de la cicatriz y Old Sam bajaron con un berbiquí, un cortafrío y un mazo a la bodega, y se les oyó golpear por dentro largo rato (Baroja, 1970:247).

> Ormainduna ta Old Sam sotora jatxi ziren bide-barkin bat, gurizabal bat (1) eta maillu bat artuta eta barruan luzaro entzun zitzaien kolpeka.
>
> (1) Berbiquí y corta-fríos (Baroja, 1959:178).

Bukatzeko, obra horretan erantsitako "konplexutasun" bat dago, hain zuzen ere itzultzaileak bere kontura egindako hitz joko bat:

> Lo mismo que aquel albañil de la albañilería celeste, me sucede a mí con el mérito de la familia de haber vivido mucho tiempo en Lúzaro (Baroja, 1970:38).

> Zerutar igeltseru onetxi gerta oi zitzaiona, gerta oi zait niri ere Luzaro'n "luzaro" bizitzeaz nire sendiak dezakean merituari buruz (Baroja, 1959:17).

Egokitzapen ideologiko eta didaktikoak

Urtealdi honen ezaugarri bereziak gogoan harturik (diktadura garaia, zentsura gogorra, itzulpenekiko mesfidantza), ez da harritzekoa egokitzapen ideologiko edo didaktikorik ez agertzea. Izan ere, "aldez aurretiko arauek" zorrozki zehaztu dute haur eta gazteentzat euskaratu ahal ziren liburuak, eta beste guztiak baztertu. Ideologia eta didaktikaren aldetik ez dago zer egokiturik, esaterako, *Noni eta Mani*, *Mendiko argia*, *Phedro'ren alegiak*, *Esopo'ren alegiak* edo *Ardo ta Ogi Martxelin* bezalako itzulpenetan, bistan denez garaiko moral eta didaktikaren ideiarekin guztiz bat datozelako. Gainontzekoen artean, esan dugu jadanik *Itsasoa laño dago*... Barojaren obrarik "zuzenena" zelako hautatu zela; *Printze Txikia*, bere aldetik, egokitasunez itzulitako obra izateaz gain, fantasiaren alorrean kokatzen da; eta urtealdiaren azken urteetako itzulpenek, abenturetakoak izanik eta, beraz, urruneko lurraldeetan kokatuta egonik, ez bide zuten tankera honetako egokitzapenetarako paradarik eman. Didaktikotzat har litezkeen egokitzapen bakarrak aurreko atalean, "konplexutasun maila" izenekoan, ezabaketaren edo orrialde oineko oharren bidez konponduriko gutxi batzuk dira.

Kultur egokitzapenak

Urtealdi honetan ez dago kultur egokitzapen gehiegi, beharbada aldez aurretiko arauetan erabakitako hautapenean kulturalki hurbil dauden testuak aukeratu zirelako.

Pertsona izenetan moldaketa bat aurkitu dugu Juan Anjel Etxebarriak 1965ean itzulitako *Charles Perrault'en Ipuiñak* delako obratxoaren "Orkolotxo" ipuinean:

> Ce Pierrot était son fils aîné qu'elle aimait plus que tous les autres, parce qu'il était un peu rousseau, et qu'elle était un peu rousse (Perrault, 1981:193).
>
> Kepa seme zarena zan, besteak baiño maiteago ebana, bera legez baltzarana zalako (Perrault, 1965:27).

Eta, ipuin berean, pertsonaia mitiko baten euskal moldaketa:

> Hélas! mes pauvres enfants, où êtes-vous venus? Savez-vous bien que c'est ici la maison d'un Ogre qui mange les petits enfants? (Perrault, 1981:195).
>
> Ene umetxoak, nundik nora zabiltze? Etxe au Basojaun baten bizilekua dozue. Ta umeak jaten dituala ez al dakizue? (Perrault, 1965:28).

Honako beste adibide honetan, Barojaren *Itxasoa laño dago*... delakotik hartutakoa, egilea eta bere liburuetako gai asko euskaldunak izanik, duda egiten da euskara edo gaztelania aldera jotzeko orduan:

> Su popa estaba muy adornada, y entre las ventanas de la cámara del capitán y del teniente había un dragoncillo esculpido debajo del título: El Dragón (Baroja, 1970:202).
>
> Txopa, apaingarriz bete-betea zegon eta kapitanaren eta tenientearen gela-leio artean erensugetxo bat zegon landurik eta azpian izen-emangarri: Erensugea (Baroja, 1959:143).

Itzulpen bereko beste adibide honetan, berriz, beste aldera jokatzen du itzultzaileak:

—¡Demonio! ¿Cómo se llamaba el barco? —La Bella Vizcaína (Baroja, 1970:116).	—Arrano-arranua! Nola zun izena ontziak? —"La Bella Vizcaína" (Baroja, 1959:76).

V.2.4. Bibliografia aipatua.

AA. AA. (1965). *Orixe, omenaldi*. Donostia: Euskaltzaindia.

ANDERSEN, Hans Christian (1969). *Ipuiñak*. Bilbo: San Anton'go katekesia [Itzul.: Juan Anjel ETXEBARRIA. Jat.: *Eventyr fortalte for Børn* (1835)].

ALDEKOA, Iñaki (1998). *Mendebaldea eta narraziogintza*. Donostia: Erein.

BAROJA, Pío (1959). *Itxasoa laño dago...* Zarautz: Itxaropena [Itzul.: Jon ETXAIDE. Jat.: *Las inquietudes de Shanti Andia* (1911)].

BAROJA, Pío (1970). *Las inquietudes de Shanti Andía*. Salamanca: Anaya.

CALLEJA, Seve (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986 arte*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

COLOMER, Teresa (1991). "Ultimos años de la literatura infantil y juvenil. Desde el mayo del 68 a la posmodernidad de los ochenta", *CLIJ* , 26, 14-24.

ESOPO (1967). *Esopo'ren alegiak*. Bilbo: San Anton'go katekesia [Itzul.: Juan Anjel ETXEBARRIA. Jat.: *Aínos* (K.a. VI. m.)].

ETXANIZ, Xabier (1997). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela.

FEDRO (1965). *Phedro'ren alegiak*. Bilbo: San Anton'go katekesia [Itzul.: Juan Anjel ETXEBARRIA. Jat.: *Phædri Fabulæ Æsopiæ* (K.o. I. m.)].

GENETTE, Gérard (1989). *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*. Madrid: Taurus.

HUNT, Peter (ed.) (1996). *International Companion Encyclopedia of Children's Literature*. London/New York, Routledge.

LAFITTE, Pierre (1948). "Leoi-kumea", *Eusko-Jakintza*, II, 682. Biarritz.

ORIXE (1948). *Leoi-kumea*. Paris: Arts et Métiers Graphiques.

ORQUIN, Felicidad (1983). "Nuevas corrientes de la literatura para niños", *Papeles de Acción Educativa*, 1, 7-16.

PERRAULT, Charles (1965). Charles Perrault'en Ipuñak. Bilbo: San Anton'go katekesia [Itzul.: Juan Anjel ETXEBARRIA. Jat.: *Contes du temps passé* (1697)].

PERRAULT, Charles (1981). *Contes*. Paris: Gallimard.

SAINTEXUPERY, Antoine (1970). *Printze Txikia*. Donostia: Plan/. Beobide [Itzul.: Salvador GARMENDIA. Jat.: *Le Petit Prince* (1943)].

SALGARI, Emilio (1970). *La mujer del pirata*. Madril: Gahe.

SALGARI, Emilio (1977a). *Pirataren emaztea*. Bilbo: Cinsa [Itzul.: IKER. Jat.:

SALGARI, Emilio (1977b). *Mompracem azkena*. Bilbo: Cinsa [Itzul.: IKER. Jat.:

SANCHEZ-SILVA, José María (1970). *Ardo ta ogi Martxelin*. Iruñea: Gómez Argitaldaria [Itzul.: Jose Maria SATRUSTEGI. Jat.: *Marcelino, Pan y Vino* (1952)].

SANCHEZ-SILVA, José María (1991). *Marcelino Pan y Vino*. Madrid: Espasa Calpe.

SHAVIT, Zohar (1986). *Poetics of Children's Literature*. Atenas/London: The University of Georgia Press.

SPYRI, Juana (1965). *Heidi*. Bartzelona: Molino.

SPYRI, Juana (1975). *Heidi*. Bilbo: Cinsa [Itzul.: Xabier MENDIGUREN. Jat.: *Heidi* (1880)].

SPYRI, Johanna (1988). *Heidi. Band I: Heidis Lehr- und Wanderjahre*. Würzburg: Arena.

SUMMIT, Mildred (1968). *Neska-mutil txintxoak*. Bartzelona: Timun Mas [Itzul.: Manuel LEKUONA].

SVENSSON, Jon (1952). *Noni eta Mani*. Zarautz: Itxaropena [Itzul.: Plazido MUJIKA. Jat.: *Nonni und Manni* (1914)].

TORREALDAI, Joan Mari (1997). *Euskal kultura gaur*. Donostia: Jakin.

WEISER, Franz (1931). *Das Licht der Berge*. Regensburg: Verlag Josef Habbel.

WEISER, Franz (1968). *Mendiko argia*. Bilbo: Mensajero [Itzul.: Plazido MUJIKA. Jat.: *Das Licht der Berge* (1931)].

V.3. 1976-1995 urtealdia.

Ondoren aztertuko dugun hirugarren eta azken urtealdia, Hego Euskal Herriko diktaduraren ondokoa da. Hogei urte inguruko urtealdi honen bukaera, ordea, ikerketari muga jakin bat jarri beharrak ezartzen du. Hala ere, Torrealdairen hipotesia sinistekotan, baliteke ziklo baten amaiera izatea:

> Hogei urteko ziklo kulturalaren hipotesiarekin nabil bueltaka. Kultur hazaldi bat dirudi. Sortu, talde zein proiektua, eta handik hogei urtera badago sarri halako agortze bat, edo jauzi kualitatibo bat aurrera, edo krisialdia sartzen da, ez dakit. Hogei bat urtetan protagonista gisa eszenategia okupatu ondoren, beste ideia, proiektu edo talde batzuei uzten zaiela lekua ematen du. Eta hurrengo belaunaldia aurrekoaren lehian eta burrukan abiatzen da bere zikloa betetzera (Torrealdai, 1997:129).

Beste hitz batzuen bidez, Torrealdairen susmoa Even-Zohar-en polisistemaren dinamikotasunaz ari da: kanonikotasunaren izaera aldakorra, eta indar ez-kanonikoek kanoniko bihurtzeko egiten duten ahaleginaz.

Edonola ere, euskara batuaren eredua abian egonik, eta azken urtealdi honen hasieran sortzen diren argitaletxe berrien lanari esker, besteak beste, euskal HGL gaurkotu eta modernizatu egiten dela dirudi.

Aldi honetan euskaratutako liburu ugariak deskribatzeko, aurreko urtealdian egin dugun bezala, bi irizpide gurutzatuko ditugu: irizpide kronologikoa, eta liburu bildumen araberakoa. Bilduma garrantzitsuenen fitxa bibliografikoak, bestalde, gehigarri batean eskainiko ditugu.

Itzulitako liburuen funtzio eta eraginak, eta itzulpen estrategiak aztertzeko, berriz, gure ustez garrantzitsuenak diren obretara mugatu beharko dugu, ezinbestean, azterketa kuantitatiboan adierazita geratu den bezala urtealdi honetan 1.500 itzulpen inguru baitaude.

V.3.1. Itzulitako liburuen ezaugarriak.

Urtealdi honetako lehen itzulpenak hamarkadaren hasieran argitaratzen hasi zen Gero-Mensajero argitaletxearen **"Kimu"** sailean aurkitzen ditugu 1976tik aurrera. Abenturetako obra klasikoen itzulpenak dira nagusiki, beste zenbait jenerorekin batera: bertan aurki ditzakegu, Verne, Melville, London edo Barrie-ren obra garrantzitsuen ondoan, *Noni eta Mani* eta *Mendiko Argia* obren birrargitalpenak (1983), Lorena Hickok-en *Hellen Kellerren historia* (1990), edo Kipling-en *Horrelaxe* (1990) obratxoa (*Just So Stories*, 1902). Guztira hamahiru itzulpen argitaratu dira 1976 eta 1995 bitartean (azkena 1991n).

Paratestuen azterketari dagokionez, obra guztien azalean agertzen dira izenburua eta jatorrizko testuaren egilearen izena, *Bizitza maite eta beste ipuin batzu* izenekoan izan ezik, azken honen egilearen izena falta baita (ageri da, ordea, liburuaren bizkarrean); barrualdean, aurreko informazioaz gainera, itzultzailearen eta marrazkigilearen izenak eta, zenbaitetan, jatorrizko testuaren izenburua ageri dira.

Saileko liburu batzuk, hasierako urteetan batik bat, euskara ikasten ari zirenentzat prestatutakoak izan ziren. Esaterako, *Indieta beltza* liburuan, Jules Verne-rena (azalean Julio Verne), Iñaki Azkune "euskaratzaile eta moldatzaile" bezala aurkezten da, eta testuaren oinean hiztegia dago jarrita. Kontrazalean, berriz, hauxe adierazten da, besteak beste:

> Liburu hau idazterakoan, euskara erabat menperatzen ez duen euskaldunberri saiatua izan dugu batipat gogoan, eta irakurgai ulerterraz bat eskaitzearren, gure ahaleginak jo ditugu.
>
> Horretarako, esaera dotore eta luze nahiz hitz arraroei ez diegu lekurik eman. Aditza, indikatibo eran erabiltzen saiatu gara, eta hitzik errazenak aukeratu nahi izan ditugu (Verne, 1979:kontrazala).

Liburu sail honetan itzultzaile askok parte hartu dute, eranskinean ikus daitekeen bezala. Hala ere, zein hizkuntzatatik euskaratu diren ez da argitzen, Plazido Mujikak egindako

itzulpenetan izan ezik (alemanieratik euskaratuak baitira). Gainontzean, horri buruz ageri diren paratestu bakarrak nahasgarriak dira, argigarriak baino gehiago: *Indieta beltza* izeneko obran, jatorrizko izenburua agertzen da portadatxoa delakoan ("Les Indes noires"), beharbada moldaketa jatorrizko testutik egina dela adierazi nahian; *Bizitza maite eta beste ipuin batzu* izeneko obran, berriz, honako ohar hau agertzen da kreditu-orrialdean: "Bilduma honetan datozen ipuinak *Love of life*, *The Keesh story*, *Mauki*, *The inevitable white man* eta *The handsome cabin boy*-tik gaztelerara zuzenean egindako itzulpenak dira" (London, 1991:4). Ez dakigu hitzok nola interpretatu.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren azken urteetan plazaratzen hasi zen beste bilduma bat Hordago argitaletxe donostiarraren **"Tximista"** saila izan zen. Edukiaren aldetik, "Kimu" sailaren oso antzekoa: 1979-1981 bitartean argitaratutako 35 itzulpenen artean, klasikoak dira nagusi: Twain, London, Stevenson, Salgari, Stowe, Carroll, besteak beste (nahiz eta idazle horien obra klasikoenen ondoan bigarren mailako beste batzuk egon —*Tom Sawyer detektibe*, kasu—). Formato txikiko liburuak izanik, titulu batzuk era bitxi samarrean plazaratu ziren (esaterako, *Tom Sawyer-en abenturak* lau liburukitan argitaratu zen, eta *Urrutiko mendebaleko mugak*, *Pirataren andrea*, *Hamabost urteko kapitaina*, *Estepako semeak*, *Azeri Axiantea* eta *Robin Hood* bina liburukitan).

Paratestuei dagokienez, badirudi "bilduma" izaerari garrantzi handia eman nahi izan ziotela; izan ere, nahiz eta azalean izenburua eta egilearen izena agertu, bizkarrean dagoen testu bakarrak, zenbakiaz gain, "Tximista Saila" dio soil-soilik, apalategian daudenean identifikagaitz bihurtuz.

Liburu batzuetan, bestalde, ez dago itzultzaile edo moldatzailearen izena. Honakootan gertatzen da hori: *Tom Sawyer-en abenturak*, *Alizia herrialde harrigarrian*, *Oihanaren deia*, *Tom Sawyer detektibe* eta *Pirataren espedizioa*. Aitortutakoen artean,

berriz, Jesus Zabaleta, Gillermo Etxeberria eta Arantxa Sarriegi dira sarrien aritutako itzultzaileak.

Aurreko sailaren garai beretsuan hasitako beste bilduma garrantzitsua, garrantzitsuena beharbada, **"Itzul"** saila da, Elkar argitaletxekoa. Bilduma horrek 1979tik 1992ra arteko iraupena izan zuen, eta bitarte horretan 86 liburu plazaratu zituen. Aurrekoak ez bezala, HGL klasikoaz ezezik, mende honetako obra enblematiko ugariz ere elikatu zen bere bizialdian zehar. Horren frogagarri, honako datu hauek: liburuen %33a, heren bat, alemanierazko polisistemari dagokio, eta denak mende honetakoak dira ("klasikoena" Erich Kästner da —1899-1974—); bigarren tokian, portzentaia berberarekin, %13,63a, katalana eta frantsesezko polisistemetako liburuak daude; hirugarren tokian, %12,5arekin, italierazkoak; eta %11,36arekin soilik ingelerazko liburuak.

Azaleko paratestuetan izenburua eta egilearen izena ageri dira; barrualdeko portadatxoan, itzultzaile eta marrazkigilearen izenak; zenbaitetan, kreditu orrialdean, jatorrizko izenburua ere ematen da. Kontrazalean, berriz, ale batzuetan "Itzul" edo/eta "Sor" bildumetako beste titulu batzuk agertzen dira eta, bestetan, egile eta obrari buruzko xehetasunak.

Itzultzaileei dagokienez, ia 40 itzultzailek parte hartu zuten proiektu hartan. Hasierako urteetan itzultzaile gehienak irakasleak ziren, eta 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera gero eta gehiago ziren itzultzaile "profesionalagoak", neurri batean edo bestean.

Hasierako obrak, klasikoak bereziki, bertsio laburtuan eskaini baziren ere, urteak aurrera joan ahala gero eta gehiago dira osotasunean argitaratu zirenak, eta are jatorrizko bertsiotik euskaratuak ere.

Elkar argitaletxearen eskutik, **Bostak** izeneko saila argitaratu zen 1981 eta 1995 bitartean. Enid Blyton-ek idatzitako sailik

ezagunena da, dudarik gabe, eta euskaraz plazaratu diren 14 tituluak Juventud argitaletxe espainiarraren bitartez etorri dira, marrazkiak eta guzti.

Liburuok paper-azalez aurkeztuta daude, eta azalean, gaztelaniazkoaren parekoa, izenburua, egilea eta argitaletxearen izena agertzen dituzte. Barruko krediuetan, berriz, ingelesezko izenak eta argitaletxea eskaintzen dira. Itzultzailearen izena portadatxoan agertzen da. Sail honek zazpi itzultzaile izan ditu: Margarita Altuna (7), Laxaro Azkune (2), Manuel Arregi (1), Alberto Uranga (1), Joan Amenabar (1), Mirentxu Larrañaga (1) eta Arantxa Letamendia (1).

"Perkax" saila izan zen 1983tik 1994 arte Elkar argitaletxeak 10 urte inguruko irakurleentzat plazaratu zuen saila. Tarte horretan 56 liburu argitaratu ziren, eta titulu gehienak jatorrizkoak dira, euskaraz idatzitakoak, alegia. Euskaratutako bakarrak Seve Callejaren lau obra dira: *Hain da triste la vie du touriste* (1986), *Bazen behin marinel bat* (1986), *Beheko eskola, goiko eskola* (1987), hirurak Xabier Monasteriok itzuliak, eta *Bakarnek ez du lagunik* (1991), Joxantonio Ormazabalek euskaratua.

S.M. argitaletxeak 1986an ekin zion **"Baporea"** sailari. Gaztelaniaz argitaratzen dituztenen itxura bereko liburuak dira: paper-azalezkoak eta koloreen arabera azpisailkatuak: zuria (lehenengo irakurleak), urdina (7 urtetik aurrera), laranja (9 urtetik aurrera) eta gorria (12 urtetik aurrera). Guztira, 47 itzulpen argitaratu dira bertan 1995 arte. Egile guztiak gaur egunekoak dira, eta gehienak alemanieraz idazten dutenak: Christine Nöstlinger, Janosch, Mira Lobe, Otfried Preussler, Maria Gripe.

Urte berean, 1986an hain zuzen, Ibaizabal argitaletxeak gazteentzako bi itzulpen argitaratu zituen: Mark Twain-en *Erregegaia ta eskekoa*, eta Charles Dickens-en *David Copperfield*. Krediuen arabera, bi itzulpenak Joxe Basterretxea "Oskilaso"k

eginak dira, ingelesetik eta itzultzaileak berak laburtutakoak. Itzulpen hauek bizkaieraz daude.

Elkar eta Timun Mas argitaletxeen lankidetzaren beste emaitza bat **"Aukeratu zeure abentura"** izan da, 1987 eta 1991 bitartean argitaratutako paper-azalezko 12 liburu interaktiboz osatua. Azalean agertzen diren datuak honako hauek dira: izenburua, egilea, marrakigilea, argitaletxea, saila, eta "zeu zara istorio honetako protagonista, egizu zeure aukera (hainbeste) irtenbide ezberdinen artean" dioen oharra. Ildo beretik, narrazio guztiak 2. pertsona erabiliz kontatuta daude, irakurleari zuzenduta. Barrualdean eskaintzen den beste erakargarritasuna liburua osorik irakurri behar ez izatea da. Liburu hauen guztien itzultzailea Iñaki Mendiguren izan zen.

Anaya argitaletxeak bere gaztelaniazko funtsetako titulu batzuk euskaratu zituen 1987an, **Iratxo berdea** izena zeraman bilduma batean. Guztira, sei espainiar idazle ospetsuren obrak argitaratu ziren, 8-11 urte bitarteko haurrentzat gomendatuak. Hona hemen liburu zerrenda:

GISBERT, Joan Manuel. *Esmirnako magoa*. Itzul.: Karlos Santisteban.

MATEOS, Pilar. *Nire osaba*. Itzul.: Ilari Zubiri.

LOPEZ NARVAEZ, Concha. *Hegaz egiten ez zuten txorien zuhaitza*. Itzul.: Xabier Monasterio.

ALONSO, Fernando. *Haizearen faroa*. Itzul.: Xabier Monasterio.

OLAIZOLA, Jose Luis. *Boni Martínen istorioa*. Itzul.: Xabier Monasterio.

IONESCU, Angela C. *Ez omen da inor egon bertan*. Itzul.: Karlos Santisteban.

1988 eta 1992 bitartean, Alfaguara eta Desclée de Brouwer argitaletxeek 45 itzulpen plazaratu zituzten **"Haur-gazte saila"** izenekoan. Paper-azalezko aurkezpena daukate, Alfaguarak gaztelaniaz argitaratzen dituen liburuen parekoa. Azalean izenburua eta egilea azaltzen dira, argitaletxeen izenekin batera. Barrualdean, jatorrizko izenburua, itzultzailearen izena eta beste kreditu batzuk ageri dira.

Liburu horien artean, eta sailaren izenak adierazten duen legez, haur zein gazteentzako tituluak aurki daitezke, egile garaikideek idatziak: Roald Dahl, Christine Nöstlinger, Michael Ende, Susan Hinton, Maria Gripe, Gerald Durrell, eta beste.

Edelvives argitaletxeak **"Ala delta"** saila plazaratu zuen 1989 eta 1991 bitartean. Jatorriz euskaraz idatzitako liburu bat izan ezik, beste guztiak espainiar penintsulako egileen obren itzulpenak dira: hogeita sei, era guztietako kontakizun modernoak eskainiz, eta argitaletxe horren gaztelaniazko funtsetatik ateratakoak.

Liburuak paper-azalez koadernatuta daude, eta adinaren arabera koloretan sailkatuta: gorriak (5 urtetik aurrera), urdinak (8 urtetik aurrera), berdeak (11 urtetik aurrera) eta marroiak (13 urtetik aurrera).

Kredituetan ez dira jatorrizko tituluak agertzen, eta itzultzaileen izenak portadatxoan daude.

Aurreko sail horren bizkaierazko bertsioa **"Hegaz"** izenekoa da, Edelvives eta IKAren artean argitaratua. Aurrekoaren bide beretik, paper-azalez aurkeztu eta koloreen arabera sailkatuta daude. Guztira, 16 liburu kaleratu ziren 1988 eta 1991 bitartean.

Elkar argitaletxeak **"Branka"** sailari eman zion hasiera 1990ean, eta 1995 bitarteko aldian 39 itzulpen argitaratu ziren

bertan, irakurle gazteei zuzenduta. Paper-azalez aurkeztuta daude, eta azalean titulua, egilearen izena, argitaletxea eta saila agertzen dira. Barruko krediuetan, berriz, jatorrizko titulua eta itzultzailearen izena eskaintzen dira. Gazteentzako liburuak diren aldetik, testuak ez dauka marrazkien laguntzarik.

Hogeita hemeretzi itzulpen horien artean, testu klasiko eta modernoen arteko proportzioa 1:2koa da, hau da, testu modernoak klasikoen bi halako dira, gutxi gora-behera. Testuak osoak dira, eta jatorrizko hizkuntzetatik itzulitakoak gehienak. Hala ere, badira zenbait salbuespen: Patxi Zubizarretak euskaratutako *Tigrea kristal atzean* (1991), Alki Zei-rena, gaztelaniatik euskaratua; *Lehenengo maisua* (1991), Txingiz Aitmatov-ena, Jesus Mari Lasak frantsesetik eta gaztelaniatik itzulia; *Pirataren ibilaldia*, Jack London-ena, Karlos Gorrindok gaztelaniatik itzulia. Itzulitako liburuen artean, ingelesetik euskaratutakoak ia erdia dira (%48,7); horietatik alde handira, alemanieratik ekarritakoak (%12,8), katalanetikoak (%10,2), eta frantsesetik itzulitakoak (%7,7) daude.

Bruño argitaletxea **"Ziaboga"** saila plazaratzen hasi zen 1990ean. 1995a arte 22 titulu argitaratu ditu, horietatik 15 itzulpen, adin guztietarako. Itzulpen lanetan gehien aritutakoak Pello Esnal, Felipe Juaristi eta Iñaki Goitia izan dira. Liburu bakoitzaren bukaera aldean orrialde askotako "Lan proposamenak" eskaintzen dira.

Gero-Mensajero argitaletxeak, 1991n, **"Noski Saila"** argitaratu zuen, gazteen zein helduen irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz. Hiru liburuk osatu zuten sail hori: Karel Çapek-en *Erroboten lantegia* (Xabier Monasteriok moldatua), Saki-ren *Ipuin kontalaria* (Karlos Santistebanek moldatua), eta *Mundu zabaleko ipuinak* (Mari Eli Ituartek moldatua). Bukaera aldean, irakurritakoa lantzeko koadernotxoa daukate, Seve Callejak prestatua.

Txalaparta argitaletxe nafarra **"Axuri beltza"** saila plazaratzen hasi zen 1992tik aurrera. 1995a arte 9 itzulpen zeuden bertan, 7-8 urtetik aurrerako umeentzat. Horien artean, era askotako testuak daude, hala nola, *Nondik zatoz?* umeei ernalkuntzaren berri ematekoa; *Lurra salbatzeko zeuk egin ditzakezun 50 gauza erraz* bezalako dibulgazio liburua; *Kariuki*, *Uala maitasuna* edo *Egun bat oihan tropikalean*, beste kultura batzuei buruzkoak.

Bederatzi liburu horietatik hiru Fernando Barrenak euskaratu ditu, bina liburu Isa Martinek eta Bego Montoriok, eta liburu bana Joxe Mari Nuñezek eta Aintzine Mendizabalek.

Edebé-Giltza argitaletxea **"Tukan"** saila argitaratzen hasi zen 1993an. 1995 arte 6 itzulpen argitaratu dira sail horretan:

BALLAZ, Jesús (1993). *Eguberria iragarri zuen gizonkiloa*. Itzul.: Manu Erzilla.

CALLEJA, Seve (1994). *Ni zu banintz*. Itzul.: Jesus Maria Agirre Berezibar.

ZAPATA LERGA, Pablo (1994). *Bensuf, erlojugilea*. Itzul.: Karlos Santisteban.

RAFART, Susana (1995). *101. pirata*. Itzul.: Karlos Santisteban.

GARCIA VILARIÑO, Andres (1995). *Krokodilo bat nire logelan*. Itzul.: Jaione Ibarra eta Miren Agur Meabe.

CARRANZA, Maite (1995). *Ekai begi-dirdai*. Itzul.: Fauxtin Urrutibeaskoa.

Paper-azalez aurkeztuta daude. Azalean agertzen dituzten datuak honako hauek dira: izenburua, egilea, saila eta argitaletxea.

Argitaletxe bereko **"Periskopioa"** izeneko sailean 2 titulu argitaratu dira 1995 arte. Bi horietatik bat itzulpena da: Jose Maria Mendiolaren *Ingelesen hilerria* (1993), Fauxtin Urrutibeaskoak itzulia.

1993an, Alfaguarak jarraipena eman zion, oraingoan Alfaguara-Zubia izenaren pean, 1988 eta 1992 bitartean Desclée de Brouwer argitaletxearekin batera egindako lanari. **"Haur-Literatura"** izenez argitaratzen hasitako bildumari formato berria eman zioten, eta aurretik argitaratutako titulu batzuen bertsio berriak ere aurkeztu zituzten (Roald Dahl eta Susan Hinton-enak, besteak beste). Bildumak koloreen araberako azpisailak dauzka: morea (8 urtetik aurrera), laranja (10 urtetik aurrera), urdina (12 urtetik aurrera), eta gorria (irakurle gazteei zuzenduta, batere marrazkirik gabea jadanik, eta azaleko ohiko marrazkiaren ordez argazki bat agertzen duena). Azpisail guztiak kontuan hartuta, 1995 arte 14 itzulpen argitaratu dituzte.

Urte berean, 1993an, banatutako bi argitaletxe horietariko bigarrenak, Desclée de Brower-ek, **"Epotxak eta erraldoiak"** sailari eman zion hasiera. Paper-azalezko liburu horiek bi azpisailetan banatuta daude: sail laranja (8 urtetik aurrera), eta sail gorria (12 urtetik aurrera). Guztira, 38 itzulpen argitaratu dira 1995 arte. Liburu horien promozioa egiteko argitaratutako paratestu batean adierazten denez, "bilduma honetan mota guztietako liburuak aurkituko dituzu. Bai generoen aldetik, misterio-intriga, abenturazkoak, errealistak...; bai gaien aldetik, ekologia, gazteen arazoak, arrazakeria... Gehienak nobelak eta ipuinak baldin badira ere, egunkariak, gutunez osaturikoak eta teatroa ere badaude. Batzuk, bertako idazleek egindakoak, besteek, ordea, mundu zabaleko kulturak ekartzen dizkigute" ("Epotxak eta erraldoiak", s.d.).

1994an Ibaizabalek **"Gaztaro bilduma"** delakoari eman zion hasiera. 1995 arte 8 liburu plazaratu ziren, horietatik 5 itzulpenak. Gazteei zuzendutako liburu horiek hauek dira:

Ricardo Alcántara (1994). *Drogarik ez!* Itzul.: Marije Bilbao / J. A. Sarasola.

Ramón Garía Domínguez (1994). *Renatak pianoa jotzen du, ingelesa ikasten du eta etabar etabar etabar*. Itzul.: Mari Carmen Mendiguren / J. A. Sarasola.

Seve Calleja (1994). *Hiltzen bazara, ikusiko duzu*... Itzul.: T. Sarasola.

Alga Marina Elizgaray (1994). *Karibeko ipuinak*. Itzul.: Antxiñe Mendizabal.

Alfredo Feliu (1995). *Periko Kirikoren bidaia liluragarria*. Itzul.: J. A. Sarasola.

Anaya-Haritza **"Espazio irekia"** izeneko bilduma argitaratzen hasi zen 1995ean irakurle gazteentzat, gaztelaniazkoen itxura berberarekin: paper-azalezko liburu zuriak, orrialde kopuru handi samarrekoak. Urte horretan 8 titulu plazaratu ziren.

Haur txikientzako liburu-bildumak

Aurreko urtealdia hasitako bide beretik, aldi honetan ere ugariak dira ume txikienentzako liburu bildumak. Atal honetan ikustaldi bat emango diegu.

Ramón Sopena argitaletxeak **"Margo ederdun ipuiak"** saila plazaratu zuen 1975 eta 1977 bitartean. Paper-azalezko eta formato txikiko 16 liburuska dira, 16na orrialdekoak. Itzultzailearen aipamenik ez dago.

La Galera argitaletxe kataluniarraren eta Elkar bertako argitaletxearen arteko lankidetzaren emaitza bat **"Apurrak"** izeneko bilduma da. Guztira 13 liburuska dira, den-denak Pere Prats Sobrepere-k ilustratuak. Gidoi eta testu gehienak Assunción Lisson-ek idatzi ditu, Mª Angels Ollé-ren eskutik joandako bost izan ezik.

Liburu hauek 1978-1984 bitartean argitaratu ziren. Lehenengo seien itzultzailea Xabier Mendiguren izan zen, eta gainontzeko zazpiena, berriz, Joxantonio Ormazabal.

Liburuen itxurari dagokionez, formato txikiko paper azalezkoa da, hizki biribilez idatziak. Azalean izenburua agertzen da soilik. Ezaugarriok adierazten dutenez, irakurtzen ikasten ari diren umeei zuzenduta daude: azkenaurreko orrialdean bildumaren helburuak eta istorio bakoitzaren 3-4 lerroko laburpen bat daude.

"Baratxuri zukua" izan zen Arabako Foru Aldundiak 1979an ateratako liburu bilduma baten izena. Fotolitoak La Galera argitaletxe kataluniarrak utzi zizkion arabar erakundeari. Guztira, 10 liburu izan ziren, formato txikiko paper-azalez aurkeztuak. Ume txikientzako liburu horien egilea Mª Angels Ollé izan zen, eta bertako narrazio xumeen bidez neurriak (luze-laburra, handi-txikia, zabal-estua, etabar) landu nahi ziren. Eskuz egindako hizkitan idatziak, eta koloretako marrazkiez lagunduta, liburuxka horietarik batzuk bikoiztuta argitaratu ziren: bertsio bat "batuaz" eta bestea "errikoiaz". Liburuon itzultzailea I(kerne) Oyarzabal izan zen.

Orobat 1979an, Ediciones Vascas/Altea argitaletxeek **"Haurraren eskubideak"** izeneko bilduma plazaratu zuten, eskubide horien aldarrikapenaren hogeigarren urteurrena ospatzeko. Dekalogoa den aldetik, bildumako liburuak ere hamar dira, bakoitzak eskubide bati lotutako istorio interesgarri bat kontatzen duelarik: *Eskolarik ez zuten umeak*, *Haurrak diren bezalakoak ez ziren haurrak*, *Haurrik gabe geratu zen herria*, *Ikusgaitz bihurtu zen neskatoa*, etabar.

Liburuak azal gogorrez koadernatuta daude, jatorrizko testuak Miguel Angel Pacheco eta Jose Luis García Sánchez-enak dira, eta itzultzailearen aipamenik ez dago.

“Teo eta bere ingurua” izeneko saila 1979an argitaratzen hasi zen, Timun Mas eta Elkar argitaletxeen artean. Berez, obra Katalunian sortu zen, Violeta Denou ezizena hartu zuen marrazkigile eta gidoilari taldearen eskutik, nahiz eta hasierako hamar tituluetan bereizketa egiten duten (testua: Juan Capdevilla; marrazkiak: Violeta Denou).

Azal gogorretako liburuak dira, barruan bi orrialdeko marrazki handiez eta inprenta hizkiez idatzitako testu txikiaz osatuta. Teo pertsonaiaren inguruko istorio sinpleak kontatzen dira interesgune jakin baten inguruan. Testua orainaldian idatzita dago, eta horrek deskripzio efektua areagotzen du, istoriotxoa interesgune bat lantzeko aitzakia den inpresioa nabarmenduz bezala.

Paratestuei dagokienez, azalean izenburua, argitaletxea eta egilea agertzen dira. Atzealdean, bildumaren deskripzio txiki bat, 2-7 urteko umeentzat dela adierazten duena. Azken orrialdeetan, berriz, “guraso eta hezitzaileentzako gida didaktikoa” dago.

Esan dugun bezala, lehen hamar tituluetan egilea eta marrazkigilea banaturik ageri dira; hamar horiek 1979an argitaratu ziren eta itzultzailea Jose Antonio Agirre da.

Hurrengo liburuetan (30 bat guztira) agertzen den itzultzailea Joxeantonio Ormazabal da, bitan izan ezik: *Teo azokan* (1984) eta *Teo mozorroturik* (1985), zeintzuen itzultzailea Iñaki Zubeldia baita.

Liburu horietako batzuen bizkaierazko bertsioa IKA-Ibaizabalek argitaratu zuen. Guk bi baino ez dugu aurkitu: *Teo arrantzan* (1989, itzul.: Juan Mari Iraolagoitia) eta *Teo eta kirolak* (1990, itzul.: Ramon Etxebarria Aiesta).

Horien ondoan, eta egile beraren eskutik, **“Teo mutuak”** eta **“Teo ikerketan”** izeneko sailak ere argitaratu ziren, plastifikatutako orrialde gogorretan eta batere testurik gabe.

Hordago argitaletxeak **“Ikusi-makusi”** bilduma plazaratu zuen 1980an. Paper-azalezko 15 liburuz osatuta dago, eta oso testu gutxian istorio xume bat kontatzen da bakoitzean (batzuetan ipuin herrikoi bat), koloretako ilustrazio baten laguntzaz; hurrengo orrialdean, ilustrazio bera agertzen da kolorerik gabe, haurrek kolorezta dezaten. Egile, marrazkigile eta itzultzailearen izenik ez da agertzen. Hala ere, oker ez bagaude, Pilar Lonarbide da itzultzailea.

Izar argitaletxeak **“Izar bilduma”** argitaratu zuen 1980an. Paper-azalezko eta formato karratuko 6 titulu izan ziren: *Alicia herrialde miresgarrian*, *Txano Gorritxo*, *Erpurutxo*, *Mari Errauskin*, *Pinotxo* eta *Ali Baba*. Itzultzailearen berririk ez.

Kataluniako La Galera argitaletxeak Elkar euskal argitaletxearekin lankidetzan **“La Galera Ipuinak”** izeneko bilduma plazaratu zuen 1980tik 1983 arte. Azal gogorreko zortzi liburu horietan, Esopo eta La Fontaine-ren alegia moldatuak biltzen dira: *Bi antxumeak*, *Erbia eta dordoka*, *Lehoia eta sagua*, *Astoa eta txakurra*, *Lehoia eta kilkirra*, *Oilarra, azeria eta zakurra*, *Usoa eta inurria* eta *Belea eta azeria*, testu gutxi eta koloretako marrazki handiez. Liburuen bizkarrean, titulu eta argitaletxearekin batera, “Alegiak” direla azaltzen da.

Jatorrizko egileak eta testuen egokitzaileak, M. Eulalia Valeri eta Francesc Boada, portadatxoan aitortuta daude. Euskaratzailea ere bertan agertzen da: Joxantonio Ormazabal.

Hemma argitaletxean **“Ipuin miragarriak”** bilduma argitaratu zen 1981ean, azal gogorrean eta formato handian aurkeztuak: *Errauskiñe*, *Erpurutxo*, *Txanogorritxo* eta *Oihaneko Loti Ederra*. Testuak M. C. Suigne-k idatzi zituen, eta euskaratzailea J. M. Mendizabal izan zen.

“Gabon bilduma” 1981ean argitaratu zen, Torrealdaik dioenez. Baina liburuetan ez dago ez data, ez argitaletxe, ez egile ez eta itzultzailerik ere. Paper-azalezko 8 liburuxka dira, bakoitza animalia baten inguruan: ahatea, lehoia, txerrikumeak, hartz zuria, pandak, kanguroak, kirikinoa eta kastorea. Oso istorio sinpleak dira, testu gutxikoak eta koloretako marrazkiz osatuak.

Irbis argitaletxeak **“Fantasia bilduma”** argitaratu zuen 1982an. Paper-azalezko 9 liburu hauetan Walt Disney-ren istorioak ageri dira, moldatzaile eta itzultzailearen izenik gabe, hala nola, *Merlin magoa eta alaitasun edabea*, *Mari Errauskin eta Pirindolo txoriak*, *Hiru txerritxoak eta otsoaren gosea*.

Timun Mas-ek **“Zesar eta Ernestina”** saila plazaratu zuen 1982an, azal gogorrean eta formato etzanean. Egilea Gabrielle Vincent izan zen, eta lau tituluz osatuta dago: *Zesar eta Ernestina Gedeonen bila*, *Zesar eta Ernestina musikari kalez kale*, *Zesar eta Ernestina argazkilariaren etxean* eta *Zesar eta Ernestina mendira doaz*. Euskaratzailearen berririk ez dago.

Ediciones Vascas argitaletxeak, Altea argitaletxearekin batera, **“Benjamin”** bilduma argitaratu zuen 1982an. Guztira, formato txikiko 10 liburu dira, testu gutxi eta orrialde osoko ilustrazio koloretsuez aurkeztuak. Liburu gehienak idazle atzerritar garaikideenak dira, bi izan ezik (bata, Gogol-en “Sudurra” izeneko ipuinaren moldaketa da, eta, bestea, Serge Prokofiev-ek mende hasieran idatzi zuen “Peru eta otsoa” ipuin musikala). Hona hemen liburu zerrenda:

AHLBERG, Janet. *Hau hezur pila!*
BAUMANN, Kurt. *Lehortu ontziteria*.
BICHONNIER, Henriette. *Mamu iletsua*.
FOREMAN, Michael. *Panda-ren bidaia*.

GAMMELL, Stephen. *Jeiki Grizzli... Gabonak dira!*
HEINE, Helme. *Hiru lagunak.*
MALKOWSKIK, Rainer. *Sudurra*.
McNAUGHTON, Colin. *Errege sega-potoa.*
PROKOFIEV, Sergio. *Peru eta otsoa*.
STERN, Simon. *Botilaren barruan.*

Azalean, izenburuarekin batera, egilearen eta sailaren izena ageri dira; kontrazalean, testuaren edukiaren azalpen txiki bat; eta liburu bakoitzaren azken orrialdeetan egile bakoitzaren datu bio-bibliografikoak eskaintzen dira. Itzultzailearen berri barruko portadatxoan ematen da: liburu guztien itzultzailea "Kalekumeak Kolektiboa" da, batean izan ezik (*Panda-ren bidaia*, itzul.: Nekane Urdampilleta).

Liburuen edukiari dagokienez, testu modernoak dira, mezu moralik gabeak; batzuetan animalien istorioak dira (*Hiru lagunak*), bestetan eguneroko bizitzari buruzkoak (*Lehortu ontziteria*), edota tradiziozko elementuak (erregeak, dragoiak, zaldunak...) ironiaz tratatuak (*Mamu iletsua*, *Errege sega-potoa*); testu jostariren bat ere ez da falta (*Hau hezur pila!*).

"Herensuge gorria" izeneko liburu bilduma 1982an hasi zen argitaratzen Arcos-Vergara argitaletxe bartzelonarraren eskutik. Guztira, 38 titulu plazaratu zituen, azkena 1985ean. Liburuak paper-azalez aurkeztuta daude, inprenta-hizkitan idatzitako testu txikia eta koloretako marrazkiak dituzte.

Azalean, liburu bakoitzaren izenburuarekin batera, egilea edo moldatzailearen izena, marrazkigilearen izena, saila eta argitaletxea ageri dira. Kontrazalean, berriz, titulu guztien zerrenda eta, behealdean, kredituak, itzultzailearen izena barne dutelarik. Liburuen jatorrizko tituluak, ordea, ez dira inon azaltzen.

Obren idazle gehienak kataluniar idazle eta ilustratzaile garaikide ezagunak dira, hala nola, Mercè Company, Joan Manuel Gisbert, Mercé Canela edo Roser Capdevila. Salbuespenen artean,

Andersen, Nerval, Shakespeare eta Grimm-en titulu bana aipatu behar dira.

Bi itzultzaile izan zituen "Herensuge gorria" sailak: Josu Landa, lehenengo hogei tutuluetan; eta Ramon Etxezarreta, azken hamazortzietan.

Berriz ere Arcos-Vergara argitaletxearen eskutik, **"Katemearen Liburuak"** izeneko liburu bilduma argitaratu zen 1983tik 1985era. Tarte horretan plazaratu ziren 11 liburuak azal gogorretan koadernatuta daude, eta koloretako ilustrazioez lagunduta.

Azaletako paratestuei dagokienez, izenburua, egilea edo moldatzailea, irudigilea eta argitaletxea dira ematen diren datuak. Itzultzailearen izena barruko orrialdeetan agertzen da, eta jatorrizko tituluak ez dira agertzen.

Aurrekoan bezala, bilduma honetan ere, egile gehienak kataluniarrak dira, eta oso posible da "Katakumearen liburuak" saila katalanezko bertsioaren itzulpena izatea. Liburu bakarra da klasiko baten moldaketa: *Romeo eta Julietaren trajedia*, José Luis Giménez Frontín-ek moldatua.

Hamaika liburu horietatik zazpiren itzulpena Ramon Etxezarretaren ardurapean joan zen, eta gainontzekoena Josu Landarenean.

Elkar eta Timun Mas argitaletxeen arteko lanetik sortutako beste bilduma bat **"Ibai"** izenekoa da, 1983tik 1992 arte argitaratutakoa. Azal gogorreko liburuak dira, orrialde biko marrazki handi koloretsuez eta hizki biribilez idatzitako testu gutxiz osatua. Testuen egilea Jesús Ballaz da, eta marrazkiak M. Sitjar-ek egin ditu. Azalean, izenburua eta argitaletxea baino ez dute ageri.

Elkar argitaletxearekin egindako liburu guztien itzultzailea Joxeantonio Ormazabal da, guztira 15 bat. Titulu batzuk (5 gutxienez) IKA-Ibaizabalek atera zituen bizkaieraz, eta horien itzultzailea Juan Mari Iraolagoitia da; hauexek dira: *Ibai alpinista*, *Ibai txirrindularia*, *Ibai basozaina*, *Ibai garraiolaria* eta *Ibai osagile*.

Guztien abiapuntua Ibairen lozorroa da, eta istorioak Ibairen ametsen ondorio dira. Amets horiek iraganean kontatuta daude, efektu narratiboa areagotuz.

1985ean, "kalkatu, idatzi eta margotzeko" lau liburu argitaratu ziren Ibai pertsonaiaren inguruan: *Zirkoa margo ezazu*, *Kirola margo ezazu*, *Etxaldea margo ezazu* eta *Oihana margo ezazu*. Daukaten testu apurra Iñaki Zubeldiak euskaratu zuen.

Elkar argitaletxeak **"Txalupa"** saila argitaratu zuen 1983tik 1992 arte, Galiziako Galaxia eta Kataluniako La Galera argitaletxeekin lankidetzan. Liburuak koedizioak ziren, eta Estatu espainiarreko lau hizkuntzetan argitaratzen ziren aldi berean. Bide horretatik eman dira ezagutzera hizkuntza minorizatuetako idazle eta ilustratzaile asko. Guztira, "Txalupa" sailean 42 titulu plazaratu ziren. Galegoz 11 (%26,2a), katalanez 10 (%23,8a), gaztelaniaz 8 (%19a), euskaraz 6 (%14,3a), eta gainera titulu klasiko askori ere tokia egin zitzaien (Andersenen *Berunezko soldadutxoa*, Perrault-en *Txikete tximadun*, Grimm-en *Suge zuria*, *Peru gezurtia* ipuin herrikoia, etabar).

Liburuak paper-azalez aurkeztuta daude, eta barrualdean testua eta ilustrazioa txandakatzen dute orrialde bakoitzean. Azalean, izenburuarekin batera, egile eta ilustratzailearen izenak eskaintzen dira, argitaletxe eta saila ere bertan direlarik. Atzealdean, publikatutako liburuen zerrenda dago. Gainontzeko datuak kreditu-orrialdean daude: jatorrizko izenburua (datu hau oso gutxitan ematen da euskaratutako liburuetan), argitaratze urtea, etabar.

Itzultzailearen izena portadatxoan dago, egile eta marrazkigilearen izenekin batera.

Sail honetako liburu guztien itzultzailea Elkar argitaletxeko haur bilduma askoren arduraduna izan den Joxantonio Ormazabal izan da, baina liburu gehienetan "egokitzea" hitza agertzen da, hain zuzen ere Ormazabal testuei euskal kutsua ematen ahalegindu zelako. Aurreko kapituluan (IV.2.2) ikusi dugun bezala, bestalde, liburu gehien euskaratu dituen itzultzailea da. Hauxe dio Callejak Ormazabalen lanari buruz:

> Gure ustez, Joxan Ormazabal itzultzaile eta egokitzaile hobea da eskola liburugile baino. Euskara oso ondo menperatzen du, eta horregatik oso itzulpen onak egiten ditu, begi zorrotz finez begiratu ezik itzulpenak direnik igarri ezin izateko bestean. Testua euskaratu ez ezik euskaldundu egiten du, eta hori frogatzeko ez dago *Ketxusen Zooa*, *Norena da basoa?*, *Jolas egiteko ipuinak* edo *Teo*, *Ibai* eta *Txalupa* serietakoen itzulpenak ikustea besterik (Calleja, 1994:335).

1984an, Anaya argitaletxeak **"Sagutxu"** bilduma plazaratu zuen. Antza denez, katalanez eta gaztelaniaz ere atera zen, "Ratón Pérez" izenaren pean. Euskaraz, "cartoné" moduan argitaratutako 10 liburu aztertu ahal izan ditugu. Bertan, argazkiak (lehen bi aleetan) eta marrazkiak nagusi dira, testu laburraren ondoan.

Kontakizun klasiko eta tradizionalak dira: Perrault, Grimm eta Andersenen ipuinen moldaketen ondoan, Ingalaterra, Norvegia eta Islandiako ipuin tradizionalak aurki daitezke, txukun argitaratuak.

Ipuinon itzultzaile gisa, Igara agertzen da gehienetan; bitan Mª Jesus Urmeneta & Iñaki Iñurrieta, eta batean Jose Luis Agote.

Kreditu-orrialdeko datuei kasu egitera, eskubideak ipuinok lehentxeago argitaratu zituen Pariseko Grasset & Frasquelle argitaletxetik jasoak dira.

“Txingurri jakintsua” 1984an argitaratu zen Sendoa argitaletxearen eskutik. Formato txikiko eta paper-azalezko 18 titulu dira guztira, denak Carme Solé Vendrell-ek idatzi eta Maria Martínez i Vendrell-ek ilustratuak. Eskuz idatzitako hizki biribiletan jarritako istorio xumeak dira: *Barraskilo, killo, killo*, *Bipia marruska*, *Denak pestara*, *Hegan egiten ikasi*, etabar.

“Lorea eta Nikolas” saila Hemmak argitaratu zuen 1984an. Guztira lau titulu dira, denak Natacha Toutain-enak, eta itzulpenak Juan Garciarenak dira. Formato txikian eta azal gogorrean kuadernatuak, testu txiki batez lagundutako irudi koloretsuez osatutako bilduma da hau. Azalean, izenburua eta argitaletxea baino ez du ageri. Tituluak hauexek dira: *Gaur oihana*, *Gaur loreak*, *Gaur tripafesta* eta *Gaur irletan barrena*.

Timun Mas/Elkar argitaletxeak **“Lulu txikia”** argitaratu zuen 1984an, garai hartan telebistan emititzen zuten telesailean oinarrituta. Zortzi liburuxka dira, paper-azalez eginak eta formato txikikoak. Egile edo itzultzailearen izenik ez dago.

“Lau urtaroak” da Parramón argitaletxe kataluniarrak 1984an argitaratu zuen sailaren izena. Urtaroen aitzakian, Josep Mª Parramón-ek idatzi eta Asun Balzolak, Carme Solé Vendrell-ek eta Ulises Wensel-ek ilustraturiko lau liburu plazaratu ziren. Paper-azalez aurkeztu eta kolorezko ilustrazio handiz osatuak daude, eta oso testu gutxi daukate. Lau liburuen itzultzaileak Jone Aldamiz eta Koldo Tapia izan ziren.

Edigol argitaletxeak **“Noel”** saila argitaratu zuen 1984an, lau titulurekin: *Noel Egiptora doa*, *Noel Hegoamerikara doa*, *Noel Indiara doa* eta *Noel Mediterraneoan zehar doa*. Eskuz idatzita

daude. Guztien egilea Rosa Mª Cos izan zen, eta itzultzaile bezala Euskaltzaindia agertzen da.

Berriro ere Timun Mas eta Elkar argitaletxearen artean, **"Charlie Rivel"** saila argitaratu zuten 1985etik 1987ra. Pailazo kataluniarraren omenezko 6 abenturatxo dira, Elisa Ramón-ek idatzi eta Miguel Sitjar-ek ilustratuak. Liburuak formato handikoak eta azal gogorrekoak dira. Guztien itzultzailea Joxeantonio Ormazabal izan zen.

1985ean orobat, Fher argitaletxeak **"Mitxoleta bilduma"** plazaratu zuen: paper-azalezko 6 liburu, eskuz idatziak eta itzultzailearen berririk gabeak.

Urte berean, Elkar argitaletxeak **"Txorromorro"** saila argitaratu zuen: paper-azalezko formato handiko 2 liburu: *Suge gozozalea* eta *Irakurri nahi zuen karramarroa*. Eskuz idatzita daude. Egilea eta marrazkigilea Encarnación Ferré izan zen, eta itzultzailearen izenik ez da aipatzen.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera (1986-1989), **"Ilargi erditxoaren ipuinak"** izeneko bilduma argitaratu zuen Algaida-Anaya argitaletxeak. Seve Callejak dioenez, Rodríguez Almodovar-en *Cuentos al amor de la lumbre* ahozko tradizioaren bilduma zabalagotik jaso, eta lehen hezkuntzako umeentzat egindako moldapena dira (Calleja, 1994:258).

Azal gogorrean launa ipuin biltzen zuten 10 liburu aurkitu ahal izan ditugu, eta beste 20 ipuin azal biguneko ale banatan (azken hogei horiek aurreko lehen bost liburuetako ipuinen berralgitalpenak dira), guztiak A. R. Almodóvar-en izenean.

Eskuzko kaligrafia itxuratzen duen letramoldean argitaratuta daude, koloretako ilustrazioez lagunduta.

Azal gogorretako lehenengo zortzien itzultzailea Xabier Monasterio izan zen, eta azken biena Javier Uriarte.

"Aukeratu zeure lehen abentura/Globo berdea" sailean 20 bat orrialdeko 12 liburu argitaratu zuten Elkar eta Timun Mas-ek 1986tik 1988ra. Paper-azalezkoak eta hizki biribilez idatziak, liburu interaktiboak dira, eskolaurreko haurrei zuzenduak, denak Marcia Leonard-ek idatziak.

Azalean agertzen diren datuak titulua, egilea, marrazkigilea, saila eta argitaletxea dira. Azken orrialdean, berriz, ohar didaktikoak dituzte.

Noguer argitaletxeak **"Txikien mundua"** izeneko bilduma atera zuen 1987 eta 1989 urteetan. Guztira, paper-azalez egindako 15 liburu txiki dira, eskuzko hizkiez idatziak. Pere Castor albumetatik hartuta daude (Flammarion, 1979), eta itzultzaileak Aurkene Mora eta Patxi Apalategi izan ziren.

1987 eta 1990 bitartean Susaeta argitaletxeak **"Lehengo ipuinak oraingo ipuin"** izeneko saila plazaratu zuen. Paper-azalezko 12 liburu dira, eskuz idatziak eta marrazki handiez hornituta: *Banbi*, *Peter Pan*, *Oihaneko liburua*, *Arratoitxo irtirina*, *Txokolatezko etxetxoa*, *Poxpolu saltzailea*, *Berunezko soldadutxoa*, *Jostun ausarta*, *Hiru txerritxoak*, *Edurne Zuri*, *Pinotxo* eta *Txanogorritxo*. Hirurogei orrialde inguruko liburuak dira, eta bertan ez da ez egile, ez marrazkigile, ez itzultzailearen berririk ematen. Azalean, berriz, titulua eta saila agertzen dira.

Elkar argitaletxeak **"Sirena bilduma"** argitaratu zuen 1987tik 1992 arte. Paper-azalez eta hizki biribilez idatzitako 24 orrialdeko 35 liburu; barruan, alde batean orrialde osoko ilustrazioa eta bestean testua daramate. Azalean emandako datuak izenburua, idazlea, marrazkigilea, argitaletxea eta bilduma dira. Azken orrialdean, berriz, normalean eskaintzen ez den informazio ugari

dago, hala nola, jatorrizko izenburua, data eta argitaletxea (La Galera), eskuizkribatzailearen izena, ohiko beste kredituekin batera.

"Sirena bildumako" ia titulu guztien jatorria katalana da. Hona hemen salbuespenak:

-*Ilargia edan zuen astoa* (okzitaniar ipuin herrikoia; egokitzailea: Renada Mathieu).
-*Izei txikia* (N. Willer-ek jasotako ipuina; egokitzailea: M. Eulalia Valeri).
-*Asmakizun polita* (Ricardo Alcántara-k gaztelaniaz idatzia).
-*Deabruaren zubia* (ipuin herrikoia; egokitzailea: Jordi Vinyer).
-*Azeria eta arrain saltzailea* (ipuin herrikoia; egokitzailea: Jordi Vinyer).
-*Eskailera erraldoia* (Proventzako ipuin herrikoia; egokitzailea: Renada Mathieu).
-*Juan zikinen anaia* (biltzailea: Laura Richards; egokitzailea: Marta Mata).

Itzulpen guztiak Joxeantonio Ormazabalek egin ditu.

"Sirena bildumako" titulu batzuk bizkaieraz ere argitaratu ziren, 1988 eta 1990 bitartean, Ibaizabal argitaletxearen eskutik, eta aurrekoen formato berean. Euskaratzaileak, kasu honetan, Juan Mari Iraolagoitia (9 titulu) eta Bibiñe Pujana (7 titulu) izan ziren.

Hemma argitaletxeak sail batzuk plazaratu zituen argitaratze datarik gabe, denak animaliei buruzkoak. Horietako bat **"Animalien erronda"** izenekoa da (198-?). Azal gogorrean aurkeztutako 4 liburu dira: *Neuk ikusia baserrian*, *Neuk ikusia larreetan*, *Neuk ikusia ibai ertzean* eta *Neuk ikusia sabanan*. Hari argumental txiki baten laguntzaz zenbait animalia aurkezten zaizkigu. Testu guztiak J. Barnabé-Dauvistier-enak dira, eta itzulpenak Juan Garcia Garmendiarenak. Jatorrizko izenburuak ez dira aipatzen.

Argitaletxe berberaren eskutik, **“Laguntzoak”** izeneko bilduma plazaratu zen, Belgikan argitaratua (198-?). Azal eta orrialde gogorretako 4 liburu dira haur oso txikientzat. Testuak, berriro ere, J. Bernabé-Dauvistier-enak dira, eta itzultzailearen aipamenik ez dago. Tituluak hauek dira: *Urtxintxo*, *Tronpatxo basozaina*, *Pintto* eta *Liliren eskola*. Beste sail batzuk ere argitaratu zituen, baina batere hari argumentalik gabe, eta horregatik ez ditugu aintzat hartu: “Bai lagun maitagarriak”, etabar.

Hemma argitaletxetik irten gabe, 1988an **“Ipuin laburrak saila”** plazaratu zuen, formato txikian eta paperezko azalarekin: *Oihaneko Loti Ederra*, *Txanogorritxo*, *Edurne Zuri eta 7 ipotxak*. Euskaratzailea Juan Garcia Garmendia izan zen.

Urte berean, 1988an, Júcar argitaletxeak **“Sagar Magikoa Bilduma”** argitaratu zuen, azal gogorreko eta formato handi karratuko 10 liburuz osatua. Bertan irudiari ematen zaio lehentasuna; izan ere, ilustratzaile batzuk ilustrazio sari nazionalaren jabe direla aitortzen da. Testuen itzultzailea Iñake Orue Astobieta izan zen.

“Xanti eta Ane” 1988-1994 bitartean Timun Mas eta Elkar argitaletxeek argitaratutako liburu bilduma interesgarri bat da. Azal gogorrean ateratako 11 liburu dira, jatorriz Mercè Company-k idatziak guztiak. Ilustratzailea Horacio Elena argentinarra izan zen.

Formato handian, eta eskuzkoaren tankerako letramoldean, fantasiarekin eta beldurrekin zerikusia duten gaiak lantzen dira zenbait istorioren bitartez, eta Isabel Martí eta Jordi Carbonell-en aholkularitza psikopedagokikoaren pean. Sarrera moduko paratestu batean adierazten den bezala, liburu hauek haurrak beldurrak gainditzen joatea dute helburu:

> Horixe egiten du Anek, istorio honetako protagonistak, Xantiren bidez beldur guztiak menperatzen saiatuz. Xanti, haurrak berak asmatu duen munstro partikularra da, honela segurtasun handiagoa sentitzen duelako. Haur askok ongi ulertuko dute, Anek bezala, Xanti zergatik den "egitazkoa" neskatilarekin bakarrik dagoenean, zergatik den gardena bere inguruan pertsona helduak daudenean eta zergatik alda daitekeen etengabe neurriz... Irudimenarentzat ez dago ezinezkorik (Company, 1991:sarrera).

Liburuak orainaldian kontatuta daude, eta jorratzen dituzten gaien artean zaharren heriotza (*Agur, amona!*), argia joatean sentitzen den beldurra (*Argia gaixo dago!*), gaueko mamuak (*Gaueko munstroak*), eta beste aurki daitezke.

Titulu batzuk, formato berean izanda ere, Timun Mas eta I.K.A.-Ibaizabalen artean argitaratuta daude, Juan Mari Iraolagoitiaren bizkaierazko bertsioan: *Nire lagunak, txakurrak*, *A zelako sastadea!*, *Itxasoaren barrenean*, *Nire erle maiteak* eta *Euriaren iratzargailua*. Liburu hauetako batzuk, beraz, bikoiztuta daude, bizkaieraz eta batueraz.

Fher argitaletxeak **"Animalien bizitza"** plazaratu zuen 1988 eta 1989 urteetan. Piztiei buruzko 12 kontakizun dibulgatibo dira, 24 orrialdekoak eta paper-azalez aurkeztuak, Angela Royston-ek sortu eta Xabier Kintanak itzuli eta egokituak. Tituluak animalien izenak dira: *Ahatea*, *Azeria*, *Igaraba*, *Oreina*,... Geroago, 1990ean, **"Baserriko animalien istorioak"** izeneko saila argitaratu zuen, aurrekoen itxura bereko lau liburuz osatua, egile eta itzultzaile berekin: *Ahuntza*, *Ardia*, *Behia*, *Oiloa*, *Txerria* eta *Zaldia*.

Alfaguara/Desclée de Brouwer argitaletxeek **"Alfaguara albumak"** argitaratu zituzten 1988 eta 1991 bitartean. Paper-azalezko eta formato karratuko zortzi liburu dira: lau Jean de Brunhoff-en Babar pertsonaiari buruzkoak, eta beste laurak Arnold

Lobe-ren Igel eta Ugel pertsonaiei buruzkoak. Itzultzaileak Mire Maite Billelabeitia eta Jon Kortazar izan ziren, hurrenez hurren.

"Leiho saila" da Erein argitaletxeak 1988 eta 1989 bitartean argitaratu zuen bildumaren izena. Paper-azalezko formatu karratuan aurkeztutako 7 liburu dira, orrialdearen alde batean testua eta bestean irudia dutenak, 24 orrialde ingurukoak. Liburu horien jatorria Kataluniako Publicacions de l'Abadia de Montserrat argitaletxea da, eta euskaratzailea Anjel Lertxundi izan zen. Hauexek dira tituluak: *Dirdai faisaia*, *Mozolo Babalorearen balada*, *Gauez euria ari duenean*, *Bost urte*, *Mirabolan arraina*, *Untxiaren hegada* eta *Bibotea eta Joxanton*.

Erein argitaletxeak **"Atari saila"** plazaratu zuen 1989an. Formato karratuko eta paper-azalezko 5 liburu dira, eskuz idatziak. Azalean agertzen diren datuak izenburua, egilea, marrazkigilea eta argitaletxea dira. Irakurtzen hasten ari diren umeei zuzenduta daude: *Tripa zorri, sagar gorri*, *Amona Josepa eta trena izan nahi zuen kokodriloa*, *Titirimundi*, *Katu izan nahi nuke* eta *Euli bat zopetan*. Euskaratzailea Anjel Lertxundi izan zen.

1989 eta 1995 bitartean, Elkar argitaletxeak **"OT aztia"** plazaratu zuen. Paper-azalezko eta formato handi karratuko 6 liburu dira, eskuz idatziak: *Trineoan*, *Ibilaldia*, *Aztiaren etxea*, *Safaria*, *Piratak* eta *Jolas-parkean*. OT azti bitxiak eragindako abenturak dira. Guztien egilea Josep Lluis Martínez Picanyol, eta euskaratzailea Joxantonio Ormazabal.

Ediciones Angulo-k **"Alegia unibertsalak"** argitaratu zuen 1989an, Xabier Kintanak itzuliak: *Txirrita kantatzen, inurria nekatzen*; *Mitxo-ren asmoak ustel*; *Igel harroputza*; *Azeria maltzur,*

Zikoina maltzurrago; *Lehoia eta sagu zintzoa* eta *Katuari kriskitina, benetan ideia fina*. Liburuak azal gogorrekoak eta formato handikoak dira, eta hizki biribilez idatzita daude. Itzultzaile eta marrazkigilearen izenak azalean agertzen dira.

Urte berean, Montena argitaletxeak **"Amaiera berriko ipuin zaharrak"** plazaratu zuen, azal gogorreko 3 liburuz osatua: *Kometa*, *Txirrita eta inurria* eta *Esnesaltzailea*. Hiruren egilea Miguel Angel Pacheco izan zen, eta itzultzaileak Karlos Santisteban eta Luis Ramon Gomez Rea.

Ihardun/Abril argitaletxeak **"Lehen ttanttak"** bilduma argitaratu zuen 1989 eta 1990 bitartean. Paper azalezko 10 liburu dira, 30 orrialdekoak. Eskuz idatzita daude, oso testu gutxirekin: orrialde bakoitzean esaldi labur bat baino ez. Egile bezala, Adelina Palacín, Assumpta Verdaguer eta Iñaki Mendiguren agertzen dira. Azken hau, Iñaki Mendiguren, itzulpen egokitzapenaren egile gisa ere agertzen da.

1989-1990 urtealdian orobat, Izar argitaletxeak **"Dilindan ipuin bilduma"** plazaratu zuen. Maria Jose Solas-ek idatzitako 16 liburuska dira, paper azalezkoak eta formato karratu txikikoak. Bertan, testua eta irudia txandakatuta daude ale bakoitzaren 16 orrialdeetan zehar. Hizki biribilez idatzita daude, eta istorio xumeen bidez fonemak lantzea dute helburu: *Amaia* (m), *Tutua* (m, t), *Oihuak* (m, t, k), *Behiaketa* (m, t, k, b), eta abar Itzultzailearen izenik ez da agertzen.

Elkar argitaletxeak **Babar** pertsonaiaren inguruko 6 titulu plazaratu zituen 1990ean, formato txikian eta orrialde gogorretan aurkeztuak, hasierako irakurleei zuzenduta. Liburuak, seina orrialdekoak eta hizki biribilez idatzita, honako hauek dira: *Babar bazkaltzen*, *Babar oporretan*, *Babar jazten*, *Jardinean Babar*, *Gau*

on pasa Babar eta *Babar eskolan*. Itzultzailearen berririk ez da agertzen.

1990ean Hemma argitaletxeak **"Ireki saila"** plazaratu zuen: "pop-up" moduko azal gogorreko 3 liburu: *Hansel eta Gretel*, *Katu Botaduna*, *Edurne eta Zazpi Ipotxak*. Itzultzailearen izenik ez da eskaintzen.

Urte berean, Susaeta argitaletxeak **"Zure ametsak"** izeneko bilduma plazaratu zuen, 6 tituluren bidez, paper azalezko formato handiko liburuak dira, itzultzailearen izenik gabeak: *Edurne Zuri eta zazpi epotxak*, *Hiru txerrikumeak*, *Oihaneko liburua*, *Peter Pan*, *Pinotxo* eta *Banbi*. Liburuek 16na orrialde dituzte, eta Disney itxurako marrazki koloretsuak.

Izar argitaletxeak, **"Nire mundu miragarria"**, izenaren pean, Celia López Sainz-en paper-azalezko eta formatu karratu txikiko 11 liburuska plazaratu zituen 1991n. Eskuz idatzita daude, eta oso testu gutxi daukate. Itzultzailea Xabier Kintana izan zen.

Susaeta argitaletxeak **"Igela eta ahatea"** saila argitaratu zuen 1991n: azal gogorreko eta formato karratuko 6 liburu dira. Irakurtzen hasteko proposamenak dira, eta daukaten testu urria Iñaki Mendigurenek euskaratu zuen: *Lagun onak*, *Tximeleta-erreginarekin*, *Aztiarekin*, *Ortzadarraren haranean*, *Zirkoan* eta *Kristalezko hirian*.

Argitaletxe berberak, Susaetak, **"Amonaren ipuinak"** 6 liburuko bilduma plazaratu zuen 1991n, egile eta itzultzaileen aipamenik gabe. Liburuak 16na orrialdekoak dira, formato txikian:

Betitxi iratxoa, *Mokoluze oiloa*, *Pinta behia*, *Txakur futbolaria*, *Txirrita kilkirra* eta *Txitxirioren abenturak*.

Edelvives-ek **"Artzatarrak familia"** izenarekin 5 liburuska argitaratu zituen 1991n, formato txikian eta Tamara Danblom-ek idatziak: *Arrantzan*, *Arrebartzaren aukera*, *Elurra zuria zen*, *Hartzaren altxorra*, *Hartzaren gutuna* eta *Non da gure nanohartza?* Guztien itzultzailea Jose Antonio Sarasola izan zen.

Elkar argitaletxeak, 1991 eta 1992 bitartean **"Dortokaren liburuak"** plazaratu zuen: azal gogorreko eta formato karratuko 10 liburu, eskuz idatziak eta oso testu gutxirekin. Kataluniako La Galera-rekin egindako hitzarmen baten ondorio izan ziren, eta ez dute itzultzailearen izenik aitortzen.

Urtealdi berean, Desclée de Brouwer argitaletxeak **"Mugi-liburua"** saila argitaratu zuen, irudi mugikorreko 8 liburuen bilduma. Azal gogorreko eta 10na orrialdeko liburu hauek Disney-ren irudiez osaturik daude. Testu laburrak hizki biribilez idatzita daude. Torrealdairen arabera, itzultzailea Miren Billelabeitia da, baina liburuetan ez dago horren aipamenik. Izenburuak hauek dira: *Banbi basoan*, *Pinotxo barraketan*, *Donald baserrian*, *Mickey zirkuan*, *Itxaslamia*, *Ohineko* (sic) *liburua*, *Peter Pan* eta *Ederra eta Piztia*.

Gero-Mensajero argitaletxeak **"Kimutxo"** saila argitaratu zuen 1991 eta 1995 bitartean. Guztira, 21 titulu dira, eta horietatik 18 itzulpenak. Paper azalezko eta formato txikiko liburu karratuak dira, 40 orrialde ingurukoak. Itzultzailearen izena kredituekin batera agertzen da.

Edukiaren aldetik, denetarik dago: R. Kipling eta L. M. Alcott-en testuetatik gaur eguneko egileen testuetara, Orixeren *Lehoikumea*ren edizio berritik eta Webster-en euskal ipuinetatik pasatuz. Itzulitako testuen jatorrizko izenburuen berririk, ordea, ez da eskaintzen. Sailaren zuzendaria Seve Calleja da.

1991 eta 1994 bitartean, Ttarttalo argitaletxeak **"Folklore Saila"** plazaratu zuen. Azal gogorreko eta formato handiko 5 albumek osatzen dute bilduma hori. Jatorrizko testuak, katalanezkoak, Teresa Sabaté i Rodié-k idatzi zituen, eta marrazkiak Rita Culla i Perarnau-renak dira. Liburuak hauek dira: *Badatoz Gabonak*, *Urteko hilabeteak*, *Lanbideetara jolasten*, *Ezetz igarri!* eta *Goazen merkatura!* Gai horien inguruan, eta marrazki handiek ilustraturik, orrialde batean istorioari dagokion testua dago eta, bestean, gaiari buruzko esaera eta atsotitzak. Horrek eskatzen zuen moldaketa lana Itziar Olaberriak eta Joxantonio Ormazabalek egin zuten.

Ttarttalo euskal argitaletxea Timun Mas argitaletxe kataluniarrarekin batera **"Kotoizko hodeia"** izeneko saila argitaratzen hasi zen 1991n. Ikerketa honen jomugatzat jarri dugun urtea arte, 1995 arte alegia, 23 titulu zeuden argitaratuta.

Paper-azalez aurkeztuta, eta 24na orrialdekoak gutxi gora-behera, gehienbat eremu anglosaxoitik euskaratutako istorioak kontatzen dituzte, eta, azken orrialdeetan "ohar didaktikoak" ematen dituzte, umeekin jolasteko zein beraiekin batera gogoeta egiteko.

Azalean agertzen diren datuak izenburua, egilea, marrazkigilea, saila eta argitaletxea dira. Barruko krediuetan, berriz, jatorrizko titulua eta itzultzailearen izena ere eskaintzen dira. Hiru itzultzaile aritu dira sail honetan: Itziar Olaberria, 13 titulu euskaratu dituena; Patxi Elizegi (Xabier Mendiguren Elizegi), 8 tituluren itzultzailea; eta Joxantonio Ormazabal, 2 titulurekin.

Ttartalo argitaletxeak **"Nor dago leihoan?"** saila argitaratu zuen 1992an: trokelatutako lau liburuska, denak Gerald Hawksley-k sinatuak: *Zooa*, *Kamioiak*, *Jostailuak* eta *Baserria*. Hizki biribilez idatzita daude, eta itzultzailearen aipamenik ez dago.

Berriz ere Ttarttalok **"Asierren egunak"** izeneko bilduma argitaratu zuen 1993an. Azal gogorreko eta formato karratuko 4 liburu dira, denak Véronique Chéneau-k idatzi eta ilustratuak, eta haur txiki bati buruzkoak: *Lehengusina sorgina*, *Ez dut lo egingo neure hartzarekin ez bada*, *Neuk egingo dut dena* eta *Nere jertseko ardia*. Itzultzailearen izenik ez da agertzen.

Ttarttalo argitaletxearekin jarraituz, 1993tik aurrera **"Nere klasikorik maiteenak"** saila argitaratzen hasi zen. 1995ean 20 titulura iritsi ziren, eta guztien itzultzailea Patxi Elizegi izan zen (ikus IV.2.2). Liburuak formato handian eta azal gogorreko edizioan aurkeztuta daude, eta, azken hiru mendeetako obra klasikoen bertsioekin batera, Europako eta ekialdeko ipuin tradizionalak kontatzen dituzte. Hona hemen 20 tituluak: *Mari Errauskin*, *Barbantxo*, *Ederra eta Piztia*, *Gulliverren bidaiak*, *Edurne Zuri*, *Hansel eta Gretel*, *Aladino eta kriseilu miragarria*, *Oihaneko liburua*, *Peter Pan*, *Basoko Loti Ederra*, *Pinotxo*, *Sirenatxoa*, *Hiru txerrikumeak*, *Robin Hood*, *Sinbad Marinela*, *Merlin Magoa*, *Hamelingo txirularia*, *Jostun txiki ausarta*, *Txanogorritxo* eta *Katu botaduna*.

Zerrendak erakusten duen bezala, aurreko urtealdian itzulitako obra asko errepikatzen dira (nahiz eta hauek bertsio berriak izan). Bestalde, jatorrizko testuen egileak ez dira agertzen.

1993an S.M. argitaletxeak lehen irakurleentzako sei liburuska plazaratu zituen **"Piratak"** izenaren pean. Hizki biribilez idatzita daude eta marrazki koloretsuez lagunduta. Jatorrizko egileak inglesak, frantsesak eta espainiarrak dira, eta guztien euskaratzailea Jon Suarez Barrutia izan zen. Hona hemen tituluak:

CORTES, Jose Luis. *Ipurditxo bihurritxo*.
CARRANZA, Maite. *Margarita Ganorabako*.
WELLS, Rosemary. *Maxen kamiseta*.
KOECHLIN, Lionel. *Grigi tartagile.*
CORDOVA, Isabel. *Ada ez da inoiz beldurtzen*.
VELTHUIJS, Max. *Krokodrilo* (sic) *margolaria*.

Desclée de Brouwer argitaletxeak **"Peio untxiaren liburuak"** plazaratu zituen 1993 eta 1995 bitartean. Jakina denez, mende hasieran Beatrix Potter-ek idatzi eta ilustraturiko formato txikiko liburuak dira. Guztira, 18 titulu dira, azal gogorretan aurkeztuta. Guztien itzultzaileak Idoia Gillenea eta Garbiñe Legorburu izan ziren.

"Animalien ipuinak" eta **"Animalien abenturak"** Ttarttalo argitaletxeak 1994an eduki berarekin ateratako bi sail dira. Lehenengoan, 4na ipuin biltzen duten 2 liburu dira; bigarrenea, 2na ipuin biltzen duten 4 liburu. Bietan, azal gogorretan aurkeztuta daude, eta hizki biribilez idatziak, zenbait animaliari buruzkoak. Itzultzailearen izenik ez da agertzen, baina Torrealdairen arabera itzulpenak Patxi Elizegirenak dira.

Urte berean, 1994an, Ttarttalok **"Alegien mundua"** plazaratu zuen: alegia bana biltzen zuten sei liburu trokelatuak eta paper-azalez aurkeztuak: *Astoa eta idia*, *Artzain gezurtia*, *Oreina eta ehiztaria*, *Lehoia eta basurdea*, *Dortoka eta erbia* eta *Azeria eta otsoa*. Hizki biribilez idatzita daude eta azalean izena besterik ez

dute agertzen. Hemen ere ez dago itzultzailearen izena, baina Torrealdairen arabera, kasu honetan ere Patxi Elizegi da.

Ibaizabal argitaletxeak **"Ortzi eta Kukuma Bilduma"** argitaratu zuen 1994an. Formato karratuko paper-azalezko 8 liburu dira. Seve Callejak idatzi eta Jon Lopategik euskal bertsotan moldatutakoak dira. Ortzi eta Kukuma historiaurrean bizi diren bi ume dira, eta beroriek bizitako abenturak kontatzen dira, bertsoen bidez. Hona hemen tituluak: *Bolon-bolon*, *Hau hotza!*, *Hartz bihurria*, *Eta Karlota?*, *Esploradorea*, *Izotzen Herrian*, *Atxia Motxia* eta *Hondartzan*.

Argitaletxe berberak, Ibaizabalek, **"Zorionak Bilduma"** argitaratu zuen 1994 eta 1995 urteetan. Formato handiko paper-azalezko 8 liburu karratu dira. Horietatik 4 itzulpenak dira:

X.X. *Ipuin unibertsalak*. Itzul.: Antxiñe Mendizabal.
E. Pérez Díaz. *Zirkuko itzalak*. Itzul.: J.A. Berriotxoa.
Seve Calleja. *Basoan*. Itzul.: J.A. Sarasola.
J.R. Sáenz Uranga. *Bibliako istorioak*. Itzul.: J.A. Berriotxoa.

1994an, berriz ere Ibaizabalek **"Zure sentimenduak"** izeneko bilduma argitaratu zuen: formato karratuko azal gogorreko 4 liburu. Brian Moses eta Mike Gordon dira, hurrenez hurren, testu eta ilustrazioen egileak. J. A. Sarasola izan zen batuerazko bertsioaren itzultzailea, eta Jabi Artaraz bizkaierazkoaren itzultzailea. Sailaren izenak adierazten duen bezala, ume txikiengan ohikoak diren sentimenduak azaltzea dute helburu. Tituluak honakoak dira: *Haserre nago*, *Izuturik nago*, *Inbidiatan nago* eta *Triste nago*.

1995ean Izar argitaletxeak umeek margotzeko paper-azalezko 6 ipuin trokelatu plazaratu zituen, **"Pintatu zeure ipuina"** bilduman:

Pinotxo, *Mari Errauskin*, *Katu botaduna*, *Oihaneko printzesa lotia*, *Erpurutxo* eta *Txano Gorritxo*. Itzultzailearen izenik gabe.

Ibaizabal argitaletxea **"Ingelesez irakurtzen dut"** bilduma plazaratzen hasi zen 1995ean. Azal gogorretako liburu elebidunak dira, ipuin xumeen bidez ingelesa ikasteko pentsatutakoak. Urte horretan bi titulu atera ziren: *Gabon denoi* eta *Ni handiegia naiz*, biak Eukene Herrerak euskaratuak. Barrualdean marrazki handiak eta esaldi laburrak dituzte, goialdean ingelesezkoak eta behealdean euskarazkoak.

Komikiak

Hergé-k sortutako **Tintin** pertsonaiaren inguruko komiki sortaren bigarren urtealdia 1984 eta 1993 bitartean argitaratu zen (gogoratu aurreko urtealdian hiru titulu argitaratu zirela). Tarte horretan 23 titulu plazaratu ziren Elkar argitaletxean, zazpi itzultzaileren bitartez. Tintinen komiki gehien euskaratutakoa Joxemari Azurmendi izan da, 17 titulurekin; ondoren, Joxantonio Ormazabal eta Patxi Apalategi, bina titulurekin; eta, azkenik, Luis Mendiaraz eta Xabier Aranbururen artean, eta Joxeantonio Ormazabal eta Imanol Tapiaren artean itzulitako titulu bana daude. Ediziook jatorrizkoen itxura berbera gordetzen dute.

Beste komiki-sail handia **Asterix** ezagunarena da. Bi alditan argitaratua berau. 1976 eta 1978 bitartean 8 titulu argitaratu ziren Mas-Ivars argitaletxean, Iñaki Beobideren banaketa medio, eta itzultzailearen izenik gabekoak: *Asterix eta Kleopatra*, *Asterix lejionarioa*, *Buruzagien burruka*, *Asterix eta Normandoak*, *Asterix Helvetian*, *Asterix galesa*, *Asterix eta urrezko igitaia* eta *Asterix eta godoak*.

Bigarren aldi batean, 1986tik 1994ra, Elkar argitaletxean oraingoan, 30 titulu plazaratu ziren (aurreko zortzien itzulpen berriak barne). Guztien itzultzailea Joxemari Azurmendi izan zen. Hogeita hamar horietatik, Goscinny-k 24ren gidoia egin zuen, eta Uderzo-k 6rena. Marrazki guztiak, berriz, Uderzo-renak dira.

Kriselu argitaletxe donostiarrak **"Literatura ikusgarria"** komiki saila plazaratu zuen 1987tik 1991ra bitartean, Chiqui de la Fuente-ren marrazkiekin. Guztira 26 liburu dira, azal gogorrekoak eta formato handikoak. Hona hemen zerrenda:

1. Robin Hood.
2. Moby Dick.
3. Robinson Crusoe.
4. Ivanhoe.
5. Aladino.
6. Purgarzito.
7. Lurraren erdirainoko bidaia.
8. Pinotxo.
9. Gilen Tell.
10. Hiru mosketariak.
11. Oliver Twist.
12. Gezi beltza.
13. Tom Sawyerren abenturak.
14. Hamelingo xirularia.
15. Gulliverren bidaiak.
16. Altxorraren uhartea.
17. Huckleberry Finn.
18. Ali-Baba eta berrogei lapurrak.
19. Munchausengo baroia.
20. Sinbad marinela.
21. Gabon kanta.
22. Tormesko itsumutila.
23. Mantxako Don Quijote (I).
24. Mantxako Don Quijote (II).
25. Alizia herrialde harrigarrian.
26. 20.000 legoako bidaia ur azpitik.

Laugarren zenbakia arte ez da itzultzailearen izenik agertzen; 4, 5, 7, 8 eta 9 zenbakietan Migel Anjel Unanua Garmendia agertzen da egokitzaile gisa; gainontzeko guztietan Joseba Andoni Berriotxoa Alberdi agertzen da egokitzaile bezala, eta azkeneko lauetan euskara arduradun gisa.

Ttarttalo argitaletxeak **"Klasikoak"** izenaren pean *Robin Hood* izeneko komikia plazaratu zuen 1991n. Formato handikoa da eta paper gogorreko 16 orrialde dauzka. Itzulpena Ana Olaberriarena da.

V.3.2. Urtealdi honetako itzulpenen funtzio eta eraginak.

Hurbilen dugun urtealdi honetan euskal polisistema nolakoa den esatea arriskugarri samarra da. Alde batetik, jarri dugun urtemuga, 1995, ausazko eta subjetiboa da, ikerketari hasiera eman genionean eskura genituen datu orokorrak ordua artekoak zirelako. Beste aldetik, azken urteotako ekoizpen literarioaz burutu diren ikerketak, garrantzitsuak izanik ere, mugatuak eta behin-behinekoak dira, literatur fenomenoak aztertzeko beharrezkoa ohi den perspektiba falta dela eta.

Hori hala izanda ere, nolabaiteko adostasuna lortu duten zenbait datu eman daitezke. Esaterako, hizkuntzaren batasunaz geroz inoiz iritsi bada literatur heldutasunera, azken urtealdi honetan izan da, hizkuntzak babes juridikoa eta legala jaso ondoren (Euskal Autonomi Erkidegoan soilik): 1980an Eusko Jaurlaritza eratu ostean, 1982ko urrian ezarri zen euskara hezkuntza sistemara zabaltzeko bidea, A, B eta D ereduen arabera; urte bereko azaroan Elebitasun Dekretua argitaratu zen, euskararen ofizialtasun juridikoa bermatuz; eta urte horren azken egunean ETBk bere lehen emanaldia egin zuen, euskaraz egin ere. Euskalduntzearen aldetik ere, heldutasunera iritsi dela esan daiteke: helduen alfabetatze eta euskalduntze lanetan aritutako AEK 1976an hasi zen lanean; ondoren, 1981ean, Eusko Jaurlaritzak sortutako HABE eta IRALE ere euskararen normalkuntza prozesua errealitate bihurtzen lagundu zuten, Euskaltzaindiaren lan arauemailea ahaztu gabe: EGLU, Orotariko Euskal Hiztegia, eta beste. Aldizkari eta egunkarigintza, euskal argitaletxeen gorakada, Euskal Idazleen Elkartearen (EIE), eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen (EIZIE) sorrerak, Eusko Jaurlaritzaren Literatur Sorkuntzarako Bekak, instituzio askoren literatur sariketak, eta aipatu gabe utzi ditugun beste hainbat elementu izan dira egoera itxaropentsu honetara iristen lagundu duten beste hainbeste. Hitz batean, gaur egun eskura dauzkagun baliabideak inoiz amestutakoak baino ugariagoak eta kalitate handiagokoak dira. Azkenean, V.3 atal honen hasieran aipatu ditugun Torrealdairen hitzetara itzuli behar

dugu: halabeharrez bada ere, aztergai dugun hirugarren urtealdi honek ziklo oso bat ixten du:

> Propioki ziklo gisa hartzen dut epealdi hau [1976-1996]. Urte bat edo beste gorabehera uste dut euskal kulturgintzan aldi bat bukatzear dagoela eta bestelako jarduera batzuk indartuko direla. Ez dakit zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen. Zer-nolakoak izango diren ere ez dakit, hori jakiteko perspektiba falta zaigu eta, baina zantzu batzuk industria kulturalen aldetik eta multimediaren aldetik ikusten ditut (Torrealdai, op. cit., 159).

Literaturaren arlora mugatuz, badirudi urtealdi honen ezaugarri nagusia literatur sorkuntzaren autonomia bilatzea izan dela. Hala izanik, 70eko hamarkadaren azken urteetan *Ustela* aldizkarian lehenbizi, eta geroago *Pott* izenekoan lanean aritutako idazle multzoari "autonomiaren belaunaldia" deitu izan zaio, hain zuzen ere politikagintzatik, euskalgintzatik, eta garaiko herri-mugimenduetatik independientea izan nahi zuen literatura egiten ahalegindu zirelako. Aurreko belaunaldian, egoerak hartaratuta, gurutzatu egiten ziren zeregin politikoak eta kulturalak eta, azken hauen barruan, hizkuntzari buruzkoak eta literarioak; hitz batean, literatura idaztea militantzia mota bat zen: diktaduraren aurka, Euskal Herriaren alde, eta abar. Oraingoan, berriz, zereginak gero eta zehaztuago eta banatuago daude, eta bakoitzak bereari ekin diezaioke. Hitz hauekin adierazten du egoera berria Ur Apalategik:

> Beranduago, ondorengo Trantsizio urte sargoritsuetako testuetan, zehaztuko dute belaunkideek zein diren idazki bat literatur obra izatea galarazten duten irizpideak. Gauzak garbi eta bihurgunerik gabe esateko, bi dira, nagusiki, irizpideok, biak ere oso lotuta garaiko testu-inguru soziologikoari. Lehenik, ez da literaturan sartzen hizkuntzaren normalkuntza, hobekuntza, zaintza, hornikuntza edo horrelakoak helburutzat edo zio eragiletzat lituzkeen idazkia. Bigarrenik, ez da literaturan sartzen Euskal Herriaren eraikuntza nazionala nola edo hala laguntzeko asmotik eratorritako idazketa-ekintza militantetik jalgitako idazkia. Nork berea, politikariek politika eta idazle izena merezi dutenek literatura, beste hitz batzuetan: "hautsi da ANPHORA" (Apalategi, 1998:64).

Gainera, eta honetan datza esandakoaren garrantzia, “autonomiaren belaunaldi” hori, Apalategik aurrerago dioen bezala (ibid., 66), hegemonikoa bihurtu da, hau da, euskal literaturaren polisistemako gunea betetzen ari dira azken bi hamarkada hauetan. Belaunaldi horretako kide garrantzitsuenak, besteak beste, Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandia dira.

Nork bere arloan, pisuzko berritasunak ekarri dituzte euskal literaturaren esparrura. Nobelagintzan, esaterako, “generoaren azken muturreraino bortxatu zituzten euskal nobelaren egiturak” (Aldekoa, 1998:30); horren adibide dira Saizarbitoriaren *100 Metro* eta *Ene Jesus* , Koldo Izagirreren *Zergatik bai* , edo Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* , denak 1976an argitaratuak. Poesiaren eremuan, berriz, Koldo Izagirreren *Guardasola ahantzia* (1978), Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978) edo Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrena* (1980).

Talde berekoak ez izan arren, baina polisistemaren gunean kokatuta orobat, urtealdi honen hasieran behintzat, Arantxa Urretabizkaia (*Zergatik Panpox* , 1979) eta Joxe Austin Arrieta (*Abuztuaren 15eko bazkalondoa* , 1979) ditugu, nahiz eta azken urteotan obra horien mailako ezer ez duten argitaratu.

Etengabe argitaratzeari utzi ez dioten beste bi nobelagile garrantzitsu Anjel Lertxundi (*Aise eman zenidan eskua*, 1980; *Hamaseigarrenean aidanez*, 1983; *Carla*, 1990; *Kapitain Frakasa*, 1993; *Otto Pette*, 1994; *Azkenaz beste*, 1996) eta Joan Mari Irigoien (*Poliedroaren hostoak*, 1982; *Udazkenaren balkoitik*, 1987; *Babilonia*, 1989; *Consumatum est*, 1993) dira.

Eta urtealdi honetako bigarren hamarkadan (1985etik aurrera, gutxi gora behera) argitaratzen hasi direnen artean, azkenik, Pako Aristi (*Kcappo*, 1985; *Irene*, 1987; *Krisalida*, 1990), Juan Luis Zabala (*Zigarrokin ziztrin baten azken keak*, 1985; *Kaka esplikatzen*, 1989), Pello Lizarralde (*E pericoloso sporgersi*, 1984; *Hatza mapa gainean*, 1988; *Sargori*, 1994) eta Aingeru Epaltza

(*Sasiak begiak baditik*, 1986; *Ur uherrak*, 1993; *Tigrea ehizan*, 1997) dira aipagarrienak.

Beste alde batetik, 80ko hamarkadan ipuingintzaren nagusitasun erabatekoa gertatu bazen ere (Sarrionandiaren *Narrazioak*, 1983 eta *Atabala eta euria*, 1986; Josemari Iturralderen *Dudular*, 1983 eta *Pic-nic zuen arbasoekin*, 1985; Laura Mintegiren *Ilusioaren ordaina*, 1983; Mikel Hz. Abaituaren *Ispiluak*, 1983 eta *Panpinen erreinua*, 1985; Inazio Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan*, 1987; Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, 1988; beste askoren artean), badirudi hurrengo hamarkadan, 90ekoan, nobelagintza dela generorik landuena, goragoko adibideetan ikus daitekeen legez. Egoera horri azalpen bat bilatzekotan, Iñaki Aldekoak hauxe dio:

> Inguruko beste literaturetan gertatzen ari den fenomeno berbera dugu hemen ere: garai batean ipuingintzaren eta poesiagintzaren esparruak landutako idazle asko eta asko nobelagintzara igaro dira 90eko urteetan (Aldekoa, op. cit., 53).

Gure iritziz, hala ere, eta polisistemaren guneari dagokionez, lehendik ere nobelagintzan aritutako idazle batzuek heldutasunera iritsi dira hamarkada honetan, eta "instituzioaren" oniritzia jaso dute. Bestalde, ipuingile eta poetek (izan ere, eta paradojikoa badirudi ere, ipuingintza hurbilago dago poesiatik nobelatik baino) beren lanari eutsi diote, eta gehienez ere nobelarik ez baizik eta "romance" batzuk argitaratu dituzte (Atxagaren *Bi anai*, Juan Garzia Garmendiaren *Fadoa Coimbran*, kasurako).

HGLren eremura etorriz, hirugarren urtealdi hau izan da literatura honen erabateko sendotzea eta normaltzea ekarri dituena. Egoera hori posible egin duten faktoreak, jadanik esan dugun moduan, 80ko hamarkadaren hasieratik euskarazko irakaskuntzak hartu zuen bultzada, eta horri egoki erantzuteko Elkar eta Erein argitaletxeek hartutako lan eskerga izan ziren. Arlo honetan inflexio-puntua markatu zuten obrak hiru izan ziren, 80ko hamarkadaren hasieran: Anjel Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko*

makina (1981), Rodariren proposamenak euskal mundura ekarri zituen lehen liburua; Bernardo Atxagaren *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982), umorea eta fantasia eta errealitatearen nahasketaren ekarria; eta Mariasun Landaren *Txan fantasma* (1984), errealismo fantastikoa gurean inauguratu zuen liburua. Xabier Etxanizen arabera, belaunaldi berri honek hizkera literarioari eta gaurkotasunezko gaiei ematen die lehentasuna bere obretan (Etxaniz, argit. gabe:16).

Aipatutako egile eta obra horien ostean titulu asko etorriko ziren, bi milatik gora, jatorrizko obrak eta itzulpenak kontuan hartuta. Urtealdi honetako haur eta gazte literatur polisistema barruko indar erlazioak deskribatzeko alderdi desberdin batzuk hartu behar dira kontuan.

Alde batetik, kritikari eta lehiaketen emaitzei (eta baita salmentei ere) begiratuta, bertako idazleek idatzitakoen artean garbi esan daiteke HGLrik baloratuena errealismo kritiko-fantastikoan kokatzen dena dela, hau da, Mariasun Landa eta Patxi Zubizarreta idazle nabarmenen gisa dituen korrontea (nahiz eta beste asko dauden: Felipe Juaristi, Xabier Mendiguren, Bernardo Atxaga bera, eta abar). Joera horrekin batera, eta guztiz minoritarioa izan arren, poesiagintza ere talde berean sartu beharko genuke, bereziki Juan Kruz Igerabidek idatzitakoa. Multzo honi guztiari literatura kanonikoa deituko genioke, eta HGLren polistemaren gunean kokatuta dago gaur egun.

Beste aldetik, haur literatura “herrikoia” edo “kontsumokoa” ere oso arrakastatsua da irakurleen harreraren aldetik. Horren barruan sartuko genituzte baserri giroko umorezko liburuak (berriro ere *Abarrak*, *Pernando Amezketarra*, *Purra! Purra!*, *Pernando Plaentziarra*, eta beste, 80ko hamarkadan euskara batuaz berrargitaratuak); ipuin tradizionalak (bertakoak zein unibertsalak); seriaturiko obrak (Flannery eta bere astakiloak, Martinello, Madame Kontxesi, eta abar). Obra hauek guztiak polisistemaren gunetik hurbil daude.

Hirugarrenik, bazterreko generoak, hala nola poesia ez-kanonikoa, bertsoak, antzerkia, liburu ilustratuak eta komikiak, bai kantitatez urriak direlako, bai irakurlegoa gehiegi erakartzen ez dutelako, polisistemaren periferian kokatuta daude.

Itzulitako HGLri dagokionez, oro har, jatorrizkoa baino bazterrekoagoa delakoan gaude, urtealdi honetako lehenengo hamar urteetan bederen. Badirudi arrazoiak "instituzioak" itzulpenekiko duen mesfidantzan bilatu behar direla. Horren frogagarri dira esaterako, Erein argitaletxearen "Auskalo" sailean itzulpenik sartu nahi ez izatea: sail hori Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko makina* liburuarekin abiatu zen 1981ean, eta 1988 bitartean argitaratu zituen itzulpen urriak aitortu gabe daude (aurkeztuta dagoen bezala, bi egile direla ematen du —Seve Calleja-Jon Kortazar, Esteve Casaponce-Juan Garzia...—). Urte beretsuetan Elkar argitaletxearen "Txanpa" sailean argitaratutako itzulpen bat ez dago aitortuta: *Dado iratxoa* (1986) liburuan S. Calleja eta X. Monasterio agertzen dira egile bezala, baina egilea lehena da, eta bigarrena itzultzailea (obra horrek, gainera, aurreko urteko Lizardi Saria merezi izan zuen). Itzulpenekiko mesfidantza irakasleen artean ere aurki daiteke: jatorrizko obrak baino "zailagoak" zirelako ustea ere zabaldu zen bide horretatik; M. Olaziregik 1990ean ertainetako ikastetxe batzuetan egindako inkesta baten arabera, udako irakurgaietatik %11 bakarrik ziren itzulpenak. Jarrera hori harrigarria gertatzen zaio ikerlariari, areago urte horretako HGLko itzulpenak HGL osoaren %65,7koa izan zela kontuan hartuta, eta horren arrazoiak ikastetxeetan duten informazio faltan aurkitu nahi du, gomendatutako itzulpenak zaharkituxe baitzeuden (Olaziregi, 1998:93).

Egoera hori ez zen Euskal Herrikoa soilik; Ana Díaz-Plaja-k, haur literaturaren didaktikari buruzko artikulu batean errezeloak erakusten ditu itzulpenei buruz:

> Los autores que escriben originalmente en su propia lengua no ofrecen ningún problema y pueden ser tratados en sus respectivos ámbitos de enseñanza. El punto conflictivo lo representan los autores traducidos. ¿Cómo podemos saber si el traductor ha respetado los matices de

> la lengua de origen?. ¿Y qué garantías nos ofrece el traductor de haber recreado el texto a un buen nivel lingüístico? (Díaz-Plaja, 1988:25).

Mesfidantzaren arrastoari jarraitu diogu editore eta irakasleen artean. Baina idazleen artean ere bazegoen; Bernardo Atxagak 1984an egindako adierazpen hauek aipatzen ditu Torrealdaik:

> Euskal Herrian gaur gertatzen den fenomeno berria zera da, itzulpen-kopurua ikaragarri puztu dela eta hau, berez, euskaraz sortzen denari nagusitzen baldin bazaio, desoreka izan daiteke, arriskutsua oso. Euskara bera geroz eta opakoagoa bihurtzea (Torrealdai, op. cit.:210).

Hamar urte geroago, Xabier Mendiguren Elizegi idazle-editoreak hauxe esan zuen 80eko hamarkadan argitaratutako haur itzulpenez:

> Gehiegi ere ez ote den esango nuke, nahiz eta gure asmoa ez izan balorazioak egitea. Zergatik gehiegi? Itzulpen horietako asko txarrak eta akatsez josiak izaten direlako, eta ia beti espainoletik eginak, gure hizkuntz eta kultur kolonizazioa areagotuz (AA. AA., 1994:58).

Hala eta guztiz ere, itzulitako literaturako titulu batzuek salmenta maila handia erakusten dute. Gehien saldutako itzulpenak "kontsumokoak" dira: Goscinny-ren *Nikolas Txiki* (9 edizio), *Nikolas Txikiren errekreoak* eta *Nikolas Txikiren oporrak* (5na edizio); hurrengo liburu salduena detektibe giroko/jolas liburu bat da: Hans Jürgen Press-en *Eskubeltz taldearen abenturak* (7 edizio), ziurraski euskal panoramara ekarritako berrikuntza formalengatik (testuaren eta irudien arteko harremanengatik, hain zuzen ere); hurrengo obra salduenak kanonikotasunaren barruan kokatzen dira: lehena errealismo kritikoan: Peter Härtling-en *Amona* (6 edizio); eta hurrengoa mende honetako "klasiko" bat da: George Orwell-en *Abereen etxaldea* (5 edizio). Aipatzekoa da liburu hauek guztiak Elkar argitaletxeko "Itzul" sailean argitaratu zirela.

Azkenik, helduen literatur polisistemarekiko harremanak aipatu behar ditugu. Argi dago helduen literatura kanonikoa dela baloratuena euskal literatur polisisteman; hala ere, haur eta gazte literatur polisistema ere gunetik oso hurbil dago goian aipatutako

arrazoiengatik: irakaskuntza sistemako ezinbesteko osagarria delako, eta haurrei eta askotan helduei gustagarriak zaizkien kalitatezko obrak ekoizten dituelako. “Gunetasun” horretan alde daukan beste faktore bat sistemarik “normalizatuena” izatea da: azken urtealdi honetan lortu du, jatorrizko produkzio duinarekin batera, mundu zabaleko klasikoen presentzia, eta nazioarteko nobedaderik inportanteenak epe laburrean euskaratzea.

Hirugarren urtealdi honetako itzulpenen funtzioen azterketara pasatuz, funtzio horiek, gure ustez, bi zentzu izan dituzte. Alde batetik, eguneratzea: aurreko aldian hasitako klasikoen berreskurapena dago, era anarkiko samarrean, batez ere “Tximista”, “Itzul” eta “Kimu” sailetan, urtealdi honetako hasierako urteetan. Ia ezer ez zegoenez, eskura zegoen guztia euskaratu zuten, egile eskubiderik ez zuten obretatik hasita: “Tximista” sailean, Twain, London, Stevenson, Salgari, Stowe, Carroll...; “Kimu” sailean, Verne, Melville, London, Kipling, Barrie...; eta “Itzul” sailean, Verne, Twain, Kipling, Salgari, Stevenson, London, Collodi... Ikusten den legez, egile klasiko horiek bikoiztuta eta hirukoiztuta agertzen dira; gauza bera gertatu zen hainbat titulurekin: *Osaba Tom-en txabola* (“Tximista”, 1980) / *Osaba Tom-en etxola* (“Itzul”, 1980); *Till Eulenspiegel* (“Tximista”, 1981) / *Till Eulenspiegel* (“Itzul”, 1981); *Robin Hood* (“Tximista”, 1981) / *Robin Hood* (“Itzul”, 1981); *Abereeneko iraultza* (“Tximista”, 1981) / *Abereen etxaldea* (“Itzul, 1982); *Hamabost urteko kapitaina* (“Tximista”, 1981) / *Hamabost urteko kapitaina* (“Itzul”, 1981); *Printzea eta eskalea* (“Txalupa”, 1981) / *Printzea eta eskalea* (“Itzul”, 1981).

Beraz, ia dena egin gabe zegoenean, urrezko denbora eta ahalegina galdu zen horrelako bikoizketa antzuen bidez.

Klasikoen berreskurapen horri lotuta, eta aurreko urtealdietan gertatu zen bezala, herri ipuinak ere berreskuratu nahi ziren, bereziki Perrault, Grimm eta Andersen-en ipuinen era askotako bertsioak, gehienbat ume txikientzako moldaketak. Polisistemaren egoera garbi bat izateko, esan behar da herri ipuin horien bertsio

osoak azken urteotan egiten ari direla: *Perraulten ipuinak* (Pamiela, 1993), Andersenen *Hemeretzi ipuin* (Ibaizabal, 1997), *Grimm anaien ipuinak* (Pamiela, 1999).

Urtealdi honetako itzulpenen bigarren funtzioa polisistema modernizatzea da, azken hamarkadetan nazioartean nagusitu diren korronteen berri izatea. Lan horretan "Itzul" saila izan zen aitzindaria, eta urtealdi honen azkenaldean ia argitaletxe gehienak ari dira betetzen. Horrela, II. Mundu Gerraren ondorioz nagusitu zen "errealismo kritikoko" partaide izan ziren Maria Gripe, Peter Härtling, Otfried Preussler edo Reiner Zimnik-en obren itzulpenak argitaratzen hasi ziren "Itzul"-en; gauza bera gertatu zen 70eko berrikuntza psikologiko eta pedagokikoen ondorioz itzuli zen fantasia berriarekin: "Itzul" sailean Gianni Rodari-ren zazpi titulu zeuden. Bestalde, Kataluniako zenbait argitaletxerekin ezarritako lankidetza sistemari esker, kataluniar idazle garaikide askoren berri izan ahal izan genuen aipatu sailean: Joles Sennell, Gabriel Janer Manila, Josep Vallverdú, Joaquim Carbó, Mercè Canela...

Pixkanaka, nazioarteko idazle garrantzitsuenen obrak euskaratuz joan ziren: Christine Nöstlinger-enak Alfaguaran, Alfaguara-Zubian eta Elkarren; Maria Gripe-renak Elkarren, Desclée de Brouwer-en eta SM-en; Roald Dahl-enak Ereinen, Alfaguaran eta Alfaguara-Zubian; Otfried Preussler-enak Elkarren eta SM-en; eta abar.

Haur txikientzako itzulpenetan, aipatutako herri-ipuinen eta alegien bertsioez gain, umeen garapen psikologikoan lagundu nahi duten bildumak dira azpimarratzekoak: "Zesar eta Ernestina", "Xanti eta Ane", "Kotoizko hodeia". Ez dira falta, bestalde, dagoeneko klasiko bihurtutako sail batzuk: Beatrix Potter-ek mende hasieran idatzitako "Peio untxiaren ipuinak" (Peter Rabbit), Jean de Brunhoff-ek 30eko hamarkadan idatzitako "Babar", eta argitaletxe kataluniarrekiko lankidetzari esker guztiz ezagunak diren "Teo" eta "Ibai".

Estatu espainiarreko lau hizkuntzetako istorio garaikide zein tradizionalak bildu dituzten "Txalupa" eta "Sirena" sailak ere oso

garrantzitsuak izan dira eta, azkenik, oso ugariak dira animaliak ezagutaraztea helburu duten sailak.

Itzulpenek genero eta gaien aldetik egindako ekarpenaz hitz egiteko orduan, jatorriz euskaraz idatzitakoen artean nolako genero eta gaiak zeuden argitu behar dugu lehenbizi. Hasteko, haur literaturak betidanik erabili izan dituen bi genero nagusiak, abentura eta fantasia, aski errepresentaturik zeuden euskal HGLn, eta askotan biak aldi berean; horixe gertatzen da herri-ipuinetan eta horien irudira egindako narrazioetan (*Dar-Dar-Dar*, *Txomin Arlote*, *Supazter Xokoan*, eta beste ipuin bildumak); gauza bera gertatzen da umorezko pasadizoekin (*Pernando amezketarra*, *Abarrak*., *Purra! Purra!*...), eta literatura pedagogiko-moralistarekin (alegiak, *Zurtasun-gogoa*, *Gauzen ikaskizunak umientzako*, *Anayak gara*...). Beraz, gorago esan dugun bezala, modernizatze funtzioa bete duten itzulpenak izan dira genero eta gai ("ereduak", Shavit-en hitzetan) berriak ekarri dituztenak. Peter Härtling-en erantzunean ezin hobeto biltzen da jarrera berria:

> —¿Hay algún tema sobre el que le gustaría escribir y no lo hace?
>
> —Bueno, no. Hay temas que son más difíciles cuando se escribe para niños, pero no hay ninguno sobre el que no se pueda escribir. El odio, el amor, la muerte, la violencia... depende del cómo, porque los niños no pueden comparar (Garralón / Dierkes, 1994:23).

Errealismo kritikoko idazle horien testuek, beraz, umeei kezka sozialak (gerra, ekologia, askatasuna, pobrezia, etorkinak...) eta pertsonalak (bakardadea, maitasuna, gaixotasuna, beldurra...) narratu ahal izateko ateak zabaldu zituzten, gure arteko antzeko liburu bakarra *Herrialde berdea* obra nolabait politikoa zen garaian.

Batzuetan, itzulpen horien bidez erakusten den errealitatea oso gordina da, Frederik Hetmann poloniarraren *Futboleko botak* (1983), edo Ursula Wölfel alemaniarraren *Soro berdeak, soro grisak* (1985) liburuan biltzen diren narrazioetan bezala: bazterkeria, bortizkeria, delinkuentzia, suizidioa, drogak, etabar. Maria Gripe suediarraren *Elvis, Elvis!* (1982) liburuan, berriz, gurasoek maite

ez duten seme bati buruzkoa da; Gudrun Pausewang alemaniarraren *Hodeia* (1991) liburuak holokausto nuklear batean kokatzen gaitu tonu errealista eta pesimistan.

Beste hainbeste esan dezakegu errealismo fantastikoari buruz. Bruno Bettelheim eta Jaqueline Held-en obrek fantasia berreskuratzeko balio izan zuten. Baina fantasia hori ezin zen jada lehengoa izan, eta proposamen berriak egiten hasi ziren "fantasia berria" izenaren pean, batez ere Gianni Rodari-ren partetik. Colomer-ek dioenez:

> Aquest plantejament va ser decididament adoptat per Rodari en la producció d'unes narracions fantàstiques de nou tipus que intentaven evitar els continguts conformistes atribuïts als contes de fades. L'obra d'aquest autor, considerada como la peça clau de la renovació en aquest camp de les últimes dècades, es va mantenir estretament lligada a l'aspecte de joc i creativitat, aspectes que va complementar amb propostes d'estimulació creativa a l'escola (Colomer, 1998:62).

Esandakoaren adibide ditugu *Gelsomino gezurtien herrian* (1980), *Latorrizko danborra* eta *Pinotxo* liburuetako oihartzunak dituen zuhaitz-egiturako liburua; *Telefonozko ipuinak* (1983), edo telefono dei bakoitzaren denbora laburrean kontatutako hirurogeitik gora ipuin fantastiko; edo *Tarta hegalaria* (1988), armadaren eta beste pentsamolde errealistegien susmoak pizten dituen elementu magiko bat; besteak beste. Korronte beraren barruan kokatzen da Christine Nöstlinger-en *Konrad, edo kontserba poto batetik atera zen haurra* (1992), hau da, halabeharrez kontserba pote batetik ateratako ume jakintsuaren elementu fantastikoa erabiltzen du familia eredu berri batez hitz egiteko.

Baina, bai errealismo kritikoaren kasuan, bai errealismo fantastikoarenean, berrikuntza tematikoarekin batera berrikuntza teknikoa ere etorri zen, Colomer-ek adierazi bezala. Adibide batzuk jartzearren, Peter Härtling-en *Amona* (1983) liburuan umezurtz geratutako bilobaz arduratzen den amona da gaia (familia eredu berrietan sartzen dena). Baina gaia ez da berrikuntza bakarra: diskurtsoaren zati bat (kapitulu bakoitzaren bukaerakoa, hain zuzen

ere) barne bakarrizketatik hurbil dagoen barne fokalizazioz emanda dago (helduen literaturatik ekarritako baliabidea), eta hori, berriz, amonaren jarreraren anbiguotasuna azpimarratzeko erabiltzen da (oraintsu arte haur literaturak nekez onartzen zuen baliabidea): zeregin berriaren aurrean dituen beldurrak, akatsak, etabar.

Christine Nöstlinger-en *Ingeles bat etxean* (1991) obran famili arazoek eraginda jarrera zelebreak erakusten dituen mutiko baten istorioa kontatzen da, baina, errealismo kritiko gordineko obretan ez bezala, umorearen baliabidea erabiltzen du egoerak bigundu eta erlatibizatzeko, eta bigarren mailako pertsonaia batek lehen pertsona erretrospektiboan kontatutakoa da, eskolarako idazlan gisa.

Chris Donner frantsesaren *Nire anaia gazteenaren gutunak* (1994), ahots narratiborik ez daukan protagonistaren anaiak bidalitako gutun sortak osatzen du, zeinaren bidez garbi adierazten den amak protagonistaren amodio homosexualarekiko daukan errezeloa.

Ironia eta umorea dira nagusi *Adrian Moleren egunkari ezkutua* (1992) liburuan, Sue Townsend-ena, nerabe baten bizimodu problematikoaren berri ematen digun egunkari horretan.

Antzeko baliabideak, eta *The Catcher in the Rye* liburuko protagonistaren tonu bera erabiltzen ditu Janice Marriott-en *Lesleyri gutunak* (1993) liburu bikainean: lehen pertsonako narrazio ironiko indartsua eta tartekaturiko gutunak.

Adibide gehiago jar badaitezke ere, argitu behar da itzulitako liburu gehien-gehienetan nagusitzen den fokalizazioa kanpokoa dela, askotan orojakilea, eta oso sarritan “ahozko narratzaile transferitua” izenez bataiatu duguna (Dahl-en obretan sarritan agertzen dena: *Sorginak*, 1983; *Charlie eta txokolate fabrika*,1989; *Matilda*, 1990). Hau da, berrikuntza teknikoak ez dira dirudien bezain ohikoak.

Amaitzeko, urtealdi honetako azken bost urteetan argitaratutako itzulpenek ez dute norabide argirik erakusten. Asko eta denetarik argitaratzen da, nazioartean ere arrago moduko

nahasketa bat gertatzen ari den seinale. Bestalde, HGLn, helduen literaturan gertatzen den legez, oraindik ez da iritsi "literatura kanonikoa / kontsumoko literatura" bereizketa egitera, eta horrek aipatutako nahasketa gertatzen laguntzen du.

Urtealdi honetako literatura itzuliak jatorrizko ekoizpenean izan ahal izan dituen eraginei dagokienez, esan behar da genero eta gaien aldetik zein baliabide teknikoen aldetik nahikoa oihartzuna gertatu dela. Jatorrizko ekoizpen gehiena ere HGLren ohiko bide tradizionaletatik bideratua izan da, hala ere.

Ikus ditzagun, ondoren, berrikuntzen trenera igo diren egile eta obra batzuk. Oker ez banago, barne fokalizazioa ezezik lehen pertsona gramatikala ere haur literaturan erabili duen lehen egilea Mariasun Landa izan da *Txan fantasma* (1984) obran; oso berriki, beraz, euskal HGLren atzerapenaren seinale garbia. Obra hori, bestalde berritzailea da gaiari dagokionez ere: bakardadeak eraginda irudizko lagun bat, Txan, asmatzen duen neska baten istorioa; are berritzaileagoa narratzailea irudizko pertsonaia hori dela kontuan hartzen badugu. *Alex* (1990) eta *Nire eskua zurean* (1995) liburuetan ere lehen pertsona erabiltzen du, kasu honetan protagonistaren ahotan, aitortza bat eta ihesaldi bat, hurrenez hurren, kontatzen duten istorietan. Beste obra batean, *Iholdi* (1988) delakoan, berriz, T. Colomer-ek (op. cit.:161) "fragmentazio narratiboa" deitzen duena erabiltzen du.

Bernardo Atxagak ere lehen pertsona erretrospektiboa erabilti zuen *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984) liburuan; bertan, gainera, ingelerazko lexikoz zipristinduriko euskara entseiatu zuen.

Geroztik egile askok erabili dute harrigarriro gutxi erabilia den baliabide hori: Joxemari Iturraldek egin du *Zikoinen kabian sartuko naiz* (1986) eta sail bereko ondorengo tituluetan, gazteen hizkera itxuratzeko asmotan; Xabier Etxanizek *Nire belarriak* (1984) delakoan; Bernardo Atxagak *Behi euskaldun baten memoriak* (1991)

liburuan; Patxi Zubizarretak *Matias Ploff-en erabakiak* (1992) eta *Eztia eta ozpina* (1995) izenekoetan; eta bestek. Arantxa Urretabizkaiak, esaterako, protagonistan fokalizaturiko eta hirugarren pertsonan kontaturiko narrazioa darabil *Aurten aldatuko da nire bizitza* (1992) liburuan.

Diskurtsoaren antolakuntza narratibo konplexuak ere erabili izan dira: Patxi Zubizarretaren *Gutun harrigarri bat* (1992) liburuan istorio nagusiaren barruan bigarren mailako istorioak tartekatzearen bidez.

Genero eta gai berrien erabilera oso zabalduta dago. Gorago aipatutakoez gain, honako obrak dira aipagariak: haur eta gazteen arazo pertsonalak edo traumak eta beldurrak Txilikuren *Katixa eta Kroko* (1992), Juan Kruz Igerabideren *Gauez zoo batean* (1993), Patxi Zubizarretaren *1948ko uda* (1994); bakezaletasuna eta ekologia Xabier Mendigurenen *Joxeme gerrara daramate* (1992), P. Zubizarretaren *Marigorringoak hegan* (1994), Txilikuren *Muxi eta Puxi* (1987), M. Landaren *Joxepi dendaria* (1984); familiaren ingurukoak Manu Lopezen *Jaun agurgarria* (1993); pobreziaz eta emigrazioaz Joxantonio Ormazabalen *Kittano* (1988), B. Atxagaren *Bi letter* (1984), Aingeru Epaltzaren *Lur zabaletan* (1994), Javi Cilleroren *Eddy Merckxen gurpila* (1994), P. Zubizarretaren *Eztia eta ozpina* (1994); maitasunari buruz J. Iturralderen *Zikoinen kabian sartuko naiz* (1986), P. Zubizarretaren *Emakume sugearen misterioa* (1993), M. Landaren *Julieta, Romeo eta saguak* (1994); askatasunaz M. Landaren *Potx* (1992), Joxantonio Ormazabalen *Margolin* (1983), B. Atxagaren *Asto bat hypodromoan* (1984) eta *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), Felipe Juaristiren *Tristuraren teoria* (1993).

Dauzkagun datu guztiak dauzkagula, antzekotasun nabarmenak antzeman daitezke itzulitako HGLren eta jatorrizko euskal HGLren artean, batez ere ukitutako gaien aldetik eta, neurri txikiago batean, diskurtsoaren antolakuntzari dagokionean ere bai. Ezbairik gabe, euskal HGL igo egin da mundu zabaleko berrikuntzen trenera, eta gaur egun munduko beste edozein HGLren dohainak eta gabeziak dauzkala esan daiteke: fantasia eta errealismoaren arteko tirabirak,

errealismo “gogorraren” bazterketa irtenbide irudimentsu edo lirikoen alde, narratibaren erabateko nagusitasuna, antzerkia eta poesiaren gabezia nabarmena... Gaur egun oraindik asko itzultzen bada, ez da kanpoko liburu horiek behar estetikoa dagoelako, argitaletxeek neurriz kanpoko merkatu nolabait inflazionatua etengabe elikatu behar dutelako baizik. Euskaratzen diren titulu asko eta asko ez dira ezinbestekoak, eta jatorrizko liburu kanonikoen kalitate mailaren azpitik daude; eta, hala ere, itzulitako liburuen portzentaiak %70aren inguruan dirau.

Esanak esan, ordea, itzulitako HGLren eta jatorrizko HGLren arteko eragin zuzenik egon dela esateko datu faltan gaude. Lan honetatik abiatuta egingo diren ikerketa monografikoek argitu beharko digute kontu hori. Izan ere, itzulpengintzaren azterbideetan aurkitu ez dugun, eta Ervin Koppen-ek zeharka baino aipatzen ez duen arazo bat hartu behar baita kontuan, alegia, literatur eraginak errazago gerta daitezkeela komunitate elebakarretan:

> La influencia que ejerce un autor extranjero recorre determinados puntos de fractura y metamorfosis que de antemano no se plantean en el caso de las influencias dentro de una literatura nacional. Especialmente el hecho de estar escritos en otra lengua, por parte de los textos que han de ser objeto de influencia, no constituye un fenómeno marginal, como suele pensarse, sino que posee importancia esencial para el problema de la influencia literaria. El acceso espontáneo, directo, al texto, que es algo obvio en una literatura nacional, sólo se da en los casos —no precisamente frecuentes— en los que el autor en cuestión domina de tal manera la lengua extranjera que puede no sólo traducir aceptablemente el texto compuesto en ella, sin leerlo de manera corriente y sin faltas y además percatarse y apreciar debidamente sus cualidades estilísticas hasta en sus más finos matices (Koppen, 1990:85).

Gurea bezalako komunitate elebidun batean, eta hizkuntza ahulenaren ikuspuntutik, eraginak instituzio eta merkatu indartsuko hizkuntzatik (sistematik) etor daitezke, kontuan harturik nazioarteko obren itzulpenak lehenago bereganatu dituela. Halaxe gertatu bide zen Katalunian, 1985etik aurrera Alfaguarak gaztelaniaz argitaratzen hasitako “Juvenil Alfaguara” sailarekin:

> D'Alfaguara hem de dir també, en honor a la veritat, que va influir les lletres catalanes en dues direccions oposades: per primera vegada en molts anys, els escriptors catalans llegeixen majoritàriament literatura estrangera del moment de manera continuada, i alguns se senten atrets per una manera d'ecriure "nova" fins a incorporar-se al moviment i obtenir alguns títols estimables (Boada, 1995:8).

Beste aukera batzuk ere badaude; esaterako, eraginak hizkuntza indartsuko helduen literatur polisistematik eratorri izana, jakina baita azken urtealdi honetan euskaraz argitaratu duten idazle gehienen formakuntza literarioa gaztelaniaz egin dela.

Itzultze lanaren bidez sorkuntzara iritsi ahal izateko aukera ere aztertu dugu eta, datuek adierazten dutenez, HGLren itzultzaile oparoa izan ondoren sortzen hasi den bakarra Jon Suarez Barrutia da. Beste idazle-itzultzaile batzuen kasuak desberdinak direla uste dugu; esaterako, Ormazabal, Txiliku, Zubeldia edo Mendiguren Elizegi argitalpengintzaren eraginez hasi bide dira sor (eta itzul) lanak ekoizten. Felipe Juaristiren kasuan, badirudi haur eta gazte liburuak itzultzen hasteak mundu hori ezagutu eta bertara bere jario poetikoa isurtzeko aukera eman diola. Juan Kruz Igerabide, Karlos Santisteban eta Patxi Zubizarretaren obretan, azkenik, bi langintzak aldiberekoak izan dira.

Azken aukera gisa, bazterrekoena beharbada, haur eta gazte literatur produkzioak jatorrizko hizkuntzan irakurtzeko gauza diren idazleek eraginak bide horretatik bereganatu izanaren posibilitatea dago.

Hala eta guztiz ere, zuzeneko eraginik ezin frogatu arren, eta ordua arte euskal polisisteman zegoen eredu berritzaileen gabezia kontuan hartuta, urtealdi honetako jatorrizko produkzio kanonikoa ez zen posible izango testu mota berrien eredua edo beroriek irakurtzeko "ohitura" ezarri duten itzulpenen nolabaiteko "babesik" gabe. Bestela esanda, euskal irakurleriak ez zituen jatorrizko eredu berriak onartuko, lehenago itzulpenei esker horietara ohitu izan ez balitz. Eta irakurleria horren barruan, noski, euskal eredu berritzaileak sortuko zituzten euskal itzultzaile eta idazleak ere badaude.

V.3.3. Itzulpen estrategien deskribapena.

Hirugarren urtealdi honen hasierako hamar urteetako egoera aurreko urtealdiaren bukaeran deskribatu genuenaren antzekoa da, baina zertxobait areagotua. Aurreko atalean ikusi ahal izan dugun bezala, euskaraz eskolatzen ziren ikasleen kopurua goraka joan zen urtetik urtera; laster, gainera, ikastolen mugimenduari euskarazko eskola publikoa gaineratuko zitzaion, eta irakaskuntzaren mundu zabal horren liburu-eskakizuna oso handia izan zen. Jatorrizko HGLren ekoizpena oso txikia zenez gero, produkzioaren zatirik handiena itzulpenen bidez osatzen zen, nahiz eta, artean, eskari handi horri behar bezala erantzuteko moduko itzultzaile profesional gehiegi ez zegoen. Zeregin horretako aitzindariak, garai haietan, Salvador Garmendia, Xabier Kintana, Xabier Mendiguren, Pello Zabaleta eta beste gutxi batzuk izan ziren. Gainontzekoak ikastola munduko irakasleak eta formakuntza prozesuan zeuden unibertsitateko ikasleak ziren: Gillermo Etxeberria, Arantza Sarriegi, Imanol Unzurrunzaga, Felix Ibargutxi, Joxantonio Ormazabal, Txiliku, Juan Martin Elexpuru, Joan Amenabar, Periko Diez de Ultzurrun, David Urbistondo, Pilar Iparragirre, eta abar.

Osatzen hasia zen “instituzioak” (argitaletxe gazteak, irakaskuntza erakundeak, bibliotekariak) garbi asko ikusi zuen zeintzuk ziren hasierako beharrak itzulpengintzaren aldetik: ume txikientzako album ilustratuak (“Teo” saila 1979an argitaratzen hasi zen euskaraz), tarteko adinerako testu egokiak eta komikiak (“Asterix” 1976an argitaratzen hasi zen, eta 1980tik aurrera herri ipuinen bilduma asko argitaratu ziren), eta gazte literaturako klasikoak gaztetxoagoentzat (“Kimu”, 1976; “Tximista”, 1979; “Itzul”, 1979).

“Aldez aurretiko arauei” dagokienez, itzulpen horiek, batzuetan, kanpoko argitaletxeek argitaratzen zituzten; euskal argitaletxeen kasuetan, berriz, Kataluniako argitaletxeekin (euskal argitaletxeen ispilu zentzu askotan) hasitako lankidetzaren bidez, edo egile eskubiderik ez zuten testu klasikoak euskaratuz burutzen ziren.

Aurreko urtealdiari buruzko itzulpen estrategien atalean adierazi bezala, itzulpen gehien-gehienak gaztelaniatik egin ziren eta, klasikoen kasuan, gaztelaniazko polisistemak egokitutako bertsioak erabili ziren, nahiz eta kredituetan oso gutxitan ematen den horren berri. Klasikoak osorik ez itzultzeko arrazoiak irakurleriari buruzko aurreiritzietan bilatu behar da berriz ere: haurrak edo gazteak, gaitasun linguistiko urrikoak askotan, irakurtzeko ohitura gutxikoak ziren gehienetan. Horregatik, 1975-85 bitartean argitaratutako itzulpen luzeenek nekez gainditzen zuten 150 orrialdeko muga. Gainera, balizko irakurleak ustez zeukan ulermen maila oso baxua zen eta, horregatik, hasierako urte horietako itzulpen gehienek hiztegi lagungarri bat izaten zuten, orrialde-oinean edo atzealdean. XHko baldintzetara makurtze horiek garbi erakusten dute "hasierako araua" hurbilago dagoela onargarritasunetik egokitasunetik baino.

Deskribatutako egoera hori aztergai dugun urtealdiaren erdialdetik aurrera aldatzen hasi zen, eta 90eko hamarkadan jadanik aldaketa nabarmenak ikus daitezke. "Instituzioa" lehen baino askoz finkatuago dago: HGLn gero eta kritika-tresna gehiago daude, lehen baino askoz argitaletxe gehiago daude jokoan, irakaskuntzako euskal ereduak ondo finkatu dira, euskal idazleen emaitzak gero eta hobeak dira eta itzuli nahi/behar dena baldintzatzen dute, eta itzultzaile-ikasketa desberdinak emaitzak ematen hasiak dira.

Egoera berri honetan literatur itzulpengintza nolabait profesionalizaturik dago, eta mendebaleko Europako hizkuntza gehienetatik euskaratzeko gai diren itzultzaileak daude. Atzera begiratuta ikusten diren gabezien artetik, gainera, HGL jatorrizko testuetatik euskaratu beharra sumatzen hasten da. Eta batzuek egin egin zuten, besteak beste, SM argitaletxearen "Baporea" 1988tik aurrera, Elkar argitaletxearen "Branka" saila 1990etik aurrera, Desclée de Brouwer-en "Epotxak eta Erraldoiak" eta Alfaguara-Zubiaren "Haur eta gazte literatura" 1993tik aurrera (argitaletxearen aurreko aldian gertatutako zenbait itzulpen-zabarkeria konpondu nahi izateko borondate eta ahalegin ekonomikoarekin). Horietan

frantsesetik, ingelesetik, alemanieratik eta italieratik euskaratutako tituluak aurki daitezke.

Itzultzaileen profesionalizatzea, haatik, aho biko ezpata bihurtu da kasu askotan: gaizki ordaindutako lana izanik (argitaletxe bakar batek ere ez ditu betetzen EIZIEk aholkaturiko tarifak), urtean liburu asko itzuli behar dira soldata duin bat jaso ahal izateko, eta horrek, askotan, zuzenak izan arren behar bezala zaindu gabeko itzulpenak eragiten ditu. Egoera hori ez da euskal polisistemakoa soilik, Klingberg-ek ere aipatzen baitu HGL itzulpengitzaren gaitz zabal gisa:

> When there is talk about translations and translators, it is often emphasized that one has to remember the economic conditions of the translators, among other things the limited time at their disposal resulting from these economic conditions (Klingberg, 1978:88).

Arrazoi ekonomiko beragatik, itzultzaile profesional askok nahiago izaten dute itzulpengintzaren beste arlo batzuetan aritzea, hala nola babes publikoko proiektuetan (Literatura Unibertsalaren Bilduma, Klasikoak Bilduma, eta abar), HGL itzultzaile gazteagoen eskuetan utziz.

Urtealdi honetako beste fenomeno deigarri bat, HGL barruan aldi berean egile eta itzultzaile diren askorena da, bai literatur sormenetik soilik bizitzea zaila delako, bai itzultzaile batzuk sortzera animatu direlako, bai argitaletxeren bateko langileak direlako. Hor daude, esaterako, Joxantonio Ormazabal (ia 300 libururen itzultzaile), Xabier Mendiguren Elizegi (80 bat itzulpen), eta, maila apalago batean, Juan Kruz Igerabide (12 itzulpen), Joxemari Iturralde (7 itzulpen), Felipe Juaristi (7 itzulpen), Anjel Lertxundi (17 itzulpen), Karlos Santisteban (13 itzulpen), Jon Suarez Barrutia (18 itzulpen), Iñaki Zubeldia (7 itzulpen), edo Patxi Zubizarreta (8 itzulpen). Itzultzailea idazle ezaguna izateak prestijioa eman diezaioke itzulpen bati, Toury-k hebraitar poeta itzultzaile baten lana aztertzean adierazi bezala (Toury, 1980:146).

Laburbilduz, urtealdiko azken zazpi-zortzi urteetako “aldez aurretiko arauetan” aldaketak ikusten dira: jatorrizko hizkuntzetatik

euskaratzeko, eta euskaratu nahi diren testuak irizpide literarioen arabera hautatzeko joerak nagusituz doaz. Era berean, "hasierako araua" egokitasunerantz lerratzen da nabarmenki, euskaratutako HGL polisistemaren gunetik hurbil kokatzen den seinale.

Jarraian, urtealdi honetako itzulpenetako testuek erakusten dituzten joerak aztertuko ditugu. Edonola ere, ondoko ataletan aipatzen ditugun joerak urtealdiaren lehen erdian agertzen dira nagusiki; izan ere, orain arteko azalpenaren ondorioz ikusi ahal izan dugun bezala, urtealdi honen bigarren erdiko itzulpenen egokitasun maila oso handia da. Gainera, itzulpen estrategiak (batez ere Shavit-ek azaltzen dituenak) helduen literaturatik HGLra ekarritako obretan ikusten dira nagusiki eta, horregatik, hautatutako adibide gehienak tankera horretakoak dira; beste estrategia batzuen berri emateko, berriz (Klingberg-en egokitzapen ideologiko didaktikoak eta egokitzapen kulturalak), maila bereko polisistemen arteko itzulpenetatik hartu ditugu adibideak.

Testuen osotasuna

Aurreko urtealdiaren bukaerako itzulpenekin aztertutako fenomeno bera gertatzen da urtealdi honen hasierako obrekin: gaztelaniazko polisistemak egokitutako obrak euskaratzen ziren. Bertsio oso laburtuak aurkitzen ditugu, bereziki urtealdiaren lehen hamar urteetan, baina askotan ezinezkoa izan zaigu gaztelaniazko ZT aurkitzea. Hala ere, adibide batzuk ikusiko ditugu, eta ZT aurkitu dugunean aipatu egingo dugu. Gainera, egindako aldaketen arrazoia argitzen saiatu bagara ere, ez da ahaztu behar arrazoi hori ez dagokiola euskal HGL polisistemari, gaztelaniazkoari baizik eta, hortaz, gure ikerketa eremutik kanpo geratzen dela. Urtealdiaren bigarren zatian (1985-88tik aurrera), egoera errotik aldatzen da, eta, jatorrizko testuetatik itzulita egonda, zein ez, testu osoak eskaintzen dira.

Tom Sawyerren abenturak egokitzapen bat da, jatorrizkoarekin konparatuz gero testua murrizteaz gainera, bestelako aldaketa

batzuk erakusten dituena. Begibistakoenetik hasteagatik, balizko irakurle gazteari ustez zailak gerta dakizkiokeen pasarteak murriztu dira (ondoren ikusiko den bezala, gogoeta abstraktu samar baten kasuan):

> Tom said to himself that it was not sucha hollow world, after all. He had discovered a great law of human action, without knowing it -namely, that in order to make a man or a boy covet a thing, it is only necessary to make the thing difficult to attain. If he had been a great and wise philosopher, like the writer of this book, he would how have comprehended that work consists of whatever a body is obliged to do, and that play consists of whatever a body is not obliged to do. And this would help him to understand why constructing artificial flowers or performing on a treadmill is work, whilst rolling nine-pins or climbing Mont Blanc is only amusement. There are wealthy gentlemen in England who drives four-horse passenger-coaches twenty or thirty miles on a daily line in the summer, because the privilege costs them considerable money; but if they were offered wages for the service, that would turn it into work, and then they would resign (Twain, 1992:13-14).

> Zer poza zeraman barruan! Ia ustegabe deskubrimendu ikaragarria egin zuen egun hartan. Hain zuzen, gizonaren aktibitatea eragiteko, gauza zail bezala azaltzea baino hobeagorik ez zegoela, alegia (Twain, 1979:35).

Gainera, *Tom Sawyerren abenturak* delakoa itzulpen "esplikatiboa" dela esan daiteke. Alde batetik, azalpen luze eta zailak ezabatu dira eta, bestetik, alderdi batzuk garbiago azaltzen saiatzen da. Ikus ditzagun adibide batzuk:

He was not the model boy of the village. He knew the model boy very well though —and loathed him (Twain, 1992:6).	Irakurleak pentsa dezakeenez, herri hartan Tomek nolabaiteko fama zuen. Ez oso ona, noski. Bazen herriko mutil onenaren fama zuen bat. Tomek ikaragarrizko gorrotoa zion (Twain, 1979:12).

Antzeko zerbait gertatzen da beste adibide honetan:

As he was passing by the house where Jeff Thatcher lived, he saw a new girl in the garden —a lovely little blue-eyed creature with yellow hair plaited into two long tails, white summer frock, and embroidered pantalettes. The fresh-crowned hero fell without firing a shot. A certain Amy Lawrence vanished out of his heart, and left not even a memory of herself behind (Twain, 1992:15).	Etxerantz zihoala erresidentzi eder baten aurretik pasa zen. Hantxe ate aurrean, neska polit, lirain, begiurdin bat begiztatu zuen. Ile horia eta atzetik bi motots txirikordatuak zintzilika zituela. Une batetan, borrokaren harrokeria guztiak urtu zitzaizkion, neska hari begira asma zer esan ezinik jarri zitzaionean. Fletxazoa zerbait esatekotan, hari esan ziezaiokeen. Azukrea uretan baino arinago, ahitu zitzaion bihotzetik Amyren maitasuna (Twain, 1979:41).

Azaldu nahi izate horretan, aurreko adibidean ikusi ahal izan den bezala, irakurleari egindako erreferentziak ugariak dira, "ahozko narratzaile transferitua" delakoa irudikatuz (ikus. IV.1.3). Esaterako:

‘What do I care for your big brother? I’ve got a brother that’s bigger than he is; and, what’s more, he can throw him over that fence, too.’ (Both brothers were imaginary.) (Twain, 1992:8).	—Ze inporta zait neri zure anaia haundi hori. Badut nik oraindik ere anaia haundiagoa. Hark zurea harrapatzen badu, horma horren gainetik lainotara botako du. (Irakurleak dakikeenez, bi anaia horiek irudimenezkoak ziren) (Twain, 1979:18).

Edo beste honetan:

He got home pretty late that night, and when he climbed cautiously in at the window, he uncovered an ambuscade in the person of his aunt; and when she saw the state his clothes were in, her resolution to turn his Saturday holiday into captivity at hard labour became adamantine in its firmness (Twain, 1992:9).	Beraz, irakurleak pentsa dezake Tom etxera itzuli zenerako oso berandu zela. Sartu zen bada etxera, isilik, baina han zegoen izeba zain. Mutilaren erropak. Eeene! Larunbatean etxean egon beharko zuen, bai, lanean! (Twain, 1979:21).

Beste alde batetik, inoiz hizkera-axolagabekeriaren bat edo, gutxienez, politikoki zuzenaren aurkako esapideren bat erabili da:

(He privately smoothed out the curls, with labour and difficulty, and plastered his hair close down to his head; for he held curls to be effeminate, and his own filled his life with bitterness.) (Twain, 1992:21).	Tomek gogo txarrez, baina jantzi zituen haiek. Baina jantzi berriekin erdi marikoitzat hartzen zuen bere burua. Emakeriak iruditzen zitzaizkion (Twain, 1979:54-55).

Munduari itzulia 80 egunetan, Manuel Arregik itzuli eta Elkar argitaletxeko Itzul sailean 1983an argitaratua, gaztelaniazko ZE bat erabiliz burutu zen, hain zuzen ere Nueva Auriga saileko *La vuelta al mundo en ochenta días*, Antonio C. Gavaldá-k egokitu eta 1973an argitaratua. Euskaratutako egokitzapen horren bidez, jatorrizko testua erdira laburtu da, Verne-k ematen zituen datu teknikoak eta pertsonaien izaera burgesaren deskribapen luzeak ezabatzearen bidez. Beste hainbestetan bezala, beraz, hezurdura argumentalaren hariari jarraitzen dio egokitzapenak, irakurle gaztea bertatik desbidera dezakeen guztia ezabatuz. Hona hemen, esaterako, Phileas Fogg pertsonaiaren aurkezpenean emandako datu ugariren ezabaketa (ohartu, bide batez, Sheridan antzerkigile inglesari egindako erreferentzia ez dagoela ezabatuta —eta beraren heriotza urtea gaizki transkribatuta dagoela gaztelaniaz eta, ondorioz, euskaraz ere bai—, Byron idazleari buruzkoa desagertu den bitartean):

En l'année 1872, la maison portant le numéro 7 de Saville-row, Burlington Gardens -maison dans laquelle Sheridan mourut en 1814—, était habitée par Phileas Fogg, esq., l'un des membres les plus singuliers et les plus remarqués du Reform-Club de Londres, bien qu'il semblât prendre à tâche de ne rien faire qui pût attirer l'attention.

A l'un des plus grands orateurs qui honorent l'Angleterre, succédait donc ce Phileas Fogg, personnage énigmatique, dont on ne savait rien,

En 1872, Phileas Fogg, uno de los socios más notables y singulares del Reform-Club de Londres, habitaba la casa número 7 de Saville-Row, Burlington Garden, en la que murió Sheridan en 1914.

Aunque no londinense, probablemente Phileas Fogg era inglés. Por lo demás poco se sabía de su vida y de sus costumbres. Nadie le había visto nunca en la Bolsa, ni en el Banco ni en ningún despacho mercantil. No era armador, ni abogado, ni industrial, mercader o agricultor. No pertenecía

1872.ean, Saville-Row 7an, Bur-lington Garden etxean, 1914.ean Sheridan hil zen etxe berean hain zuzen, Phileas Fogg bizi zen. Patxadatsua zen eta jendartean isilik pasatzea nahi izaten bazuen ere, Londongo Reform-Clubeko bazkideetarik ospetsuen eta berezienetarikoa zen.

Londondarra ez bazen ere ingelesa zatekeen. Bere bizitza eta ohiturez deus gutxi ezagutzen zen. Inoiz inork ez zuen ikusi inolako Burtsa eta Bankuetan, ezta merkatal etxeetan ere. Ez zen ez ar-

sinon que c'était un fort galant homme et l'un des plus beaux gentlemen de la haute société anglaise.

On disait qu'il ressemblait à Byron —par la tête, car il était irréprochable quant aux pieds—, mais un Byron à moustaches et à favoris, un Byron impassible, qui aurait vécu mille ans sans vieillir.

Anglais, à coup sûr, Phileas Fogg n'était peut-être pas Londonner. On ne l'avait jamais vu ni à la Bourse, ni à la Banque, ni dans aucun des comp-toirs de la Cité. Ni les bassins ni les docks de Londres n'avaient jamais reçu un naviere ayant pour arma-teur Phileas Fogg. Ce gentleman ne figurait dans aucun comité d'administration. Son nom n'avait jamais retenti dans un collège d'avocats, ni au Temple, ni à Lincoln's-inn, ni à Gray's-inn. Jamais il ne plaida ni à la Cour de chancelier, ni au Banc de la Reine, ni à l'Echiquier, ni en Cour

a ningún Instituto o Sociedad. Sólo era miembro del Reform-Club, cuyo ingreso fue recomendado por los hermanos Baring, en cuyo Banco Phi-leas poseía un gran crédito (Verne, 1973:5).

madore, ez abogatu, ez industrigizon, ez merkatari edo nekazari ere. Ez zen inolako Erakunde edo Elkarteko kide ere. Reform-Clubeko bazkide zen, ez gehiago eta ez gutxiago. Phileasek, Baring Anaien bankuan diru multzo handia zuen eta berauek gomendaturik sartu zen Reform-Cluben (Verne, 1983:5).

ecclésiastique. Il n'était ni industriel, ni négociant, ni marchand, ni agriculteur. Il ne faisait partie ni de l'Institution de Londres, ni de l'Institution des Artisans, ni de l'Institution Russell, ni de l'Institution littéraire de l'Ouest, ni de l'Institution du Droit, ni de cette Institution des Arts et des Sciences réunis, qui est placée sous le patronage direct de Sa Gracieuse Majesté. Il n'appartenait enfin à aucune des nombreuses sociétés qui pullulent dans la capitale de l'Anglaterre, depuis la Société de l'Armonica jusqu'à la Société entomologique, fondée principalement dans le but de détruire les insectes nuisibles.

Phileas Fogg était membre du Reform-Club, et voilà tout.

A qui s'étonnerait de ce qu'un gentleman aussi mystérieux comptât parmi les membres de cette honorable association, on répondra qu'il passa sur la recomman-

dation de MM. Baring frères, chez lesquels il avait un crédit ouvert. De là une certaine 'surface', due à ce que ses chèques étaient régulièrement payés à vue par le débit de son compte courant invariablement créditeur (Verne, 1981:9-10).

Beraz, urtealdi honen lehen hamar-hamahiru urteetako itzulpen gehienak gaztelaniazko moldaketen itzulpenak dira. Hona hemen aurkitu ahal izan ditugun beste ZT batzuk: Emilio Salgari-ren *Urrutiko mendebaleko mugak* (*En las fronteras del far-west*, Susaeta,1974), Mark Twain-en *Printzea eta eskalea* (*El príncipe y el mendigo*, Susaeta, 1974), *Till Eulenspiegel* (*Till Eulenspiegel*, La Gaya Ciencia, 1972), Longfellow-ren *Hiawatha* (*Hiawatha*, 1972), Melville-ren *Moby Dick* (*Moby Dick*, Susaeta, 1974), Scott-en *Ivanhoe* (*Ivanhoe*, Susaeta, 1973).

Nahiz eta obra laburtu ez, gaztelaniazko bertsioa ZT gisa erabilitako beste obra batzuk honakoak dira: Roberto Ausonakoren araberako *Robin Hood*, 1981 (*Robin Hood*, Afha, 1970); Günter Feustel-en *Nino suerte bila* , 1983 (*Nino y la suerte*, Lóguez, 1982); Peter Härtling-en *Amona*, 1983 (*La abuela*, Alfaguara, 1978); Frederik Hetmann-en *Futboleko botak*, 1983 (*Las botas de fútbol*, Lóguez, 1981); Peter Härtling-en *Txirbel* , 1983 (*¿Qué fue del Girbel?*, Lóguez, 1982); Ursula Wölfel-en *Soro berdeak, soro grisak*, 1985 (*Campos verdes, campos grises*, Lóguez, 1981); Tehanetorens-en *Japoniako ipuin eta kondairak* , 1989 (*Cuentos y leyendas del Japón*, Labor, 1984); Inge Auerbacher-en *Izar bat naiz*, 1995 (*Yo soy una estrella*, Lóguez, 1990).

Gaztelaniatik egindako bertsio osoen itzulpena diren hauetan aurkitzen diren moldaketak, gaztelaniazko sistemak egin ditu: moldaketa kulturalak (pertsona eta leku izenak, gastronomia, etabar) eta testuaren konplexutasunarekin zerikusia daukaten beste aldaketa batzuk. Ondoren ikusiko dugun adibidean, Peter Härtling-en *Amona* (1983) liburuan, konplexutasun horietako batzuk azaltzen dira. Azalekoena, baina liburu osoan zehar ageri dena, narratzailearen ahotsa eta pertsonaiena desberdintzeko elementu tipografikorik eza da: ez herrialde anglosaxoietako “komatxo” sistema, ez eta Europa hegoaldean erabiltzen den “gidoiarena” ere. Euskal itzulpenean,

ordea, azken hauek gaineratu dira, ulermena erraztu aldera. Adibidez:

Die Oma wurde zornig und ging Schritt für Shritt auf die Kinder zu, die stehenblieben und sie ansahen.

Feige seid ihr, sagte sie.

Kalle verteidigte seine Freunde. Sie sind nicht feige, sagte er, die Hose ist einfach so zerrissen, beim Spielen.

Jetzt schwindelst du auch noch, sagte Oma. Erst feige sein und dann lügen. Pfui Deibel!

Kalle merkte, daß Oma jetzt erst richtig wütend wurde. Er versuchte, sie zu beruhigen. Das ist nicht so schlimm mit der Hose. Wenn du sie zusammennähst, ist sie wieder meine gute Hose, sagte er. Und ich ziehe zum

La abuela, furiosa, avanzó paso a paso hacia los niños, que se quedaron inmóviles, mirándola.

—Sois unos cobardes —les dijo la abuela.

Karli defendió a sus amigos.

—No son ningunos cobardes —dijo—. Los pantalones se me han roto jugando.

—¡Encima miente! —dijo la abuela—. Primero cobarde y después mentiroso. ¡Qué vergüenza!

Karli se dio cuenta de que era ahora cuando la abuela empezaba a ponerse de verdad furiosa. Trató de calmarla.

—Tampoco es tan grave lo de los pantalones. Me los

Amona, amorru bizian, haurrengana joan zen. Hauek ez ziren mugitu ere egin.

—Koldar hutsak zarete —aurpegiratu zien amonak. Karlik lagunak defendatu zituen.

—Ez dira koldarrak. Galtzak, jolasten nenbilela apurtu zaizkit -esan zuen.

—Gezurretan zabiltza —esan zuen amonak—. Alde batetik koldarra eta bestetik gezurtia. Hau da lotsagarrikeria, hau!

Amona benetan ari zela konturatu zen Karli. Erabat suturik bait zegoen. Eta amona lasai-tzen ahalegindu zen mutikoa.

—Ez du merezi galtza pare bategatik horrela jartze-

Spielen immer die andere an, bestimmt (Härtling, 1991:29-30).

coses y quedan nuevos -dijo-. Para jugar me pondré siempre los otros. Seguro (Härtling, 1978:36).

rik, amona. Josten dituzunean berriberriak bezalaxe geratuko dira -esan zion-. Hemendik aurrera, jolasteko besteak jantziko ditut. Zin egiten dizut (Härtling, 1983:32).

Testuen konplexutasun maila

Itzulitako testuek era askotako konplexutasunak eskain ditzakete: genero aldetik, ironiazko edo anbiguotasunezko modulazioak, diskurtsoaren antolakuntza ezohikoak, zailtasun sintaktikoak, lexiko-arazoak, eta abar. Eta argitaletxeak edo itzultzaileak uste dutenean liburuaren ulermena eragotz dezaketela, erraztu egiten dituzte. Carmen Kurtz-en adibide honetan, kasurako, zailtasun batzuk ageri dira aldi berean: esaldien luzera, zailtasun lexikoak eta hizkera poetikoa:

-Es mejor acampar, -dijo Reslin-. He de explorar el terreno. Montaremos las tiendas y tomaremos algo caliente.

Apenas estuvieron instalados, un ruido espantoso hizo temblar la montaña bajo los pies de los expedicionarios. Retumbó por los valles, amplificando la soledad. Kina, la nueva amiga de Oscar, el mejor regalo de los lamas, se puso a graznar y se acurrucó al lado de su amo, en busca de protección (Kurtz, 1980:66).

—Hobe dugu keratxo bat egitea -esan zien Reslinek-. Bazter hauek ez ditut ondo ezagutzen eta jiratxo bat egitera noa. Kanpainadendak eraiki eta har dezagun zerbait beroa.

Beren mokadutxoei hozka hasi zirenarekin batera egundoko orroeak astindu zuen oinen azpian lotan zeukaten lurra. Gero, trumoia bezala, ibarrik ibar joan zen haren oihartzuna. Bazirudien mendiak amiltzen zihoazela. Oskarren lagun berria, Kina ahatea ere, koakoaka, bere jabearen hanka artera bildu zen babes bila (Kurtz, 1982:85-86).

Beraz, alde batetik esaldien segmentazio handiagoa ikusten da; beste batetik, mailegatutako hitzak ez erabiltzeagatik eman behar dituen itzulinguruak izugarriak dira: “explorar” aditzaren baliokidea “bazter hauek ez ditut ondo ezagutzen eta jiratxo bat egitera noa” da; “instalarse” aditzarena, berriz, “beren mokadutxoei hozka hasi zirenarekin batera” da; eta “retumbar” delakoarena “trumoia bezala (…) haren oihartzuna”. Elementu poetikoa, bestalde, desagertu egin da (“amplificado por la soledad”). “El mejor regalo de los lamas” segmentua desagertu egin da, eta “se puso a graznar” delakoaren ordez onomatopeia soil bat dago.

Gaztelaniatik itzulitako *Robin Hood* (1981) liburuan ere antzera jokatzen da, batzuetan testu zatiak ezabatuz:

> Una vez en el interior de la mansión, se le acercó Robert de Reinault, al que el fingido mercader, inclinándose con el mayor respeto, explicó que ya nada podía ofrecerle, pues acababa de liquidarlo todo en la ciudad, y que lo único que le restaba era una preciosa vajilla de oro y plata, la cual se atrevía a ofrecer como homenaje a su persona. Este, halagado y con ojos chispeantes por la codicia, aceptó el obsequio con gran satisfacción.
>
> Para remunerar de alguna forma lo que, naturalmente, no le costaría mayor esfuerzo ni dinero, invitó al mercader a comer junto con los hombres de armas de su hermano Hugo, que, de paso en ese momento por la ciudad, había hecho un alto en su palacio, como ya dijimos (Ausona, 1970:58).

> Barrura sartu bezain laster, Robert Reinault-ko (sic) hurbildu zitzaion sasi-merkatariari eta honek, begirune handienaz makurturik, zer eskainirik ez zeukala azaldu zion, hirian dena ahitu zitzaiolako, eta geratzen zitzaion gauza bakarra urre eta zilarrezko baxera zoragarri bat zela eta omen-saritzat huraxe oparitu ziola.
>
> Robert-ek, balakaturik eta urre dirdirak begiak suturik, atsegin handiz onartu zuen emaria.
>
> Nolabait saritu nahiez, bere anaia Hugoren armagizonekin afaltzera gonbidatu zuen merkataria (Ausonako, 1981:84-85).

Adibide honetan paragrafoetako segmentazioa aldatu egin da, menpeko esaldiak koordinatu bihurtu dira, eta azken erlatibozko esaldia, murrizgarria izanik ere, ezabatu egin da.

"Testua testuaren barruan" delako antolaketa saihesteko joera handia dago, bigarren graduko testuen ulermena zaila delakoan. Ondoren datorren adibidea *Ivanhoe* (1980) liburutik hartu dugu:

-Es un desafío según parece: "Wamba, hijo de Witles, bufón de Cedric el Sajón..."

-¿Es una broma?

-¿Qué decís?

-Os juro que estoy leyendo lo que aquí pone. Escuchad:

"...y Gurth, hijo de Beowulf, con ayuda de nuestros aliados entre los que se encuentra el caballero "Negro Perezoso", a vos, Reginaldo Frente de Buey y a vuestros cómplices, os hacemos saber, que habiéndoos apoderado de Cedric el Sajón, así como de lady Rowena, sus criados y sus mulas; y también del judío Isaac de York, de su hija Rebeca y de otras personas, caballos y mulas, si no les soltáis en el término de una hora, nosotros os declararemos ladrones y canallas, y pelearemos con vos y los vuestros, en batalla o sitio. Dios os guarde muchos años. Firmado en la víspera de San Vitoldo en la encina de Hill-Walk, por el ermitaño de Compmanshirst." (Scott, 1973:79-80).

-Dirudienez desafio bat da: "Wamba, Witles-en seme, Zedrik Sajoiaren bufoi..."

-Broma bat al da?

-Zer diozu?

-Ez, hala dio eskutitzak.

Irakurtzen bukatu zuen. Beraz, Wamba eta Gurthek desafio egiten zieten, presoak aska zitzaten (Scott, 1980:66).

Hordagoko “Tximista” sailean argitaratu zen *Alizia herrialde harrigarrian* (1979) delakoan, jatorrizko bertsioan agertzen ziren garaiko poemen aldaera ironikoak, hirugarren kapituluko kaligrama eta hitz jokoak, hau da, testuari konplexutasuna ematen dioten elementuak, ezabatuta daude. Pamiela argitaletxeak 1989an argitaratu zuen *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* delako itzulpenean, berriz, agertzen dira elementu horiek guztiak.

Beste muturrean “Bostak” saila dugu. Testuak ume eta gazteen ulermenera egokitzeko saioak egiten ari ziren garaian, 80ko urteetan, titulu hauek ustezko zailtasun bat eskaintzen dute tratamenduen aldetik: hitanoaren erabilera sistematikoa. Saileko tituluen itzulpenean zazpi itzultzaile aritu ziren arren, erabateko koherentzia dago alde horretatik. “Jarduerazko arau” hori hartu izanaren arrazoi bat bilatu beharko balitz, elkarrizketei sinesgarritasuna emateko erabili zela esango genuke.

Egokitzapen ideologiko eta didaktikoak

Gorago adierazi dugun bezala, urtealdi honetako itzulpenek egokitasun handia erakusten dute. Atal honi dagokionez, urtealdi honetako itzulpenak, aukeraketatik bertatik hasita, “politikoki zuzenekoaren” ideologiarekin bat datoz: balore demokratikoak ezbaian jartzen dituen libururik ez dago; askotan arrazarteko elkartasuna bultzatzen du; hezkidetza asko zaintzen da, bai pertsonaien rol-etan, bai pertsonaien eta narratzailearen hizkeran; ekologiaren aldeko jarrerak azaltzen dira...

Egoera horretan, alderdi ideologiko eta didaktikoan zer egokiturik ez dago. Hala ere, salbuespen bitxirik ere bada. Kasurik deigarriena Roald Dahl-en *Charlie eta txokolate-lantegia* (1994) da. Jakina denez, Alfaguara-Desclée de Brouwer garaiko itzulpen desegoki batzuk (batez ere etengabeko arazo tipografikoengatik) berriro agindu zituzten Alfaguara-Zubia argitaletxeko arduradunek.

Itzulpen hori, kasurako, Agurtzane Ortiz de Landaluzek egindako itzulpen berria da, Juan Mari Sarasolaren ardurapean egon zen *Charlie eta txokolate fabrika* (1989) ordezkatzera etorri dena. Bi itzulpenen iturria, ordea, Alfaguara argitaletxeak gaztelaniaz argitaratutako *Charlie y la fábrica de chocolate* (1978) izenekoa dela dirudi. Izan ere, 1964an *Charlie and the Chocolate Factory* argitaratu zenean, izugarrizko problemak izan zituen Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan bere ideologia arrazista zela eta (fabrikako langileak beltzak zirelako); hainbesteraino non marrazki guztiak eta pasarte batzuk aldarazi eta beste batzuk desagertarazi zizkioten, baina gaztelaniazko bertsioak ez ditu jaso aldaketok.

Beraz, jakinaren gainean egonda ala ez, honelaxe geratu da euskal itzulpena:

—Ez al dira *miresgarriak*?
—Ez dira belauneraino ere iristen!
—Beraien azala ia beltza da!
—Egia da!
—Aitona, badakizu zer? —esan zuen Charliek—. Nire ustez, Wonka jaunak berak egin ditu txokolatez!
(…)
—Wonka jauna, txokolatez eginda al daude, benetan? —galdetu zuen Charliek.
—Txokolatez? —oihukatu zuen Wonka jaunak—. A zer lelokeria! Egiazko pertsonak dira! Nire langileetako batzuk dira!
—Hori ezinezkoa da! —esan zuen Mike Tebek—. Ez dago munduan horiek bezain izaki txikirik!

16. Oompa-Loompak

—Zer diozu, ez dagoela munduan inor horiek bezain txikirik? —esan zuen barreka Wonka jaunak—. Bada, utzidazu zerbait esaten. Nire lantegian, hiru milatik gora daude!

—Pigmeoak izango dira! —esan zuen Charliek.

—Hala da! —baieztatu zuen Wonka jaunak—. Pigmeoak dira! Afrikatik etorritakoak zuzen-zuzenean! Oonpa-Loonpa izena duten tribu bateko pigmeo nimiñoak dira! Nik neuk aurkitu nituen. Nik neuk ekarri ditut Afrikatik, tribu osoa, hiru mila guztira (Dahl, 1994:74-76).

Gaur egungo irakurle ingelesak, ordea, beste hau irakurriko du:

'Aren't they *fantastic* !'
'No higher than my knee!'
'Look at their funny long hair!'
(…)
'But they can't be *real* people,' Charlie said.
'Of course they're real people,' Mr Wonka answered. 'They're Oompa-Loompas.'

16. The Oompa-Loompas

'Oompa-Loompas!' everyone said at once. '*Ooompa-Loompas!*'
'Imported direct from Loompaland,' said Mr Wonka proudly.
'There's no such place,' said Mrs Salt.
'Excuse me, dear lady, but...'
'*Mr Wonka*,' cried Mrs Salt. 'I'm a teacher of geography...'
'Then you'll know all about it,' said Mr Wonka. 'And oh, what a terrible contry it is! Nothing but thick jungles infested by the most dangerous beasts in the world —hornswoggles and snozzwangers and those terrible wicked whangdoodles (Dahl, 1995:92-93).

Beste kasu deigarri bat George Orwell-en *Animal Farm* (1945) delako obrak euskaraz izan dituen bi aldaerena da. Kontuan hartu behar da, bi itzulpenen kasuan ere, helduentzat idatzitako liburu hori gertakizun historiko bat parodiatuz idatzitako obra satiriko bat dela, eta beharbada horregatik, itzultzaileek beharrezko ikusi dute zenbait aldaketa formal egitea: paragrafoak zatikatzea, esaterako, bietan hartutako estrategia da (nabarmenagoa Hordagoren bertsioan, azpikapituluak sortzera ere iritsi baita); marrazkiak jartzea, bien kasuan; eta moldaketa ideologiko-kultural sakonagoa Hordagoren bertsioaren kasuan.

Bigarrenetik hasita, Elkar argitaletxeko "Itzul" sailean argitaratu zen 1982an, *Abereen etxaldea* izenaren pean, Juan Martin Elexpururen itzulpena da, eta onargarritasun / egokitasunaren arteko oreka oso estimagarria erakusten du, argitaratua izan zen garairako. Lehenengoa, berriz, Hordagoko "Tximista Sailean" argitaratu zen urte bat lehenago, 1981ean, eta Imanol Unzurrunzagak egindako egokitzapen bat da, erdi ideologiko, erdi kulturala. Esaterako, bertako pertsona eta toki izenak, ohiturak eta kantak moldatuta agertzen dira, sinatu gabeko hitzaurrean aitortzen denez:

> George Orwell-ek Internazionala eta Ingalaterrako langileri mugimenduaren abestiak hartu zituen eredu gisa, Animal Farm-eko abere matxinoen abestiak prestatzerakoan; euskal egokipenaren egileak, berriz, 1976 inguruetan Amnistiaren aldeko kanpainak zabaldu eta ezagutarazi zituen erreibindikazio abestiak aukeratu ditu eginkizun bererako (Orwell, 1981:8).

Aipatutako kantu horiek eginkizun berbera betetzen ote duten eztabaidan sartzeko asmorik gabe, nabarmena da itzulpen osoaren diskurtsoa garaiko hizkera politikoaz kutsatuta dagoela. Baina, hizkera hori sinesgarri gertatu ahal izateko, istorioa Euskal Herrian kokatu beharra zegoen lehenbizi. Horregatik, egokitzapen kulturala egokitzapen ideologikoaren ondorioa delako hain zuzen, kokatu dugu liburu honen iruzkina egokitzapen ideologikoaren atalaren barruan.

Orwell-en alegia politikoa, beraz, Euskal Herrian kokatuta dago oraingoan: Mr Jones, Mr Foxwood eta Mr Whymper Xeledon,

Agerre eta Jon Ander dira orain; Bluebell, Jessie eta Pincher txakurrak, Pintto, Beltxa eta Lagun; Boxer eta Clover zaldi zamariak, Noble eta Gorri. Jatorrizko testuan, Mr Jones San Juan bezperan "Red Lion" herriko tabernan harrapatutako mozkorra egunez eta tokiz aldatzen da:

> Urte hartan San Antonio eguna larunbatez gertatu zen. Urtero bezala, Xeledon bezperan Urkiolara joan eta han harrapatutako mozkorrarekin bueltatzerik ez zuen izan igande arratsaldera arte (Orwell, 1981:39-40).

Eta jatorrizkoan auzi batean galdutako dirua, berriz, estropadetan galdu zuen euskal bertsio horretan:

> He had become much disheartened after losing money in a lawsuit, and had taken to drinking more than was good for him (Orwell, 1978:18).

> Iazko estropadetan dirugaltze handia izan zuenetik burua altxatu ezinean zebilen, adariari gero eta emanago (Orwell, 1981:39).

Hurrengo moldaketa honetan, jada kulturalaren eta ideologikoaren mugan geundeke, gaineratutako elementuen bidez frankismoan eta nazional-katolizismoan kokatzen baitu nekazariaren etxea:

> They tiptoed from room to room , afraid to speak above a whisper and gazing with a kind of awe at the unbelievable luxury, at the beds with their feather mattresses, the looking-glasses, the horsehair sofa, the Brussels carpet, the litograph of Queen Victoria over the drawing-room mantelpiece (Orwell, 1978:21).

> Gelaz gela txundituta zebiltzan hango lujo sinestezinarekin: ohe garbi jantziak, ispiluak, jarlekuak, alfombra, Francoren irudia, Jesusen bihotza "Reinaré en España" letra handiz inguratuta... ezer ukitzeko ikaraz (Orwell, 1981:43).

Eta egokitzapen kultural horien guztien gainean, esan dugun bezala, egokitzapen ideologikoak daude. Kantuak aipatu ditugunez gero, “Internazionalaren” aldaera izan nahi duen “Beasts of England” kantuaren ordez, “Batasuna” kantuaren aldaera batekin egiten dugu topo:

> Aupa bihotzak! Denok jaiki!
> Bizi nahi dugu, inor ez hil!
> Iraultzarako prest gaitezen
> Irrintzi bat dabil.
> Gure sendia diagu zai
> Presoak eta hilak ere bai
> Aberea izanez gero gaur
> Gauden denok anai!
> (Orwell, 1981:30)

Azpikapituluen izenburuek, berriz, transizio garaiko kantu eta leloen oihartzunez beterik daude: “Jaioko dira berriak”, “Askatasun eguzkia”, “Presoak eta hilak ere bai”, “Goma bi”, “Iraultzara!”. Gauza bera gertatzen da testuaren barruan:

> Vote for Napoleon and the full manger (Orwell, 1978:45)

> Indar elektrikorik? Ez! eskerrik asko (Orwell, 1981:79)

Bestalde, jatorrizko testuan agertzen ez diren elementu ideologikoak tartekatzeko joera dago (esaterako “independentzia”, eta “iraultza” —kasu honetarako “matxinada” edo “errebolta” egokiagoak izango zirenen tokian—):

> It is not crystal clear, then, comrades, that all the evils of this life of ours spring from the tyranny of human beings? Only get rid of Man, and the produce of our labour would be our own. Almost overnight we could beco-me rich and free. What then must we do? Why, work night and day, body

Argi baino argiago dago anaiok; gure gaitz guztien iturri bakarra gizona da. Ez dago besterik. Beraz, geure buruaren nagusitza lortu, eta lanaren jabetza ere lortua dugu. Gauetik goizera libre eta aberats!"

IRAULTZARA!

"...Gauzak horrela direlarik, zer egin gure In-

and soul, for the overthrow of the human race! That is my message to you, comrades: Rebellion! (Orwell, 1978:10).

dependentzia hori lortzeko?...	Iraultza, anaiok, Iraultza! (Orwell, 1981:26).

Azkenik, egokitzapen ideologiko eta moralaren arteko bi kontu aipatuko ditugu. Lehenean, abereen legeen artean hauxe dago: "5. No animal shall drink alcohol" (Orwell, 1978:23); eta euskal bertsio honetan: "5.- Abereok ez dugu behar alkoholik, tabakorik, drogarik" (Orwell, 1981:46). Bigarrena, abereen praktikei buruz zabaldutako zurrumurruei buruzkoa da:

It was given out that the animals there practised cannibalism, tortured one another with red-hot horseshoes, and had their females in common (Orwell, 1978:35).	"Abere Enea"n abortoa eta kanibalismoa praktikatzen omen zen, bai eta maitasun libre nahasia ere (Orwell, 1981:64).

Amaitzeko, esan dezagun *Abereeneko iraultza* dela euskal polisistemaren barruan buruturiko moldaketa bakanetariko bat, nahiz eta bertako keinu gehienak gaur egungo irakurle gazteentzat ulertezinak diratekeen.

Beste arlora pasatuz, gaztelaniatik itzulitako moldaketak euskal itzultzaileek egin izan balituzte, egokitzapen didaktikoen aurrean geundeke, eta horietariko batzuk "testuen osotasuna" atalean ikusi dira. Horiek, ordea, beste polisistema batean burutu dira, eta beraz, gure ikerketatik kanpo geratzen direlakoan gaude.

Egokitzapen kulturala

Kultura desberdinetako elementuak itzultzeko orduan, joera posible guztiak aurkitu ditugu: kultur elementuak euskalduntzekoa,

jatorrizkoan zeuden bezalaxe uztekoa, eta erdibideko irtenbide batzuk.

Lehenengo joera ez da aurreko aldietan bezain nabarmena (janariak, lanbideak edo jantziak moldatzeko joera txikiagoa da), baina onargarritasuna dauka helburu, hau da, irakurleei arrotz ez gertatzea eta, beraz, irakurle horien oniritzia jasotzea. Prozedura hori sistematikoki erabiltzen duen bilduma bat Alfaguara-Zubia argitaletxearen "Haur eta Gazte literatura" izenekoa da, bereziki 8 urtetik aurrerako liburuetan (hau da, irakurle txikienentzako bilduman). Esaterako, Christine Nöstlinger-en *Markel, Maddi eta Maluta* (1994) liburuan, jatorrizko titulua *Jokel, Julia und Jericho* da. Beraz, ikus daitekeen bezala, protagonisten izenak euskaldundu egin dira, baina jatorrizkoan zeukaten hasierako soinu-kidetasuna gordez. Moldaketa horrek jarraipena dauka testuaren barruan ere: mutilaren izen osoa Markel Zarraga da, eta bere lagunak Ander, Karmele eta Ainhoa dira; Maddi, berriz, Artaleku kalean bizi da, "Maddi-Enean", hain zuzen ere.

Viena aldeko beste kultur kontu batzuk ez daude moldatuta. Esaterako, janaridendetan txakurrak sartzea debekatuta omen dago, eta txakurrak ugari direnez, denden kanpoaldean gako moduko batzuk omen dituzte txakurrak lotzeko, gurean guztiz ezazaguna dena:

> Une hartantxe emakume lodia eta ile horiduna ikusi zuten. Azpiri anderea gurutzebidetik zetorren gozokidendarantz. Uhaletik zekarren txakurra Malutaren maitea zen.
>
> Azpiri anderean Ikatzen uhala txakurrak uzteko gakoan lotu zuen eta dendan sartu zen (Nöstlinger, 1994:110).

Antzeko joera nagusitzen da bilduma moreko beste liburu batzuetan, nahiz eta itzultzaileak desberdinak izan: Anne Fine-en *Enekoren soineko arrosa* (1995), Paula Dazinger-en *Lagun-lagunak* (1995), Roald Dahl-en *Super-Azeri* (1993).

Liburuen balizko irakurleen adina gorantz doan neurrian, joera hori desagertuz doa: izen moldaketarik ez dago bilduma laranjako

Angela Sommer-Bodenburg-en *Banpiro Txikia* (1993), Ole Lund Kirkegaard-en *Otto errinozerontea* (1994) liburuetan; ez eta bilduma urdineko Roald Dahl-en *Matilda* (1993) eta *Charlie eta txokolate-lantegia* (1994), edo Gerald Durrell-en *Asto-bahitzaileak* (1993) delakoan ere.

Pertsona eta leku izenak moldatzeko joeraren azpian jarrera didaktikoa badago, kontrako joeran, askotan, itzultzaileak testuarekiko duen gehiegizko zintzotasuna egon daiteke. Joera horren muturreko adibidea Gudrun Pausewang-en *Hodeia* (1991) liburuan aurkitu dugu. Errealismo objetiboaren barruan kokatzen den liburuko pertsonaia askoren izenak irakurrita (Kai, Jo, Uli, Almut, Lars) nekez jakin daiteke gizonezkoak ala emakumezkoak diren, eta testuinguruak ez du gehiegi laguntzen. Toki izenak jatorrizko forman ematen dira: Eschweg, Schweinfurt, Schlitz, Hünfeld; baina ezagunagoak diren beste batzuk euskal grafiaz emanda daude:

> Bald wurde ihr klar: Es mußte eine sehr viel größere Katastrophe als in Tschernobyl stattgefun-den haben (Pau-sewang, 1987:59).

> Laster konturatu zen: Txernobil baino askoz hondamendi handiagoa izan zen, nonbait (Pause-wang, 1991:72).

Batzuetan, moldaketa faltak orrialde-oineko oharra eskatzen du: “Rübezahl: Alemaniako ipuinetako pertsonaia” (Pausewang, 1991:69).

Aipatutako bi mutur horien arteko erdibide batzuk ere badaude; batzuetan gaztelaniazko moldaketetatik egindako itzulpenen kasuan, beste polisistema batean hartzen diren erabakien menpean egotearen ondorioz: pertsona izenak moldatzea eta leku izenak jatorrizkoan dauden bezala uztea. Joera hori Mark Twain-en *Printzea eta eskalea* (1981) itzulpenean ikus daiteke: protagonistaren izena moldatu egiten da, baina bere arrebena eta toki izenena ez:

> The house which Tom’s father lived in was up a foul little pocket called Offal Court, out of Pudding Lane. It was small, deca-yed, and rickety,

but it was packed full of wretchedly poor families. Canty's tribe occupied a room on the third floor. The mother and father had a sort of bedstead in the corner; but Tom, his grandmother, and his two sisters, Bet and Nan, were not restricted -they had all the floor to themselves, and might sleep wehere they chose (Twain, 1994:3).	Tomás vivía con sus padres en Offal Court, cerca de Pudding Lane; lugar angosto y míse-ro donde se agru-paban varias fami-lias de condición humildísima. Los Canty ocupaban solamente una habitación en el sótano. En la pieza no había más que una cama, que era de los padres, y el suelo se lo repartían Tomás, sus hermanas Bet y Nan y su abuela (Twain, 1974:9).	Tomas Offal Court-en bizi zen bere gurasoekin, Pudding Lane-tik hurbil; kondizio oso bajuko zenbait familia biltzen zen toki estu eta miseriaz betea. Cantytarrak gela bakar batean bizi ziren, sotanoan. Gela hartan ohe bat besterik ez zegoen, gurasoena, eta Tomas, Bet eta Nan arrebak eta amonak zorua banatzen zuten elkarren artean (Twain, 1981a:7-8).

Bada urte berean Elkar argitaletxean argitaratutako beste bertsio bat, izen berekoa *Printzea eta eskalea*, toki izenak ezabatu eta pertsona izenekin jokabide koherenteagoa erakusten duena; hala ere, arreben izenen forma ez da lehengo bera, beharbada hala agertzen zirelako ZTan (zein aurkitzerik izan ez dugun):

> Tomen etxea patio txiki baten bukaeran zegoen, familia miserableez betetako eraikuntza zoldartsu batetan.
>
> Cantytarrek hirugarren pisuko gela batetan egiten zuten beren bizimodua. Han zegoen ohe bakarra Tomen gurasoena zen. Honek, bere amona eta bi arrebek, Beth eta Nena, lo egiterakoan lurreko txokorik gustokoena aukeratzea besterik ez zuten (Twain, 1981b:7).

Gaztelaniatik itzulitako P. Härtling-en *Txirbel* (1983) liburuko pertsona izen ia guztiak moldatuta ageri dira: Girbel/Txirbel, señor Matarrubia/Perugorri jauna, Gómez-López/Xexili-Mariaje, Jorge/Urko, don Francisco/on Zesareo, Bartolo/Bartolo.

Argitaletxe berean eta gaztelaniazko bilduma beretik egindako beste itzulpen batean, Ursula Wölfel-en *Soro berdeak, soro grisak* (1985) liburuan, berriz, izen bat ere ez dago moldatuta: Juanita, Rosita, Pedro, Maria, Ines.

Erich Kästner-en *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* (1992) delakoan, pertsona eta toki izenak moldatu gabe ageri dira (Trude, Palfy, Gstettner, Bruckbaur; Gries, Ehrwald, Lermoos, Zugspitzeren; Max-Emanuel kalea), baina janariren baten izena egokitu nahi izan da:

Am liebsten mag Mutti Nudelsuppe mit Rindfleisch (Kästner, 1996: 47).	Begira, amari oso atsegin zaion platera makarroiak haragiarekin (Kästner, 1992:48).

Edo beste hau:

Zu dumm, daß ausgerechnet gefüllter Eierkuchen dein Lieblingsgericht ist! (Kästner, 1996:49).	Pena da zuri arrautz txintxortak gehien gustatu beharra! (Kästner, 1992: 50).

Nikolas txiki (1982) liburuaren kasuan, berriz, honelako jokabidea aurkitu dugu: pertsona izenetan euskal ordaina eman da baliokide zuzena zegoenean (Nicolas/Nikolas, Joachim/Joakin); kide zuzenik ez dagoenean, batzuetan egokitzen da grafia eta beste batzuetan ez (Alceste/Alzeste, Clotaire/Clotaire). Itzulpenak, oro har, egokitasuneranzko joera erakusten du: janari izenak bere horretan gorde dira (Rokefort, Camembert, *Choucroute*); hizkuntzari buruzko erreferentzietan ere bai:

Il est étranger et ses parents l'ont mis dans cette école pour qu'il apprenne à parler française (Sempé-Goscinny, 1990:56).	Atzerritarra da eta frantsesa ikasteko sartu dute bere gurasoek hemen (Sempé-Goscinny, 1982: 59).

Eta bestelakoetan ere bai, hala nola, himno nazionala:

Pour commencer, on allait tous chanter La Marseillaise (Sempé-Goscinny, 1990:88).	Hasteko Marsellesa abestuko genuen guztiok (Sempé-Goscinny, 1982: 93).

Hala ere, oso gutxitan moldaketa kulturala egiteko joera dago:

Hou! Je suis le fantôme (Sempé-Goscinny, 1990: 9).	U, u! Basajauna naiz (Sempé-Goscinny, 1982: 7).

Enid Blyton-en "Bostak" izeneko saileko pertsonaien izenak euskaratzeko ahaleginean, hona hemen Bosten izenak: Julen, *Gorka(ne)*, Di(c)k, Ane eta Tim. Jatorrizkoan, berriz, honakoak dira: Julian, George, Dick, Ann eta Tim. Beraz, hemen ere euskal baliokide zuzenak dituzten izenak euskaratu dira, eta besteak ez. Gainontzeko pertsonaien izenak ez dira moldatzen: Andrews, Luffy, Jock, Edgar; ez eta izena esanguratsua denean ere: Dearlove (hemen, itzultzailearen ohar bat dago orrialde oinean: Dearlove: "nire kuttuna" esan nahi du (Blyton, 1988:89).

Bestalde, liburu sail honetan hain sarritan agertzen diren janarien kasuan, euskal ordaina ematen da: bacon (Blyton, 1986:35) / urdai hirugiharrea (Blyton, 1988:32). Jatordu-ohiturak, berriz, jatorrizkoan bezala uzten dira; gosaltzeko, esaterako, "ogia atera zuten, urdaiazpikoa eta mermelada potea ere bai. Anek platerak, sardexkak eta aiztoak banatu zituen. Julenek bi garagardo boteila ireki zituen" (Blyton, 1985:83); edo "tea hartzeko garaia iritsi zen" (ibidem:52).

"Generoko" liburuetan, azkenik, generoari dagozkion ezaugarriak gordetzeko joera dago. *Urrutiko mendebaleko mugak* (1980) delakoan, gaztelaniazko moldaketa batetik euskaratua, *western*-nobeletako topikoak agertzen dira: indiarren izenak eta

toponimoak, epitetoak direnean, euskaratu egiten dira, gainontzekoak bere horretan uzten dira:

Como siempre, Jalta, Nube Roja, Mano Izquierda y Caldera Negra iban al frente de sus guerreros (Salgari, 1974: 107).	Aurretik, beti bezala, Jalta, Laino Gorri, Ezkerra eta Galdara Beltza zihoazen (Salgari, 1980b: 89).

Toponimoen artean, berriz, “Hiletaren ibilbidea”, “Sarraskiaren Misioa”, “Eskalada Mendikatea” aurki daitezke.

Bestela, ZTan bezala jokatzen da euskal bertsioan ere: pertsona izen batzuk moldatuta daude, eta beste batzuk ingelesez uzten dira: Jorje, John Maxim, Mary, Harris, Patt. Berdin gertatzen da beste elementu kultural batzuen izenekin: “kalumeta”/”calumet”, “morike” (tabakoaren izena), “wigwam” (indiarren dendak). Hala ere, gaztelaniazko bertsioan ingelesez agertzen den “Indian agent” sistematikoki euskaratzen da: indiar-agentea.

Gauza bera gertatzen da *Ivanhoe* (1980) liburuan: ZPn hartutako erabakiak nagusitzen dira, koherenteak izan ala ez. Epitetoekin gertatzen da hori: batzuk itzulita daude (Ricardo Corazón de León / Rikardo “Leoi Bihotza”, Juan Sintierra / Juan Lurgabea, “Negro Perezoso” / “Beltz Alferra”); baina halako batean hauxe aurkitzen dugu:

—¡Ven acá, Fangs! -gritó, llamándo al perro (Scott, 1973:8).	Hator honera Fangs! -deitu zion zakurrari (Scott, 1980:10).

V.3.4. Bibliografia aipatua.

AA. AA. (1994). *Haur literaturaz. Hegats*, 9.

ALDEKOA, Iñaki (1998). *Mendebaldea eta narraziogintza*. Donostia: Erein.

APALATEGI IDIRIN, Ur (1998). “Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa”, *Uztaro*, 27, 63-82.

AUSONA, Roberto de (1970). *Robin Hood*. Bartzelona: Afha.

AUSONAKO, Roberto (1981). *Robin Hood*. Donostia: Elkar [Itzul.: Xabier Mendiguren. Jat.: *Robin Hood* (1970, elezaharraren gainean)].

BLYTON, Enid (1985). *Bostak ihesi*. Donostia: Elkar [Itzul.: Alberto Uranga. Jat.: *Five Run Away Together* (1944)].

BLYTON, Enid (1986). *Five Go Off to Camp*. Londres: Hodder & Stoughton.

BLYTON, Enid (1986). *Five Run Away Together*. Londres: Hodder & Stoughton.

BLYTON, Enid (1988). *Bostak kanpinean*. Donostia: Elkar [Itzul.: Joan Amenabar. Jat.: *Five Go Off to Camp* (1948)].

BOADA, Francesc (1995). “Panorama de la traducció del llibre infantil i juvenil en català (1960-1990)”, *Faristol*, 21, 5-10.

CALLEJA, Seve (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986 arte*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

COLOMER, Teresa (1998). *La formació del lector literari*. Barcelona: Barcanova.

COMPANY, Mercè (1991). *Ateetako zaindariak*. Bartzelona/Donostia: Timun Mas/Elkar.

DAHL, Roald (1994). *Charlie eta txokolate-lantegia*. Madril: Alfaguara-Zubia [Itzul.: Agurtzane Ortiz de Landaluze. Jat.: *Charlie and the Chocolate Factory*. (1964)].

DAHL, Roald (1995). *Charlie and the Chocolate Factory*. Harmondsworth: Penguin.

DIAZ-PLAJA, Ana (1988). “Estilos literarios en la literatura infantil y juvenil actual”, in BATTANER, M. P. i GUTIÉRREZ CUADRADO, J. (eds.), *Llengua literària i Expressió escrita*. Bartzelona: Universitat de Barcelona, 19-33.

ETXANIZ, Xabier (argit. gabe). “Literatura infantil y juvenil vasca”.

GARRALON, Ana; DIERKES, Wiener (1994). “Entrevista con Peter Härtling”, *CLIJ*, 65, 21-26.

HÄRTLING, Peter (1978). *La abuela*. Madril: Alfaguara.

HÄRTLING, Peter (1983). *Amona*. Donostia: Elkar [Itzul.: David Urbistondo. Jat.: *Oma* (1975)].

HÄRTLING, Peter (1991). *Oma*. Weinheim: Beltz.

KÄSTNER, Erich (1992). *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* Donostia: Elkar [Itzul.: Antton Narbaiza. Jat.: *Das doppelte Lottchen* (1949)].

KÄSTNER, Erich (1996). *Das doppelte Lottchen*. Hamburg: Dressler.

KLINGBERG, Göte; *et al.* ed. (1978). *Children’s Books in Translation. The Situation and the Problems*. Stockholm: Almqvist & Wiksell International.

KOPPEN, Erwin (1990). *Thomas Mann y Don Quijote*. Bartzelona: Gedisa.

KURTZ, Carmen (1980). *Oscar y el Yeti*. Bartzelona: Lumen.

KURTZ, Carmen (1982). *Oskar eta Yetia*. Donostia: Elkar.

LONDON, Jack (1991). *Bizitza maite eta beste ipuin batzuk*. Bilbo: Gero-Mensajero [Itzul.: Tomas Sarasola. Jat.: *Love of life* (1907)].

NÖSTLINGER, Christine (1994). *Markel, Maddi eta Maluta*. Madril: Alfaguara-Zubia [Itzul.: Josemari Navascues. Jat.: *Jokel, Julia und Jericho* (1983)].

OLAZIREGI, Mari Jose (1998b). *Euskal Gazteen Irakurzaletasuna*. Bergara: Bergarako Udala.

ORWELL, George (1978). *Animal Farm*. Hardmondsworth: Penguin.

ORWELL, George (1981). *Abereeneko iraultza*. Donostia: Hordago [Itzul.: Imanol Unzurrunzaga. Jat.: *Animal Farm* (1945)].

PAUSEWANG, Gudrun (1987). *Die Wolke*. Ravensburger: Buchverlag.

PAUSEWANG, Gudrun (1991). *Hodeia*. Donostia: Elkar [Itzul.: Xabier Mendiguren. Jat.: *Die Wolke* (1987)].

SALGARI, Emilio (1974). *En las fronteras del far west*. Madril: Susaeta.

SALGARI, Emilio (1980a). *Urrutiko mendebaleko mugak (bat)*. Donostia: Hordago [Itzul.: G. Etxeberria. Jat.: *Sulle frontiere del Far-West* (1908)].

SALGARI, Emilio (1980b). *Urrutiko mendebaleko mugak (bi)*. Donostia: Hordago [Itzul.: G. Etxeberria. Jat.: *Sulle frontiere del Far-West* (1908)].

SEMPE-GOSCINNY (1982). *Nikolas txiki*. Donostia: Elkar [Itzul.: Imanol Tapia. Jat.: *Le petit Nicolas* (1960)].

SEMPE-GOSCINNY (1990). *Le petit Nicolas*. Mayenne: Denoël.

SCOTT, Walter (1973). *Ivanhoe*. Madril: Susaeta.

SCOTT, Walter (1980). *Ivanhoe*. Donostia: Hordago [Itzul.: F. Ibargutxi. Jat.: *Ivanhoe* (1819)].

TORREALDAI, Joan Mari (1997). *Euskal kultura gaur*. Donostia: Jakin.

TOURY, Gideon (1980). *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.

TWAIN, Mark (1974). *El príncipe y el mendigo*. Madril: Susaeta.

TWAIN, Mark (1979). *Tom Sawyerren abenturak. Bat*. Donostia: Hordago [Itzul.: Gillermo ETXEBERRIA. Jat.: *The Adventures of Tom Sawyer* (1876)].

TWAIN, Mark (1981a). *Printzea eta eskalea*. Donostia: Hordago [Itzul.: J.M.Z.. Jat.: *The Prince and the Pauper* (1882)].

TWAIN, Mark (1981b). *Printzea eta eskalea*. Donostia: Elkar [Itzul.: Bittor Mujika. Jat.: *The Prince and the Pauper* (1882)].

TWAIN, Mark (1992). *Tom Sawyer & Huckleberry Finn*. Hertfordshire: Wordsworth Classics.

TWAIN, Mark (1994). *The Prince and the Pauper*. Hertfordshire: Wordsworth Classics.

VERNE, Jules (1981). *Le tour du monde en quatre-vingts jours* Paris: Gallimard (1. ed. 1873).

VERNE, Jules (1983). *Munduari itzulia 80 egunetan*. Donostia: Elkar [Itzul.: Manuel Arregi. Jat: *Le tour du monde en quatre-vingts jours* (1873)].

VERNE, Julio (1973). *La vuelta al mundo en ochenta días*. Barcelona: AFHA [Egokitz.: Antonio C. Gavaldá. Jat.: *Le tour du monde en quatre-vingts jours* (1873)].

VERNE, Julio (1979). *Indieta beltza*. Bilbo: Gero-Mensajero [Itzul.: Iñaki Azkune. Jat.: *Les Indes noires* (1877)].

VI
ONDORIOAK: EUSKARATUTAKO HAUR ETA GAZTE LITERATURAK EUSKAL POLISISTEMAN IZAN DITUEN ERAGIN ETA FUNTZIOAK, ETA ERABILI DITUEN ITZULPEN ESTRATEGIAK

Euskaratutako HGLren azterketa buruturik, honako hauek dira atera daitezkeen ondorioak. **Eragin eta funtzioei dagokienez:**

-Lehen urtealdiko itzulgaien aukeraketan "literatura irabazia" nagusitzen da: helduentzat idatzi baina haurren sistemara pasatu direnak.

-Lehen urtealdiko itzulpenetan ezin da sistematikotasunik antzeman sorburu hizkuntzetako obren aukeraketari dagokionez.

-Lehen urtealdiko itzulpenen funtzio nagusiak didaktiko-moralak dira.

-Bigarren urtealdiaren azterketan zenbait gai moderno agertzen hasten dira: emigrazioa, arraza desberdinak, ilargirako bidaiak... gehienak Kataluniako argitaletxeen eskutik. Hala ere, gai horien eraginik ez da nabarituko urtealdi horretako jatorrizko produkzioan.

-Bigarren urtealdiko itzulpenen funtzio nagusiak didaktiko-moralak dira.

-Hirugarren urtealdian itzulitako liburuen aukeraketan, kanonikotasunari begiratu gabe, euskal HGLk hurbilen zituen polisistemetara jo du, bereziki katalanezko polisistemara, eta gaztelaniazko polisistemako euskal herritarren obretara.

-Euskaratutako HGL kanonikoa ez da euskal kanonikotasunera iritsi, instituzioak eta merkatuak ez dutelako hala onartu.

-Teknika zein gai aldetik berritzaileak diren elementuak lehenago agertu dira itzulpenetan jatorrizko produkzioan baino, nahiz eta zuzeneko eraginik egon denik ezin den erabat frogatu.

-Itzulitako literaturaren zuzeneko eragina erabat frogatu ezin bada ere, badirudi jatorrizko produkzio berritzailea onartzea posible egin duen nolabaiteko "eredua" finkatzen lagundu duela.

Itzulpen-estrategiei dagokienez, berriz, honakoak dira ateratako ondorioak:

-Lehen urtealdiko itzulpenetan bizkaiera nagusitzen da xede hizkera gisa, beharbada ideologia jeltzalea Bizkaian umotu zelako.

-Lehen urtealdiko itzulpenak onargarritasunaren ardatzean kokatzen dira nagusiki.

-Egokitzapen ideologiko eta didaktikoak ugariak dira lehen eta bigarren urtealdietan, eta ia ez dira existitzen hirugarrenean.

-Testuetako konplexutasun sintaktiko eta semantikoak samurtzeko joera oso indartsua da hiru urtealdietan.

-Kultur egokitzapenetan ez dago batasunik: itzultzaile bakoitzaren esku utzi da egitea ala ez erabakitzea.

-Hirugarren urtealdiaren lehen erdian euskaratutako liburu gehienak gaztelaniazko polisistematik hartutako moldaketen itzulpenak dira.

-Euskal itzultzaileak ia inoiz ez dira moldaketen egileak; beste hizkuntzetan egindako moldaketak euskaratzera mugatu dira. Bitartekaritza lan hori egin duen sistema nagusia gaztelaniazkoa izan da.

-Bigarren urtealdiaren azken urteetako eta hirugarren urtealdiaren lehen 10-15 urteetako itzulpen ia guztiak gaztelania zubi-hizkuntza erabilita burutu dira.

-Jatorrizko hizkuntzetatiko itzulpenak 90eko hamarkadan egiten hasten dira nolabaiteko sistematikotasunez.

-90eko hamarkadako itzulpenak egokitasunaren ardatzean kokatzen dira.

-Paratestuei begiratuta, HGLko itzultzaileen statusa oso apala da: askotan ez dira agertu ere egiten, eta itzultzaileen aipamena egiten denean oso gutxitan agertzen da liburuaren azalean, egiletza-kredituetan eta portadatxoan baizik.

Laburbilduz, beraz, esan daiteke euskaratutako HGL, jatorrizkoarekin gertatzen den legez, hirugarren urtealdian hasten dela sistematikotasunez produzitzen (alegia, horretarako mekanismo gehienak existitzen hasi zirenetik: kontsumitzaileak, merkatua, instituzioa, errepertorioa). Lehen eta bigarren urtealdietako produkzioa, berriz, oso era mugatuan gertatu zen, bai denboran eta baita espazioan ere; haurrak bideratu eta entretenitzeko liburuen beharra ikusten bazen ere, artean ez zegoen “haur literatura” gisako zerbaiten ideia.

Itzulpen estrategiei buruz ere beste hainbeste esan daiteke: lehen eta bigarren urtealdietan ez da sistematikotasunik gertatu itzulpenak aukeratu eta egiteko orduan; itzultzailearen figura ere ez zen existitzen idazle mota berezitu gisa; itzulpenak hizkuntza trebezia erakusteko edo haurrak hezitzeko beharrei berehala erantzuteko bide bat besterik ez zen. Hirugarren urtealdian, berriz, aldatu egin zen aurreko egoera hori: itzulpengintza ikasketak eta itzultzaile profesionalak sortzen hasi ziren; testuen osotasuna gero eta gehiago errespetatzen da; gero eta gehiago euskaratzen da jatorrizko hizkuntzetatik.

Hitz batean, euskal HGLren egoera guztiz finkatuta dago gaur egun, jatorrizko zein itzulitako produkzioari dagokionez, eta antzeko beste literatura txikien dohain eta gabezia berberak dauzka.

VII
BIBLIOGRAFIA OROKORRA

AA. AA. (1965). *Orixe, omenaldi*. Donostia: Euskaltzaindia.

AA. AA. (1986). *Haur eta gazte literatura. Jakin* , 41.

AA. AA. (1993). *Haur literatura*. Bilbo: Labayru Ikastegia.

AA. AA. (1993). *Haur literaturaren inguruan*. Bilbo: UEU.

AA. AA. (1994). *Haur literaturaz. Hegats*, 9.

AA. AA. (1970). *Teoría de la literatura de los formalistas rusos*. México D.F.: Siglo XXI Editores.

AA. AA. (1985). *Lliçons de literatura comparada catalana y castellana (segles XIX-XX)*. Barcelona: Publicacions de l'Abadia de Montserrat.

AA. AA. (1992). *Poetics Today. Children's Literature*. Ale monografikoa. 13, 1.

AA. AA. (1992). *The World of Children's Books. Children's Books in the World of Children. 23rd World IBBY Congress*. Berlin: German IBBY Section.

AA. AA. (1995). *Proceedings. 24th International IBBY Congress on Books for Young People*. Madril: OEPLI.

AGUIAR E SILVA, Vítor Manuel (1972). *Teoría de la literatura*. Madril: Gredos.

ALDEKOA, Iñaki (1993). "Mapak eta istorioak", in *Euskal ipuinen antologia bat*, Irun: Alberdania, 7-23.

ALDEKOA, Iñaki (1993). *Zirkuluaren hutsmina. Jatorrizko Erromantizismotik euskal poesia modernora*. Irun: Alberdania.

ALDEKOA, Iñaki (1998). *Mendebaldea eta narraziogintza*. Donostia: Erein.

ALFONSECA, Manuel (1997). "Literatura infantil y juvenil anglosajona", *CLIJ* , 96, 7-23.

ALONSO FOURCADE, Jon (1995). *Idiaren eraman handia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

APALATEGI IDIRIN, Ur (1998). "Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa", *Uztaro*, 27, 63-82.

AREJITA, Adolfo (1983). "*Bertolda eta Bertoldin* eta Otxolua", in DELLA CROCE, G. C. *Bertolda eta Bertoldin*. Bilbo: Labayru, 7-27.

ARIES, Philippe (1987). *El niño y la vida familiar en el Antiguo Régimen*. Madril: Taurus.

ATXAGA, Bernardo (1990). *Sara, Zumalakarregiren zelatari. Antzoki iluna*. Donostia: HABE.

ATXAGA, Bernardo (1996a). "Un espía llamado Sara", *El Correo*, abuztuaren 8tik 22ra.

ATXAGA, Bernardo (1996b). *Un espía llamado Sara* . Madril: Acento.

ATXAGA, Bernardo (1996c). *Sara izeneko gizona* . Iruñea: Pamiela.

BAJTIN, M.M. (1987). *La cultura popular en la Edad Media y en el Renacimiento*. Madril: Alianza.

BAJTIN, M.M. (1989).*Teoría y estética de la novela*. Madril: Taurus.

BENJAMIN, Walter (1971). "La tarea del traductor", *Angelus Novus*, Barcelona: Edhasa (1923).

BERMAN, Antoine (1985). “La traduction et la lettre ou l’auberge du lointain”, in AA.AA., *Les tours de Babel*, Mauvezin: Trans-Europ-Repress, 31-179.

BESIEN, Fred Van; PELSMAEKERS, Katja (1994). “Metaforaren itzulpena”, *Senez*, 15. zkia., 175-188.

BIGURI, Koldo (1990). “Irudizko hizkera itzulpenean”, *Senez*, 9. zkia., 117-130.

BILBAO, Jon (1970-1981). *Eusko Bibliographia. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo C.* (10 liburuki). Donostia: Auñamendi.

BILBAO, Jon (1985-1996). *Eusko-bibliographia* (4 liburuki). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

BLOOM, Harold (1996). *The Western Canon*. Londres: Papermac. 4. ed.

BOADA, Francesc (1995). “Panorama de la traducció del llibre infantil i juvenil en català (1960-1990)”, *Faristol*, 21, 5-10.

BORDONS, Glòria; DIAZ-PLAJA, Anna (1993). *Literatura comparada (catalana i castellana)*. Barcelona: Empúries.

BORTOLUSSI, Marisa (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Madril: Alhambra.

BRAVO-VILLASANTE, Carmen (1983). *Historia de la literatura infantil española*. Madril: Doncel. 4. ed.

BRAVO-VILLASANTE, Carmen (1988). *Historia y antología de la literatura infantil universal* (4 liburuki). Valladolid: Miñón.

CALLEJA, Seve (1988). “Lo de aquí y lo de fuera”, *Alacena*, 8, 17-18.

CALLEJA, Seve (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986 arte*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

CALLEJA, Seve; MONASTERIO, Xabier (1987). “Las traducciones al euskara de libros infantiles y juveniles”, *Euskera*, XXXII (2. aldia), 133-163.

CALLEJA, Seve; MONASTERIO, Xabier (1988). *La literatura infantil vasca*. Bilbo: Mensajero.

CERRILLO, Pedro eta GARCIA PADRINO, Jaime (koord.) (1990).*Literatura infantil*. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.

CERVERA, Juan (1991). “La literatura de transición”, *Monteoliveti*, 7. zkia., 141-151.

CERVERA, Juan (1997). “La Literatura Infantil, inabarcable”, in CANTERO, Fco. José; MENDOZA, Antonio; ROMEA, Celia (eds.), *Didáctica de la lengua y la literatura para una sociedad plurilingüe del siglo XXI* , Barcelona: Universitat de Barcelona, 821-826.

COELHO DE PAIVA BALÇA, Angela (1997). “Aspectos Pedagógico-Didácticos na Literatura Infanto-Juvenil Portuguesa: Uma Leitura Comparada de *Os Luisiadas* de Luis de Camões e de *Os Luisiadas de Luis de Camões* de João de Barros”, in CANTERO, Fco. José; MENDOZA, Antonio; ROMEA, Celia (eds.), *Didáctica de la lengua y la literatura para una sociedad plurilingüe del siglo XXI* , Barcelona: Universitat de Barcelona, 723-726.

COLOMER, Teresa (1991). “Ultimos años de la literatura infantil y juvenil. Desde el mayo del 68 a la posmodernidad de los ochenta”, *CLIJ* , 26, 14-24.

COLOMER, Teresa (1998). *La formació del lector literari*. Barcelona: Barcanova.

COLOMER, Teresa (1998). “Las voces que narran la historia”, *CLIJ* , 111, 18-27.

CUBELLS SALAS, Francisco (1981). “El libro catalán para niños y adolescentes: evolución y tendencias”, *Reforma de la Escuela*, 31, 32-45.

D’HAEN, Theo, ed. (1989). *Convention and Innovation in Literature.* Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.

D’HULST, Lieven (1981). “Les variantes textuelles des traductions littéraires”, *Poetics Today*, 2, 4, 133-141.

DARNTON, Robert (1987). *La gran matanza de gatos y otros episodios en la historia de la cultura francesa*. Mexiko, D.F.: Fondo de Cultura Económica.

DARTON, F. J. Harvey (1982). *Children´s Books in England. Five Centuries of Social Life*. Cambridge: Cambridge University Press, 3. ed.

DIAZ-PLAJA, Ana (1988). “Estilos literarios en la literatura infantil y juvenil actual”, in BATTANER, M. P. i GUTIÉRREZ CUADRADO, J. (eds.), *Llengua literària i Expressió escrita*. Bartzelona: Universitat de Barcelona, 19-33.

ECO, Umberto (1995). “Itzulpengintza eta hizkuntza perfektua”, *Senez*, 16. zkia., 103-118.

ESCARPIT, Denise (1986). *La literatura infantil y juvenil en Europa*. México D.F.: Fondo de Cultura Económica.

ETXANIZ, Xabier (1997a). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

ETXANIZ, Xabier (1997b). *Haur eta gazte literatura. Kontzeptuaren definizio baten bila*. Iruñea: Pamiela.

ETXANIZ, Xabier (1997c). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela.

ETXANIZ, Xabier (argit. gabe). “Literatura infantil y juvenil vasca”.

ETXEBERRIA, Martin (1973). *Euskaldunen ipuin harrigarriak*. Arantzazu: Jakin.

EVEN-ZOHAR, I (1978). "The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem", in J.S. HOLMES (1978).

EVEN-ZOHAR, I (1990). "Polysystem Studies", in *Poetics Today*, 11, 1.

FERNANDEZ, Victoria (1997). "Literatura infantil y juvenil: panorama crítico", in CANTERO, Fco. José; MENDOZA, Antonio; ROMEA, Celia (eds.), *Didáctica de la lengua y la literatura para una sociedad plurilingüe del siglo XXI* , Barcelona: Universitat de Barcelona, 61-66.

FERNANDEZ LOPEZ, Marisa (1996). *Traducción y literatura juvenil: narrativa anglosajona contemporánea en España*. León: Universidad de León.

FERNANDEZ MOSQUERA, Ana (1998). "Guillermo Brown y las virtudes victorianas", *CLIJ* , 103, 28-36.

FOKKEMA, D.W. (1984). *Literary History. Modernism and Postmodernism*. Amsterdam-Filadelfia: John Benjamins.

FOKKEMA, D.W. (1985) "The Concept of Code in the Study of Literature", in *Poetics Today*, 4. zkia., 643-656 oo.

GALLEGO ROCA, Miguel (1994). *Traducción y literatura: los estudios literarios ante las obras traducidas*. Madril: Ed. Júcar.

GALLEGO ROCA, Miguel (1996). "En el lenguaje de las traducciones. Construcción de una coiné y renovación del canon", in *Actas del X Simposio de la Sociedad Española de Literatura General y Comparada*, II. liburukia, 357-366.

GARCIA BERRIO, Antonio (1989). *Teoría de la literatura*. Madril: Cátedra.

GARCIA PADRINO, Jaime (1988). “La literatura infantil y la formación humanística”, in BB.AA. *Didáctica de la lengua y la literatura*. Madril: Anaya.

GARCIA PADRINO, Jaime (1992). *Libros y literatura para niños en la España contemporánea*. Madril: Fundación Germán Sanchez Ruipérez/Pirámide.

GARCIA YEBRA, Valentín (1982). *Teoría y práctica de la traducción*. Madril: Gredos (2 liburuki).

GARCIA YEBRA, Valentín (1983). *En torno a la traducción. Teoría. Crítica. Historia*. Madril: Gredos.

GARMENDIA, Mikel (1995). “Itzulpena eta sorkuntza”, *Senez*, 16. zkia., 93-96.

GARRALON, Ana; DIERKES, Wiener (1994). “Entrevista con Peter Härtling”, *CLIJ*, 65, 21-26.

GENETTE, Gérard (1989a). *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*. Madril: Taurus.

GENNETE, Gérard (1989b). *Figuras III*. Bartzelona: Lumen.

GOMES, José António (1998). “Literatura infantil en Portugal”, *CLIJ* , 106, 7-12.

GOMEZ DEL MANZANO, Mercedes (1987). *El protagonista-niño en la literatura infantil del siglo XX*. Madril: Narcea.

GOMEZ, Ricardo (1990). “Jean Baptiste Archu”, in *La Fontainaren alegia berheziak*. Donostia: Ibaizabal, 7-21.

GORP, Hendrik van (1981). “Traductions et évolution d’un genre littéraire”, *Poetics Today*, 2, 4, 209-219.

GUILLEN, Claudio (1971). *Literature as a System: essays toward the theory of literature history*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press.

GUILLEN, Claudio (1985). *Entre lo uno y lo diverso. Introducción a la Literatura Comparada*. Bartzelona: Editorial Crítica.

HARTMANN, R.R.K. (1981). "Contrastive Textology, Applied Linguistics and Translation", *Poetics Today*, 2, 4, 111-120.

HAZARD, Paul (1983). *Los libros, los niños y los hombres*. Bartzelona: Juventud.

HELD, J. (1981). *Los niños y la literatura fantástica*. Bartzelona: Paidós.

HERMANS, Theo ed. (1985). *The Manipulation of Literature*. Londres, Croom Helm.

HEVIA, Elena (1989). "Un universo llamado Julio Verne", *CLIJ*, 11, 48-50.

HOLMES, James S. (1988) *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies*. Amsterdam, Rodopi.

HOLMES, James S.; LAMBERT, José & VAN DEN BROECK, Raymond, eds. (1978). *Literature and Translation*. Leuven (Belgika): Acco.

HUNT, Peter (1991). *Criticism, Theory, & Children's Literature*. Oxford, Blackwell Publishers.

HUNT, Peter (ed.) (1992). *Contemporary Criticism*. Londres/New York, Routledge.

HUNT, Peter (ed.) (1996). *International Companion Encyclopedia of Children's Literature*. Londres/New York, Routledge.

HÜRLIMANN, Bettina (1968). *Tres siglos de literatura infantil europea*. Bartzelona: Juventud.

IGERABIDE, Juan Kruz (1993). *Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotasuna eta Literatura)*. Donostia: Erein.

IZTUETA, Paulo (1991). *Orixe eta bere garaia*. Donostia: Etor.

JOBE, Ronald (1996). “Translation”, in HUNT, Peter (ed.), 519-529.

JUARISTI, Jon (1987). *Literatura vasca*. Madril: Taurus.

KLINGBERG, Göte; *et al.* ed. (1978). *Children’s Books in Translation. The Situation and the Problems*. Stockholm: Almqvist & Wiksell International.

KLINGBERG, Göte (1986). *Children’s Fiction in the Hands of the Translators*. Lund (Suedia): CWK Gleerup.

KOMISSAROV, Vilen (1994). “Itzulpen literarioaren naturaltasunaz”, *Senez*, 15. zkia., 161-174.

KOPPEN, Erwin (1990). *Thomas Mann y Don Quijote*. Bartzelona: Gedisa.

KORTAZAR, Jon, zuzend. (1985). *Altxorrak eta bidaiak. Haur kontabideen azterketa*. Bilbo: Desclée de Brouwer.

KORTAZAR, Jon (1989). *Laberintoaren oroimena. Gure garaiko olerkigintzaz*. Donostia: Baroja.

KORTAZAR, Jon (1997). *Euskal literaturaren historia txikia*. Donostia: Erein.

KRISTEVA, Julia (1969). *Semiótica*. Madril: Fundamentos.

KRISTEVA, Julia (1978). *Semiótica 2*. Madril: Fundamentos.

KUSHNER, Eva (1989). “Articulation historique de la littérature”, in M. ANGENOT et. al. (eds.), *Théorie littéraire: Problémes et perspectives*, PUF, Paris, 109-125.

LAFITTE, Pierre (1948). “Leoi-kumea”, *Eusko-Jakintza*, II, 682. Biarritz.

LAMBERT, José (1980). “Plaidoyer pour un programme des études comparatistes. Littérature comparée et théorie du polysystème”, *Orientations de recherche et méthodes en*

Littérature Comparée, Actes du XVIe Congrès de la Société Française de Littérature Générale et Comparée, Tome I, Montpellier III, 60-69.

LAMBERT, José (1980). "Production, tradition et importation: une clef pour la description de la littérature et de la littérature en traduction", *Canadian Review of Comparative Literature*, 247-252.

LAMBERT, José (1981). "Théorie de la littérature et théorie de la traduction en France (1800-1850)", *Poetics Today*, 2, 4, 161-170.

LAMBERT, José (1987). "Les genres et l'evolution littéraire à l'époque romantique", in JACQUES, G. eta LAMBERT, J. *Itinéraires et plaisirs textuels*, Université de Louvain, 87-101.

LAMBERT, José (1987). "Un modele descriptif pour l'etude de la littérature comme polysysteme", *Contextos*, V/9, 47-67.

LAMBERT, José (1989). "La traduction", in Marc. ANGENOT et. al. (eds.), *Théorie littéraire: Problémes et perspectives*, Paris: PUF, 151-159 oo.

LANDA, Mariasun (1995). "Tom Sawyer-ez maitemindu zen neska", Pako Aristik egindako elkarrizketa, *El Diario Vasco*, maiatzaren 24an, 73.

LASAGABASTER, Jesus Maria (1989). "La novela vasca al borde de la realidad", *Congreso de Literatura (Hacia la Literatura Vasca)*. Madril: Castalia, 319-346.

LEFEVERE, André (1982). "Théorie littéraire et littérature traduite", *Canadian Review of Comparative Literature*, 137-156.

LEFEVERE, André (1983). "Literature, Comparative and Translated", in *Babel*, XXIX, vol. 2, 70-75.

LEKUONA, Juan Mari (1982). *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.

LEUVEN-ZWART, Kitty M. van & NAAIJKENS, Ton, eds. (1991). *Translation Studies: the State of the Art*. Amsterdam: Rodopi.

LJUDSKANOV, Alexandre (1969). *Traduction humaine et traduction mécanique*. Paris: Dunod.

LLUCH I CRESPO, Gemma (1995). *La literatura infantil i juvenil en català: el lector model en la narrativa*. Doktore tesia. Valencia: Universitat de València.

LLUCH I CRESPO, Gemma (1996). "La literatura de adolescentes: la psicoliteratura", *Textos* , 9. zkia., 21-28.

LOTMAN, Yuri M. (1988). *Estructura del texto artístico*. Madril: Istmo.

MAÑA TERRE, Teresa (1996). "Literatura juvenil y lectura para jóvenes", *Textos*, 9. zkia., 15-20.

MARTIN, Andreu (1995). "¿Por qué literatura juvenil?", *CLIJ* , 72, 24-28.

MAYORAL, José Antonio, ed. (1987). *Estética de la recepción*. Madril: Arco/Libros.

MAYORAL, José Antonio, ed. (1987). *Pragmática de la comunicación literaria*. Madril: Arco/Libros.

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1992). *Itzulpengintza. Historia eta teoria*. Donostia: Elkar.

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1995). *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*. Donostia: Elkar.

MENDIGUREN, Xabier (1981). "Euskal literaturan itzuli izan diren liburuen zerrenda", *Euskera*, XXVI (2. aldia), 954-979.

MENDIGUREN, Xabier (1983). *Itzulpen teoriazko ezagupenak*. Donostia: Itzultzaile Eskola.

MENDIGUREN, Xabier (1985). "Ingelesaren konpresioa eta beronen itzulpena", *Senez*, 2. zkia., 79-82.

MENDIGUREN, Xabier (1985). "Itzulpen teoria eta praktika: joerak eta eskolak", *Senez*, 2. zkia., 33-58.

MENDIGUREN, Xabier (1990). "Testu itzuliaren organikotasuna", *Senez*, 9. zkia., 131-142.

MENDIGUREN, Xabier (1991). "Alemaniarren itzulpen tradizioa", *Senez*, 11. zkia., 31-50.

MENDIGUREN, Xabier (1991). "Orixeren itzulpengintza", in *Orixeren Mendeurrena (1888-1988). Hitzaldiak* (IV liburukia), Donostia: Etor, 517-532.

MENDIGUREN, Xabier (1993). "Euskal itzulpenaren garapena", *Senez*, 14. zkia., 11-32.

MENDOZA FILLOLA, Antonio (1994). *Literatura comparada e intertextualidad*. Madril: La Muralla.

MENDOZA FILLOLA, Antonio (1998). *Conceptos clave en didáctica de la lengua y la literatura*. Bartzelona: Universitat de Barcelona.

MENDOZA FILLOLA, Antonio; LOPEZ VALERO, Amando (1997). "Nuevos cuentos viejos. Los efectos de la transtextualidad", *CLIJ*, 90. zkia., 7-18.

MICHELENA, Luis (1988). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein. 2. ed.

MITXELENA, Luis (1954). "Kontu kontari. Oscar Wideren *Erraldoi berekoia*", *Egan*, 2-4, 11-15.

MITXELENA, Luis (1957). "Pipo, konejutxu arroa. Nini, konejutxu argia", *Egan*, 5-6, 346.

MITXELENA, Luis (1959). “Itxasoa laño dago... Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezkak”, *Egan*, 5-6, 192.

MOGEL, Bizenta (1804). *Ipui onac*. Donostia: Antonio Undiano.

MOUNIN, Georges (1963). *Les problèmes théoriques de la traduction*. Paris, Gallimard.

MUJIKA, Iñazio (1991). “Ipuingintzaz”, *Hegats*, 5, 17-26.

MUKAROVSKY, Jan (1977). *Escritos de Estética y Semiótica del Arte*. Bartzelona: Gustavo Gili.

NEWMARK, Peter (1981) *Approaches to Translation*. Oxford, Pergamon.

OLAZIREGI, Mari Jose (1993). “Gaztetxoek ez dute euskarazko literatur itzulpenik irakurtzen”, *El Diario Vasco*, “Zabalik” gehigarria, urriaren 27a, 3 (Felix Ibargutxik egindako elkarrizketa).

OLAZIREGI, Mari Jose (1998a). *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Donostia: Erein.

OLAZIREGI, Mari Jose (1998b). *Euskal Gazteen Irakurzaletasuna*. Bergara: Bergarako Udala.

ORIXE (1929). *Tormes’ko itsu-mutilla* . Bilbo: Verdes-Achirica.

ORQUIN, Felicidad (1983). “Nuevas corrientes de la literatura para niños”, *Papeles de Acción Educativa*, 1, 7-16.

ORQUIN, Felicidad (1984). “La literatura infantil, hoy en castellano”, *Cuadernos de Pedagogía*, 117, 71-73.

ORTEGA Y GASSET, José (1961). “Miseria y esplendor de la traducción”, Obras Completas, V, Madril: *Revista de Occidente*, 433-452 (1937).

PARCERISAS, Francesc (1993). “Traducción versus creación”, *Senez*, 14. zkia., 33-50.

PAZ, Octavio (1971). *Traducción: literatura y literalidad*. Bartzelona: Tusquets.

PAZ, Octavio (1987). *Los hijos del limo*. Bartzelona: Seix Barral. 2. ed.

PEREZ FIRMAT, Gustavo (1978). "Apuntes para un modelo de la intertextualidad en literatura", *Romanic Review*, 1-14.

PERRICONI, Graciela (1983). *El libro infantil*. Buenos Aires: El Ateneo.

PERRY, Menakhem (1981). "Thematic and Structural Shifts in Autotranslations by Bilingual Hebrew-Yiddish Writers", *Poetics Today*, 2, 4, 181-192.

PROPP, Vladimir (1981). *Morfología del cuento*. Madril: Fundamentos.

RABADAN, Rosa (1991). *Equivalencia y traducción. Problemática de la equivalencia translémica inglés-español*. León: Universidad de León.

RICHARDS, Jeffrey, ed. (1989). *Imperialism and Juvenile Literature*. Manchester/New York, Manchester University Press.

RODRIGUEZ ALMODOVAR, Antonio (1995). "La educación literaria en la pubertad", *CLIJ* , 72, 16-22.

ROMERO LOPEZ, Dolores, ed. (1998). *Orientaciones en literatura comparada*. Madril: Arco.

ROSSELL, Joel Franz (1999). "La narrativa detectivesca. Tradición y renovación", *CLIJ*, 112, 7-16.

ROVIRA, Teresa (1988). "La literatura infantil i juvenil", apèndix a *Història de la literatura catalana*, RIQUER, COMAS, MOLAS. Bartzelona: Ariel, 11. liburukia, 421-471.

SAIZ RIPOLL, Anabel (1993). “Años 60, nuevos horizontes. La literatura infantil española de los 60”, *CLIJ* , 53, 7-17.

SANCHEZ CORRAL, Luis (1995). *Literatura infantil y lenguaje literario*. Bartzelona, Paidós.

SARASOLA, Ibon (1982) *Historia social de la literatura vasca*. Madril: Akal.

SAVATER, Fernando (1976). *La infancia recuperada*. Madril: Taurus.

SCHMELING, Manfred (1984). *Teoría y praxis de la literatura comparada*. Bartzelona/Caracas: Alfa.

SHAVIT, Zohar (1980). “The ambivalent status of texts. The case of Children’s Literature”, *Poetics Today*, 1:3, 75-86.

SHAVIT, Zohar (1981). “Translation of Children’s Literature as a function of its position in the Literary Polysystem”, *Poetics Today*, 2:4, 171-179.

SHAVIT, Zohar (1986). *Poetics of Children’s Literature*. Atenas/Londres: The University of Georgia Press.

SHEFFY, Rakefet (1990). “The Concept of Canonicity in Polysystem Theory”, *Poetics Today*, 11:3, 511-522.

SORIANO, Marc (1995). *La literatura para niños y jóvenes. Guía de exploración de sus grandes temas.* Buenos Aires: Colihue..

STEPHENS, John (1992). *Language and Ideology in Children’s Fiction*. Londres/New York, Longman.

STERNBERG, Meir (1981). “Polylingualism as Reality and Translation as Mimesis”, *Poetics Today*, 2, 4, 221-239.

TAMES, Román L. (1985). *Introducción a la literatura infantil*. Oviedo, Universidad de Santander.

TAPIA, Imanol (1984). “Argitaletxeak eta itzulpena”, *Senez*, 1. zkia., 81-86.

TEIXIDOR, Emili (1995). “Literatura juvenil: las reglas del juego”, *CLIJ* , 72, 8-15.

TORREALDAI, Joan Mari (1993). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

TORREALDAI, Joan Mari (1995). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa. 1993-1994.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

TORREALDAI, Joan Mari (1997). *Euskal kultura gaur.* Donostia: Jakin.

TORREALDAY, Joan Mari (1977). *Euskal idazleak, gaur*. Oñati-Arantzazu: Jakin.

TOURY, Gideon (1980). *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.

TOWNSEND, John Rowe (1971). *A Sense of Story*. Londres: Longman Young Books.

TOWNSEND, John Rowe (1995). *Written for Children. An Outline of English-language Children´s Literature*. Londres: The Bodley Head. 6. ed. zuzendua.

TOWNSEND, John Rowe (1996). “British Children’s Literature: A Historical Overview”, in HUNT, Peter (ed.), *International Companion Encyclopedia of Children’s Literature*. Londres/New York, Routledge, 676-687.

VALRIU I LLINAS, Caterina (1994). *Història de la literatura infantil i juvenil catalana*. Bartzelona: Pirene.

VALVERDE, José María (1983). “Mi experiencia como traductor”, *Cuadernos de Traducción e Interpretación* , 2, 9-26.

VILLANUEVA, Darío, koord. (1994) *Avances en teoría de la literatura*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela.

VILLASANTE, Luis (1979). *Historia de la literatura vasca*. Burgos: Ed. Aranzazu. 2. ed.

WALL, Barbara (1991). *The Narrator's Voice. The Dilemma of Children's Fiction*. Londres: Macmillan.

WANDRUSZKA, Mario (1976*). Nuestros idiomas: comparables e incomparables* (2 liburuki). Madril: Gredos.

WARNING, Rainer, ed. (1989). *Estética de la recepción*. Madril: Visor.

WEISSTEIN, Ulrich (1975). *Introducción a la literatura comparada*. Bartzelona: Planeta.

WELLEK, R. eta WARREN, A. (1979) *Teoría literaria*. Madril: Gredos (7. ed.).

WILD, Reiner, ed. (1990). *Geschichte der deutschen Kinder- und Jungendliteratur*. Stuttgart: Metzler.

X. X. (1936). "Bibliografía para niños euzkeldunes", *Euzkadi*, Bilbo. Urtarrilaren 2a, 4. or.

YAHALOM, Shelly (1981). "Le système littéraire en état de crise", *Poetics Today*, 2, 4, 143-160.

ZABALA, Juan Luis (1996). "<Hemendik 25 urtera izango ditu euskal literaturak arazo benetan latzak>" (Bernardo Atxagari egindako elkarrizketa), *Egunkaria* , abenduaren 4a, 30-31.

ZABALETA, Josu (1991). "Hedadura txiki eta ertaineko hizkuntzetako itzulpena aztertzeko zenbait aldagai bakantzeko saioa", *Senez*, 12. zkia., 17-38.

ZELAIETA, Anjel (1986). "Juan Mateo Zabala", in *Fábulas en dialecto vizcaino*. Bilbo: Labayru, 21-28.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (1997). *Euskal idazleak. Escritores en lengua vasca. Basque Writers.* Bilbo: Euskal Editoreen Elkartea.

VIII
ERANSKINAK

VIII.1 Literatur bildumarik garrantzitsuenak

Kimu saila, Gero (Mensajero), Bilbo

SCHILLER, Friedrich (1976). *Gilen Tell*. Itzul.: Jaxinto Fernández Setién.

VERNE, Jules (1976). *Lurraren bihotzeraino*. Itzul.: Iñaki Azkune.

VERNE, Jules (1979). *Indieta beltza*. Itzul.: Iñaki Azkune.

MELVILLE, Herman (1977). *Moby Dick*. Itzul.: Kaxildo Alkorta.

SVENSSON, Jon (1983). *Noni eta Mani*. Itzul.: Plazido Mujika. 2. argit.

WEISER, Franz (1983). *Mendiko Argia*. Itzul.: Plazido Mujika. 2. argit.

BARRIE, James Matthew (1990). *Peter Pan eta Wendy*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

GRIMM anaiak (1990). *Grimm anaien ipuinak*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

HICKOK, Lorena (1990). *Hellen Kellerren historia*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

KIPLING, Rudyard (1990). *Horrelaxe*. Itzul.: Mari Eli Ituarte.

TAGORE, Rabindranat (1990). *Erregearen postaria*. Itzul.: Mari Eli Ituarte.

LONDON, Jack (1991). *Bizitza maite eta beste ipuin batzuk*. Itzul.: Tomas Sarasola.

VERNE, Jules (1991). *Martin Paz indioa*. Itzul.: Karlos Santisteban.

Tximista saila, Hordago, Donostia

TWAIN, Mark (1979). *Tom Sawyer-en abenturak* (4 ale). Itzul.: X.X.

CARROLL, Lewis (1979). *Alizia herrialde harrigarrian*. Itzul.: X.X.

WELLS, H. G. (1979). *Ikusezina*. Itzul.: Arantza Sarriegi.

LONDON, Jack (1979). *Oihanaren deia*. Itzul.: X.X.

LONDON, Jack (1980). *Abentura ikaragarria airean*. Itzul.: Joxe Lizarralde.

LONDON, Jack (1980). *Mauki*. Itzul.: Arantza Sarriegi.

TWAIN, Mark (1980). *Tom Sawyer detektibe*. Itzul.: X. X.

STEVENSON, Robert Louis (1980). *Ahotsen isla-Deabrua botilan*. Itzul.: K. Aulestia.

SCOTT, Walter (1980). *Ivanhoe*. Itzul.: Felix Ibargutxi.

SALGARI, Emilio (1980). *Urrutiko mendebaleko mugak* (2 ale). Itzul.: Gillermo Etxeberria.

SALGARI, Emilio (1980). *Pirataren andrea* (2 ale). Itzul.: Gillermo Etxeberria.

STOWE, H. E. Beecher (1980). *Osaba Tom-en txabola*. Itzul.: Periko Diez de Ultzurrun.

TWAIN, Mark (1981). *Printzea eta eskalea*. Itzul.: J. M. Zabaleta.

LONDON, Jack (1981). *Pirataren espedizioa*. Itzul.: X.X.

LONDON, Jack (1981). *Bizi nahi*. Itzul.: Gillermo Etxeberria.

X.X. (1981). *Till Eulenspiegel*. Itzul.: Felix Ibargutxi.

ORWELL, George (1981). *Abereeneko iraultza*. Itzul.: Imanol Unzurrunzaga.

BAUM, L. Frank (1981). *Oz-ko magoa*. Itzul.: Juan M. Arzallus.

VERNE, Jules (1981). *Hamabost urteko kapitaina*. Itzul.: Gillermo Etxeberria.

BAUMANN, Hans (1981). *Estepako semeak* (2 ale). Itzul.: P. M. Zabaleta.

DAUDET, Alphonse (1981). *Taraskoneko Tartarin*. Itzul.: J. M. Zabaleta.

DAUDET, Alphonse (1981). *Tartarin Alpeetan*. Itzul.: Periko Diez de Ultzurrun.

IRWING, Washington (1981). *Rip Van Winkle*. Itzul.: I. Zurutuza.

X.X. (1981). *Azeri Axiantea* (2 ale). Itzul.: Juan A. Arzallus.

LONGFELLOW, Henry Wadsworth (1981). *Hiawatha*. Itzul.: Bittor Hidalgo.

STINNET, Norman R. (1981). *Robin Hood* (2 ale). Itzul.: A. Berasategi.

Itzul saila, Elkar, Donostia

VERNE, Jules (1979). *Migel Strogoff*. Itzul.: Joan Amenabar.

SORRIBAS-ROIG, Sebastián (1980). *Ketxusen Zooa*. Itzul.: Joxantonio Ormazabal.

STOWE, Harriet R. Beecher (1980) *Osaba Tom-en etxola*. Itzul.: Arantza Sarriegi.

CANELA, Mercè (1980). *Norena da basoa?* Itzul.: Joxantonio Ormazabal.

X. X. (1981). *Till Eulenspiegel.* Itzul.: Txiliku.

CANELA, Mercè (1981). *Utinghami, lainotako errege*. Itzul.: Arantza Sarriegi.

VERNE, Jules (1981). *Hamabost urteko kapitaina*. Itzul.: Joan Amenabar.

VERNE, Jules (1981). *Grant Kapitainaren semeak*. Itzul.: David Urbistondo.

VERNE, Jules (1981). *Munduaren azken muturreko faroa*. Itzul.: David Urbistondo.

TWAIN, Mark (1981). *Printzea eta eskalea*. Itzul.: B. Mujika.

SCOTT, Walter (1981). *Robin Hood*. Mold.: Roberto Ausonako. Itzul.: Xabier Mendiguren.

KIPLING, Rudyard (1981). *Oihanaren liburua*. Itzul.: Jexux Mari Haranburu.

VALLVERDU, Josep (1981). *Iban trapusaltzailea*. Itzul.: Xabier Gartzia.

RODARI, Gianni (1981). *Jolas egiteko ipuinak*. Itzul.: Joxantonio Ormazabal.

LODI, Mario (1981). *Txipi*. Itzul.: Arantza Sarriegi.

GRIPE, Maria (1982). *Elvis, Elvis*. Itzul.: Idoia Agirre.

SALGARI, Emilio (1982). *Korsario Beltza*. Itzul.: Jone Forkada.

ORWELL, George (1982). *Abereen etxaldea*. Itzul.: Juan Martin Elexpuru.

JANER, Gabriel (1982). *Gaxpar erregea*. Itzul.: Arantza Sarriegi.

CARBO, Joaquim (1982). *Hamarreko laguntaldea*. Itzul.: Abelino Linazasoro.

KURTZ, Carmen (1982). *Oskar eta Yetia*. Itzul.: Jon Arzallus.

PREUSSLER, Offried (1982). *Tomas Txorimalo*. Itzul.: Xabier Gartzia.

GOSCINNY, René; SEMPE, Jean Jaques (1982). *Nikolas Txiki*. Itzul.: Imanol Tapia.

GOSCINNY, René; SEMPE, Jean Jaques (1982). *Nikolas Txikiren errekreoak*. Itzul.: Ramon Agirre.

GOSCINNY, René; SEMPE, Jean Jaques (1983). *Nikolas Txikiren oporrak*. Itzul.: Ramon Agirre.

PREUSSLER, Offried (1983). *Sorgin txikia*. Itzul.: Pilar Izagirre.

KURTZ, Carmen (1983). *Oskar eta ovniak*. Itzul.: Pello Esnal.

HÄRTLING, Peter (1983). *Txirbel*. Itzul.: Xabier Gartzia.

HÄRTLING, Peter (1983). *Amona*. Itzul.: David Urbistondo.

KÄSTNER, Erich (1983). *Maiatzak 35*. Itzul.: Bittor Hidalgo.

HETMANN, Frederik (1983). *Futboleko botak*. Itzul.: Aitor Juaristi.

FEUSTEL, Günther (1983). *Nino suerte bila*. Itzul.: David Urbistondo.

RODARI, Gianni (1983). *Telefonozko ipuinak*. Itzul.: Idoia Agirre.

ZIMNIK, Reiner (1983). *Garabia*. Itzul.: Felipe Juaristi.

ZIMNIK, Reiner (1983). *Danborrariak*. Itzul.: Agustina Pontesta.

SIMMEL, Johannes M. (1984). *Ez nigarrik egin*. Itzul.: Margarita Altuna.

JÜRGEN PRESS, Hans (1984). *Eskubeltz taldearen abenturak*. Itzul.: Pilar Iparragirre.

MIRAJKAR, Rosemarie (1984). *Jennyren ibilaldiak*. Itzul.: Pello Zabaleta.

PREUSSLER, Otfried (1984). *Fantasmatxoa*. Itzul.: Xabier Gartzia.

VERNE, Jules (1984). *Munduari itzulia 80 egunetan*. Itzul.: Manuel Arregi.

RUCK-PAUQUET, Gina (1985). *Belloni Zirkoa*. Itzul.: Pello Zabaleta.

RUCK-PAUQUET, Gina (1985). *Boris eta arrain sorgindua*. Itzul.: Xabier Aranburu.

RUCK-PAUQUET, Gina (1985). *Baso guztietan dago sagu bibolinjole bat*. Itzul.: Pello Zabaleta.

STEVENSON, Robert Louis (1985). *Altxorraren uhartea*. Itzul.: Xabier Etxaniz.

BRÖGER, Achim (1985). *Bertatik ikusita beste era batera dira gauzak*. Itzul.: Pello Zabaleta.

KÄSTNER, Erich (1985). *Gela hegalaria*. Itzul.: Lurdes Izagirre.

WÖLFEL, Ursula (1985). *Soro berdeak, soro grisak*. Itzul.: Xabier Monasterio.

VALLVERDU, Josep (1985). *Xarpa*. Itzul.: J. M. Azurmendi.

RODARI, Gianni (1985). *Eskale txikiak*. Itzul.: David Urbistondo.

GOSCINNY, René (1986). *Joakinek arazoak ditu*. Itzul.: David Urbistondo.

GOSCINNY, René (1986). *Nikolas Txiki eta bere lagunak*. Itzul.: David Urbistondo.

LONDON, Jack (1986). *Letagin Zuri*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

CROCE, Giulio Cesare (1986). *Bertoldo eta Bertoldino*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

TEHANETORENS (1986). *Ipuin irokiarrak*. Itzul.: Joxean Agirretxe.

BALLAZ, Jesus (1986). *Etxe bat noraezean*. Itzul.: Iñaki Zubizarreta.

WÖLFEL, Ursula (1986). *Suzko zapatak eta haizezko sandaliak*. Itzul.: Nekane Umerez eta Arantxa Azpitarte.

COLLODI, Carlo (1987). *Pinotxoren abenturak*. Itzul.: Agustina Pontesta.

COLLODI, Carlo (1987). *Pipi arrosa koloreko tximutxua*. Itzul.: Pello Zabaleta.

GARDELA, Maria Angels (1987). *Kutxa, kutxatila eta eguneroko bat*. Itzul.: Joseba Urzelai.

RODARI, Gianni (1987). *Gelsomino gezurtien herrian*. Itzul.: Juan Martin Elexpuru.

WILDE, Oscar (1987). *Printze zoriontsua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

EDMONSON, Madeleine (1988). *Ana sorgin*. Itzul.: Rosemiren Artola.

NUNES, Lygia Bojunga (1988). *Poltsa horia*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

RODARI, Gianni (1988). *Tarta hegalaria*. Itzul.: Imanol Tapia.

RUCK PAUQUET, Gina (1988). *Munduko haurrik xarmangarrienak*. Itzul.: Arantxa Carbonell eta Joan Mari Sarasola.

SCHREIBER-WICKE, Edith (1988). *Anton ez zegoen eguna*. Itzul.: Ane Barandiaran eta Rosemiren Artola.

SENNELL, Joles (1988). *Pantakrazio xinxolaina*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

VALLS, Alvar (1988). *Beltx, zakur baten oroitzapenak*. Itzul.: Margarita Altuna.

GROOME, Francis Hindes (1989). *Ijito ipuinak*. Itzul.: Joan Mari Sarasola.

KRENZER, Rolf (1989). *Irakasletxoa*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

BRÖGER, Achim (1989). *Amona eta biok*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

CLAVEL, Bernard (1989). *Itsasoko kondairak*. Itzul.: Mari Jose Kerejeta.

ALIBES, Mª Dolores (1989). *Orkesta miresgarria: 2590 urtea*. Itzul.: Koro Navarro.

MARTIN, Paco (1989). *Ramon Lamoteren gauzak*. Itzul.: Koldo Izagirre.

RODARI, Gianni (1989). *Bazen bitan Lanberto Baroia edo San Giulio uharteko misterioak*. Itzul.: Imanol Tapia.

RUTGERS, An (1989). *Argi galdua*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

TAKAHASHI, Amparo (1989). *Japoniako ipuin eta kondairak*. Itzul.: Joxe Antonio Sarasola.

X. X. (1990). *Afrikako ipuin herrikoiak (I eta II)*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

COOKSON, Catherine (1990). *Jones kankailu*. Itzul.: Xabier Gartzia.

HÄRTLING, Peter (1990). *Benek Anna maite du*. Itzul.: David Urbistondo.

HAUGEN, Tormod (1990). *Gautxoriak*. Itzul.: Rosemiren Artola eta Ane Barandiaran.

CLAVEL, Bernard (1991). *Laku eta ibaietako kondairak*. Itzul.: J. A. Sarasola.

X. X. (1991). *Errusiako ipuinak I*. Itzul.: Tomas Sarasola.

SENNELL, Joles (1991). *Gidaliburu fantastikoa*. Itzul.: Joan Mari Sarasola.

TIMM, Uwe (1991). *Rudi Mutturko txerri lasterkaria*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

X. X. (1992). *Errusiako ipuinak II*. Itzul.: Tomas Sarasola.

Auskalo saila, Erein, Donostia

TOURNIER, Michel (1986). *Ostirale edo bizitza basatia*. Itzul.: Mikel Lasa.

DAHL, Roald (1989). *Erraldoi on miragarria*. Itzul.: Joan Mari Irigoien.

DAHL, Roald (1990). *Sorginak*. Itzul.: Joan Mari Irigoien.

DAHL, Roald (1991). *Georgeren medizina miragarria*. Itzul.: Joan Mari Irigoien.

MUSSET, Alfred de (1991). *Zozo zuriarena*. Itzul.: Juan Kruz Igerabide.

BENNI, Stefano (1992). *Bitxilandiako animalia miresgarriak*. Itzul.: Koldo Biguri.

DUMAS, Alexandre (1993). *Kameliadun dama*. Itzul.: Iñaki Azkune.

RUIZ DE ALARCON, Antonio (1993). *Iltzea*. Itzul.: Karlos Linazasoro.

Auskalo Igela saila, Erein, Donostia

CALLEJA, Seve (1984). *Isu, haginik ez zuen marraxua*. Itzul.: Jon Kortazar.

LA FONTAINE, Jean de (1985). *Alegiak sudur ondoan begiak*. Itzul.: Jesusmari Mendizabal.

BICHSEL, Peter (1986). *Amerikarik ez dago*. Itzul.: Pello Zabaleta.

CASEPONCE, Esteve (1986). *Lierni*. Itzul.: Juan Garcia.

Baporea (sail urdina), S.M., Arrigorriaga

NÖSTLINGER, Christine (1986). *Susi maitea, Paul maitea*. Itzul.: Xabier Barrutieta.

JANOSCH (1987). *Jon Artaburu eta indio ikustezina*. Itzul.: Pello Zabaleta.

KORSCHUNOW, Irina (1988). *Hannoren herensugetxoa*. Itzul.: Endrike Knörr.

ESCUDIE, René (1989). *Otsokote-basati*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

NÖSTLINGER, Christine (1990). *Amona maite, zure Susi*. Itzul.: Pello Zabaleta.

BANSCHERUS, Jürgen (1991). *Treneko sagua*. Itzul.: Pello Zabaleta.

KORSCHUNOW, Irina (1991). *Kaxkamotx*. Itzul.: Jon Suarez.

LOBE, Mira (1991). *Ingo eta Drago*. Itzul.: Jon Suarez.

SAMPSON, Derek (1991). *Marmarti eta mamut iletsua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

LOBE, Mira (1992). *Alperrontzi erregea*. Itzul.: Pello Zabaleta.

SAMPSON, Derek (1993). *Zorioneko Marmarti eta mamuta berriro*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

SCHEFFLER, Ursel (1993). *Margolo, tinta-munstroa*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

NÖSTLINGER, Christine (1995). *Mini eskolara doa*. Itzul.: Pello Zabaleta.

Baporea (sail laranja), S.M., Arrigorriaga

PREUSSLER, Otfried (1986). *Vania indartsuaren abenturak*. Itzul.: Juan Luis Lekunberri.

GRIPE, Maria (1987). *Beiraginaren seme-alabak*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

PREUSSLER, Otfried (1987). *Markako eroak*. Itzul.: Pello Zabaleta.

PREUSSLER, Otfried (1989). *Klingsor jauna azti samarra da*. Itzul.: Pello Zabaleta.

GRIPE, Maria (1991). *Hugo*. Itzul.: Xabier Mendiguren Bereziartu.

MONTEILHET, Hubert (1991). *Ogibidez mamua*. Itzul.: Miren M. Billelabeitia.

SANDMAN LILIUS, Irmelin (1991). *Adarbakarra*. Itzul.: Jon Suarez.

TERLOW, Jan (1992). *Osaba Willibrord*. Itzul.: Andoni Etxeberria.

LOBE, Mira (1993). *Moritz Zakus, sudur zorrotza*. Itzul.: Pello Zabaleta.

PESTUM, Jo (1993). *Pirata teilatuan*. Itzul.:Pello Zabaleta.

WILSON, Eric (1994). *"Canadian Express"eko hilketa*. Itzul.: Manu Lopez Gaseni.

KING-SMITH, Dick (1995). *Sir Itzulipurdikari*. Itzul.: Manu Lopez Gaseni.

Baporea (sail gorria), S.M., Arrigorriaga

GRIPE, Maria (1988). *Txorimaloaren alaba*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

TERLOW, Jan (1989). *Eskutitz misteriotsua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

TERLOW, Jan (1990). *Piotr*. Itzul.: Antton Burgoa.

LOBE, Mira (1991). *Bandolariaren andregaia*. Itzul.: Xabier Mendiguren Bereziartu.

VIEIRA, Alice (1991). *Nire izenaren gorabeherak*. Itzul.: Antton Burgoa.

FERNANDEZ PAZ, Agustín (1992). *Iragarki-ipuinak*. Itzul.: Jon Suarez.

COMPANY, Mercè (1993). *Hor zehar jauzika*. Itzul.: Jon Suarez.

MARRIOTT, Janice (1993). *Lesleyri gutunak*. Itzul.: Xabier Mendiguren Bereziartu.

TERLOW, Jan (1993). *Katorengo errege*. Itzul.: Antton Burgoa.

TERLOW, Jan (1995). *Amildegia*. Itzul.: Xabier Mendiguren Bereziartu.

Aukeratu zeure abentura, Elkar/Timun Mas, Donostia

PACKARD, Edward (1987). *Superordenadorea*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

LEIBOLD, Jay (1987). *Sabotaia*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

BRIGHTFIELD, Richard (1988). *Piramideetako sekretua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

PACKARD, Edward (1988). *Nork hil zuen H. Thrombey?* Itzul.: Iñaki Mendiguren.

BRIGHTFIELD, Richard (1988). *Herensugeen gordelekua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

MONTGOMERY, R.A. (1988). *Lasterketa amaigabea*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

PACKARD, Edward (1988). *Jona da zure klabe-izena*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

MONTGOMERY, R.A. (1988). *Espazioaz harantzago*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

GOODMAN, Julius (1989). *Itsaspean altxor bila*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

MONTGOMERY, R.A. (1990). *Elurretako gizon nardagarria*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

LERME GOOGMAN, Deborah (1991). *Bermudetako triangelua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

KOLTZ, Tony (1991). *Banpiroen espresoa*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

Tamaina Ttikia saila, Pamiela, Iruñea

X.X. (1988). *Berdez jantzitako neska*. Itzul.: Xabier Etxaniz.

CARROLL, Lewis (1989). *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian*. Itzul.: Manu Lopez Gaseni.

CARROLL, Lewis (1990). *Ispiluan barrena*. Itzul.: Manu Lopez Gaseni.

BUSCH, Wilhelm (1990). *Max eta Moritz*. Itzul.: Pello Zabaleta.

PERRAULT, Charles (1993). *Perraulten ipuinak*. Itzul.: Genaro Gomez Zubia.

X.X. (1993). *Ali Baba eta berrogei lapurrak*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

X.X. (1995). *Aladin*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

X.X. (1996). *Sinbad marinela*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

Haur-gazte saila, Alfaguara / Desclée de Brouwer, Bilbo

AIKEN, Joan (1988). *Arabelen belearen ipuinak*. Itzul.: JUan Mari Sarasola.

DAHL, Roald (1988). *Azeri harrigarria*. Itzul.: Luigi Anselmi.

DURRELL, Gerald (1988). *Asto bahitzaileak*. Itzul.: Mª Victoria Unamuno Garate.

ENDE, Michael (1988). *Momo: edo denbora-lapurren eta gizonei denbora itzuli zien neskaren istorio arraroa*. Itzul.: Agustin Otxoa de Eribe.

FLEISCHMANN, SID (1988). *McBroomen baserri miragarria*. Itzul.: Itziar Gomez Barrondo.

HINTON, Susan E. (1988). *Errebeldeak*. Itzul.: Joxemari Iturralde.

KAHN, Michèle (1988). *A ze ordenagailua!* Itzul.: Antton Burgoa.

KERR, Judith (1988). *Hitlerek untxe arrosa lapurtu zuenean*. Itzul.: Mario Onaindia.

SOMMER-BODENBURG, Angela (1988). *Banpiro txikia*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

THORVAL, Kerstin (1988). *Thomas, maiatzeko astebete bat*. Itzul.: Joxe Antonio Sarasola.

COLLINSON, Roger (1989). *Labiniaren atzetik*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

DAHL, Roald (1989). *Boy (haurtzaroko kontakizunak)*. Itzul.: Maria Jose Kerejeta.

DAHL, Roald (1989). *Charlie eta txokolate fabrika*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

HINTON, Susan E. (1989). *Kaleko legea*. Itzul.: Joxemari Iturralde.

KÄSTNER, Erich (1989). *Puntutxo eta Anton*. Itzul.: Juan Legarreta.

KIRKEGAARD, Ole Lund (1989). *Orla igelontzi*. Itzul.: Juan Legarreta.

LODI, Mario (1989). *Txipi*. Itzul.: Miren M. Billelabeitia.

MUNRO, Hector Hugh (1989). *Bakerako jostailuak eta beste istorioak*. Itzul.: Mario Onaindia.

RODARI, Gianni (1989). *Makinaz idatzitako ipuinak*. Itzul.: Joxemari Iturralde.

BIEGEL, Paul (1990). *Hupsika bidelapurra*. Itzul.: Juan Legarreta.

DAHL, Roald (1990). *Bakarka hegal egiten*. Itzul.: Joxemari Iturralde.

ENDE, Michael (1990). *Amaigabeko istorioa*. Itzul.: Amaia Ugidos.

KIRKEGAARD, Ole Lund (1990). *Otto errinozerontea da*. Itzul.: Miren Billelabeitia.

LINDE, Gunnel (1990). *Harri zuria*. Itzul.: Juan Legarreta.

LOGEART, Brigitte (1990), *Ihesaren ondorioak*. Itzul.: Juan Legarreta.

LOUKI, Pierre (1990). *Aita zoragarria*. Itzul.: Juan Legarreta

SOMMER-BODENBURG, Angela (1990). *Banpiro txikia etxez aldatzen da*. Itzul.: Juan Legarreta.

CHRISTOPHER, John (1991). *Mundu hutsa*. Itzul.: Tomas Sarasola.

DAHL, Roald (1991). *Jifara, pelikanoa eta tximinoa*. Itzul.: Juan Legarreta.

DURRELL, Gerald (1991). *Fardel berritsua*. Itzul.: Elizabet Kruzeta.

GRIPE, Maria (1991). *Elvis Karlsson*. Itzul.: Juan Legarreta.

HÄRTLING, Peter (1991). *Makulu*. Itzul.: Juan Legarreta.

MARTIN, Andreu (1991). *Ez ezazu sardinarik eskatu garaiz kanpo*. Itzul.: Joxemari Iturralde.

NÖSTLINGER, Christine (1991). *Rosalindek asmoak ditu buruan*. Itzul.: Miren Billelabeitia.

SOMMER-BODENBURG, Angela (1991). *Banpiro txikia bidaian doa*. Itzul.: Gerardo Markuleta Gutierrez.

YEOMAN, John (1991). *Ermitaua eta hartza*. Itzul.: Juan Legarreta.

DAHL, Roald (1992). *Charlie eta kristalezko igogailu erraldoia*. Itzul.: Juan Legarreta.

DAHL, Roald (1992). *Danny, munduko txapelduna*. Itzul.: Garbiñe Legorburu.

GRIPE, Maria (1992). *"Benetako" Elvis*. Itzul.: Joseba Etxarri.

HÄRTLING, Peter (1992). *Theok alde egiten du*. Itzul.: Juan Legarreta.

KIRKEGAARD, Ole Lund (1992). *Virgil txikia*. Itzul.: Miren Billelabeitia.

NÖSTLINGER, Christine (1992). *Konrad edo kontserba poto batetik atera zen haurra*. Itzul.: Joxemari Iturralde.

NÖSTLINGER, Christine (1992). *Egin hegaz, koko!* Itzul.: Juan Legarreta.

PRESSLER, Mirjam (1992). *Txokolate garratza*. Itzul.: Juan Kruz Igerabide.

SOMMER-BODENBURG, Angela (1992). *Banpiro txikia arriskuan da*. Itzul.: Gerardo Markuleta Gutierrez.

Hegaz, Edelvives / I.K.A.

ALONSO, Fernando (1988). *Gegenioa*. Itzul.: Izaskun Arejita.

OLORIZ, Jesus (1988). *Izarra*. Itzul.: Izaskun Arejita.

MURCIANO, Carlos (1988). *Ilar*. Itzul.: Izaskun Arejita.

USLAR PIETRI, Arturo (1988). *Basanagusi untxitxoa*. Itzul.: Bibiñe Pujana.

BALZOLA, Asun (1990). *Ninoren historia*. Itzul.: Iñaki Amundarain / Amaia Pujana.

SEBASTIAN, Javier (1990). *Kataplasma mamua*. Itzul.: Ana Isabel Gonzalez / Amaia Pujana.

ALCANTARA, Ricardo (1990). *Nork laguntzen dau etxean?* Itzul.: Alfredo Sarriugarte.

BRIONES, Jose Manuel (1990). *Niko Trumoia*. Itzul.: Maite Bilbao / Karlos Santisteban.

CABAL, Ulises (1990). *Harrizko lehoiaren misterioa*. Itzul.: Ramon Etxebarria.

GOMEZ, Antonio A. (1991). *Osaba Joseba argaletan argalena*. Itzul.: Dorleta Alberdi.

Ala delta saila, Edelvives, Sondika

ALIBES, María Dolors (1989). *Bainu ordurako ipuinak*. Itzul.: E. Berazubi.

ALONSO ERRAUSQUIN, Manuel (1989). *Herensuge andrearen estualdiak*. Itzul.: Kaioa kultur elkartea.

ARMIJO, Consuelo (1989). *Matxafatoak*. Itzul.: E. Berazubi.

ARMIJO, Consuelo (1989). *Matxafatoak martxan berriro*. Itzul.: Juan Mari Sarasola.

BALLAZ ZABALZA, Jesús (1989). *Atzerritarraren haitzuloa*. Itzul.: Kaioa kultur elkartea.

ESTEBAN, Angel (1989). *Elefante baten egunerokoa*. Itzul.: Nekane Umerez.

MATEOS MARTIN, Pilar (1989). *Doneku Teleku*. Itzul.: Nekane Umerez.

SIERRA I FABRA, Jordi (1989). *Istorio harrigarriak*. Itzul.: Mª Eugenia Laboe.

ZAPATA LERGA, Pablo (1989). *Toloñoren haitzuloa*. Itzul.: Imanol Goienaga.

ZATON, Jesús (1989). *Laguntalde beldurgarria*. Itzul.: X.X.

ALCANTARA SGARB, Ricardo (1990). *Nork jasoko ditu txakurraren kakak?* Itzul.: Mari Eli Ituarte.

ALCANTARA SGARB, Ricardo (1990). *Nork laguntzen du etxean?* Itzul.: Ana Mallen.

ALCANTARA SGARB, Ricardo (1990). *Tomas eta lapitz magikoa*. Itzul.: X.X.

AMO, Alvaro del (1990). *Txanogorritxo bere ipuina kondatzen*. Itzul.: Nekane Umerez.

BALZOLA, Asun (1990). *Ninoren istorioa*. Itzul.: Iñaki Amundarain.

BOSCH, Lluis (1990). *Bartzelonako deabruak*. Itzul.: Mariola Agirrezabal.

BRIONES, Jose Manuel (1990). *Niko zirimola*. Itzul.: Karlos Santisteban.

CALLEJA, Seve (1990). *Anixeren liburua*. Itzul.: X.X.

CALLEJA, Seve (1990). *Pinpilinpauxa gardena*. Itzul.: E. Berazubi.

CAÑIZO, Jose Antonio del (1990). *Astotxoren burezurra*. Itzul.: Mª Eugenia Laboe Sagarzazu.

SEBASTIAN, Javier (1990). *Kataplasma mamua*. Itzul.: Aitor Gurrutxaga.

SORIA FERNANDEZ-MAYORALES, Pedro (1990). *Lopez eta Baldosillo detektibeak*. Itzul.: Kaioa kultur elkartea.

SOUZA, Jose Manuel (1990). *Nabarreria zeukan karramarroa*. Itzul.: Joxe Antonio Sarasola.

TERZI, Marinella (1990). *Arazo bat hanka eta guzti*. Itzul.: Joxe Antonio Sarasola.

ALIBES, María Dolors (1991). *Zopa hozteko ipuinak*. Itzul.: Edurne Lazkano.

MATEOS, Pilar (1991). *Izena galdu zuen printzesa*. Itzul.: Nekane Umerez.

Ziaboga saila, Bruño

TAKEYAMA, Michio (1990). *Birmaniako harpa*. Itzul.: Patxi Ezkiaga.

ALMARZEGI, J.M.; LALANA, F. (1990). *Bonba*. Itzul.: Juan Martin Elexpuru.

FUTRELLE, Jacques (1990). *Pentsatzeko makina*. Itzul.: Felipe Juaristi.

CALLEJA, Seve (1991). *Hamster bi kaiola baten barruan*. Itzul.: Xabier Monasterio.

LOPEZ NARVAEZ, Concha (1991). *Denbora eta hitza*. Itzul.: Felipe Juaristi.

TOWNSON, Hazel (1991). *Bili Mendibilen ibilerak*. Itzul.: Iñaki Goitia / Elisabeth Watson.

AA.AA. (1992). *Ametsetako lagun*. Itzul.: Felipe Juaristi.

PAEZ, Enrique (1992). *Ekarri nire eraztun astuna, tuntuna*. Itzul.: Iñaki Goitia.

MENDIOLA, Jose M. (1992). *Loraneko gaztelua*. Itzul.: Pello Esnal.

PEREIRA, Hilda (1992). *Mumu*. Itzul.: Pello Esnal.

PESTUM, Jo (1993). *Aintzirako altxor ezkutua*. Itzul.: Idoia Gillenea.

LOPEZ NARVAEZ, Concha; SALMERON, Carmelo (1994). *Goardalurra*. Itzul.: Pello Esnal.

VAZQUEZ-VIGO, Carmen (1994). *Urte askoan!* Itzul.: Pello Esnal.

COMPANY, Mercè (1994). *Lehoiaren hortzak*. Itzul.: Pello Esnal.

ESTEBAN, Angel (1995). *Kontaidazu eguzkiaren berri*. Itzul.: Iñaki Goitia.

Branka saila, Elkar, Donostia

BARKHOUSE, Joyce (1990). *Port Lajoyeko sorgina*. Itzul.: Txaro Idiakez.

LYONS, Pam (1990). *Mutil arteko neska*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

POE, Edgar Allan (1990). *Urre-zomorroa*. Itzul.: Txiliku.

AITMATOV, Txingiz (1991). *Lehenengo maisua*. Itzul.: Jesus Mari Lasa.

HOPE, Anthony (1991). *Zendako presoa*. Itzul.: Koro Navarro.

LONDON, Jack (1991). *Pirataren ibilaldia*. Itzul.: Karlos Gorrindo.

NÖSTLINGER, Christine (1991). *Ingeles bat etxean*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

PAUSEWANG, Gudrun (1991). *Hodeia*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

PHIPSON, Joan (1991). *Jo eta ihes*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

WILDE, Oscar (1991). *Cantervilleko mamua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

ZEI, Alki (1991). *Tigrea kristal atzean*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

CIRICI, David (1992). *Balearen eskeletoa*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

GOGOL, Nikolai (1992). *Sudurra*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

HAGGARD, Henry Rider (1992). *Salomon erregearen meategiak*. Itzul.: Aintzane Ibarzabal.

MARINEAU, Michèle (1992). *Kasiopea edo Uda bat poloniar artean*. Itzul.: Juan Kruz Igerabide.

PLANTE, Raymond (1992). *Azken babalorea*. Itzul.: J. Sarasola.

SCHAMI, Rafik (1992). *Eskua bete izar*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

STEVENSON, Robert Louis (1992). *Botilako deabrua*. Itzul.: Maria Garikano.

TOWNSEND, Sue (1992). *Adrian Moleren egunkari ezkutua (adina 13 3/4)*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

X. X. (1992). *Xerezaderen gauak*. Itzul.: Txiliku.

DODGE, Jim (1993). *Xele*. Itzul.: Josean Insausti.

DURRELL, Gerald (1993). *Bi txango*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

MACFARLANE, Aidan (1993). *Gazte hipokondriako baten egunkaria*. Itzul.: Iñaki Ugarteburu.

MARTIN, Andreu (1993). *Postariak beti deitzen du mila aldiz*. Itzul.: Iñaki Ugarteburu.

AITMATOV, Txingiz (1994). *Jamilia*. Itzul.: J. K. Igerabide.

DAHL, Roald (1994). *Henry Sugarren ixtorio miresgarria*. Itzul.: Luis Berrizbeitia.

DOYLE, Arthur Conan (1994). *Sherlock Holmes eta itsas tratatua*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

FIECHTNER, Urs M. (1994). *Anaren historia: desagertu baten historia*. Itzul.: Xabier Mendiguren Bereziartu.

HÄRTLING, Peter (1994). *Lena teilatuan*. Itzul.: Pello Zabaleta.

TWAIN, Mark (1994). *Hiru kontakizun*. Itzul.: Koro Navarro.

FINE, Ann (1995). *Madame Doubtfire*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

JEIER, Thomas (1995). *Apatxe zuria: Santiago McKinn-en historia*. Itzul.: Pello Zabaleta.

LLOBET, Glòria (1995). *Zer duzu, Nuria?* Itzul.: Ales Bengoetxea.

LONDON, Jack (1995). *Hego itsasoetako hiru istorio*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

MERIMEE, Prosper (1995). *Mateo Falcone eta beste zenbait istorio*. Itzul.: Koldo Izagirre.

PLANTE, Raymond (1995). *Saltxitxak eguzkipean*. Itzul.: J. K. Igerabide.

SALES, Francescs (1995). *Ordenadorean idatzia: hamabost urteko mutil baten egunkaria*. Itzul.: Iñaki Ugarteburu.

SIMO, Isabel-Clara (1995). *Raquel*. Itzul.: Iñaki Ugarteburu.

STOKER, Bram (1995). *Drakularen etxean*. Itzul.: Joxemari Azurmendi.

Xaguxar saila, Elkar, Donostia

CALLEJA, Seve (1991). *Pol eta Puy*. Itzul.: Joan Mari Sarasola.

KÄSTNER, Erich (1991). *Emilio eta detektibeak*. Itzul.: Tomas Sarasola.

ZIMNIK, Reiner (1991). *Tigretxo orroelaria eta gangsterrak*. Itzul.: Xabier Zaldua.

HÄRTLING, Peter (1992). *Franze*. Itzul.: Xabier Mendiguren.

ITURBIDE, Montxo (1992). *Antzerkilandia*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

JONES, Terry (1992). *Nikobobino*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

KÄSTNER, Erich (1992). *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* Itzul.: Antton Narbaiza.

NEUSCHÄFER-CARLON, Mercedes (1992). *Gaizki ateratako argazkia*. Itzul.: Xabier Monasterio.

AIKEN, Joan (1993). *Zentzu bakarreko kalearen ipuina*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

CALLEJA, Seve (1993). *Isu, hortzik gabeko marrazoa*. Itzul.: Aitor Arana.

FERNANDEZ PAZ, Agustín (1993). *Lore erradiaktiboak*. Itzul.: Patxi Elizegi.

FLUIXA, Josep Antoni (1993). *Etxeorratzeta*. Itzul.: Patxi Elizegi.

X.X. (1993). *Hegoamerikako ipuinak*. Itzul.: Tomas Sarasola.

SWIFT, Jonathan (1993). *Gulliver Liliputen*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

BYARS, Betsy (1994). *Azeri beltza*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

BYARS, Betsy (1994). *Burbuila: mila kiloko arraina*. Itzul.: Patxi Zubizarreta.

HAUGEN, Tormond (1994). *Ate atzeko sekretuak*. Itzul.: Rosemiren Artola.

LINDGREN, Astrid (1994). *Pippi Kaltzaluze*. Itzul.: David Urbistondo.

RODARI, Gianni (1994). *Gezi urdina*. Itzul.: Aitor Arana.

SECHAN, Olivier (1994). *Sasi arteko ezkutalekua*. Itzul.: Joxantonio Sarasola.

WEST, Margaret (1994). *Aitaren bila*. Itzul.: Iñaki Mendiguren.

AUERBACHER, inge (1995). *Izar bat naiz*. Itzul.: Juan Kruz Igerabide.

DOCAMPO, Xabier (1995). *Kanpai hotsen misterioa*. Itzul.: Juan Kruz Igerabide.

GOMEZ UGARTE, Amado (1995). *Bidaia ahaztezina*. Itzul.: Joan Mari Sarasola.

LOBE, Mira (1995). *Amona sagar gainean*. Itzul.: Joxeantonio Ormazabal.

SENNELL, Joles (1995). *Arkatz fantastikoa*. Itzul.: David Urbistondo.

Kimutxo Saila, Gero (Mensajero), Bilbo

X.X. (1991). *Lehoikumea*. Itzul.: Orixe.

SALABERRIA, Garbiñe (1991). *Zazpimintzo herensugea eta Eider ederra*. Itzul.: Karlos Santisteban.

MURO, Angel (1991). *Amonak jan eta jan eta gauza guztiak hegan*. Itzul.: Karlos Santisteban.

CALLEJA, Seve (1991). *Sator Jator Jauna*. Itzul.: Xabier Monasterio.

ANDERSEN, Hans Christian (1991). *Lo eta ametsen iratxoa*. Itzul.: Tomas Sarasola.

MERINO, Jose Luis (1992). *Gizontxoa eta txoria*. Itzul.: Xabier Amuriza.

ADAO NETO, Pascoal Pedro (1992). *Angolako ipuinak*. Itzul.: M. Jose Rivas.

GOMEZ, Juan Clemente (1992). *Txiuso*. Itzul.: Carmen Elvira.

KIPLING, Rudyard (1992). *Karrazka-marrazka*. Itzul.: Carmen Elvira.

ITURBIDE, Montxo (1993). *Txangoz Txano Gorritxorekin*. Itzul.: Aurelio Erdozain.

ALCOTT, Louisa May (1993). *Antsigar erregea*. Itzul.: Roberto Mielgo Merino.

MURO, Angel (1993). *Animaliategia*. Itzul.: Aurelio Erdozain.

SALAZAR, Ernesto (1993). *Musuxamur, musupupu eta masailgorri*. Itzul.: Roberto Mielgo Merino.

SERNA ANDRES, Jose (1993). *Hondarrezko arraina*. Itzul.: Aurelio Erdozain.

DIAZ-PLAJA, Aurora (1995). *Tania eta Noeren Arka*. Itzul.: Mari Eli Ituarte.

OTXOA, Julia (1995). *Lukas eta hontza*. Itzul.: Mari Eli Ituarte.

PEREZ DIAZ, Enrique (1995). *Azken desioa*. Itzul.: Mari Eli Ituarte.

WEBSTER, Wentworth (1995). *Tartalo eta herensugea*. Itzul.: Roberto Mielgo.

Espazio irekia, Anaya-Haritza, Etxebarri

ALONSO, Manuel L. (1995). *Jack berriro*. Itzul.: Dorleta Alberdi.

ALONSO, Manuel L. (1995). *Iruzurtia*. Itzul.: Itziar Bilbao.

VENTURA, Enrique (1995). *Lau katu*. Itzul.: Itziar Bilbao.

MARTIN, Andreu; RIBERA, Jaume (1995). *Detektibe guztiak Flanagan dira*. Itzul.: Itziar Bilbao.

ROCA, Maria Mercè (1995). *Benetakoa bezala*. Itzul.: Igone Etxebarria.

ZIEGLER, Reinhold (1995). *Esan Super eta kito*. Itzul.: Jabier Etxeberria.

MARTIN, Andreu (1995). *Hutsaren hurrengoa*. Itzul.: Iratxe Goikoetxea.

MARTIN, Andreu; RIBERA, Jaume (1995). *Ez garbitu eskuak, Flanagan*. Itzul.: Iratxe Goikoetxea.

Haur literatura (morea), Alfaguara-Zubia, Etxebarri

DAHL, Roald (1993). *Super-Azeri*. Itzul.: Mikel Garmendia.

DAHL, Roald (1993). *Hatz magikoa*. Itzul.: Joseba Ossa / Xabier Monasterio.

NÖSTLINGER, Christine (1994). *Markel, Maddi eta Maluta*. Itzul.: Josemari Navascués.

FINE, Anne (1995). *Enekoren soineko arrosa*. Itzul.: Agurtzane Ortiz de Landaluze.

DAZINGER, Paula (1995). *Lagun-lagunak*. Itzul.: Xabier Monasterio.

Haur literatura (laranja), Alfaguara-Zubia, Etxebarri

KÄSTNER, Erich (1993). *Animalien biltzarra*. Itzul.: Joseba Ossa.

SOMMER-BODENBURG, Angela (1993). *Banpiro txikia*. Itzul.: Xabier Monasterio.

LUND KIRKEGAARD, Ole (1994). *Otto errinozerontea*. Itzul.: Mikel Garmendia.

Haur eta Gazte literatura (urdina), Alfaguara-Zubia, Etxebarri

DURRELL, Gerald (1993). *Asto-bahitzaileak*. Itzul.: Agustin Otsoa de Eribe.

DAHL, Roald (1993). *Matilda*. Itzul.: Agurtzane Ortiz de Landaluze.

DAHL, Roald (1994). *Charlie eta txokolate-lantegia*. Itzul.: Agurtzane Ortiz de Landaluze.

MATTINGLEY, Christobel (1995). *Asmirrek ez du pistolarik nahi*. Itzul.: Ainhoa Basterretxea.

Gazte literatura (gorria), Alfaguara-Zubia, Etxebarri

HINTON, Susan E. (1994). *Errebeldeak*. Itzul.: Josemari Navascués.

MARTIN, A.; RIBERA, J. (1995). *Ez eskatu sardinarik sasoiz kanpo*. Itzul.: Agurtzane Ortiz de Landaluze.

VIII.2 Zenbait itzultzaileren datu bio-bibliografikoak

VIII.2.1. Lehen urtealdiko zenbait itzultzaileri buruzko ohar bio-bibliografikoak.

Altuna Aldasoro, Joseba (Bilbo, 1888-Bilbo, 1971)

Euskaldunberria, Bizkaiko Foru Aldundiko euskara irakaslea izan zen 1936 arte. Artikulu, sor-lan eta literatur iruzkinak idatzi zituen aldizkari askotan, hala nola *Euzkadi*, *Euzko-Deya*, *Euzkerea*, *Patria Vasca*, *Hermes*.

Egin zituen itzulpenen artean, "Esopo'ren Ipuñak" (*Euzko-Deya*, 1921-22), *Oscar Wilde'ren Ipuñak* (Bilbo, 1927), "Afanasiev'en Ipuñak" (*Euzkerea*, 1930-32), *Grimm anayak. Ipuñak* (Bilbo, 1929), *Negarrez igaro zan atsua* (M. Sota-ren antzerki-lana, Bilbo, 1933), eta beste batzuk.

Archu, Jean Baptiste (Altzürükü, 1811 - La Reole, 1881)

Francisque-Michel Irigaray eta Bonaparte printzearen kolaboratzailea izan zen. Bere obren artean, *Uskara eta Franzes Gramatika, uskalherrietaco haurrentzat egina* (1852) dago. Itzultzaile oparoa izan zen; beste askoren artean honakoak euskaratu zituen: La Fontaineren Aleghia-berheziak, neurthitzez frantzesetik uskarara itzuliak (1848), *Ruthen libria*, *Jonasen libria*, *Salomonen kantikak*.

Arrue, Gregorio (Hernani, 1811 - 1890)

Fraidetzari utzita, maisua eta itzultzailea izan zen, azken langintza honetan Bonaparte eta Van Eys-en laguntzaile gisa.

Itzultzaile bezala, euskalkien arteko aldaketak egin zituen; gainera, Kempisen *Kristoren imitazioa* (Tolosa, 1887), García Mazo-ren *Kristauaren dotriña* (Donostia, 1858), S. Alfonsoren *Mariaren Gloriak* (Azpeitia, 1881) eta beste euskaratu zituen. Guztien artean ezagunena Schmid-en *Santa Jenobebaren bizitza* (Tolosa, 1885) izan zen.

Garro Basterretxea, Bernardo "Otxolua" (Mundaka, 1891-Bilbo, 1960)

Merkataritzako ikasketak burutu ondoren, hemeretzi urte zituela, Argentinara joan zen, eta bertan zazpi urte eman zituen. Itzuli zenean, ezkondu, eta Astoreka ta Azketa etxean lan egiten hasi zen ordezkari gisa. Euskaltzaina izan zen.

Lan gehienak *Euzkadi* egunkarian argitaratu zituen. Nabarmenenak hauexek dira: *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarrijak* (Della Croce-ren obraren itzulpena, Bilbo, 1932), "Abere dontsuak" (ingelesetik itzulia, *Euzkadi*, 1936), "Abere Ipuñak, kontu-kontari esanak" (ingelesetik itzuliak), Barbierren *Ixtorio-Mixterio* ipuin bilduma bizkaieraz jarri zuen (*Euzkadi*).

Larrakoetxea Agirrezabala, Alejandro "Legoaldi" (Zeanuri, 1892 - Markina, 1976)

Eliz izenez, Aita Ipolito, karmeldarra. Filosofia eta Teologia ikasi zituen Burgos eta Gasteizen, eta geroztik irakasle bezala aritu zen, Begoñan eta Kalaorran. Erromara joanik, Eliz-Legeetan doktoratu zen, eta han ere irakasle ibili zen.

Euzkadi, *Euzko* eta *Euzkeltzale Bazkuna* delakoetan hasi zen idazten. *Grimm Anayen Berrogetamar ume-ipuin* (Bilbo, 1929) euskaratu zituen, lehenengo *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratu batziren.

Manterola Urigoitia, Gabirel (Zeanuri, 1890 - Zeanuri, 1977)

Gasteizko Apaiztegian Filosofia eta Teologia ikasita apaiz egin zen. Gerra Zibila piztu zenean, Ingalaterrara bidali zuten ume talde baten buru, eta bertan geratu zen 1948 arte. Geroztik Zeanurin egon zen abade laguntzaile.

Euskaltzain urgazle izan zen. Aldizkari askotan eman zituen ezagutzera bere lanak: *Jaungoiko-Zale*, *Euzkadi*, *Zeruko Argia*, *Yakintza*, *Argia*, *Karmel*, *Olerti*, *Redención* eta *Agur* delakoetan. Bere obra nabarmenenak *Goi-izpiak* (Zornotza, 1921), *Santuen*

bizitza laburrak (Bilbo, 1925) dira. Euskarara egin zituen itzulpenen artean, berriz, Schmid-en *Ipuñak* (Zornotza, 1929) eta *Maria'ren Lejiñoaren aintzat emandako Esku-idaztia* (The Official Handbook of the Legion of Mary, argitaratu gabea). Beste eliz liburu asko ere gaztelaniara itzuli zituen.

Mogel, Bizenta (Azkoitia, 1782 - Abando, 1854)

Juan Antonio Mogelen iloba zen. Aita sendagilea hil zitzaiolarik, Markinara joan zen bere neba Juan Joserekin batera, osabarengana. Honengandik ikasi zuen latina, eta idazteko zaletasuna jaso ere bai.
Bere obrak hauexek izan ziren: *Ipui onac* (Donostia, 1804), latinetik euskaraturiko Esoporen alegiak, eta *Luis de Borbon Erromako Elexa Santuko Kardenal Arzobispo Toledokua neure Elexa lehenkari onetako kabildu gustiz maitiari* (Bilbo, 1820), artzapezpikuak gaztelaniaz emandako pastoralaren euskal itzulpena.

Oleaga Muguruza, Nazario (Bilbo, 1884-Bilbo, 1961)

Zuzenbide ikasketak Deustun eta Salamankan egin zituen. Abokatutzan aritu zen Bilbon, bertako Abokatuen Elkarteko Burua izan zelarik, eta Zeanuriko idazkari ere izan zen. Euskaltzaindiaren barruan, idazkaria eta *Euskera* aldizkariaren zuzendaria izan zen. Argitaratu zuen liburu bakarra *Zurtasun-gogoa*. *Umeentzat oartxo egokiak* (Bilbo, 1923) itzulpena izan zen.

Ormaetxea, Nicolas "Orixe" (Orexa, 1888 - Añorga, 1961)

Jesuitetan sartuta, herri askotan ibili zen, 1923an Lagundia utzi zuen arte. Geroztik Bilbon eta Orexan bizi izan zen. Gerra Zibila hasi zenean preso egon zen Iruñean, eta ondoren Frantzian eta Amerikan bizi izan zen. 1954an Euskal Herrira itzuli zen.
Orixeren obren artean aipagarrienak *Barne-Muinetan* (Zarautz, 1934), *Euskaldunak* (Zarautz, 1950), *Santa Cruz apaiza* (Donostia, 1929), "Quito-n arrebarekin" (*Euzko Gogoa*, 1950-54) dira. Itzultzaile nekaezina ere izan zen; besteak beste, honakoak euzkaratu zituen: *Tormes'ko itsu-mutilla* (Bilbo, 1929), *Mistral-en*

Mireio euskeraz (Bilbo, 1930), *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak* (Zarautz, 1956), *Leoi-kumea* (Paris, 1948).

Paskual Iturriaga, Agustin (Hernani, 1778 - Hernani, 1851)

Bere jaioterriko apaiza izan zen. Bertan, gazteak hezitzeko ikastetxe bat ireki zuen. Gorputz zigorrak baztertu, eta irakaskuntz metodo berriak entseiatu zituen, oso emaitza onak lortu zituelarik.

Bere obra nagusiak hauek dira: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (Hernani, 1841) eta *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (Hernani, 1842). Alegia batzuek itzulpena ere egin zuen: *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* (Donostia, 1842).

Zabala, Juan Mateo (Bilbo, 1777 - Zarautz, 1840)

Fraile frantziskotarra izan zen. Larramendi eta Astarloaren lanen bidez hobetu zuen euskararen ezagutza. Bilboko komentuko "Filosofia irakurtzaile" aritu zen lau urtez. Napoleonen armada sartu zenean, Galiziara joan zen ihesi, eta gero Zarautzera itzuli zen.

El verbo regular bascongado del dialecto vizcaíno (Donostia, 1848) izan zen bere obra nagusia. Gainera, "Fábulas en dialecto vizcaíno" direlakoak euskaratu zituen, gerora Julio Urkijok RIEVen argitaratutakoak, alegigile batzuengandik hartutakoak.

VIII.2.2. Bigarren urtealdiko zenbait itzultzaileri buruzko ohar bio-bibliografikoak.

Berasaluze, Sabin (Forua, 1935)

Frantziskotarrekin ikasten hasi zen, baina ez zuen bukatu. Gerora, Ekonomia ikasketak egin zituen Bilbon. Zenbait ipuin eta artikuluren egilea da *Aránzazu*, *Euzko Gogoa*, *Egan* eta *Yakin*

aldizkarietan. Itzultzaile bezala, alemanieratiko itzulpen batzuk egin ditu, eta haur literaturaren arloan Carlos Bernal Araluzeren *Pipo, Konejutxu Arroa* (1957), *Nini, Konejutxu Argia* (1960) eta *Doni, Konejutxu Negartia* (1960) euskaratu zituen.

Mujika Berrondo, Plazido (Urnieta, 1906 - Loiola, 1982)

Jesuslaguna eta euskaltzain urgazlea izan zen. Ikasketak Euskal Herrian, Burgosen, Belgikan eta Holandan egin zituen. Zenbait aldizkaritan kolaboratzailea izan zen: *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Argia*, *El Día*, *Yakintza*, *RIEV*.

Hiztegigilea izan zen: *Diccionario Latino-Español* (Madril, 1940), *Diccionario Castellano-Vasco* (Bilbo, 1965), *Diccionario Vasco-Castellano* (Bilbo, 1973). Itzulpenak ere egin zituen; ezagunenak hauexek dira: Jon Svensson-en *Noni eta Mani* (Zarautz, 1952) eta Franz Weiser-en *Mendiko Argia* (Bilbo, 1968).

Etxaide Itarte, Jon (Donostia, 1920 - 1998)

Delineatzailea lanbidez, *Egan*, *Euzko Gogoa*, *Gernika*, *Yakin*, *Gure Herria*, *Karmel*, *Olerti*, *Zeruko Argia*, *Aránzazu* eta *El Diario Vasco* aldizkari-egunkarietan kolaboratzaile izan zen. Euskaltzaindiak Ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

Bere lehen lanak *Alostorrea* (1950) eta *Purra! Purra!* (1953) izan ziren. Ondoren, bere obrarik ezagunena argitaratu zuen, *Joanak joan* (1955). Geroago, *Pernando Plaentxiatarra* (1957), *Gorrotoa lege* (1964), *Begia begi truk* (1964), eta beste etorriko ziren. Itzulpengintzaren arloan, Pio Barojaren Las inquietudes de Shanti Andía-ren euskal itzulpena egin zuen: Itsasoa laño dago... (1959), eta baita Isidoro Fagoagaren *Domiku Garat. Biltzararen defendatzaile* (1979) itzulpena ere.

Etxebarria Martin, Juan Anjel (Santurtzi, 1934-Gernika 1996)

Irakaslea, euskaltzain urgazlea da. Hainbat aldizkaritako kolaboratzailea izan da: *Zeruko Argia*, *Karmel*, *Olerti*, *Jesus'en Biotzaren Deya*... Bere poesiak "Dirauket" ezizenez sinatu izan ditu.

Idatzitako lanen artean, *Gurutz bidea* (1966), *Maitale galdua* (1966), *Lo ta amets* (1967), *Basoko lorea* (1967), eta beste daude. Itzulpenen artean, berriz: *Charles Perrault'en ipuiñak* (1965), *Martial'en ziri-bertsoak* (1965), *Phedro'ren alegiak* (1965-66), Lope de Vega-ren *Bakar-autoak* (1966), *Agustin Deunaren eskutitzak* (1966), *Esopo'ren alegiak* (1967), *Andersenen Ipuiñak* (1969), besteak beste.

Garmendia Etxeberria, Xalbador (Zaldibia, 1932)

Apaiz egin ondoren, Teologia ikasketak burutu zituen Erroman. Idazle eta itzultzailea, bere obrak *Historia triste bat* antzerkilana, *Lurraren kondaira* (1970), *Beltza! Beltza!* (1990) dira. Gainera, haurrentzako testuliburu eta ipuin bildumak prestatu ditu. Itzultzaile gisa, berriz, Euskal Kontseilu Nagusiko lehen itzultzailea izan zen, eta EAEko estatutuaren itzultzailea izan zen; gainera, Camus-en *Gizon zuzenak*, Saint-Exupéry-ren *Printze Txikia*, García Márquez-en *Heriotz iragarritako baten kronika*, eta beste liburu asko euskaratu ditu. Euskaltzain urgazlea da.

Satrustegi Zubeldia, Jose Maria (Arruazu, 1930)

Apaiz eta etnografoa, aldizkari askotan idatzi du. Euskaltzain osoa da. Bere obren artean, hauek aipa daitezke: Euskal izendegia (1972), Euskaldunen eskubideak (1975); gaztelaniaz ere baditu zenbait obra. Itzultzaile gisa ere, liburu batzuk argitaratu ditu: Sánchez-Silva-ren *Ardo ta Ogi Martxelin* (1970), Hoffman-en *Intxaur koskailua* (1973), Carroll-en *Alizia* (1974), eta beste.

VIII.2.3. Hirugarren urtealdiko zenbait itzultzaileri buruzko ohar bio-bibliografikoak.

Mendiguren, Iñaki (Ezkio-Itsaso, 1954)

Filosofia eta Letretan lizentziatua, irakasle gisa lan egin zuen. Ondoren, itzultzaile lanetik bizitzea erabaki zuen, enpresa, erakunde

eta argitaletxeentzako itzulpenak egiten. Azken hauen artean, "Aukeratu zeure abentura" eta "Irakurmendi" bildumak euskaratu ditu; gainera, "Branka", "Xaguxar" eta "Bapore" bildumetako liburu ugariren itzultzailea da. *Elizen Arteko Biblia*ren itzultzaile-taldean ere ibili da, eta baita "Pentsamenduaren Klasikoak" bildumako titulu bat burutzen. Sorkuntzaren aldetik nobela bat argitaratu du: *Haltzak badu bihotzik* (1990).

Mendiguren Bereziartu, Xabier (Ezkio-Itsaso, 1945)

Filosofia eta Teologia ikasketak egin ditu. Ikastolak sortu ziren garaian irakasle ibili zen, eta Iker talde pedagogikoaren partaide izan zen. Martuteneko Itzultzaile Eskolaren sortzailea izan zen 1980an, eta bertako zuzendari ere bai. Geroago, Gasteiz eta Deustuko Unibertsitateetako Itzulpen Masterretan traduktologia irakasle izan da. Bertan egindako lanaren ondorio dira *Itzulpen teoriazko ezagupenak* (1983), *Itzulpengintza: Historia eta Teoria* (1992) eta *Euskal itzulpengintzaren historia laburra* (1995). Itzulpengintzaren inguruko gaiez artikulu ugari idatzi ditu *Senez* eta *RIEV* aldizkarietan. Itzulpen praktikaren arloan ere lan asko egindakoa da: testuliburuak, helduen literatura, Pentsamenduaren Klasikoak bilduma, haur eta gazte literatura. Euskaltzain urgazlea da, eta Euskadi Itzulpen sariaren jabe (1989).

Mendiguren Elizegi, Xabier "Patxi Elizegi" (Beasain, 1964)

Euskal Filologia ikasi zuen. Idazlea, itzultzailea eta editorea, hainbat libururen egile eta laurogei bat haur libururen itzultzailea da, Ttarttalo argitaletxekoak denak. Haur eta gazte literaturaren alorrean hogei bat titulu argitaratu ditu, besteak beste, *Harrika* (1989), *Patakon* (1992), *Irakasle alu bat* (1995).

Ormazabal Berasategi, Joxantonio (Zegama, 1948)

Apaiztegiko ikasketak utzita, maisutza ikasi zuen Irakasle Eskolan, eta lanbide horretan aritu zen zenbait ikastolatan. Bertan, Saioka metodoaren hizkuntza arloko liburu batzuen prestaketan parte hartu zuen, eta orduan piztu zitzaion haurrentzat idazteko gogoa. Handik

urte batzuetara, Elkar argitaletxean hasi zen lanean, haurrentzako liburu bildumen arduradun moduan, eta lan horren ondorio dira gerora egindako sor eta itzul lanak. Sortutakoen artean, hauek aipa daitezke: *Margolin*, *Kotti*, *Patxibusa*, *Maripertxenta*, *Hitzak jostailu*, eta beste asko. Itzulitakoen artean, berriz, 300 titulu inguru euskaratu ditu.

Sarasola, Jose Antonio

Deustuko Unibertsitateko Itzulpen Masterreko irakaslea da, eta bikoiztetxe bateko itzultzaile eta zuzentzailea ere bai. Literatur itzulpenak egin ditu "Literatura Unibertsala" bilduman, eta haur eta gazteentzat Alfaguara eta Elkar argitaletxeetan.

Suarez Barrutia, Jon (Elgoibar, 1962)

Maisua lanbidez, haurrentzako hogei bat libururen itzultzailea da, gehienak SM argitaletxekoak. Azken urteotan haur eta gazteentzako liburuak idazten hasi da: *Kaixo, Mirna* (1996), *Saguarekin klik!* (1997), eta beste.

VIII.2.4. Bibliografia

AUZMENDI, Lurdes; BIGURI, Koldo, ed. (1996). *Itzulpen Antologia I*. Donostia: EIZIE.

BILBAO, Jon (1970-1981). *Eusko Bibliographia. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo C.* (10 liburuki). Donostia: Auñamendi.

BILBAO, Jon (1985-1996). *Eusko-bibliographia* (4 liburuki). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

CALLEJA, Seve (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986 arte*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa.

ETXANIZ, Xabier; OLAZIREGI, Marijose (1998). *Euskarazko haur eta gazte literatura idazleak*. Iruñea: Pamiela.

IRIBAR, Maite (1991). "Bizenta Mogel", in MOGEL, Bizenta Antonia,*Ipui onak*, Donostia: Elkar.

ONAINDIA, Santi (1975, 1977). *Euskal Literatura (IV eta V)*. Bilbo: Etor.

VILLASANTE, Luis (1979). *Historia de la literatura vasca*. Burgos: Ed. Aranzazu. 2. ed.

AA. AA. (1968-1981). *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo B*. (5 liburuki). Auñamendi.